

**Joxe Aierbe**

# **Agindua zor**

**Argitalpena: Joxemari Iriondo**

---

**Auspoa Liburutegia**

**309**

AIERBE, Joxe

Agindua zor / Joxe Aierbe ; argitalpena, Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2008.

306 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 309)

Aurkibidea

LG SS 293-2008. - ISBN 978-84-7907-587-3

I. Iriondo, Joxe Mari, ed. lit. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

821.361-3"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-587-3

Legezko Gordailua: S.S. 293-2008

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Joxe Aierbe**

# **Agindua zor**

**Argitalpena: Joxemari Iriondo**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2008

Bertso-liburu bat egitea  
pentsatu egun batean;  
ez dakit nola, baiña bai egin  
ere “Alako batean”<sup>1</sup>.  
Ta bertso danak nola ez diran  
sartu liburu batean,  
agian, beste bat aterako  
degu alako batean.

---

<sup>1</sup>Nere leen liburuaren izena



# Sarrera

---

Atariko antzera

Elkarrizketara jo nai izan dugu Joxe Aierbe idazle finaren azkenengo urteetako lanak biltzen dituen liburu honen aurkezpena egiteko, bere nondik norakoak inork baino hobeto kontatuko dituela pentsatuta.

**–Altzako Ubegi baserrian jaio zinen zu, 1934ko urtarillaren 20an, baina Donostiako Loiola auzoan bizi zera aspalditxoan ere.**

–Bai, ezkondu giñanean, Loiola auzoan artu genuen etxea, eta antxe bizi gera geroztik. Altzatarra naiz jaiotzez, baiña, bide batez, loiolatar ere sentitzen naizela esango nizuke, gus-tora bizi naiz-eta ementxe.

Aita zenaren eragina

**–Zuen aita Bartolo Aierbe zenak eragin handia izan zuen zuegan, oso oker ez banago.**

–Eragin aundia izan zuen gure aita zanak neregan, bai. Eragin aundia bertso-munduan, eta baita euskera gauzetan ere. Baiña esan bearra daukat, bai aitona eta, batez ere, gure ama zanak izan zutela zerikusirik, aitona bertso zaar kantari aspergaitza eta ama bertsozale amorratua zalako. Eta batipat famili arteko jai eta bilkura berezietan bera asten zan zirikatzen, “Zer, gaur ez al dezute bertsorik kantatu bear ala?” esanez.

Orduan, bi aldiz esan bearrik gabe, aita asiko zan, batez ere, bertso zaarrak kantatzen. Eta guk ere genekien eta aal genuen neurrian laguntzen genion, eta ura izugarritzko gozamenaren izaten zan guretzat.

Etxean alako zaletasuna eta giroan bizi izanda ez da bate-re arritzekoa gu bertozaleak izatea. Lau anaia eta arreba gera eta denok degu zaletasuna, gutxi asko, eta ori normaltzat joenezake. Baiña normala ez dana zera da, nere ustez: Alako giro edo ambiente artatik bertsolari dala esateko moduko iñor ez irtetea. Ori da arrigarria. Nik zerbait idazten-eta aalegin bat egin dedala? Bai, ala da, baiña senideak baiño ausartagoa eta saltseroagoa, edo, baitere, aukera geiago izan dedalako izango da ori, seguru asko, nere burua ez baitaukat bertsolaritza, ezta gutxiagorik ere. Gertatzen dana, “zaletasuna buruan eta ibili munduan”. Orixe. Eta gauza naizen arte orrela ibiliko naizela uste det onezkeru. Barkatu.

Gure aita zana Gipuzkoa’ko Goierriko basarritar peto-pettoa zan, baiña familiko guraso gozoa eta gauza berriak ikaragarri gustatzen zitzaizkiona. Aurrerakoia eta jendeartekoa zan. Leengo gauzak erruz maite zituen, baiña beti aurrera begiratzen zuen ark. Eta aurrera begiratu eta garaian garaiko izaten erakutsi zigun guri ere, antziñako oiturak bazterrera utzi gabe, beti ere.

**–Bertsogintza munduan ez ezik, eguneroko baserri-lanetan ere eragin handia izan zuen.**

–Ez legoke esan bearrik ere, baiña ikaragarri maite niñun gure aita zanak. Norabait joan bear zanean, edo zerbait berezia egin bear zanean, nerekin batera joatea gustatzen zitzaion, bearbada beste senideak baiño ausartagoa nintzalako, edo berak ainbat maite zuen bertso-kontuetan buru-biotz sartuta ikusten niñulako. Ume-umetan ere, baserriko lanetan, sega pikatzen, segan eta baserriko beste zeregiñetan erakutsi zidan, eta bai nik gustura ikasi ere. Badakit gero lagun artera joan eta arrotasunez –ez arrokeriz– esaten omen zuela sega nik neuk pikatzen nuela, eta segan ere edozein gazteren maillan egiten nuela, eta ola. Askotan bere lagunekin zegoela, “Au nere semea da, eta eztakizute segan nola egiten duen” esaten zien.

Sega pikatzen amabi urtetik gora salto aundirik gabe ikasiko nuen nik.

Bestalde, aita zan neretzat baiña lagun bezela ibiltzen giñan askotan biok ara eta ona. Osasunez ibiltzen zan makal xamar. Baratzara edo zelaira joan, eta “eniok ondo” eta larri ibiltzen zan, gizajoa. Estomagu eroria zeukala esan zion sendagilleak bein. Izan ere, urduria, nerbiosua ere bazan ura, begiratu batera alaxe ematen ezpazuen ere. Gau txar asko pasatako gizona zan. “Bart ere eztiat lorik egin”, sarritan entzun nion, eta oira joandakoan baiño nekatuago eginda jai-kitzen zala goizean askotan, jotako zakurra bezela. Eta gero egun guzian lanean ari bear!

Bertso-munduari dagokionez, txikia nintzala ezagutu nituen nik gure etxean egiten ziran lagunarte ederrak. Ikara-garri gustatzen zitzaion lagunarte oiek egitea aitari, eta barri-kote bat edota afarimerienda, beti bazuen zeoze prestatzeko gaia. Lagunarteak maite zituen, eta bertsolari edo erdi bertsolari eta olakoak asko etortzen ziran gurera, barrikoteak egiñez. Gaztaña erre janak ere askotan prestatzen zituen, udazken garaian batez ere. Eta orrelako aitzakiak erabiliz auzoko lagunak elkarrengan biltzen saiatzen zan.

Eta ni ere gustura gure aita eta auzokoak bertsoan nola aritzen ziran ikusita. Arri ta zur egoten nintzan askotan aiei begira; etziran bertsolari on-onak izango, bearbada, baiña an aritzen ziran umore ederrean, eta ni zorutzen aiei begira.

### **–Zeuk kantatzen al zenuen bertsorik?**

–Bakarrik eta lagunekin ere bai, bertso puntu bat edo bi jarrita aritu izan nintzan iñoiz, lau puntukoa kantatzera iristen ez-eta. Gogoratzen naiz bi puntuko bertsoa errez moldatzen nuela, ola jolasean edo jolas ondoren lagun artean genbiltzala; baiña jende aziarekin ez nintzan ausartzen, bai zera! Geiegi zan neretzat.



Bi bizitzako etxea da gu jaiο giñan baserria; eta aldame-neko familiak piper txikia asko egiten zuen, gero ozpiñetan boteillan sartzeko. Zestokada aundiak biltzen zituzten egune-ro-egunero eta gero, illuntzean, mutikoak antxe jarri elkarren bueltan eta aiei xuxtarra kentzen aritzen giñan –orain etzaio kentzen, baiña leen piper txikiari xuxterra kendu egiten zitzaion–. Eta an ere joaten nintzan bazter batera, komunera joateko aitzakiarekin, eta andik bueltan bertso-erdi bat edo beti ekartzen nuen lagun artean kantatzeko. Baiña bestela ez nintzan ausartzen.

Argiñarena, Lazkao Txiki, Etxeberria eta oiek denak gure-an ezagutu nituen nik, bein baiño geiagotan etortzen baitziran. Eta an bai, an bertso bat edo beste kantatu izan nuen iñoiz, aurretik ondo pentsatuta. Ala ere, gure aita ni baiño geiago zan bat-bateko bertsoak botatzen. Ausartu ere geiago ausartzen zan, eta badakizu...

Loiola’ko San Iñazio egunean ospatzen genuen urteko festa, aita bizi zala –oraindik ere alaxe segitzen diogu–; eta Loiola auzo ontara etortzen ziran Patxi Etxeberria, Argiñarena, Garmendia eta oiek denak, esan bezela; eta bertso saioaren ondoren an joango zitzaien gure aita, eta “Nora zoazte bazkaltzera? Goazen gurera, zeoze izango dek-eta!”, esango zien. Eta an etorriko ziran eguerdiko bertso saioa amaitu eta gero. Gure aita etzan arduratzen etxean denentzat bazkaririk izango zan ala ez, baiña etxera eramaten zituen bertsolariak aiekinxe momentu eder bat pasatzeko ametsetan. Bazekien iñor etzala naikoa jan gabe joango guretik.

Beste batean –gure aita oso elizkoia zan– Loiola’ko apai-zarekin amistade aundia baitzuen, egin zuen modua Donosti’-ko Gotzain Setien jauna Loiola’ra etorri zala ta gure baserrira eraman, bazkaria emateko. Gotzaiñaren laguntzaillea Oiar-tzun’goa zan, erdi bertsolaria gaiñera, eta arekin berriketan asi eta bazkaltzera etxera gonbidatu gotzain jauna, alajainkoa!

Orrelakoxea zan gure aita. Lagunartekoa eta oso maitea zan auzoan ere. Denekin ondo konpontzen zan, izakera eder eta gozokoa baitzan.

### Goierriko lanbideak

Gero, beste gauza bat ere bazuen. Goierritarra zan izatez, Gaintza'ko semea. Goierri aldeko oiturak eta beterrikoak ezberdiñak ziran oso, eta ark asi artzaintzatik eta erlezaintzarako lanak ondo ikasiak zituen. Soldaduzka garaian edo zer-bait leenxio etorria zan alde onetara, Loiola edo Txomineneko baserri batera. Eta Goierri aldean ikasitako lanak eta ofizioak gero etxean egiten aritzen zan. Erlezaintza, esan dizut, baiña txondarra, artillezko galtzerdiak, bei-gazta, guriña eta beien burutako larrua lotzeko soka dotore askoak ere egiten zituen, ganaduen isatzeko zurdearekin. Eta zaldiarena bazan, obe; auzoan izaten zan zaldiren bat edo beste, eta aien zurdeak inguratzen saiatzen zan, gero soka dotoreak egiteko. Zaldi-zurdea luzeagoa izaten da beiarena baiño, eta, lenengo aria egin bear baita, obeto egiten da zurde luzearekin. Eta estu-estuan, beiarena eta zaldiarena biak nastuta ere aritzen zan. Eta ez dakizu nolako sokak egiten zituen!

Auzokoak soka eske etortzen zitzaizkion, eta... “Bai, bai, zurdea ekartzen badidazu egingo dizut soka, bai orixe!” erantzungo zien beti. Negu garaian, eta eguraldi txarra zanean, soka egiten aritzen zan etengabe. Esku aparta zuen.

Beste bein txondarra egin zuen etxeatzean, Goierriin ikasitako ofizioa zuen txondargintza, esan bezela. Goierriko oitura eta lanbide asko ikusi zuen inguru onetako baserriar jendeak, aita zenak erakutsita. Emen ezagutzen etziran lanbideak ziran asko, eta egoki asko egiten zituen ark denek ikusi zitzaten. Alde bateko eta besteko oiturak eta lanbideak erakustea ikaragarri gustatzen zitzaion.

**–Eta afizio eta zaletasun guzti hoiek txertatu zizkizun zuri, bistan da.**

–Gure aitaren eragiña guregan nabarmena izan zan, bai. Eta aipatu dizudan guzti ori txertatu zigun. Eta txertatu esan dezun ezker, bere jaioterri Gaintza'n gaztaiña ona eta asko omen zan aitaren gazte denboran, eta andik mentuak ekarri eta emen gaztaiñondoak txertatzen zituen, bere aitak –gure aitona– lagunduta, Goieritik etorri berritan.

Ni neu ere txertaketan zerbait aritua naiz, baiña, egia esan, ni baiña askoz abillagoak izan dira nere anaiak langintza orretan. Baratzako lanetan, berriz, zer esanik ez. Anaia zaarrena, Iñaxio, oso egokia izan da –gaur galerazita dago baiña– bixkarekin, reklamoarekin txoriak arrapatzen, eta bai aientzat kaiolak egiten ere. Kasik erremintarik gabe egiten zituen, naiz bein baiña geiagotan txoriak iges egin zion.

Pilota egin eta ondatutakoan askatu, berriro josi eta azaleko larrua aldatu bear bazan, aldatu eta abar egiten ere artetsua zan. Aren bearra izaten genuen guk pilotan ibiliko bagiñan, berriak erosteko dirurik etzan izaten-eta.

Aita makalik edo ondo etzebillenean, beiak jeizten eta ukuilluko lanak egiten ere ikasi bear izan genuen oso gazterik. Goizean garaiz jeiki eta, benga! Bost edo sei esne-bei, eta beste lau-bost txekor izaten ziran gurean garai artan. Guretzako naikoazienda bazan, eta ukuilluko lanak ere bearko egin!

Maizterrak giñan Altza'n, inguru onetako beste baserritar geienak ziran bezelaxe. Lege berri bati esker, baserriak erosteko aukera izan zuten geienek, erosteko eskubidea bazeukatelako, noski. Baiña orain eztaukate ganadurik gurean. Baratzaxuk bai, baiña aziendarik ez. Gure anaia eta arreba bizi dira an; baiña terrenoak kendu zizkieten pittinka-pittinka, eta gauzak aldatu egin bear ba. Leengo bizimodu ura asko gustatzen zitzaidan neri.

Euskera

**–Euskera kontua aipatu bear dugu orain. Zuk, idazteko, bertsopaperak egiteko eta abar, afizioa aspalditik izan duzu. Ori ere aitaren erentzia al da?**

–Bai, bai. Ori ere bai. Izan ere, zer enpeiñu jartzen zuen ark idazten ikasi genezan! Lanera asi nintzanean, eta lanera asi aurretik ere bai, igandetan eta ola artzen zituen paperpuxka batzuk, eta jostorrazzarekin blok itxurakoak egingo zituen txukun-txukun, eta antxe idazten zuen –oraindik ere badauzkat ola egindako blokak–; eta an arkatzez idazten zizkidan Pernando Amezketarraren bertsoak –bai, geienak Pernando Amezketarrarenak izaten zirala gogoan daukat–, baita soldaduzkako mutil batenak ere, eta neri ematen zizkidan. Nik irakurtzen nituen, gustura irakurri ere. Lanera asi nintzanean tranbian egiten nuen joan-etorria, eta beti bertso oiek ikasten aritzen nintzan, bein eta berriz irakurritz. Bertso asko ikasi nuen nik buruz garai artan, aitak emandako laguntasunari esker.

Gure aita zanak esan oi zuen, “Nik aiña bertso buruz dakiñik eztek asko izango inguru auetan!”. Bai jakin ere ark ikaragarri. Nik ere dexente ikasi nuen, baiña ez nintzan iristen aren maillara.

Orain ere bertso zaar dexente dakit buruz. Eta blok txiki aietan arkatzez idatzitakoak ere badauzkat etxean. Makinaz idatzi eta txukun-txukun gordetzen ditut. Gure aitona Joxe Manuel zana ere –amaren aldekoa esan nai nuke, Iraola– oso bertsozalea zan. Beterrikoa zan izatez, eta ez dakit eskolara sekula joan izango zan, eta idazten ere ez zekien, baiña bertso zaar asko bai buruz, euskerazko beste irakurgairik etzan garai artan-eta. Kantaria eta dantzari ona zan gaiñera, zaartuta gero ere. Baiña daukadan inpresioa da, lanean baiño lagun artean ibiltzea geiago gustatzen zitzaiola. Ala ere, beti esan oi zuen

auzoko bei parerik onena berak zeukala, eta olako istorioak kontatzen zituen.

Garai artan nagusiarenak ziran terreno guztiak gorrituara-zi egiten zituzten, garia ereiteko. Gure etxejabea Joxe Angel Lizasoain abokatua zan, or Donosti'ko Parte Zaar alde ortakoa izango zan, esaten zutenez –Gure inguru onetan, Bidania'n, Urnieta'n eta inguru oietan terreno asko izan bear zuen; eta urtean bein, Santomas egunean joaten ziran errenta ordaintzera, zintzo asko, etxean ziran oillaskorik onenak artuta–.

### **–Lehenengo idatziak noiz egin zenituen?**

–Idazteko asuntoan baiño leenago, gaueskolan ibili nintzan leenengo, or Txomin-enean, gure jaiotetxetik gertu –Leendabiziko auzoa izango da Txomin-ene–. Eskola, amalau bat urterekin edo leenxio utzi nuen; baiña “Gaueskolara asi bear dek, ia zerbait ikasten duan, mutil” agindu zidaten etxean. Eta, beno, ni konforme gaueskolara joateko ere. Negu pare batean edo maixu batekin –maixuen inspektoria zala esaten zuen berak, eta balentzianoa zan– ibili giñan. Ark asko erakutsi zigun, egia esateko. Leen ikasitakoa berrituarazi eta gauza berri dexente. Gaiñera, etxean egiteko lanak ematen zizkigunean esaten zigun, “olako egunetarako ekarri bear dezute idazlan bat”. Erderaz, jakiña. Gaia ematen zigun askotan, eta bestela nai genuen gaiari buruz orri bat edo idazteko agintzen zigun; eta oso gustura idazten nuen, gogoan daukat. Gaiñera, “Tu llegarás a escribir, tienes buena mano para ello”, eta olakoak esaten zizkidan, eta poztu egiten niñun.

Gero, ba, soldaduzka garaia etorri zanean –Afrika'n egitea egokitu zitzaidan– antxe asi nintzan leendabizi euskeraz idazten, leenengo pausuak ematen. Etxera, ordea, gazteleraz idazten nuen, euskeraz itxuraz egiteko kapaz ez nintzan-eta artean.

Orretarako, esan bear det gure aita zanak beti Arantzazu'-ko errebistan –etzan dena euskeraz izaten, orain ere ez baiña–bertsoak eta etortzen zirala, eta ura beti gordetzen zidan, aal zuen guztia irakurri ta buruz ikasita gero. Eta “Emen ere bertsoak bazetozek, Joxe” esaten zidan, eta irakurtzeko ematen. Besterik ezpazan egunkaria edo –La Voz de España izango zan seguru asko– amak kalera jaisten zanean ekartzen zuen, eta egunero irakurtzen zuen zerbait.

Gure aita, berak ere bazuen idazteko zaletasuna, eta gaueskolan ere ibilia zan, ona Altza aldera etorrita gero. Eta idatzi dexente txukun eta letra politarekin idazten zuen. Aldamenekoak ere, kontu batzuek egin bear zituztenean-eta etortzen zitzaizkion laguntasun eske, eta aiei laguntzen aritzen zan. Buruz kontuak ateratzen ikaragarri azkarra zan.

Esan bezela, ni soldaduzkan asi nintzan idazten berriro, denbora nolarebait pasatu bear izaten zan-eta. Eta etxera idazten nuen bakoitzean, bertsoren bat edo beste idazten nuen tar-tean. Gero, ango bizimoduari buruz bertso batzuek ere jarri nituen, amalau edo amasei, –nere leenbiziko liburuan badatoz bertso oiek (Auspoa, 253)–. Antxe asi nintzan zuzen edo oker.

Gero, ordea, soldaduzka bukatu eta lanean asi nintzanean an bukatu ziran idazteko kontu oiek, ezkondata gero etxeko lanak leenago baitzeuden idazlanak baiño. Zoritxarreko ezbe-ar ori izan nuen ordea gero, eta berriz eldu nion idazte lanari. Asi-utzi asko izan det, ikusten dezun bezela.

Istripu latza

**–Ezbehar edo istripu gogorra izan zenuen...**

–Bai. Soldadu zegoen Aia'ko mutil gazte bat eta biok giñan, 33 urte banituen nik ordurako, eta topo egin genuen etxeko atarian, eta sartu igogailluan eta seigarrenera iristeko momentuan, klak! egin zuen makinak, eta beera abiatu zan

igogailu ori ziztu bizian! Oraintxe bete dira berrogei urte ori zala.

Bizkar-ezurrean golpe izugarria izan nuen, eta ezur batzuek zearo txikitu ere bai. Oso gaizki egon nintzan aldi batean, miñez eta etsita. Denbora luzea eta gogorra pasatu bear izan nuen. Bi illabete edo geiago egingo nituen or, Donosti'ko Residentzian. Geroztik ere amaika buelta egin bear izan det, bai. Esan bezela, bizkar-ezurrean izan nuen aberria: bertebra bat leertuta neukala esan zidaten, eta medula edo delako ori salbatu bazitzaidan ere, ikuttu ez ikuttu, or izan bear zuen.

Ala beintzat, gaixoetxean nengoela, nere ezbear oiek kon-tatzen-eta asi nintzan, batez ere bertsoetan. Urte t'erdi inguru bajaran pasatu, eta gero lanera asi nintzanean, antxe neuzkan idatzitako lan guztiak.

Baiña lanean nenbillela, berriz ere eziña eta batez ere makurtu eziña eta olakoak sentitzen asi nintzan, gerritako min aundiak, txorabioak eta abar. Eta medikuarena joan nintzan berriro. Ark, ikusi niñunean, “Zu lanean zabiltzala? Bai alda-kizu nola zauden?” –esan zidan.

Iñork baiño obeki nekien nik ez nengoela ondo, baiña lanerako ainbat banintzala uste nuen. Ala ere, “Ez, ez; zure bizkar-ezurra ikusita, etzaude zu lanerako moduan, gizona. Oraintxe bertan baja artu bear duzu”, esan zidan, serio asko. Alaxe, informea egin zidan, eta gero beste sendagile batek ere bai, eta zea, tribunalera joan eta inkapazidadea lortzeko bide-ak egin genituen. Eta alaxe eman zidaten inkapazidadea.

Ori baiño leen, min artu nuenean alegia, Antigua'n –leena-go egin nuen *Alako batean* liburuan agertzen dira kontu oiek–Agustin Miner zanarekin topo egin nuen, bi makuluren gaiñe-an dinbala-danbala nindoala, zangoa eskaiolatuta. Eta ark, “Alfabetatze-ikastaro bat bazala an, Antiguan, Jakintza ikasto-

lan”, esan zidan. Agustin Miner ori oso sartuta zebillen ikastola orretan, eta “joan egin bear diat euskera pixkat lantzera, idazteko eta bearrezko diat-eta”, esan nion neure buruari. Antxe ibili nintzan negu batean. Bost edo sei lagun asi giñan, baiña azkenerako bakarrik gelditu nintzala uste det. Etzion inportarik ordea, eta ikastaroa osatu nuen beintzat, eta kitto! Agustin Miner zenarekin oso arreman ona izan nuen gero ere. Zor aundia diot ari. Etxean egiteko lanak-eta ematen zizkidan, eta nerizkionak idatzi eta eramateko agintzen zidan. Gramatikarik eta olakorik ez nekien nik, eskolan ikasitako *artikulua* eta *adjetiboa*, *berbua* eta oiek zer izaten ziran bai, baiña besterik ez. Baiña Miner’ek asko lagundu zidan.

Antigua’ko pelota txapelketako garaian an izaten zan ura ere, eta nik etxean egindako orritxo bat-edo beti eramaten nion, eta “Basarri’k ere ezтик ik baiño askoz obeto egingo, gizona!”, esaten zidan, eta animatu egiten niñun. Gero, pixkat ikasi nuenean, beste kurtsillo bat ere egin nuen Parte Zaarreko zaar-etxe batean, Oñatibiarrekin-eta. Min artu nuenean euskeraz idazteko trebatzen saiatu nintzala esan nai dizut guzti onekin.

Gero berriz, klaro, urrengo aldia edo etapan, inkapazidadea eman zidatenean, orduan Oñatibiarrekin asi nintzan, izan ere, “Gure akademiara zergatik etzera etortzen? Titulua atera bear zenduke zuk” esan zidaten. Eta “beno, ematen badi-date, artu egingo diat” pentsatu nuen. Eta alaxe, an puxka batean ibili eta Bilbo’ra joan giñan azterketa egitera, an titulua eman zidaten, eta primeran. Azterketa orretan, idazlana egindakoan bertso bat egitea okurritu zitzaidan, eta orrelaxe ziran kontuak.

Gero, Yon Oñatibia’rekin Loiola’n ibili nintzan, aldi batean, “Euskera jolas-bidez” izeneko bere metodoa erabiliz. Loiola’n ere iru-lau lagun biltzen giñan, leenengo ikasi eta gero klaseak emateko prestatzen.



Klaseak ematen ere asi nintzan Loiola'ko auzo onetan, gazte batzuei. Eta gero, esan dedana, akademian, Manu'ren arreba Terexita Oñatibia, Koro Mitxelena eta oiekin ibili nintzan.

Erakusten asi nintzanean, leendabiziko kurtsilloa Gas fabrika ondoko eskola orretan eman nuen, udako kurtsilloa. Nik eztaikit orretarako gai nintzan, baiña klaseak eman nituen beintzat. Gero, berriz ere, Triunfo kaleko akademian berriro beste saio bat egin nuen. Donosti'ko Amara aldean ere aritu nintzan klaseak ematen euskaltegi batean.

### Irratian eta egunkarian

Baiña or asi nintzanean, ez au eta ez ori, Manu Oñatibia zenak irratian lana egin nai al nuen galdetu zidan. Eta baietz, nai nuela. *Radio Cadena* katean Maria Dolores, Basarri, Oñatibia, Zurutuza, Etxebeste eta oiek ari zirala, eta an lan batzuk egitera joan bear nuela. Sekula iñun alako lanetan aritu gabe eta astean bein edo bildu, eta “zuk emango dezu deporteak, eta zuk eztaikit zer” eta Oñatibia'k lanak banatzen zizkigun. Eta segi alaxe. Andoni Kortajarena ere antxe zan, Argi Dorronsoro ere bai, eta irurok egiten genituen irratsaioak. Kirol saila eramaten nuen, eta egunkarian ere orretan saiatu nintzan, futbol eta pelota kontuak –garai batean Galarreta'ra dexente joaten nintzan– eta finalekoak eta ola jokatzten zituztenean idazten nuen zerbait. Dena egiteko ainbat denbora neukan lanari utzi nionean.

Irrati-nobelak ere egin genituen garai artan. Gogoan daukat Ataño'ren “Txantxangorri kantaria” egin genuela irratian. Alaxe ibili giñan. Bi urte edo egin genituen artan; eta gero, zeran ere bai, Radio Nacionalean albisteak euskeratu eta irrastian ematen, alegia.

**–Aldi batean, astean behin edo bitan idazten zenuen egunkarian...**

–Antonio Zavalak *El Diario Vasco*-n euskeraz idazteko jendea bear zala esan zigun, eta antxe asi nintzan, bai, Inozentzio Olea, Jesus Lete *Ibai-ertz*, Kortajarena eta oiekin batean. Eta zortzi bat urtean aritu giñan, 1986tik 1994ra bitartean, oso oker ezpanago. Astean pare bat aldiz idazten nuen nik.

*Diario Vasco*-n asi nintzanean pelotari buruz, futbolari buruz eta abar idazten. Bertsoak, *Irri-mirrika* saila, *Joanixio eta Patxi* bi lagunen arteko elkarrizketak –bat kaskaillu utsa eta bestea señorito xamarra– ere egiten nituen. Txisteak, berriz, *San Antonio de Padua* errebista txiki batetik artu eta euskeratuta ematen nituen –Eztakit grazia irabazi ala galdu zer egingo zuten itzultzean, baiña ola beintzat–. Nere iritzi batzuek ere ematen nituen aldian bein, eta ola.

Esan bezela, bertsoak idazten nituen istripu ondoren. Joxe Migel Maiz’ek Lasarte’ko krosa irabazi zuenean jarri nizkion bertsoak; baita Kennedy anaiak il zituztenean ere. Gero bertso oiek Basarri’ri bidaltzen nizkion periodikura, eta berak egiten zuen *Nere Bordatxotik* saillean argitara ematen zituen. Baita irratiz kantatu ere iñoiz, eta sekulako poza ematen zidan orrek.

Beste ofizio asko

–**Beste afizio asko ere baduzu zuk, Joxe.**

–Bai, eztakit jakingo duzun, baiña bonsaiak lantzen gogotik saiatu izan naiz, eta ikaragarri gozatzen det. Eta orain ere badauzkat batzuek, baiña eztakit norik zainduko dituen ni falta naizen egunean, eta baditut kezka orrekin jarritako bertsoak ere ikusi dezunez. Ikaragarri lan polita da zuaitzen lan ori.

–**Baina lehen aipatu duzun *Alako batean* (Auspoa 253) zure liburuko bertso sail batean esaten duzunez, zuen etxeakoandrea lanean ari da, eta zu “etxejoaun” ofizioan gogotik ari zera?**

–Andrea etxetik kanpora josten asi zanean, bai, esan dezun bezela, etxejoaun jarri nintzan: Sukaldeko lanak egin, bazkaria edo afaria prestatu, garbitasuna egin, egunean eguneko erosketak dirala... Gizona, gizona: ez neukan ezer geiago egiteko astirik. Baiña orain ez; emaztea etxean gelditu zanean, etxejoaun izateari utzi nion eta pittin bat lasaituta bizi naiz.

Bertsoak jarri, bonsaiak zaindu eta egurra taillatu;  
beste “hobby”en artean oiek, nola ez lana pillatu!  
Dena nai, eta ezin iritsi, ze irtenbide billatu?  
Uzteak lanak emango dizkit, baiña ez det nai erotu.

(*Alako batean*, Auspoa 253)

Baiña... orain zer egiten ari naizen galdetzen badidazu, ba, bertsoak idazten jarraitzen det, oso noizean bein bada ere, olako edo alako gertakaritarako bertsoak eskatzen dizkidan-eta. Badakizu, omenaldiak dirala, bazkariren bat dala, eta abar.

Bestalde, taillatzen ere sarritan aritzen naiz, egurra taillatzen, denborapasa. Atzo bertan ere aritu nintzan pixka bat, ikaragarri gustatzen bait zait zurgintza-lan ori. Geiago ere arituko nintzake, baiña ez daukat denborarik oraingoz.

**–Laster beste libururen bat prestatuko ote duzu, Joxe?**

–Egia esan, eztaukat asti aundirik, oraingoz beintzat. Nere aalmenak ere urritzen dijoaz, eta liburu bat egiteko denbora asko eta buru argia bear da. Ala ere, nere aita zanak leenengo liburua (*Nere mundualdia*, Auspoa 195) larogeita bi urterekin argitara eman zuen; eta bigarrena (*Zaarrak berrituz*, Auspoa 241) larogeita amarretik gora. Kontuak orrela aterata, oraindik neri ere denbora gelditzen zaidala ematen du, okupatu xamarra banago ere.

Ofizioa nolakoa dan bear dizuet kontatu:

“Etxeko lanak” deitzen zaiona, au ere neri tokatu!

Ori dala-ta, nere bizitza orra zearo aldatu.

Etxekoandrea lanera, ta ni “etxejoaun” izendatu!

*(Alako batean, Auspoa 253)*

Oraindik ñori esan ez diodan zerbait esango dizut ordea: Tarteka ari naiz, ari naiz aal dedanero zerbait idatziz, beste liburu bat prestatzeko ametsetan. Ez dakit noizko izango dan, baiña izango da zerbait denboraz, bai. Berri geiago emango dizut urrengo batean.

Liburu honen edukinaz

**–Bejondaizula, Joxe. Baina elkarrizketa hau amaitzeko, esaidazu: Zer prestatu duzu oraingo emanaldi honetarako, zehatz-mehatz?**

–Edozer dala ere, lan bat asterakoan, nik beintzat, beti izan oi det zalantza ugari: Nola asi, nundik eldu, leentasuna zeri eman eta abar. Lan onen aseran ere izan ditut, baiña ez ainbeste. Denboraz konturatu naiz bigarren liburu oni asera leengoaren bukaerako bertsoarekin ematea dala egokiena. Eta, pentsatu eta egin.

Bertsoak dioen bezela, aurrekoan sobratutakoak eta geroa –ez orduko egiña, etorria eta maiztasunarekin, jakiña–baiña tarteka edo noiz beinka idatzitako bertsoekin osatua da bigarren liburu au. Bestalde, zorduntzat ere baneukan neure burua, eta zorrak kitatzeko balioko al du, bide batez.

Esan bear det, baitere, batek baiño geiagok galdetu izan didatela “Bertsoak idazteari utzi al diok ala?”. Eta “Utzi, utzi erabat ez zioat utzi. Tarteka aritzen nauk oraindik ere; eta mordoska bat bazeukeat jaso. Zerbait egitea pentsatzen badet, jakingo dezute nere berri”.

Ori edo antzekoa izan oi dan zerbait jakin nai zuenari bapatean emandako nere erantzuna. Baiña nere berri jakiteko eta erantzuteko modurik onena egin dedan auxe dala uste det: beste bertso-liburu bat argitaratzea, alegia.

Oraingo onek ez du leengoaren antzik, batipat, egitura aldetik. Bertsoak lau zati edo multzotan banatuak datoz: *Gaia emanda jarriak*, *Ildako adiskideei eskeiñiak*, *Pelotariak*, eta azken zatia, zatirik ugariena, *Danetik*.

Leendabiziko multzoari dagokionez, *Gaia emanda jarriak*, badu bere berezitasuna. Ez nago ziur Euskadi Irratia ala Erri Irratian, baiña bietako batean zan. Joserra Garzia'ren ardura-pean eskeintzen zan irratsaioan, idatzitako bertso-sariketa moduko bat antolatzen zuen, 1984an-edo, oker ez banago.

Joserra'k, astean bein uste det, gai bat ematen zuen, eta guk, bertso-jartzailleok, bertsoak idatzi, gaiari aal zan etekiñik onena ateratzen saiatuz. Ori egindakoa, irratira bidali edo eramán, epaituak izan zitezén.

Laster oartuko zeranez, gaiak xelebrea xamarra izaten ziran askotan; eta alakoetan, guk, bat-bateko bertsolarien antzera, irudimena edo imajinazioaz baliatu bear nai ta ez, zerbait itxurazkorik egin nai bazan.

Sarien artean, afaria izaten zala badakit. Zerbait geiago ere izango zan, ziur aski. Nik ordea, saririk irabazi ez nuenez, ez da arritzeko ez gogoratzea. Ortarako, besteak beste, irudimena eta sormen aldetik osatua bear, eta ni ortatik eskas antzean ibili. Baiña, bide batez esan bear det oso gustura aritzen nintzala idazten eta iñoiz ez dedala izan garai artan bezelako erreztasunik bertsoak idazteko. Urteak ere, nola ez, izango dute zerikusia. Dana dala, egindako lanarekin kontentu nago gaiñera, eta ori da neretzat geien balio duana.

Gero *Ildako adiskideei eskeiñiak* datoz. Auek, batzuetan, sendiko norbaitek eskatuta, eta besteetan neronen kabuz edo

ala naita eskeiñitakoak dira. Une triste eta gogorrek izaten dira, etxekoentzat batipat. Eta ez da betere atsegiña izaten –proatu duanak badaki ondo asko– endemas etxekoek ala naita bertsoak illeta-elizkizun garaian kantatu bear izaten dituenarentzat. Baiña adiskide miña izateak gertutik parte artzera bultzatzearekin batera, une garratza jasan aal izateko indarra ere ematen dizu alakoetan.

Jarraian, *Pelotariak* bertso mordoska au, aukeratutako zenbait pelotariri jarritako bertsoekin osatua dago. Orain esango det zeñek eta zertarako.

Donosti'ko Antigua auzoan bada oso lan ona egiten duen *Pelotazaleak* izeneko lan-talde bat. Pelota txapelketa antolatu ez ezik, errebista interesgarri bat ere argitaratzen dute, partiduak ikustera inguratzen diran zaletuen artean banatzenko. Ori dalata, azken urte auetan errebistaren arduradunek beurek aukeratzen didate zein pelotariri jarri bertsoak, gero errebistan argitara aal izateko. Aukeratutako pelotariak ez dira edozein izaten. Leenengo biak, adibidez, izen aundikoak, orain arte ezagutu diran onenetakoak dira, baiña gure artetik joan ziranak. Besteak, berriz, izatez gaur egun punta-puntakoak ez ezik une onetan puri-purian daudenak eta, esan daiteke, pelotalekuetara ikusle geien erakartzen dutenetakoak dirala. Gaia amaitzeko, jakin ezazu, ni neu ain pelotazalea izanik, oso lan atsegiña eta gustagarria dala neretzat pelotariei bertsoak jartzea.

Eta azken multzoa, *Danetik*. Bera da pusketarik aundiena eta ugariena. Izenburuak dioen moduan, gai asko eta oso ezberdiñak ikutuz era askotako bertsoak aurki daitezke. Norbaitek galdetu lezake, eta pentsatu: Zer dalata ain bertso ezberdiñak? Zergatik olako gorabeerak? Gaia aukeratzekoan, une artako giroak eta norberaren animo edo aldarteak izugarrizko zerikusia du. Inguruko giroa kezkarria eta zeure egoera ere tristea bada, gai alai eta umorezkorik ezin aukera-

tu. Iñola ere ezingo dezu idatzi bertso alairik. Kezka eta serio-tasuna izango dira nagusi.

Eta inguruko lasaitasunak, soseguak eta zure gorputzeko pozak eta alaitasunak bat egiten dutenean, gaia oso errez aukeratuko dezu; eta gaia eta naiz bertsoak ere alaiak eta umoretsuak irtengo zaizkizu. Neri beintzat ala gertatzen zait, eta beste geiagori ere antzeko kontuak entzun izan dizkiet.

Bertso-saillaz kanpora –AUSPOAren oraingo neurriak betetzeko ez baitziran naiko–, garai batean egunkarian idazten nituen *Bertsolaritzari buruzko iritziak*, *Danetik*, *Ipuiak* (Donostia Hiria sarirako idatziak), *Joanixio eta Patxi* saillean idatzitako elkarrizketa batzuek eta *Irri-mirrika* sailleko izkiri-miri batzuek ere sartu ditut, bistan danez.

Agindua zor baita, bertso eta prosa, nere garai baten leku-koak ementxe dituzu bigarren emanaldi onetan. Eta nere berrikeriaz aspertu eta liburua ez badezu oraindik arrika tira, jarrai ezazu irakurtzen, eta zeure iritzia eman, aukera osoa daukazu-eta. Egiten dezuna egiten dezula, etzazu pentsatu nik gaizki artuko dedanik.

**–Mila esker, Joxe, eta suerte ona opa dizugu oraingo liburuarekin ere, lehengoarekin izan zenuen bezain ona, benetan.**

Joxemari Iriondo

# **Bertsoak**

**Gaia emanda jarriak**





Biloba, aitona zenari oroigarria ematen.

Eun bat urte joan dira asmatu zutela  
esaten dutela.

Ingles, aleman, ruso, danetik bazela.  
Eskerrak gizon aiei, eztakit bestela  
gaur egongo giñaken oraindak onela,  
etxetik ikusiaz bertatik bezela.

Lendabizi erderaz iritsi zitzaigun;  
euskerik ez gendun  
eta, jakiña, ori lortzea nai gendun.  
Emengo berri gutxi ematen zizkigun.  
Jainkoak jakingo du zenbat kosta zaigun.  
Igaz gure izkuntzan asi zitzaizkigun.

Geroztik egin dute lana, jo ta kia.  
Ongi egitia  
dana ezta errez, ta konforma zaitia.  
Lanerako badago or borondatia.  
Nola deritzan ere on da jakitia:  
Euskal Telebista edo Ikusirratia.

Pozik egoten gera entzun ta ikusten;  
beti da ikasten,  
naiz denbora askorik eztegun izaten.  
Al danean arretaz gerade egoten,  
eta gauza bitxiak dituzte ematen:  
“Beltzak” ikusten ditut euskeraz egiten.

Guk au ezagutzeko zoria badegu,  
nai ta ezpadegu,  
ori eztakigu.

Bearrik aiton aiek etziran testigu,  
zer esango luketen ondo badakigu:  
Mundutarrak erabat sorgindu zaizkigu!

1984ko otsailak 13

## Challenger'en egindako ibillaldia

---

Orain berriro Amerika'tik dei bat bidali zidaten,  
euskalduna ta bertsolaria izan zedilla nai zuten.  
Alabearrez, libre antxean egokitu naiz ni aurten,  
beste gauzarik pentsatu gabe baietza eman nioten.

Amerika'ra joan nintzan ta gizona bai ondo artu:  
Traje bikain bat jantzi ondoren "Challenger" ontzian sartu.  
Lagun arrotzak nituan baiña bearko azkar alkartu!  
Ala obe, ta ez ninduten ni ezertarako beartu.

Aitaren egin orduko giñan goi xamarrera igoak;  
etziran izan nolanaikoak pasa nituan tragoak...  
An kanporatu bear gendula eman zioten gogoak,  
eta nik auxe nion: Ez al da obe artzea egoak?

Esan zidaten ez genduala batere ego bearrik,  
ez zegoela an goitik bera eroritzeko beldurrik.  
Ez nuen nai nik besteak baiño gutxiago izaterik,  
beren atzetik an irten nintzan aiek ala ikusirik.

Lokarritxo bat bederen etzan an zerbaiteri eltzeko,  
balore latza izan nun neure burua ala botatzeko.  
Esan zidan: Ordua oraintxe iritsi da zuretzako,  
eta al nuen bezin ondoen bertso batzuk kantatzeko.

Bertsotan nola asiko nintzan neukan aldartearekin,  
azken ordua iritsi zala ia seguru bait nekin.  
Ala ta guztiz pentsatu nuen bearko niola ekin.  
Bat bota orduko an nuen Robert sagardo botellarekin.

Onek eman dit bizia eta onek eman dit kemena,  
neure burua argitu da ta poztu da nere barrena.  
Sagardo au da Astiarra'ko sagardogille batena,  
eta onixe botako diot nere bertsorik onena.

Nere lagunek eztute edan nik bezela aurrenean,  
bai solamente bein proatzeko eskeini diedanean.  
Edari onek badu indarra barrura sartzen danean.  
Amerikarrak ere bertsoan asi dira azkenean.

Esan bezela, goialde ortan txorien gisan aidean;  
izarrak, berriz, argi egiñez gugandik oso aldean,  
konparazio gisa jarrita, zeruko erdi-bidean.  
Lurra emendik begiratuta ondar ale bat or beenan.

Naiz une ontan beldur ta kezka utziagatik atzean,  
naiago nuke askozaz ere baldin banego etxean.  
Badakit azkar joan gindezkela emendik abiatzean...  
Kontu geiago esango ditut Euskadira itzultzean.

1984ko otsailak 20

## Aurtengo iñauterietan zer egin

---

Iñauteri jaietan bereala gera,  
martxoaren lauean, gutxi gorabera.  
Au da neri egiten didaten galdera:  
aurten zomorrotuta irtengo al zera?

Erabakia artu det asko pentsatuta,  
neuzkan beldur ta kezka denak uxatuta.  
Badakit ez dagola ezer lotsatuta;  
ikusiko nazute itxur'aldatuta.

Berrogeita bost urte lengo ilbeltzian,  
larogeita amar kilo dauzkat gorputzian.  
Norbaitek gerritikan egoki eltzian  
ederki egiten det oraindik baltsian.

Jazten ez det botako diru askorikan,  
jostunak ez daukate irabazirikan.  
Danera jota iru osto bakarrikan,  
aurkitzen badet beintzat negurrikorikan.

Aspalditxoan nabil zuaitzei begira.  
Aundi xamarra duten batzuek badira,  
baiña, garai onetan eroriak dira.  
Azarenak naikoa izango ote dira?

Zomorro-jantzi au da moda-modakua,  
Paris'tikan propio ekarridakua.  
Norbait aurkitzen badet nere modukua,  
pesta jarriko degu, ala Jaungoikua!

Berdin zar eta gazte, edo bizarduna,  
ezkongai, ezkondua, edo alarguna.  
Bakar-bakarrik au da eskatzen zaizuna:  
umore onekua eta graziduna.

Dibertsio kontua atsegin bazaizu,  
nere berri ederki orain badakizu.  
Urruti xamarretik ikus nazakezu...  
Bulevar inguruan aurkituko nauzu.

1984ko otsailak 24

## Ondarru'ko arrantzaleak

---

Jaio giñanok bizi bear ta jana bear bizitzeko,  
an edo emen lana egiñez janari ori lortzeko.  
Baiña eztago eskubiderik bizibidea kentzeko,  
eta lanean bere burua arrixku ortan jartzeko.

Arrantza berez arriskutsua, eztu geiago bearrik;  
ondona diran garaian ere urruti edo bakarrik.  
Arrantzaleei utzi arrantzan eta ez eman egurrik,  
bestela ezta iñoiz faltako beren etxean negarrik.

Arraia ezta eskura etortzen billa ezpadira juten;  
*Burgoamendi* ta *Atxondok* ere beste asmorik etzuten.  
Arraiak, berriz, mugaren berri apenas ezer dakiten,  
arraia nora ontziak ara joan bearra zeukaten.

Ez luke bear, baiña itsasoko urak daude mugatuak;  
eta Ondarruko arrantzaleak aurrera xamar sartuak.  
Baiña frantsesak ez al dituzte oso gogorki artuak?  
Baita ordainduarazi ere egindako pekatuak.

Arrantzaleak gogorrek dira, bearra lagun bait dute;  
bein da berriro zer-nolakoak diran azaldu digute.  
Indarkerian asi dira ta orretxegatik min dute...  
Iltzera tira eta bakarrik zauritu egin dituzte!

Arrantzaleak bizia maite du uste baiño geiago,  
naiz arriskuan jarri oi duan bat baiño askoz sarriago.  
Iltze ezkeru, urak irentsi eta iltzea naiago...  
Tiroka beintzat ez dula il nai, ori agirian dago.

1984ko martxoak 17

## Alkol-proba egin nai zidaten

---

Alai dabillan unetan bati zer etzaizkio gertatzen!  
Iñor kontentu ikuste ori zenbaitek eztu onartzen.  
Gertakizun bat al dan ondoen astera noa esaten,  
orrelakoan nola jokatu geiagok jakin dezaten.

Lagun artean afaldu nuen, beste askotan bezela;  
aitortuko det etxeratzeko naiko berandu bazela.  
Ondo afaldu beste okerrik egin gabe nentorrela  
ertzainak, alto! ta gelditzeko esan zidan bereala.

Begiak argi nekarzkien da azkar gelditu, nola ez?  
“Proba txiki bat egin dezagun, zatoz onera, mesedez.  
Baraurik dagon iñor eztabil orrela, purua errez.  
Oraintxe bertan jakingo degu edana zauden ala ez”.

Etzan bakarrik, laguna bazun; biak bai gizon lasaiak!  
Klase ortatik gutxi izaten bait dira oso alaiak.  
Eztakit galdu egin zituzten proba egiteko gaiak,  
ala zoratu egin zituan nere puruan usaiak.

Badaezpada eramaten det nerekin puru ederrik,  
orduan ere neramazkinak etziran izan alperrik.  
Bana emanda andik aurrera etzan iñongo okerrik.  
Artzeko, berriz, ez nuen izan bi aldiz esan bearrik.

Askotan ezta gertatzen, baiña biak erretzen zutenak;  
eta denboraz sutu zituzten eman nizkien kirtanak.  
Orrelakoan beste zeozer eskatzen digu barrenak,  
galdetu nien ea itxita al zeuden ango tabernak.



“Emendik oso gertu badago bidearen ezkerrera”.  
Orduan goazen, nai badezute, kopatxo bana artzera.  
Nere artean “oraingo ontan egingo ditek atzera”,  
baiña, bai zera! Izan ere noiz beste olako aukera?

Bana ez ezik iruna ere, au dek atarramentua!  
Auek eztitek ordainduko, ta eska dezadan kontua.  
Aldegin nai ta ezin aldegin, berriketa ta kontua...  
Ala geundela, an azaltzen da patrullako sarjentua!

Arranek ezik, laister zutitu ziran bere mendekoak.  
Sermoi ederra bota zieten, eta, gero gerokoak...  
“Ara emen alkohol-proba egiteko propio jarritakoak!  
Gu era ontan baldin bagabiltz zer egin gaiñerakoak?”

Sermoi erdian aldegin nuen dotore edo itsusi,  
edukazio asko ez nuen une artan erakutsi.  
Alkohol-probarik egin zieten oraindik eztet ikasi.  
Nik dakidana, geroztik aiek eztitudala ikusi.

1984ko apirillak 2

## Galdutako guardasolari

---

Ibiltaria naizenez, ezin egon geldirik iñola;  
nun zan eztago esan bearrik, deus ezpaitio ajola.  
Baiña billaka ibilli gabe, ta eguzkia zegola,  
leku ezkutu polit batean aurkitu nun guardasola.

Ain zan paraje egokia ta ain zan txoko atsegiña,  
guardasol arek ematen zidan naikoa zer itz egiña.  
Ara bakarrik etzala joan, ori bai zala jakiña.  
Nor baizan ere eraman zuna, bertan utzita aldegiña.

Utzi zuenak izango ditu berekin milla aitzaki;  
eztauka oso gaitz txarra, baiña zabar xamarra izaki.  
Bearrik eztan garaian traba egiten ere badaki.  
Zer kontatua izango luke baldin izketan baleki.

Guardasolari mintza nintzaion, baiña guztia alperrik;  
nola galderak ala erantzunak egin nituen bakarrik.  
Momentu artan etzuen bota nonbait kazkabar zaparrik  
eta, jakiña, etzuten izan batere zure bearrik.

Beti ez, baiña esku goxotan ibil zalea zera zu;  
bakardadean uztea oso mingarri izango zaizu.  
Laztanduena nor izango dan eztakit, bera ala zu...  
Baiña denbora asko baiño len berriro emen dituzu.

Triste zegoen guardasol ura ez ote nun zerbait poztu?  
Jabea nor zan billa asita, agian, geiago nastu.  
Andik ogei ta lau bat ordura berriz joan nintzan, ain juxtu;  
izanak ziran, baiña egun artan ez zitzaien nonbait aztu.

1984ko maiatzak 10

Ogeigarren mendea aurrera badoa.  
Larogei ta lau urte, ze urte mordoa!  
Geroz geiago zartzen ari dan ardoa...  
Euskal Erria aztertzen asteko ordua  
eldu da, eta bete nai dut agindua.

Badago zer zuzendu eta zer aztertu:  
ona dana goraldtu, eztana aitortu.  
Geran bezela ezin gaituzte onartu,  
ERRI au zer dan iñoiz eztute ulertu.  
Komeni zaienean aztu ta baztertu.

Atzo diktadura ta gaur demokrazia;  
egiazkoa balitz, ez ain itsusia.  
Guztiok badaukagu or zer ikasia:  
Indarra da oraindik emen nagusia;  
eta ark egiten du nai duen guzia.

Emen nola gabiltzan guztiok jakiñik,  
guregan bai al dago pakerako griñik?  
Egiten ote dugu ortan alegiñik?  
Orrek nola eztigu emango, ba, miñik?  
Etxekoak etxean konpondu eziñik!

Denak agintea nai, iñork ez morrontza,  
orregatik sortzen da orrenbeste saltsa.  
Alkarri laguntzerik etzazula pentsa,  
baiña bai eror dadin egiñala bultza.  
Askoren pozerako, orrela gabiltza!

Aurrerapena izan da gizonon egarri,  
azkenean eztigu gauz onik ekarri.  
Gizonaren tokian ainbat tresna jarri  
langabezia sortuz, estu eta larri.  
Jendea sobran orain; lana, berriz, urri.

Aitonak bizitako baserri zarretan  
untza nagusitu da arrizko ormetan.  
An bizi izan ziran ainbeste urtetan,  
guk bertan jarraituko genulako ustetan.  
Eztakite aldegin genula gaztetan.

Aiek il ziran, eta igesi gazteak;  
baserriari itxi bearra ateak,  
inguruak sasi ta osiñez beteak.  
Etzigun miñik eman orduan uzteak,  
baiña bai era ortan orain ikusteak.

Beste asko betiko lurpean sartuak,  
autopista ezpada, etxe biurtuak.  
Baratzak, ormigoiak azpian artuak,  
zuaitz eder askoak jo ta apurtuak,  
arbasoek gerora begira aldatuak.

Indarkeria, droga eta lanik eza:  
muga gaintuz, gaiñez egindako presa...  
Geldiarazten ezta izango erreza,  
eta ezerk baldin badu, orrek izan presa.  
Al dezakenik bada, azkar konpon beza.

Ekaitzaldiak gauzka mendean artuak,  
eta eztira atzo goizean sortuak.  
Bear bada geiegi barrura sartuak...  
Baiña pasatu dira orain artekuak,  
len ere izan baitira onen antzekuak.

Gaurko gazteak dira biarko gizonak  
etorkizunaz naiko kezkatu daudenak.  
Oi bezela, batzuk txar, jatorrak geienak,  
gizarte obego bat espero zutenak.  
Eztie lagunduko eskeintzen zaienak.

ERRIAren izkuntza EUSKERA izanik,  
askotan eztirudi ori ala danik.  
Bestela, nola entzun gabeko egunik?  
Eta oietakoak izaten ditut nik...  
Ezerk eztit ematen ainbateko penik!

Dakigunok itz egin aoa betean  
eztakiñak ikasten duen bitartean.  
Ez gaitezen ibili geronen kaltean.  
Au da EUSKAL ERRIA gaur, nere ustean.  
Ea obetzen degun datorren urtean!

*Sastraka*, 1984ko abenduak 9

Loiola Erri Irrati ori ezagutuko dezute;  
neu ere euskal-entzule zintzo oietako bat nauzute.  
Atzo goizean sortua dala irudituko zaizute,  
ta bitartean, aurten betetzen ditu ogeita bost urte.

Geroztik jasan bear izan du erasoaldi ugari;  
isillarazi arren berriro gogotsu ekin lanari.  
Nortzuk bultzatzen zioten esan bearrik eztago ori.  
Lur jota ikusi nai zuten baiña oraindik ezta erori.

Gaurko euskerik garbienean *Itxumendi* gaillurretik  
euskal jokuak, bertso, trikiti, kantu ta berri, danetik.  
Gogozko zaigun ura eskeñiz, gauza guzien gaiñetik...  
Ikusiz aiña jabetzen gera aurkitzen geran lekutik.

Akats aundirik eztu izaten larrosa baten jazkerak;  
loretxo orren usai gozoa dakarki orko izkerak.  
Belarri-ertzik eztigu mintzen darabilkiten joskerak,  
maixu onena bera degu, ta asko zor dio Euskerak.

Gaxo, bakarrik eta sufritzen daudenetaz gogoratzuz,  
irratsaioak mesede egiten dietela konturatzuz.  
Errosario santu ta meza egunero errezatzuz,  
Jaungoikoari min eta penak arintzeko erregutzuz.

Ordu luze ta aspergarritan iñor gabe egoteak  
naigabez bete ditzake errez gaxo eta bakartiak.  
Bestalde, zenbat poztutzen ditun laguntxo bat izatiak!  
Eta orixe izan nai luke Loiola'ko Irratiak.

Len, orain ogei eta bost urte etzan oraingo konturik:  
egin bearra eta egingo, baiña katean loturik.  
Besteak beste, Euskera galtzen ari zala oarturik,  
beraren alde aurrera beti oztopoak gainditurik.

Lengoa lengo, zer esan orain egiten dunari buruz?  
Alegintzen da gure izkuntza bajatu ez dedin graduz.  
Ala ta guztiz, aitor dezagun jeisten ari dala erruz,  
baiña egin dun atzerakada ezta izan bere erruz.


Jarrai dezala orain ta gero, arnas berria emanenez,  
ito zorian dagoenaren bizigarria izanez  
“au Loiola'ko Irratia da” entzuleari esanez.  
Len bearrezko, orain ere bai, gero zer esanikan ez.

Lan ontarako zaletasuna sortu zitzaidan gaztetan,  
lendabiziko egin nuena, ondo trebetu izketan.  
Ori Loiola Irratikoei entzunez, noski, askotan;  
azkenerako orra ikasi zertxobait ere bertsoan.

1986ko urriak 19

# Omenaldiak





Loiolako elkartean aurkezpena egiten.

Zoragarria ardien gisan artzaiengana bilduta,  
urtea pranko pasatu da ta gabiltza erdi galduta.  
Bizitzak ditun goraberakin nola gauden zabaldua,  
beste mundura joanak badira, baiña eztaude aztuta.  
Gaurko billera au ikusirikan egongo dira poztuta.

Artzai jatorra, gaurko omena dezu ondo merezia;  
aitortzen degu izan zerala irakasle berezia.  
Zintzo portatzen zana saritu, zigortu gaiztakeria,  
ainbat burugor izandu giñan, bazendun pazientzia.  
Gaur dakiguna, asko edo gutxi, ordun zuk erakutsia.

Seme bezela artzen giñuzun zintzuak eta gaiztuak,  
astindu ere bear bezela askotan gure kaskuak.  
Zigorrik gabe nola domatu ordun gu bezelakuak?  
Oraingo gisan orduan ere ez giñan oso santuak...  
Danok barkatzen dizugu orain, aitorturik pekatuak.

Lenago ume giñanak orain gaude gizon biurtuak,  
gogoan jaso bait genituen emandako kontsejuak.  
Jolasak ere gure pozgarri zenituen gogozkuak.  
Ez al zerate goratzen gure orduko alkar-jokuak?  
Urte askuan gorde dezala olaxe gure Jainkuak.

1968ko ekainillak 2

## Andereño Maria'ri omenaldi egunean

---

Bart gaua ez dut pasa gau guztia lotan,  
eta esna nagola asi naiz bertsotan  
andereño Maria'ri eskeiñi asmotan.  
Loa galdu dut baiña ez nago penetan;  
au nori egin zuri ez egitekotan?

Txit langintza astuna zuk artu zenduan  
EUSKERA elburutzat zendula buruan.  
Eragozpen gogorak izan zenituan,  
gaur zailla bada, askoz zaillago orduan;  
eta zure bearra guk izan genduan.

Lanean asi ziñan gazte ziñanean;  
orain utzi garaia eldu zaizunean,  
zenbat naigabe ta poz zure barrenean!  
Baiña batek duena ematen dunean  
tristurak poz biurtzen dira azkenean.

Azia erein zendun euskal-baratzean;  
landare biurtu zan gero jaiotzean.  
Azi eta bete zan lorez maiatzean,  
frutua eman zuen uda amaitzean...  
Jasotako emaitza or dago etxean.

Ezin aztu daiteke olako egina,  
ta askoz gutxiago zuk egin duzuna.  
Ordaiñetan artzazu gure maitasuna.  
Badakigu geiago merezi zenduna.  
Orain lasai bizi ta izan osasuna.

1985eko otsaillak 2

## Arantzazu'ko Ama ikastola.

---

Euskal-guraso batzuek amets egin zuten egun baten,  
eta ametsa egi biurtu arteko onik etzuten.

Baillaran ziran euskalzaleei deadar egin zieten,  
esan zer asmo zituzten,  
lanari ekin zioten.

Ta Arantzazu'ko Ama Ikastola orrelaxe sortu zuten.  
Euskera maite ez dunak ez du orrelakorik egiten;  
atzo goizeko kontua ez da, ogeita bost urte aurren.  
Geroztik zutik ta tinko dirau frutu ugari ematen.

Martuteneko auzoan dago zuaitz bat oso lerdena,  
enbor sendoa ta iru adar mardul auek dituen:

Egoki eta Astigarraga, Loiola irugarrena.

Zuaitz preziatuena,  
danok batzen gaituena.

Arantzazu'ko Ama Ikastola da zuaitzaren izena,  
ogeita bost urte auetan kimu ederrik bota duena.  
Zaindu dezagun guraso jator aiek landatu zutena  
Euskerak iñoiz galdu ez dezan indarra eta kemena.

Urumearen ertzean eta Martutene'ko partean,  
Arantzazu'ko Ama Ikastola dago toki politean.  
Ogeita bost urte auetan gogor, etenik gabe lanean.  
Loiola, Ergoki, Astigarraga Martutene'kin batean...  
Jarrai orrela gure erri au euskaldundu bitartean.

Gure ikastola sortu zutenak orain ez dira gazteak:  
batzuek aiton-amon egiñak, eta bidean besteak.  
Aiek asera eman zioten, ain ziran une tristeak!  
Eta jakiñik zer lanak ditun ikastolari eusteak,  
Izugarrizko poza ematen digu zutik ikusteak.

Kimu berriak gera gu, eta euskeraz badakigu:  
Aiton-amonen ametsa egi biurtu dugu.

Zin egiten dizuegu,  
zuek zerate testigu:

Ezta galduko, guk euskerari eutsiko diogu.

Ikastolaren 25 urteurrena  
1994an idatziak

## Manuel Hospital'i, omenaldi egunean

---

Gorputzez aundi etzera izan, ez det esango gezurrik,  
baiña ederrak egiña zera taldean eta bakarrik.  
Ez pentsa nunai aurkitzen zanik zu bezin gizon gogorrik.  
Ori orrela da, ta ez daukat nik esateko bildurrik:  
Gauza aundiak egiteko ez da aundia izan bearrik.

Ondo dakigu bizimodua latza tokatu zaizuna,  
eta aurrera ateratzeko lan asko egin dezuna.  
Baiña, Manuel, zu ikusita au da pentsatzen deguna:  
Laroita amaika urte aundi, ta oraindik gizon txukuna.  
Ea guri nork esaten digun lana ez dala osasuna!

Eiza, futbola eta pelota zenitun afiziyuak,  
danetan ona, eta or daude emandako leziyuak.  
Ortik aparte askotxo dira lortutako premiyuak,  
eta Urumean jolas ta igeri izugarritzko saiyuak...  
Gauz asko esango luke izketan balekike erriyuak.

1995eko uztailak 9

LOIOLATARRA, dudarik gabe izen aundiko bazkuna.  
Irurogeita amabost urte aurten bete dituzuna.  
Zure historia aztertu eta au da pentsatzen deguna:  
Kirol arloan txalogarria dala zuk egin dezuna.

Besteak beste, babestu dezu ainbat pelotari trebe:  
toki askotan jokatu eta gutxitan txapelik gabe.  
Arraunlaritzan, ia prestatu gabe, onenaren pare,  
gurdi apaiñak egiten, berriz, Donosti'ko jaun ta jabe.

“Or beste gauzik ez da egiten: jan eta edan gogotik”,  
elkarte batek orrelakoak entzun oi ditu nunaitik.  
Zerbait geiago ere egiten da, askok ez usteagatik.  
Orretarako barrura sartu, ez da ikusten kanpotik.

1999ko apirilean egindako bertsoak,  
LOIOLATARRA elkartearen 75 urteurrenean

## “Loiolatarra” elkarte berria

---

Urte asko ta zartuta zegon “Loiolatarra” elkarte  
baila ekintza ugari eta istoriz ondo betea.

Orain berria egin dezute, orra zabaldu atea;  
txoko ederra da ta zailla da ederrago egitea.

Lengoa ere maite zenuten naiz eta zarra izaki,  
al dan guztian bixita egiñez, aitzaki eta maitzaki.

Lagun artean zenbat gozatu dezuten iñork ez daki,  
anekdota asko konta ditzake izketan baldin baleki.

Naiz eta egun geienak izan gozoak edo legunak  
tarteka batzuk gertatzen dira garratzak eta illunak.

Une auetan oroitzen gera sentimentua degunak:

Nik gogoratu nai nituzke gaur falta zaizkigun lagunak.

Txoko polit au martxan jartzea ederki kosta zaizute;  
milla zorion nere partetik, merezia daukazute.

Zarra ainbeste edo geiago maitatu bear dezute;  
neke ta penak aztu ta orain disfrutatu ezazute.

2007ko abenduaren 14an



Ixillik ezin egon naiz, eta astera noa bertsoan;  
kantari txarra baiña maitasun asko da nere itzetan.  
Felix, zu baiña jatorragoak gutxi dira mundu ontan.  
milla zorion biotzez, eta olaxe urte askotan.

Larogeita amar urte beteta, etzaude gizon makala;  
au da bigarren omenaldia, uste det zerbait badala.  
Irugarrena prestatzen asi bearko da bereala,  
ziur baigaude eun urtetara aillegatuko zerala.

Aizazu, Felix, artu itzazu nere esanak goguan,  
eun urtetara elduko zera len esan detan moduan.  
Eta, seguru asko, ara zer gertatuko dan orduan:  
Gaur emen gauden asko ez dala izango zure onduan.

Zu ikusita, egia esan, gaude oso arriturik.  
Urteak pasa arren alai ta beti animoz beterik.  
Naiz ta sekula zuk ez diguzun esaten orrelakorik,  
sekreturen bat izango dezu, ortan ez dago dudarik.

Baiña nik uste badakidala zein dan zure sekretua:  
Kontzientzia garbia, eta bizitza pakeatua,  
txoko auetan ondo jateko ederra apetitua,  
umore ona eta maitatu lagunak eta kantua.

Beste aldetik gazte denboran kirolaria trebea,  
abertzale ta donostiarra, arrokeririk gabea.  
Elizkoia ta zintzoki bete kristau fiñaren legea...  
Guk, nai badegu, orra zuregan ejenplo ezin obea.

**Ildako lagunei  
eskeinitako bertsoak**



Basilio, gaztetan.

Orain bi egun, beti bezela, ikusi zindudan parrez,  
geroxeago illotzik ziñan bat-bateko ezbearrez.  
Etxeko eta auzotar, danok utzi gaituzu negarrez.  
Zerbait gerala uste degu ta, azken batean, ezer ez!


Extremadura utzi ta onuntz etorri ziñan gazterik,  
lurralde gogor artan, itxuraz, ez bait zegoen bizitzerik.  
Seguru asko ez zendun naiko jaioterria uzterik.  
Bizibearrak bultzatutzean ez dago beste biderik.

Euskalerrri au zuk ostatutzat artu nai izan zenduan,  
eta bai pozik ibili ere euskaldunaren onduan.  
Zuretzat denak berdiñak ziran lagundutzeko orduan.  
Kalte gutxigo ta on geiago egin al leike munduan?

Esku utsikan etorri ziñan beste askoren antzera,  
baiña gogotsu eta apalki edozerreri eltzera,  
zeure izerdiz eguneroko ogia irabaztera,  
ainbat maitatzen zenun lurtean zure bizia uztera.

Aberastasun eta jakintzan arlote ta ezjakiña,  
gizatasun ta leialtasunez izan daiteken aundiña.  
Alde ortatik gaiñontzekuok zure laurdena bagiña,  
ez litzake ez emen izango ainbat ikusi eziña.

Emazte eta bi aurtxo gaixo nago aipa bearrian:  
ama gaixorik dutela daude txit egoera larrian.  
Laguntzik izan ezean, aurki dira mixeri gorrian.  
Laguntza eman dezaiegun gaur danok, aal dan neurrian.



Luis Mendizabal.



Manuel Hospital

## Xabier Sagarzazu

---

Irrati tresna izanik ainbat berri ematen diguna,  
itzali gabe bera entzuten pasatzen degu eguna.  
Abuztuaren amaseia zan, etzan urruti illuna,  
Ustekabean, ai, zer nolako berria eman ziguna!

Galizia'tik zetorkiguna ain zan albiste mingotza,  
bein eta berriz entzunagatik sinistea oso gaitza.  
Izan ere, nork egitzat artu: Sagarzazuri eriotza?  
Eguerdiaren ezer ez eta arratsaldean illotza!

Naiz beste amets batzuk egiñaz pasatu arren denbora,  
gogoko zuen taldea utziz aldegin bear kanpora...  
Dirudianez an ere zeuden berarekin txit gustora;  
ain lagun onak ez dira nonbait etortzen beti ondora.

Jaioterria maite zuala artzen genion tankera;  
baiña beraren naiaren aurka beartu zuten uztera.  
Urruti, baiña izango genuen sarri bere aditzera,  
eta luzaro baiña lenago etorriko zan ostera.

Ain jokalaria garbia, eta mutil apala izanik,  
zitunak eman, ez degu uste ezer gordetzen zuenik.  
Arek etzion iñori jartzen iñoiz kopeta illunik;  
etzan beste bat gizatasunez aurre artuko zionik.

Xabier zanan eriotzak gu nola ez gaitu minduko?  
Dana utzita joana zaigu bizitzen asi orduko.  
Gure artetik aldegin arren Jaunarengana betiko,  
beti gogoan izango degu, etzaigu iñoiz aztuko.

Futbolzalea eta gure taldearen jarraitzaile naizenez, asko  
naigabetu niñun azkoitiar gaztearen bat-bateko eriotzak. Zer-  
bait egon nai, eta bertso auker moldatzea erabaki nuen.

*El Diario Vasco, 1987.08.27*

Au da ixillik egon eziña, au da itz egin eziña!  
Biotzak zerbait esan nai arren, lotuta daukat mingaiña.  
Orrela zail da adierazten nere barruko samiña,  
eziñezkoa gertatuko zait, aleginduko naiz baiña.

Gutarra ez dan norbaitek gure anai bat iltzen dunean,  
ezin neurtu dan naigabeak jotzen gaitu zuzenean.  
Baiña gauz bera anai artean gertatzen dan egunean,  
eztenkada bat sentitzen degu biotzaren barrenean.

Jesus Nazabal eta Ixidro Etxaniz beren izenak,  
egun osoa lanean pasa ta etxeruntz zetozenak,  
bidean zegon zuaitza jota bizia galdu zutenak...  
Orrelakorik egin ez balitz gaur biziko lirakenak.

Aitortu bearko dute noizpait egindako pekatua,  
eta onezkero egon liteke baterenbat damutua.  
Ezingo zaie iñola aztu egun artan pasatua...  
Iñork zentzurik badu, etzaio faltako zer pentsatua.

Ezbear gogor bat izan dala, agian, dute esango;  
ori esaten duanarekin batere ados ez nago.  
Ukatu ezin dan ondorio negargarria or dago.  
Gaizki jokutzen bada berriro arrixku ori badago.

Gure artean ez genduke nai iñor ikusi sufriten,  
preso daudenak eta etxeko aietaz gera oroitzen.  
Denak ikusi nai genituzke beuren etxera itzultzen,  
baiña guk uste ekintza oiek ez dietela laguntzen.

Oraingo auek ere ez dira biziro alaiak, baiña kontu alaiak bakarrik bear bagenitu, geienez ixillik egon bearko genuke. Beraz ez dago beste aukerarik: ixillik egon edo sentitzen dezuna esan. Ea urrengoan zerbait alaiagoa sortzeko modua izaten dan.

*El Diario Vasco*, 1988.12.13



Ramón Díaz.



Tomas Artano loiolatarra beste ainbaten modura,  
gaitz zital batek eraman zuen gazterik beste mundura.  
Loiola auzoko arazoetaz zeñek alako ardura?  
Falta danean oartzen gera zein bearrezko zan ura!

Auskalo zenbat lan egin zuen auzoaren onerako!  
Ateak jotzen ikasi zuen oso gazte zanerako.  
Eskatzen jakin, eta nortasun berezikoa zalako,  
ura sartzen zan tokitik etzan esku-utsik aterako.

LOIOLATARRA elkartekoa izan zan urte askotan,  
ta pelotaren alde saiatu, maite bait zuen benetan.  
Argatik zan ain estimatua zebillen toki danetan;  
bere etxeokak ez ezik, nola ez egon denok penetan!

1999an jarriak

Ain abertzale sutsua eta euskaltzalea izanik,  
jakin badakit, bertsoak ere gogozko zitun Andoni'k.  
Bere emazteak eskatu dizkit, eta ezetz ezin esan nik,  
nonai ta beti ez baita aurkitzen gisa ortako lagunik.

Denbora gutxi bear zan ura nolakoa zan jakiten:  
arduratsua eta zuzena egin bearrak egiten.  
Dakigun arren etxeko denak ze naigabe daukazuten,  
izan dezuten suerte ori ez dute denak izaten.

Aspaldi samar izandu nuen ezagutzeko zoria,  
alaia bezin atsegiña ta oso gizon dotoria.  
Fededuna zan ezkeru, berriz, au da gure eskaria:  
Jaun zerukoa, eman zaiozu merezi duen saria!

1999ko azaroak12

## Roke adiskideari

---

Adiskide bat joan zaigulako orra gu denok elkartu;  
ustekabean izan da eta samiña ezin neurtu.  
Bertsolaria zan, naiz ta emen ia iñor ez oartu.  
Bertsoak zitun gogozko eta bertsoz nai nuke agurtu.

Arakistain zun abizena ta Roke zan bere izena;  
apala edo gizon umilla, txukuna eta zuzena.  
Besterik gabe, nolakoa zan esana dago geiena.  
Joanagatik, zana zalako, iñoiz aztuko ez dana.

Aizak i, Roke, au egin diat borondate onarekin,  
izan ere nik orrenbeste zor banian-eta irekin.  
Gure arteko laguntasuna ez dek amaitzen onekin,  
eta aurretik joanagatik, laister gaituk alkarrekin.

2001eko abuztuak 5

Zortziak ogei gutxi aldera izugarrizko eztanda,  
eta auzoa zutitu; iñor etzan gelditu etzanda.  
Ikusten zana ain zan gogorra, denok itz egin ezinda...  
Andik gutxira irratiz: "Illa, Erramun Diaz izan da".  
Ikusi arren, sinestezina, nola sinestu esanda?

Ordu ezkeroz or ari gera galdetu eta galdetu:  
Zergatik ori? Ta erantzunik iñola ezin aurkitu.  
Orra famili bat betirako erabat jota gelditu.  
Gutxien dunak ere ez al du Ramon'ek ainbat delitu?  
Auxe da naiko lekua izanda guztiok ezin kabit.

Langille fiña, iñoiz geldirik guk ez genuen ikusi;  
zeozer egin bear zanean bera beti lendabizi.  
Gutako askok berarengandik badaukagu zer ikasi.  
Emengo gauzak maite zituen, ta gutxik bezela bizi.  
Egin dezute, baiña Ramon'ek etzuen ori merezi!

Gogoko zuen Loiolatarra bazkuna alde batetik,  
eta gaiñera pelotazale amorratua bestetik.  
Emaitzak jaso ditu pelotak ark egindako lanetik.  
Ulertezina nola eraman ziguten gure artetik,  
arek bizia maite baitzuen gauza guztien gaiñetik.

2001eko urtarrillak 26

Gaitz sendaezin batek mendean arturik  
eriotzera bultza, oraindik gazterik,  
orri ez dago nonbait iges egiterik.  
Baiña egon gaitezen denok sinesturik  
Luis'i etzaiola faltako zerurik.

Sarri ibilia naiz beraren onduan;  
iñoiz asarrerik ez, itz txarrik etzuan,  
beti laguntzeko prest bear zan orduan.  
Ez giñake ibiliko gabiltzan moduan  
pertsona txarragorik ez balitz munduan!

Ez nuke bukatu nai auxe esan gabe:  
Zenbat lan egin zuen Ikastolen alde!  
Lanaren ondorengo emaitzak or daude.  
Naiz ta orain ondotik Jaunagana alde,  
biotzaren barruan nai zinduzket gorde.

2002ko maiatzak 8

Agustin Miner etzuen iñork ezagutzen pelotari bezela, etzan pelotaria-eta. Baiña, naiz bera bertan bizi ez, ezaguna zan ain gogoko eta ain maitea zuen ANTIGUA auzoan.

Pelotazale bezela, ordea, noiznai ikus zitekeen ANTI-GUAKo pelotaleku aurreko orma inguruan, lepoa luze-luze eginda, pelota partiduak ikusteko alegiñetan. Ni neronek ere alaxe ezagutu nuen, eta berarekin aldi batean EUSKERA lantzen ibili ere bai. Agustin'ek egindako gauza askoren artean, JAKINTZA ikastolan EUSKERA erakustea izan baitzan.

Beste gauzen artean, PELOTARI buruzko gisa onetako esaldiak entzun eta ikasi nizkion: “Gerriko gorridun atzelariak beso libreak ditu”, “Aurrelari onek oso zital sakatzen du”, “Ori Azkoiti'ko eskolakoa dala bixtan dago, ez dago esan bearrik”, “Ori da txapa-gaiñekoa, ori!”, “Aurrean ez dauka zeregiñik, atzera jo bearko luke”, eta abar eta abar. Oiek dira euskerazko esaldi jatorrak, eta ez “Atzelariak bi esku onak dauzka”, “Aurrelari onek sakearekin min asko egiten du”, “Orri nabaritzen zaio Azkoiti'ko eskolako estiloa daukala”, “Ori da gantxoia jo duana, ori”, “Aurrean ezin du tantorik irabazi, atzera eman bear lioke”, eta abar eta abar.

Beraz, badet arrazoi eta motiborik asko Agustin Miner'i buruz zerbait esateko, eta, naiz askoz ere geiago merezi, nere aipamen apal au eskeiñi nai izan diot, biotz-biotzez. Goian bedi.

Agustin Miner ez da oraindik denbora asko il dala,  
eta uste det bere gorantz zerbait esan bear zala.  
Baiña zergatik jakin ez arren nola ez dan egin ala,  
gutxieneko esan nai nuke bere laguna nintzala.

Uste nuen, bai, orain baiño len esango zala zeozer;  
bailña merezi izanagatik iñork ez du esan ezer.  
Nik esango det, eta gaiñera ez nabil batere oker:  
orain nik emen idazten badet Agustin zenari esker.

Dakidan pixka, ia guztia, ark erakutsitakoa,  
IKASTOLA ta EUSKERAn alde lan asko egindakoa.  
Orduko giro ta egoera ez pentsa zanik gaurkoa...  
Orretxegatik izan nai nuke orain esker onekoa.

Ez da aipatu, ez bera eta ez ark egindako lanik;  
egia esan ez nuen uste orrela aztuko zanik.  
Naiz ta lenago eta geiago merezi zula jakiñik,  
gogora ekarri, askoz geiago ezin nezakean egin nik.

*Antiguako pelotazaleak* aldizkarian  
2002ko uztaillean argitara emanak

# **Pelotariak**





## Atano III

---

Jaiotzen danak iltzea zor du, ori da egi gordiña,  
naiz eta orrek guregan sortu tristura eta samiña.  
Atano III' garrena ere betikoa ez, jakiña.  
Askoren ustez, iñoiz izan dan pelotaririk aundiña.

Gure artetik joanagatik beste mundura, zartuta,  
gutxi itz egin dezaket, kasik ez nuen ezagutu ta.  
Baiña idatzi ta esan diran denak gogoan artuta,  
plazan ez ezik, gizon bezela paregabeko kondukta.

Txikia nintzan, eta urterik orain etzait gogorutzen,  
baiña bein Altza'n ikusi nuen Atano zana, jokatzen.  
Pelotaleku zarra gaiñezka San Martzialak ospatzen;  
oso gutxitan ikusi det nik jendeak ala gozatzen.

Etzan aundia, baiña artista berezi oietakoa,  
bazter guzitan erakustaldi bikaiñak emandakoa.  
Txapela beti buruan, eta euskaldun itxurakoa;  
esan diteke bera gendula txapeldun benetakoa.

Goian itzaltzen ez diran izar oietakoak badira;  
Atano ere, ala izanik, joana da aien erdira.  
Gaiñera ez du galduko iñoiz berezko duan dizdira;  
an egongo da pelota eta pelotariei begira.

2001eko uztailean idatziak

Igaz Atano irugarrena, aurten il zaigu Ogeta,  
pelota-mundu osoa utziz triste, samiñez beteta.  
Ustekabean orra berriro izar baten itzalketa,  
eta zeruan nabaritzen da argitasun murrizketa,  
il berria dan gasteiztarra izar aundi bat zan-eta.

Pelotarako doai apartak ziran arek zituenak,  
eta, agian, ori etzuten ondo ikusiko danak.  
Baziran beintzat arro samarra zala esaten zutenak.  
Baita ni ere, izan banitu arek zituan almenak!  
Baiña jatorra ta ona zala esaten dute geienak.

Ain pelotari ikusgarria, eta ez mutil baldarra.  
Ezkerrez txapa gaiñean jotzen onena edo bakarra.  
Arek jokutzen zuen tokian ikusleak barra-barra.  
Emakumeak ere ez gutxi, ura ikusi bearra!  
Orrelakoa zan Josemari gure *zikloi* arabarra.

Aren jokia ta irudia nola ez jaso gogoan,  
azken aldera telebistako larunbateko saioan?  
Naiz ta oraindik urte geiegi pasa ez arren munduan,  
ikusitako degu gaitz maltzur batek nolatan eraman duan.  
Goian itxaron deigula beste pelotarien ondoan!

2002ko uztailean idatziak

Or, Goizueta'n bada gazte bat lilluraturik gauzkana;  
pelotaria da, ta onenen pareko fama daukana.  
Auskalo zenbat eman lezaken naiz asko izan emana.  
“Joxe, goraldtu ezak”, esanez etorri dira nigana,  
eta egingo det, al dan ondoen adiskideen esana.

Lenengo esan bear det bere jarraitzaillea naizela;  
eta agindu didaten lana pozik egingo detela.  
“Barkatu, baiña agian ezetz” esango nien bestela.  
Nere almena, ordea, ain da eskasa eta motela,  
goizuetarra nola goraldtu merezi duan bezela?

Aimar Olaizola da bera, ori da ori mutilla!  
Arrokeririk ez du batere, jatorra eta umilla...  
Bear danean itz egin, baiña gaiñerakoan ixilla,  
pelotan, berriz, oso trebea, azkarra eta abilla.  
Pelotari ta gazte guztien eredu izan dedilla.

Naiz zauriturik jokatu, edo berdin beso bat mindurik,  
azken boladan ez dago Aimar menderatzeko modurik.  
Sufritzen ere badakiela, ortan ez dago dudarik...  
Gaur-gaurkoz gazte onen almenak ez dute nonbait mugarik.  
Onak bai asko, baiña ez dakit aurki daiteken oberik.

Lau t'erdikoan, frontoi osoan, binaka edo bakarrik,  
ezin obeto moldatzen dala ez dago esan bearrik.  
Itxura danez, pixka batean ez du galduko indarrik,  
eta guk opa diogun gisa ez badu beintzat okerrik,  
eskeiñi bear digu jokaldi eta partidu ederrik.

Pelotazale geranok ezin dezakegu disimula,  
Aimar pelotan ikusiaz guk asko gozatzen degula.  
Orrek ez al du adierazten zerbait berezi badula?  
Eta nik uste ia denori auxe gertatzen zaigula:  
begira askotan egonagatik ezin aspertu sekula.

Aimar'ek ere gozatuko du, eta gaiñera ez gutxi  
naiz zoritxarrez zenbait unetan sufrimentuak ez utzi.  
Baiña guztiak gainditzen ditu eta sekula ez etsi.  
Lagunak ezin badu, bakarrik, amor eman gabe eutsi.  
Gaur egun dagon mailla ortara bestela nola iritsi?

*Jolastu* ordez *jokatu* esan bear da nere ustean,  
naiz Aimar'ek bi gauza oiek egiten ditu batean,  
berak “jolastuz jokatzek” baitu norgeiagoka astean.  
Baiña, tamalez, utzi bearko dio egunen batean.  
Berak eta guk goza dezagun alkarrekin bitartean.

2003ko uztaillak 4

Izar berri bat badu pelotak Ibero'n sortutakoa.  
Naparra, beraz, bein bear eta; ez bedi azkenekoa.  
Oso denbora gutxian izen aundia artutakoa,  
eta ez gera txantxetan ari, or dago egindakoa.

Juan Martinez de Irujo da bere izen eta deitura,  
oso txikia zalarik artu pelotarako oitura.  
Zaletasuna, berriz, gaiñezka eta egundoko ardura...  
Ain azkar ala aillegatu da aillegatu dan lekura.

Esan daiteke iberotarra sortzez dala pelotari,  
eta gerora doaiak lantzen pasea ordu ugari.  
Frontoia ia etxe biurtuz, uko egin gabe lanari,  
gozatu, baiña asko eskatuz beti bere buruari.

Doaiak asko ta onak ditu, aien artean ausarta;  
tantoa azkar egin naiean eraso zirt eta zarta!  
Pelota jotzen dun bakoitzean atera araziz txinparta,  
itz bitan eta azkar esanda: pelotaria aparta.

Oraindik oso gaztea baiña ia goiko gaillurrean...  
Iñor iritsi al da or gora ain denbora laburrean?  
Or dabil bere aurkari denak menderatu bearrean.  
Aurten txapeldun ez bada ere or izango da urrean.

Izugarria Irujo'rengan gaur egun dagon ustea;  
ez da arritzeko txapelarekin amets egiten astea.  
Danok dakigu ez dala edozein Olaizola gaztea,  
baiña lortu zun goizuetarra tanto batean uztea.

Juan'en berri gaur ondo dakigu, baiña ara zer zan lenago:  
txikitan bere adiñekoak baiño askoz txikiagoa.  
“Onek pelotan nola egingo du ez bada azitzen geiago?”.  
Ori zioten, baiña azi da ta mutil bikaiña dago.

Oso txikia zan, baiña ori ez izan arren delitu,  
“el pajarito” deitzearekin ez bedi iñor arritu.  
Zorionean, ordea, gero azi ez ezik indartu;  
eta txikitan “txoritxo” zana orra gaur “putre” biurtu.

2004ko uztaillean idatziak

Naiz eta orain kanpoan bizi, sortzez Beizama'kua;  
orain ez dakit azpeitiarra ala Donostia'kua.  
Baiña zuk joaten zeran tokian izango dezu lekua.  
Deitura dezu luze xamarra, zeu zeran bezelakua.  
...garikano utzi ta Peña'rekin badala uste det naikua.

Metro bat eta larogeita amar zentimetroko luzera,  
noranaiko ta zernaitarako mutil egokia zera.  
Baiña pelota izan da, Peña, zuk egindako aukera.  
Aizu, aspaldi ez da txapeldun gipuzkoarrik atera...  
Aurten zurekin berriro ere esperantzaz bete gera.

Oso lan ona egin dezula aitortu bear lenengo;  
eta zergatik ez degu amets txapelarekin egingo?  
Nola pentsatzen dedan, ordea, oraintxe dizut esango:  
Naiz ta txapelak zure buruan ez luken gaizki emango,  
amets egin bai, baiña lortzea ez da erreza izango.

Jator itxura artu nizun nik lendabiziko unetik;  
arrokeririk iñondik ez da, apaltasuna nonaitik.  
Oso gustora ikusten zaitut telebisio aurretik,  
eta zuk beti kiroltasuna gauza guztien gaiñetik.  
Apenas iñork ikusi zaitun oraindik "leche" txarretik.

Ez dakit, baiña nere ustetan etzera zu ain izua,  
naiz ta nai dezun ura esaten oso ondo dakizuna.  
Laguna ez ezik aurkaria ere errespetatzen dezuna.  
Zenbait unetan jarriko dezu kopeta naiko illuna,  
baiña sekula keiñu txarrik ez eta mingaiña txukuna.



Beste askotxo, berriz, kirolik garbiena itsusitzen,  
mingaiña beintzat oso txukuna ez bait dute erabiltzen;  
oitura ori gaiñera geroz eta geiago ugaltzen.  
Alperrik bada ere emendik asi nai nuke galdetzen:  
ez dakit, Peña, zuri zergatik ez dizuten begiretzen?

2006ko uztailean egiñak

# **Danetik**



Aurkezpenekoan N. Alday, A. Zavala eta nere aitarekin

Bizitzan zear ez daki batek zer ikusteko dagoan;  
gertakizunik berezienak artzen ditugu gogoan.  
Alako baten berri, ain zuzen, eman zidaten lengoan...  
Ni bai arritu, gauzak bestela ziralakoan nengoan.

Ainbeste tratu izandu detan senar-emazte leiala  
entzun det beuren arremantetan okertuta zebiltzala.  
Nik uste nuen maitasunean zoriontsuak zirala,  
Ta bitartean zer izango ta, banakatuak dirala!

Zuek ezkondu baiño lenago gogoratutzen zait neri,  
orduan eta gerogo ere ziñaten denen inbiri.  
Zuen artean laztan gozoak besterik etzan ageri...  
Itxuraz sendo zan maitasuna orra lurrera erori.

Irripar ezti ta itz xamurrak bata besteai begira  
zuen artetik beti-betiko aldegiñak ote dira?  
Geure biziko baratz onetan ainbat landare baidira,  
elorri beltzak indar artzean arrosak galdu oi dira.

Ondo pentsatu zenduten aurrez kabia egiten astia,  
osatu arte jarri ere bai gogo ta almen guztia.  
Alako kabi goxo, polita, eta ainbeste kostia,  
nork pentsatuko zuen orrela zapuztuta ikustia?

Bidezko zan da maitasun arek indarra zuen artean,  
alaigarrizat ondorengo bat izan zenuten urtean.  
Gertatu dana, dudarik gabe, guztiontzako kaltean;  
aurrak ikusi nai zinduzteke aita ta ama batean.

Arazo onen zeaztasunak ondo ez dakizkitela,  
ez uste izan bera juzgatzen emen asiko naizela.  
Baten errua ala biona, akaso iñork ez duela.  
Garbi dagona zuen aur oiek beintzat kulpik ez dutela.

Pasiak pasa, jarri zaitetze gerokoari begira:  
zuen aur oiek joan ditezke betiko ondamendira.  
Oraindik garaiz dala uste det, gauzak zuzentzen badira.  
Orretarako bildu lenengo egin zenduten kabira.

*Goiz-Argi*, 1976ko irailak 4

Idatzi nai ta ezin idatziz berriro noa astera,  
baiña ez dakit elduko naizen nere naia burutzer.  
Zenbat alditan iristen naizen luma eskuan artzera,  
eta seitatik bostetan utzi egiten badet oster.

Ze tankeretan aurkitzen naizen galdezka ari bazera,  
denbora asko baiño lenago emen dezu aditzera.  
Oar zaitez, adibide au nijoakizu jartzera:  
Zer jana izan ta ezin janez dagoenaren antzera.

Lan ontarako zaletasuna aspalditik datorkigu,  
pake-giroa ta bizi-poza bearrezkoak zaizkigu.  
Gaur, berriz, gure errian ainbat naigabe edo kastigu...  
Orrek burua elkortu eta eskuak lotzen dizkigu.

Gaitzerdi beste gaiñontzekoak alai egongo balira,  
ala norbere samintasuna jeitsi liteke erdira.  
Itxaropena galdu-zorian au diotenak badira:  
“Ez gera iñoiz irtengo berriz illunpetatik argira”.

Bestalde oso gutxi bear du mundu zar onek lertzeko;  
indartsuenak arma zorrotzak nonaira jaurtikitzeko.  
Txingar bat aski denak sututa gizadia garbitzeko.  
Jauna, zentzua eman da esan gutaz errukituzeko.

Luma maitea, lenago utzi izan zaitut nik askotan,  
eta ez dakit zergatik iraun dezun gaur nere eskuetan.  
Neronek ditut kulpa guztiak norbaitek izatekotan.  
Gaur ere obe utzi bazintut onela idaztekotan.

## Pake-giroa nai

---

Bakardadeko oldozpenetan ez al dezute galdetzen  
gizonak gudan jartzeraíño zerk ote dituen bultzatzen?  
Jakiñik oso ondoren txarrak beti ditula ekartzen,  
eta sortzen dun gorroto-sua íñoiz eztala itzaltzen...  
Galdetu arren nik erantzunik ez det íñundik aurkitzen.

Azken gudate negargarria sortu zaneko urtean  
txikia nintzan, eta jakiña, ezin oartu artean.  
Baiña ni ere, askoren gisa, lotu ninduten katean.  
Ondorena ez, etzait aztuko bizi naizen bitartean,  
ez bait genuen bururik jaso gerora aldi batean.

Gertatu ziran gauzak jakin ta gero geronek paseak;  
ala ta guztiz gaitzerdi galdu ez giñalako goseak.  
Guda zitalez eta mixeriz ederki asko aseak...  
Aztu eziñak izaten dira zenbait oroipen klaseak.  
Gogorazteko eztira txarrak gaur eguneko aizeak.

“Pakea” itza jaulkiko degu izketan asi orduko,  
ta bitartean, nabar-nabarmen, borroka nundik sortuko.  
Beste zentzuzko jokabiderik ez ote degu artuko?  
Bein betirako buruan auxe ez ote zaigu sartuko:  
Alkar erailka beintzat pakerik íñoiz eztala lortuko.

Egia da, bai, jarri zaizkigu gorrotorako bideak;  
baiña eztakit izan gaitezken orren erruki gabeak.  
Nai badegu ta nai ezpadegu danok amaren semeak,  
angoak beren etxean eta guk berriz emen gureak.  
Oso gogoan izango ditu ama bakoitzak bereak.

Nor da gizona, len eta orain, batek bestea iltzeko?  
Edo ain gutxi balio al du biziak ola galtzeko?  
Erailketak gutxi falta du jolas-bide biurtzeko.  
Ez gera iñor biziarekin era ortan agintzeko,  
eman ziguna naikoa baita nai duanean kentzeko.

Lengo zauriak sendatu gabe berriak sortzen badira,  
gorrotoaren sustrai zitalak ugaritzen joango dira.  
Goi samarrean giñanak orain jeitsiak gaude erdira;  
mundu guztia jarria dago erri zar oni begira,  
eta galdera au egiten dute: Pakea noiz Euskadira?

Pakerik gabe eztago, noski, askatasuna lortzerik,  
askatasunik gabe sekula ezta izango pakerik.  
Izan ditezken gauzik onenak, ez daukagu ukatzerik,  
biak uztartzen baldin badira eztegu bear besterik.  
Baiña itxuraz eztago emen olako uztargillerik!

Lenengo eta bigarreanean ezta izango, ez, errez;  
baiña pakea lortu diteke itz egin eta entzunez.  
Setari uzten ez bazaio, ez, ain gutxiago indarrez.  
Bidezko diran eskakizunei pulamentuz erantzunez  
Egiten duten txarrena au da: agindu eta eman ez.

Gure aldia joan samartu da, ez gaude luzarorako;  
etorkizuna ordea illun ikusten da gerorako.  
Beste gauzarik ez genuke nai guztioaren onerako:  
Pake-giroa ondorengo ta Euskalerrri guztirako.  
Kezka orrekin joan ez gaitezen lur ontatik betirako.

1983ko apirila



## Erriko taberna

---

Sukaldeko txokoetan  
asko edo geienetan  
Erri-Irrati ori pizten da bazkal orduetan.  
Une gozoa, benetan,  
arretaz entzun asmotan.  
Kendu zuten da nola ez gera egongo penetan?

Irratsaio atsegiña  
eta euskeraz itz egiña.  
Arek, *Erriko Taberna* zuen izena, jakiña.  
Joxe Lizartza'k egiña;  
euskera oso bikaiña.  
Gaur tabernako atea itxi eta aldegiña.

Zabaltzen zuen Taberna  
eta gu sartu barrena.  
Kontu-kontari asten zan eta ura zoramena!  
Nornairekin arremana,  
izaten zan zer esana...  
Bera gidari, baiña Irratia orduan danena.

Lenago euskera gutxi,  
gutxiagorekin utzi.  
Geroz geiago bear danean jeitsi eta jeitsi.  
Lengoari beintzat eutsi,  
eta aterik ez itxi!  
Gogozko zerbait falta degu ta ezin degu etsi.

Arek agurtu ginduan,  
berak ere pena zuen.  
Baiña betiko izaten danik ez dago munduan.  
Zer egiten da orduan?  
Beste bat jarri onduan...  
Baiña nork egin ote lezake Joxeren moduan?

Tabernazale ez gera,  
baiña Erriko artara  
oso pozikan sartzen giñan da orain berriz, ara!  
Ez gera joango bestera,  
joera txarrak artzera.  
Erriko ura nai degu ta zabaldu ostera.

1986ko azaroak 11

Iluna eta ixiltasuna, beste lagunik ezean,  
esna egonik zenbat oroipen gau bukaezin luzean.  
Egusentia tristora denak biurtzen ditu pozean.  
Baiña, bai nekez ikusten dala len argi-printza goizean!

Egusentia utsegin gabe zintzo etortzen zaiguna,  
eta dakarren argia izan guk bear degun laguna.  
Leiotik sartzen asten danean poza ematen diguna...  
Bere laguntza babes degula pasatzen degu eguna.

Mundua mundu dan ezkeroztik, beraz, bera bezin zarra,  
eguzkia da guri argia bidaltzen digun izarra.  
Bearrezkoa, ezer bada ta; baiña ez ori bakarra:  
Beroa, bizi, osasuna ta etenik gabe indarra.

Eguna joan, eguna etorri, egusentitik gauera,  
zenbat mesede egiten digun konturatutzen al gera?  
Bera ezpalitz zer giñake gu?, egingo nuke galdera.  
Zer eskertua badaukagu, bai, esker oneko bagera.

Bakardadean galduak eta gaxo daudenek ere bai,  
egun argia naiago dute, gau illunik eztute nai.  
Egunez triste egonagatik aurki genitzake lasai...  
Baiña gauean beti urdurik, nekez lasai eta alai.

Animaliei dagokienez, jartzen bagera pentsatzen,  
guri gertatzen zaigun ber-bera ez ote zaie gertatzen?  
Guk zer dakigu, esan daiteke ez diralako mintzatzen,  
beren jokera ikusi eta eztago zaila asmatzen.

Eredu gisa artu ditzagun txoritxo goiztar argiak:  
Gauetz ixillik egoten dira ekaitz beldurrez gordiak.  
Iñor baiño len esnatzen ditu egunsentiko argiak,  
eta berari eskeintzen asi lenengo kantu berriak.

Zuaitz, landare, belar ta lore: zuek zer deritzozute?  
Eguzkiaren berotasuna atsegiña al zaizute?  
Atsegin izan ez ezik oso bearrezkoa dezute.  
Zeraten dena edo geiena berari zor diozute.

Batipat lore ta landareak burumakur gau beltzean,  
eguzkia noiz azalduko dan zai eguna argitzean.  
Baiña bai azkar zutitu berak ekialdetik jotzean!  
Begira geldu oi zaizkio noiz irtengo berriz sartzean.

Gauza oberik ez zitekeen iñola egin asita,  
izadi guzti-guztia pozten dalako zu ikusita.  
Eguzki maite, egiguzu bai eguneroko bixita,  
zure laguntzik gabe lurrean gu ezin gera bizi ta.

## Manuel Lekuona: Bertsolaritza eta euskera

---

Milla zortzireun larogei eta amalaugarren urtean  
izar eder bat sortu zitzaigun Oiartzun'go mendartean.  
Bagenekien itzali bear zuala egun batean,  
bertsolaritza, euskera eta euskaldunontzat kaltean.  
Baiña bai argi dizdiratsua bizia zuen artean!

Txit maitekiro deitzen genion danok: Lekuona zarra.  
Begiratua xamurra eta ezpaitan irriparra.  
Jakintsua zan jakintsuetan, zenbait gaitan bakarra;  
besteak beste, auxe izan da, dago aitortu bearra:  
Bertsolariok ainbat urtetan gidatu gaitun izarra.

Gidatzen gintun izarrak ez du argi egiten, au pena!  
Utsune bete eziña, eta illunpean dago dena.  
Ain egoera errukarrian au da gerta litekena:  
Guk daramagun norabidea ez izatea zuzena.  
Aren ildotik jarraitutzea ez al litzake onena?

Bertsolaritzaz arduratuak asko xamar izan dira,  
eta gogoan izatekoak geiago ere badira.  
Baiña Manuel Lekuona'ren merituari begira:  
Bertsolaritza atera zuen illunpetatik argira,  
aztertu eta jaso ere bai merezi duan tokira.

Euskera arloan guk badakigu oso jakintsua zana,  
garai batean Euskaltzaindiko lendakaria izana.  
Aize berriak iritsi ziran erakunde onengana,  
eta ankaz gora bota bear zan lendik egindako dana.  
Etzeuden aintzakotzat artzeko apaiz jaunaren esana.

Lekuona'ren iritziekin etzegen adostasunik,  
eta, jakiña, etzan komeni traba egingo zuenik.  
Bera barruan zegoelarik ezin egin nai zutenik,  
ori zalata etzuten izan baztertu arteko onik.  
Gure iritziz ez degu uste ondo jokatu zutenik.

Berri zaleak etorri ziran sekulako indarrean,  
beren asmoak ezarri nairik naiko era zakarrean.  
Gure izkuntza ez egon, berriz, moda oien bearrean;  
batasuna, bai, bearrezko da, baiña ez derrigorrean.  
Zatiketa da lortu zutena bateratu bearrean.

Goitik entzuten baldin bazaude, auxe jakin bear dezu:  
Jarraitzailleak zuk uste baiño askoz geiago dituzu.  
Zure ondoan zein ezerezak geran ondo badakizu,  
alaz ta guztiz zure bidetik jarraitzeko prest gauzkazu.  
Zuk nai bezela gai ez bagera, arren barka ezaiguzu.

*El Diario Vasco, 1988.05.26*

## Uraldi beldurgarriak

---

Desgraziz ondo gabiltz joan dan aspaldian,  
urak jipoitzen gaitu oraingo aldian.  
Larogei ta irukoa oraindik aldian,  
aurten kalte geiago orduko aldian.  
Urrena zer izango beldurrak aidian.

Emeretzigarrena zuen uztaillak;  
nundik etorri ote alako ur pillak?  
Alperrik ziran ate eta maratillak,  
eraman zitun gizon eta berebillak.  
danetara amabost izan dira illak.

Azienda, bizitza, lantoki ta tresnak;  
barazkiak bezela zuaitzik onenak.  
Uraldiak eraman dizkiote denak,  
orrenbeste kostata egin zituztenak.  
Zenbateraiñoakoak ote oien penak?

Famili asko dira or naigabetuak,  
bizi-pozik batere gabe geldituak.  
Ondasunak galdu ta gaiñera ituak,  
alkar maitatuz orain arte bizituak.  
Nola sendatu oien biotz erituak?

Ura, zurekin esker onekoak gera,  
izan daiteken gauzik onena bait zera.  
Baiña neurritz kanpo irteten bazera  
sarri izango degu zurekin galera.  
Zure neurria da: belaunetik beera.

Kaltetuak bearko dute anparua.  
Ori da agintariak duten elburua.  
Danentzat iristea ez da segurua,  
gutxienerako eman bear dan dirua  
eta ildakoentzat betiko zerua.

Ez dira biziro bertso alaiak auexek ere, baiña barruan zerbait esan naia sortzen danean, esan arteko onik ez da izaten. Neri beintzat ala gertatzen zait. Ez dute ezer askotarako balioko, noski. Bestalde, zer geiago egin genezake guk? Asko geiago ez, bistan da.

*El Diario Vasco*, 1988.07.31



## Eguzkiaren irteera

---

Egunsentia adieraziz eguzkia datorrela,  
egunik egun, utsegin gabe egiten dezu orrela.  
    Bizi-poza zera zu,  
    eta jakin ezazu  
    goizago jeiki naizela,  
argiak deitu eta esnatu egin banindu bezela.

Zai-zai naukazu etxe ondoan; mendiak dira errudun;  
ez dakit mendi oiek aurrean zergatik jartzen zaizkizun.  
    Denak gainditu nairik  
    beatz-puntan jarririk,  
    nik ez dakit badakizun:  
Gaillurreraiño joango nintzake izango banintz egodun.

Utikan, mendi kankaillu oiek! Zuek zer uste dezute?  
Eguzkiari atea ixten kosta egingo zaizute.  
    Ez dezute nai, baiña  
    artuaz zuei gaiña  
    menderatuko zaituzte.  
Alper-alperrik zabilzate ta amor eman ezazute.

Txantxangorria ere or dabil adaxkatik adaxkara,  
jauzi ta jauzi, gorantz dijoa zuaitzaren gaillurrera.  
    Zertara an goraiño  
    puntaren puntaraiño?  
    Eguzkia agurtzera.  
Ain gertakizun zoragarria bere kantuz alaitzera.

Ozenki, ia lertu zorian ekin dio kantuari  
bere lenengo txio-txioak zuzenduz egukizkiari.

Deia ain da garbia,  
eta izar argia  
oraindik ez da ageri.

Baiña denboraz baietz erantzun egiten dion deiari.

Bide-ertzean txit burumakur lore txiki bat dardarrez,  
gaueko intza otzaren zama iñola bota eziñez.

Otzez dago, gaixoa!  
Zure bero goxoa  
artuko du atsegiñez,

naiz loretxoak senti duana ezin esan itz egiñez.

Izugarrizko ixiltasuna une batetik bestera,  
txantxangorria mututu da ta lorea zutik ostera.

Txintik ez da entzuten;  
nik badakit zer duten.  
Begiratu sortaldera.

Une ontantxe ikus daiteke eguzkiaren irteera.

Urrezko izar dizdiratsua, au poza eman diguzuna!  
Gure aurpegian somatzen degu dakartzun berotasuna.

Zure printzen laztana  
badator guregana.  
Auxe da gozotasuna!

Zuk erakusten diguzu zer dan benetako maitasuna.

Ixiltasuna eten da berriz, bada abesti ugari;  
txantxangorria gidari dala izadi dena kantari.

Alkar artuta, denak  
abestirik onenak  
eskeñiz eguzkiari;  
ta eguzkia irriparezka begira abesbatzari.

Zerua edo paradisoa zer dan ez dakit, au lana;  
bietako bat izan bear du, alai dago emen dana.

Baiña illuntzerako,  
guztion kalterako,  
agian, bear eztana  
egingo degu eta ondatu goizean ain alai zana.

1988ko abuztuak 22

Pillatuta zeuden egunkari zaarrei eskua bota diedanean, auxe irakurri dut aietako baten azalean: “Este fin de semana murieron 64 personas en la carretera”. Ez du garrantzi aundirik, baiña zein egunetakoa zan jakin nai baduzute, irailak 5, asteleenekoa zala esango dizuet.

Beste burutapen askoren artean, auxe dabil nere baitan: Asteburu batean orrenbeste lagunek bizia galdu badute, zenbatek urtearen buruan? Bakoitzak bereak gogoan edukiko ditu... Baiña otzikara ematen du onek, eta sinesteak ere baditu bere lanak, axaletik begiratuta beintzat. Zertxobait sakonduta, ordea, ez ainbeste.

Egia da auto-bide edo bidezabalak asko egin eta berritu dirala azkenengo urte auetan; baiña automobillak, berebillak edo kotxeak itxurarik gabe ugaldtu diranez, egiten dan gutzia eta geiago bear.

Ezin ukatu gaurko kotxeak segurantzi geiago eskeintzen digutela; egunetik egunera teknika berriak eta gero eta sofisticatuagoak datozela. Itz egiten dutenak ere badira, nai edo aal izan ezkerro. Aurki, berriz, gidaririk bear ez dutenak ikusiko omen ditugu kaleetan zear. Eta... bera ez al litzake onena? Ala, alkar jo, naiz bazterra jo, bizirik ez luke iñork galduko. Eta berriak egin eziñik ez legoke, ez orixe!

Badute, ordea, beren alde txarra ere. Azkarregiak izatea edo martxa izugarriak arrapatzeko gai izatea. Ori dalata, segurantzia martxaren arabera geitu edo gutxitu daiteke. Bestalde, zertarako balio dute bide-bazterretan martxa mugatzen jarriak dauden ezaugarriak? Nork errespetatu gainditzeko alako erreztasuna eukita? Zenbait unetan izan dezakegun, edo azaltzen dugun baiño zentzu geiago ez al digu eskatzen orrek?

Aurrerapenak aurrerapen, ala ere, gizonok beti gizon. Geurekin ditugu utsegiteak, zentzugabekeriak, aundi usteak, arrokeriak eta gaiñontzeko akatsak. Ori garbi ikusten da batera eta bestera ibiltzeko neurri gabeko antsia daukagun ontan. Alkarren leian bagenbiltza bezela, zenbat eta urrutirago eta azkarrago joatea dala dirudi elburu nagusia. Ez dugu ez asko pentsatzen kanpora goazenean etxera itzuli gabe gelditu gaitzkeenik. Ez orixe! Baiña, zoritxarrez, ezin konta aala dira bidean galdutako amets eta ilusioak.

Orain ogei urte, orduan ere gai onek kezkaturik, bertso kaskar batzuek jarri nituen. Eta urte mordoa pasatu arren, gauzak ez dira asko aldatu.

Gaur eguneko bide-zabalak sarritan dira gorritzen,  
zoritxarrean odol geiegi ari baita ixuritzen.  
Iñoren aurka ez det egin nai, baiña neri iruditzen  
amarretatik zortzian, ondo ez geralako ibiltzen.

Badakit, nere bertso auekin ez det kenduko negarrik,  
baiña nai nuke kontseju auek ez izatea alperrik.  
Ainbeste lagun il ta zauritzen ikusteakin bakarrik  
jende-gutxitze naikoa bada, ez degu gerra bearrik!

Ezbear askon giltza bakarra dago gure eskuetan,  
geren erruak izaten dira beintzat momentu askotan.  
Adimen gutxi azaltzen degu sarri gure buruetan.  
Eriotz zale geurok gerala badirudi batzuetan.

Arriskutsua degu benetan azkarregi ibiltzea;  
ontzat iñola ez degu artzen iñork aurea artzea.  
Alkarren leian naiago degu ortxe muturrak auste!  
Obe genuke atzetik baiña osorikan iristea.

*El Diario Vasco, 1988.09.23*

Lagun jatorrak gureak,  
zartzera askoz obeak.  
Lanerako ta naiz ibiltzeko  
kupira gabeak.  
Alai ta bromazaleak,  
ez nolanaiko jaleak...  
Auen ordaiñez entzungo ditut  
denboraz nereak.

Negu, udazken ta udan,  
eguraldia nola dan,  
jaiegunetan ez dira egoten  
irteteko dudan.  
Ibili, jan eta edan,  
gaur emen eta biar an.  
Oiek ikusi gabeko gauzik  
ez dakit ote dan.

Eguraldi txarrarekin,  
mendira, makillarekin.  
Etzazu uste ikaratzerik  
iñoiz ezerekin.  
Eta eguzkiarekin,  
kotxe bete trasterekin  
itsasertzera, bazkari eta  
meriendarekin.

Bezperan deitu ziguten,  
Hendaia'ra joan nai zuten.  
Guk ezagutu arteko onik  
iñola etzuten.

An zer ikusten zituzten  
sarri genien entzuten...  
Ustagabean ez dakit nora  
eraman ginduten.

Aiek beren barrutian,  
guregandik apartian,  
larrugorrian, baiña geldirik  
joandako tokian.  
Gu, ibili aitzakian,  
nabarmen aien tartian.  
Aurrean bidaliko gaituzte  
egunen batian.

Nai badezu ta ezpadezu,  
begiak joaten zaizkizu;  
diximulatzen saiatzen gera,  
baiña badakizu...  
Aldamenetik: Adizu,  
begi luzeak dituzu;  
beste ainbeste ikusi ez dun  
norbait dirudizu.

Zer dezu ola jartzeko,  
besteri kargu artzeko?  
Zeu zintzo ote zabiltza neri  
kontu eskatzeko?  
Erru denak neretzako,  
zuk, malizia saltzeko.  
Eguzkitako betaurrekoak,  
diximulatzeko.  
Nere abilitadederik

nik ez daukat ukatzerik.  
Olakoetan etzait gustatzen  
aukera galtzerik.  
Ori beste pekatuerik  
ez det, eta infernuerik  
neretzat ez da izango; ortan  
ez dago dudarik.

Gizon bat aldamenean,  
naiko itxura txarrean:  
zerria bezin legun ta lodi,  
lertu bearrean.  
Aurre ta atzekaldean,  
danean zeukan sobrean.  
Apotearen antza aurrera  
makurtzen zanean.

Guztion onagatikan  
goazen azkar emendikan.  
Parrari ezin inola eutsi,  
an etzan bromikan.  
Oroitzean, geroztikan,  
irriparra oraindikan...  
Gaurkoak auek dira, oraingoz  
ez da besterikan.

1988ko irailak 18



Etxean abereak gogozko izanik,  
badago duanik.  
Katu polit bat nortzuk duten badakit nik.  
Ez det emen esango beraien izenik,  
ez baitet uste ori naiko luketenik.  
Ez nuen uste ainbat maitatzen zutenik.

Katu ori “Txispitas” dezute izenez;  
laguna naizenez,  
malizi askokoa esan didatenez.  
Naiz orain arte iñoiz gaxorik egon ez,  
UVI’n eduki dute gau eta egunez.  
Andik bizirik irten danean, ezer ez.

Oartuz sabelean koskor bat zeukala:  
gaur bertan, al dala,  
beterinarioak ikusi dezala.  
Beregana eraman zuten bereala;  
miatu zuen ongi, pertsona bezala.  
Esan zuen kentzea askoz obe zala.

Ebakuntza egin zion egun artan bertan.  
Asi amarretan  
eta bukatu zuen ia amabitan.  
Beterinarioak, izerdi patsetan:  
“Iltzeko eguna da oso gutxi faltan.  
*transfusioa* egin diot bi alditan”.

UVI tik atera zun erdi esnaturik,  
sonda bat jarririk.  
Eta etzeukan ondo zegoan itxurik.  
Ezin zion gelditu odol jariorik.  
Ala esaten zuten denek elkarturik:  
“Onek ez dauka ordu askoko bizirik.

Goazen indizio bat lenbaitlen jartzera;  
orain da aukera,  
eta odol jario ori gelditzera.  
Besterik jarri gabe libratzen bagera,  
bera sendatuko da emendik aurrera.  
Gauerako eraman daiteke etxera”.

Aurtxo jaio berria bezela artuta,  
kotxean sartuta,  
laister iritsi ziran, etxea gertu-ta.  
Ordu txarrak pasa ta oso nekatuta  
katramilla guztiak ustez bukatuta,  
oeratu gaitezen zerbait afalduta.

Amak au esan zuen: “Gauerdi aldera  
txandatuko gera.  
Orain nik zainduko det, zoazte oera”.  
Baiña odola asi zitzaion ostera.  
Ama estu ta larri denak esnatzera:  
“Il baiño len zatozte azkar ikustera!”

“Txispitas” il zorian, miauu!!! ta antsi;  
    “pitxitxi, pitxitxi!”  
deitu arren katuak oso kaso gutxi.  
Biotz taupadak asko zitzaizkion jaitsi.  
Orduantxe erabat bai zutela etsi.  
Ezin izan zioten negarrari eutsi!

“Beterinarioa ekarri bear da  
    etxera joanda!”  
Naiko kezkatu ziran, ordu txarra zan da.  
Baiña zer gertatzen zan garbiro esanda:  
“Orain arteko odola normala izan da,  
geldituko diogu zeozer emanda”.

Indizioa jarri zion etorrita;  
    guztiz erorita  
aurkitu zuen gure “Txispitas” polita.  
Erantzuna ikusi arte exerita,  
eta onena egin zula ikusita:  
“Eskerrak garaiz egin diodan bixita!”

Geroztik etzun izan ezerekin okerrik,  
    iñoren bearrik;  
erida sendatzeko etzegen beldurrik.  
Kurak egiten zitun ederki bakarrik.  
Katuak zazpi bizi ez ditu alperrik.  
Ori esan zuenak etzion gezurrik.

1988ko irailak 24

## Loiola'ko San Inazio'ren gaztaroa eta garaia

---

Bertsoak jartzen saiatuko naiz euskaldun baten gorantzán,  
milla lareun ta larogei eta amaikéan jaioa zan.  
Gizon bezela esan daiteke ibili gabe zalantzán,  
aundiagoak gutxi dirala Euskalerriko baratzán.

Mundu osoan ezaguna da aldatu arren izenez,  
lau eratará deitzen baitzaio Euskalerrían, gutxinez:  
Eneko, Iñigo, Inazio ta Iñaki deitzen zaionez.  
Baiña, batipat, guk Loiola'ko San Inazio esanez.

Jaio zaneke mendeurrena ospatu nairik dabilta;  
bosgarrena da eta eratuz ez dakit zenbat ekintza.  
Nik, berriz, bertso auen bitartez kontatu bere bizitza...  
Premian naiz ta San Inazio'k emango al dit laguntza.

Azpeitia'ko Loiola'n jaio, eta bertan bizitua,  
aurtzaróan bai beintzat, naiz gero modu asko korritua.  
Naxera'ko Dukearen mende gudaritzán serbitua,  
Iruña defenditzeagatik Ziudadela'n zauritua.

Garai artako senar-emazte geientsuénen modura,  
Iñazio'ren aita ta amak ere nolako ardura!  
Amabi seme-alaba ekarri etzituzten, ba, mundura?  
Galdu da orain alako saillak munduratzeko oitura.

Zortzi neska ta lau mutil ziran munduratu ta aziak;  
neskak ez dakit, baiña mutillak borrokarako eziak.  
Jakiñekoak, berriz, gudatik datozen irabaziak:  
Lautatik iruk artantxe galdu zituzten beren biziak.

Iru anaia arrapaturik guda zitalen lazoak,  
San Inazio ere astindu zuen bere erasoak.  
Sendatzen pasa zituan une aiek etziran gozoak!  
Alaz ta guztiz arro, agian, aitona ta gurasoak.

Inazio'ren aitonak beintzat griña bazuen berekin;  
Guda bizian ibillia zan bere zazpi semerekin,  
moroen aurka ta baita zenbait napartar erregerekin.  
Ondorengoak zaletu bear alako arbasoekin.

Milla lareun da larogei ta amaikagarren urtean,  
Loiola auzoko Dorre-etxean, eta Azpeiti'ko partean,  
antxe jaio zan San Inazio, egun argitsu batean.  
Bere aipamenak izango dira sinismenik dan artean.

Aitaren naia ala izanik, aurtzaroko denboretan,  
egonak ziran elizgizona izango zala ustetan.  
Amabi edo amairu urte bitarteko eziketan  
eliz-giroan sartuta ibili izan baitzan geienetan.

Oso gazterik asi zan sortzez nungoa zan konturatzen,  
eta jaio zan lurra, izkuntza eta oiturak maitatzen.  
Baiña amabost urtetarako asi mundua korritzen,  
Arevalo'ra joan da jarri zan Velazquez Cuellar serbitzen.

Valezquez Cuellar zan Kastillako erregeen kontaria;  
bera izan zan Inazio'ren maixu eta gidaria.  
Aren ondoan ikasi eta egin zan idazlaria;  
aldi berean aundikerizko giroan zan eroria.

Gazte izanik burua arin gure Inaziok orduan.  
Giroa ere alakoxea sartu berri zan munduan.  
Naiz ta ibili arren Errege Katolikoen onduan,  
tentazioan erori, asko erortzen geran moduan.

Besteak beste, zaldunkerizko liburuaz zaleturik,  
bat ere etzan izango arek irakurri gabekorik.  
Burua galdu ta arrotzeko bai ote da alakorik?  
Maitakerizko joera txarrak artzeko zer obegorik?

Itsumenean errez da bide txarretik abiatzea;  
oso errez da bideko zenbait tentalditan erortzea.  
Ez, ba, arritu zuzen usteko aiek ere okertzea,  
eta okertu ezkerro kostea egiten da zuzentzea.

Loiola'koa ere atzeman zuen zebillen bideak  
eta zergatik ez esan, egin ere bai, noski, bereak.  
Baiña denboraz dei egin zion zeru ta lurren Jabeak,  
baita aldatu ere zearo bere buruko ideak.

Milla bosteun ta oitabateko Iruña'ko gerratean,  
lergaillu batek zango bat autsi, zauri larriak bestean.  
Ezertarako gauza etzala kasikan urtebetean,  
beste mundura joateko ere egon zan kinka betean.

Ala zegola, eta gogozko izanik irakurketa,  
koiñata Malen'ek egin zion liburu aukeraketa:  
*Flos Sanctorum* ta *Vita Christi* naiz beste zenbait ariketa  
irakurriaz asi zan bere zuzentze edo biurketa.

Malen koiñatak emango zion, agian, aurrez tankera;  
eta burutsu jokatu zuen une artatik aurrera,  
ederki asko aprobetxatuz etorritako aukera,  
aldatu zedin Inazio'ren bizitza ta izakera.

Dударик gabe ura izan zan Jainkoaren abixua:  
Liburu aiek irakurtzea izango zan prezisua.  
Orduan egin Jesukristoren txit jarraitzaille sutsua,  
geiago arma eta gerrik nai etzun kristau paketsua.

Sendatu eta abiatu zan gero munduan barrena:  
mando gaiñean Arantzazu'ko Amarengana aurrera.  
Montserrat'eko beneditarren etxera joan zan urrena,  
An aitorketa batez garbitu anima ta barru dena.

Garrantzitsuak gero Manresa'n igarotako egunak,  
Batipat leitze-zulo batean sartuta eman zitunak.  
Bakardadea bearrezko du zerbait burutu nai dunak:  
Pake-giroan antxe idatzi zituen *Gogo-Jardunak*.

Idatzitako *Gogo-Jardunak* nolaz eta norentzako?  
Bere antzera oker-bidetik ibilliak zuzentzeko.  
Beste batzuei Kristoganako sinismena sendotzeko,  
eta munduan ezagutzera eman eta zabaltzeko.

Milla bosteun da ogeita iruan jo zuen Bartzelona'ra;  
an itsasuntzi batean sartu eta gero Erroma'ra.  
Esketik jan ta bidea oiñez pasatuz Benezia'ra,  
andik itsasoz eta erromes Jerusalem iriara.

Lurralde santu artan ez pentsa ain ondo artu zutenik,  
ez baitzioten eman nai izan an bizitzeko baimenik.  
Itzuli eta ark ikasiak bai ote zuen azkenik:  
Latin, Fisika, Teolojia, Lojika ta zer dakit nik?

Oiek guztiak ikasi zitun, gizon argia izanda;  
buru-belarri artara jarriz, denbora asko emanda.  
Baiña ez toki berean gauza bati begira egonda,  
baizik Alkala, Salamanka'ra eta Paris'era joanda.

Ikasi, eta aldi berean, saiatu zan erakusten.  
Dotriña eta *Gogo-Jardunak* ere egiten zituzten.  
Baiña orduko elizgizonek etzuten ondo ikusten,  
eta bi aldiz preso egon zan, ez dakit badakizuten.

Oztopo eta traba zebillen alde batetik bestera;  
asperturikan, oiñez joatea erabaki, Paris'era,  
lenez gaiñera goi-ikasketak sendotu ta burutzeraz.  
Andik gaxorik itzulia zan sorterrira, sendatzera.

Sendatu nairik gaixo-etxera, bere etxea utzirik  
eskale baten gisara joan zan, ez baitzuen nai lujorik.  
Eta gaztetan ekintza txarren jabe zala oarturik,  
penitentzizko bizimodua egin zuen damuturik.

Baiña, Inazio gaxoaldiak lo arrapatu etzunez,  
taldea martxan jarria zeukan aurretik lanak egiñez.  
Frantxisko Xabier, Fabro, Salmeron eta Lainez,  
Rodrigues, Bobadilla'rekin sei; orrela ziren izenez.



Sei gizon argi ta Inazio, nolako zazpikotea!  
Lendabiziko lana izan zan Elkartea egitea.  
Gero, sendotu zedin botuak eta itza ematea.  
Azkenik promes egin ta erromes Jerusalem'a joatea.

Azpeitia'tik Benezia'ra irten sendatu zanean,  
eta Erroma'ra, bere lagunak eldu zitzaizkionean.  
An asi ziran Aita Santuak agindutako lanean,  
Ez bait ziran jun Jerusalem'go lurraldera azkenean.

Milla bosteun ta oita amazazpi, komeni da jakitea:  
San Inazio Loiola'koa apaiz egin zan urtea.  
Berrogei eta sei urterekin, etzan beraz ain gaztea...  
Berandu baiña, ura ere ark lortu zuen egitea.

Apaiz eginda etzan gelditu; eta urrengo urratsa:  
*Jesusen Lagundia* sortzea, ura zan bere ametsa.  
Garrantzitsua benetan, baiña erreza zanik ez pentsa.  
Eskerrak Paulo III-nak eskeini zion laguntza.

Milla bosteun ta oita emeretzin *Lagundia* onartua;  
berrogeiean Aita Santuak bein betiko baieztua.  
Eta lagunek sortzailleari emanik beren botua,  
andik bi urte barru izan zan Jeneral izendatua.

Andik aurrera buru-belarri saiatu ziran benetan:  
aurrei dotriña eta gazteak bideratzeko lanetan.  
Konbentu edo eskolak jaso, bear zan leku aietan,  
eta iñongo mugarik gabe munduko bazter danetan.

Lagundi arek eman zuen, bai, etekin eta fruturik!  
Itali, Indi ta Portugal'en, Espainia'tik asirik.  
Lendabizi lau, gero amabi elkarte martxan jarririk...  
Orrela il zan; etzuen izan geiagorako astirik.

San Inazio'k gauzak egiñak zituan il zanerako,  
zalantza eta kezkarik, nunbait, etzuen nai gerorako.  
Bera il arren presto milla bat Josulagun lanerako.  
Ogeita zazpi milla baziran andik mende erdirako.

Milla bosteun ta berrogei ta amaseigarren urtean,  
beazuneko gaitz zital batek jo zuen bete-betean.  
Eta ark galdu uztaillaren ogeita amaika batean.  
Etzan zarrez il: irurogei ta bost urte zitun artean.

Gipuzkoarra Erroma'n il zan beartsu baten tankeran:  
alaxe nai ta, azken urtetan, bizi izandako eran.  
Azken orduko laguntzak eskas izan zituan aukeran,  
baiña Jainkoak argi egiñez bizitzaren bukaeran.

Milla seireun ta bederatzian len zerutar aipamena,  
milla seireun ta ogeita bia santutzat artu zutena.  
Gizona zanez, zenbait unetan ez izan arren zuzena,  
bere obra da guk eredutzat artu bear gendukena.

Garrantzi asko eman zitzaien bi ospakizun aieri;  
geroztik jaso ditu aipamen eta gorespen ugari.  
Eliz guzitan egin ere bai aldaretxoak berari.  
Gaur bera degu Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko zaindari.

San Inazio: kontutxo batzuk esan bear dizkizut nik;  
baiña, agian, ez det esango zuri atsegin zaizunik.  
Zure bizitzan izan zenduan oztopo ta zailtasunik!  
Etzazu uste gu ere ezti artean bizi geranik.

Iñola ere ez nituzke nai mindu zure belarriak.  
Ala ta guztiz entzun, mesedez, dijoazkizun berriak:  
Ez du pakerik zu jaio eta gu bizi geran erriak.  
Ori naikoa ez dala, anaiak alkarren aurka jarriak.

Ez gera asko, eta geranok iñoiz elkartu eziñik.  
Nik esan bear banu, gutxinez milla pusqueta egiñik.  
Eta etsaien naia, ain zuzen, orixe dala jakiñik,  
pentsatu utsak ez dit ematen iñolako atsegiñik.

Larrosen orde arantzak sortzen dira gure baratzean,  
gogorkeria arantza gisan sartzen zaigu biotzean.  
Ori gertatzen da maitasuna eta fedea galtzean;  
zer esanik ez alkarganako gorrotoa ugaltzean.

El Salvador'tik iritsi zaigu oso berri mingarria:  
Sei Josulagun il, eta aien artean Ellakuria.  
Zure oiñordeko zan da langille asper-ezin, ugaria.  
Orra lanaren truke eman nai izan dioten saria!

Bizkaitarra zan Ellakuria, zure jarraitzaille fiña,  
El Salvador'en besteren alde makiña bat lan egiña,  
bartzertu nairik gorrotoa ta alkar ikusi eziña.  
Pake-giroa sortzen, batipat, egin zuen aalegiña.

Beraz, gaur ere jarraitzen degu berdintsu edo antzeko;  
asko falta da Justizia ta Askatasuna lortzeko.  
Ori dala-ta, zenbait berriz prest eskuan armak artzeko.  
Tamalez, batek baiño geiagok bere bizia galtzeko.

Zu ere noizpait ibili ziñan armak eskuan artuta;  
nik esan bear banu, burua batenbatek berotuta.  
Baiña denboraz utzi zenitun arma aiek baztertuta,  
bide aitatik ezertxo onik etzegola oartuta.

Armak utzita Jauna serbitzen asi ziñan zu jo ta ke,  
dena berari eskeiñi arte, zenbat naigabe ta neke!  
Ori guztia gaur eskatzea geiegizkoa litzake...  
Gogorkeria uztearekin konformatuko nintzake.

San Inazio, gure zaindari eta patroia zera zu;  
gu, euskaldunon ontzia zaitu eta gidatu ezazu.  
Euskalerrria pakeatzeko bitartekotza egizu,  
bide txarretik dabiltzan aiei argi egin ezaiezu.

1989ko abenduak 26

## Maite dudalako

---

Erri bakoitzak bere izkuntza, eta gurea Euskera,  
Euskalerrria izeneko lur onetan bizi bait gera.  
Beste guztiengandik bereizten gaitun izkuntza da bera.  
Paregabeko altxorra dala konturatutzen al gera?

Izkuntza aberats, goxo ta garbi baten jabeak izanik,  
arro egoteko ainbat motibo badaukagula uste nik.  
Baiña gauz gutxi dira Euskerak ainbat kezkatzen nauenik,  
ez baitet uste gutako askok benetan maite degunik.

Bularra eman ez ama gurea euskeraz zitzaigun mintza;  
ain maitekiro erakutsia aztuta ez al gabiltza?  
Seme-alabon kontzientzia benetako balitza,  
ama bezela maitatu bear genduke gure izkuntza.

Amak gozoki erakutsia saiatua naiz gordetzen;  
nere barruko kontzientziak alaxe nonbait agintzen.  
Baita ikasi ere euskera ama bezela maitatzen;  
eta egia esatekotan, etzait batere damutzen.

Bearrezkoa dala pentsatuz euskera landu ere bai;  
gaur egun banaiz zerbait idatzi eta irakurtzeko gai.  
Nik errespeto aundia diot erabiltzeko nolana...  
Askotxo, berriz, zabarkeriaz galdu ta alare lasai.

Bada dionik “Gure izkuntza asko ari da indartzen”.  
Naiago nuke orrela balitz, baiña etzait iruditzen.  
Nik esan bear banu, narrasten eta nortasuna galtzen.  
Senti dedana esan bearrak ez nau gutxi naigabetzen!

Euskerak ere, izkuntza danez, badu arau ta legerik;  
ez sartu, beraz, ez dagokion itz arrotz eta joskerik.  
Naiko aberats bada izatez, ez du bear nasketarik;  
orrekin ez da egiten auldu eta narrastu besterik.

Euskera arloan gutxi dakina naizela edonork daki,  
baiña badakit zer dagon ondo, badakit zer dagon gaizki.  
Irakurri ta entzuten degu aldebreskeria galanki!  
Zenbait unetan naiago nuke dakidana ez baneki.

Bide onetik ez goazela nola ez eman tankera?  
Obe litzake al dan azkarren egingo balitz aukera;  
bestela gure izkuntzarentzat izugarrizko galera!  
Gero berandu izan liteke, kontuak orain atera.

Askok esango dute, agian, gogor itz egin detela,  
arrazoi gabe kezkatu eta ezkor aurkitzen naizela.  
Zer egingo det nik arazoa ikusten batdet orrela?  
Benetan diot: obe ez balira gauzak nik uste bezela.

1991n egiñak

Kiniela, Loto ta Primitiva-rekin,  
zozketa oiekin,  
asko irabazi nai diru gutxirekin.  
Zer gerta ere, obe baita alkarrekin,  
sozio jokutzen det emaztearekin,  
noizbait aberasteko esperantzarekin.

Kiniela egiten du astero berdiña,  
andreak, jakiña;  
bota gabe uztean sekulako miña.  
Aztu gabe seillatzen saiatzen naiz, baiña  
memoria dadukat aul eta ziztriña.  
Aztean ezta izaten giro, alajaiña!

Ez naiz sekretario punta-puntakua,  
buru txarrekua.  
Sarritan aztutzen zait agindutakua,  
andrea asarretzeko orixe naikua.  
“Kiniela aztu zaizu? Tonto lapikua!  
Zer, ateratzen bada nere amalaukua?”

Begira ogeita amar urte asirikan,  
eta oraindikan  
ez amalauko ta ez amabikorikan.  
Ala ere uzteko eztu asmorikan;  
baiña suerte pixkat ez bada iñondikan,  
diru-kontatzen ez det izango lanikan.

Dalako kiniela ain da berezia:

bi ta X josia.

Iñon ez da ikusten olako klasia.

Bein aterako balitz, zer irabazia!

Baiña oraintxe nago etsitzen asia,  
pobre pasa bearko degula bizia.

Zer esan Primitiva ta Lotoa-gatik?

Nai aiña ortatik:

astean sei aukera zazpi egunetik.

Asko ezpada ere, jokatu danetik.

Suerte txarrekuak izan gu gogotik:

iñoiz ez gera pasa oraingoz irutik.

Esan det ni naizela sekretarioa,

gizon serioa.

Zozketa entzuteko entzun radioa;

arkatza ta papera, zer atentzioa,

ipiñiaz arreta ta intentzioa,

ea gaur egokitzen zaigun premia!

Zenbakiak segidan andreari eman

begiratu dezan;

laister ikusiko zitun eta gero esan:

“Sei genitun, amaika, amar izan bazan,

bostekin pozik nago, baiña lastima zan!”.

Tristeia orra jarri txoriaren gisan.



Urrengo egunean periodikuan  
ikusitakuan,  
gauzak aldatu ziran berealakuan:  
“Iru besterikan ez bost nitulakuan!  
Kakazarra kobratzen da orrelakuan!  
Lo artu al zenuen apuntatzekuan?”

Nerbioso jartzen naiz gauza onerako,  
nere kalterako.  
Ez det balio nonbait lan auetarako.  
Martxa ontan ez dakit nagon luzerako.  
Azkenean gauz onik ez det aterako;  
lo artuko det noiznai, baiña betirako!

1992ko uztaillak 8

## Obe ixil-ixillik egongo bagiña

---

Adiskide, eduki ezazu kontuan  
bizitzak zenbat buelta ematen dituan.  
Ortaz konturatu naiz ni nere tontuan.  
Lenago beste sute batzuek nituan;  
oraingoak esango ditut segituan.

Matxismoak izan du gugan eragiña,  
eta gogor dantzatu ere bai mingaiña.  
“Emaztea, kanpora jun nai zenduke, baiña  
etxe-zuloan dago zure zeregiña”.  
Obe ixil-ixillik egongo bagiña.

Ustekabean gauzak zaizkigu aldatzen,  
naiz ta zenbait gizonek ez duen onartzen.  
Neri bajeza danik etzait iruditzen  
gizona ikustea andrea serbitzen,  
edo eltzea zainduz etxea garbitzen.

Neu ere aurkitzen naiz olako trantzean:  
Andrea lanera ta neroni etxean.  
Pixka bat oitu arte, txit malaletxean!  
Baiña orain eguerdin eta arratsean  
otordua maiean, andrea etortzean.

Etxeko lanak artu nitun nere kargu:  
oiak egin, garbitu, plantxa ta otordu.  
Gero Jainkoak dakin ainbeste enkargu...  
Oiek denak egiten denbora bear du,  
nere kalkuluetan, sei-zazpi bat ordu.

Izatez oso gizon txukuna naizenez,  
ez ditut gauzak uzten nolana egiñez.  
Ez asi, zu, Maritxu, Karmen edo Ines,  
“Erdi denboran egin daitezke” esanez.  
Lenago bai, agian, baiña ain ondo ez.

Plana edo programa daukat lanerako:  
Jeiki ta oiak egin zortzik alderako.  
Plantxa ta garbiketak, gosál-ordurako;  
dendako erosketak, amabitarako;  
eta bazkaria prest ordubitarako.

Nola ez nagon oso sasoi onekua,  
atsedena artzen det ordu erdikua.  
Jeitsi eta ekarri periodikua;  
bera irakurriaz amaiketakua.  
Ainbeste merezi det, ala Jaungoikua!

Gero, dendatik bear diranak ekarri;  
zerbait aztutakuan, berriz billa korri.  
Diru-kontuak zintzo agerian jarri  
andreak jakin dezan gastuaren berri.  
Presupuestuarekin ibiltzen naiz larri.

Ezin ukatu krisi aldian gaudela,  
eta ni beintzat gogor astintzen nauela.  
Eskerrak eskaintzak maiz jartzen dituztela!  
Ni beraien atzetik eroa bezela.  
Illa ezingo nuke pasatu bestela.

Ez da, ez, ain erreza etxekoandre izaten,  
eta etxeko martxa ondo eramaten.  
Bear ainbat meritu etzaio ematen.  
Gaitzerdi ez badegu gaizki itz egiten.  
Gauzak proatu gabe ez dira jakiten.

Zuekin nago, baiña entzun ezazute:  
Gizonok inultizat jotzen gaituzute.  
Beartu gabe, goxo artzen badezute,  
gizona zernaitara jarriko zaizute.  
Ori lortzea zuen esku daukazute.

1994ko apirilak 26



Maite dut zura lantzea.

Arro ibiltzen gera gazte geranean,  
iji eta aja, beti edo geienean.  
Baiña ajeak sortzen asten diranean,  
farrak lantu biurtzen dira azkenean.  
Ez da giro izaten gure aldamenean!

Edade bat ezkerro, ajeak jakiñak;  
pillatzen asten dira gaitzak eta miñak.  
Naiz ta denak sendatzen egin alegiñak,  
batzuk izaten dira sendatu eziñak.  
Itz egiten dizute zeozer dakiñak.

Len aje asko ez ta, auxe da au lana,  
prostatarena orain azaldu zaidana.  
Bixitak egin arren medikuengana,  
eta artuagatik pastilla andana,  
ebakuntzarik gabe sendatzen ez dana.

Amaika sufritzeko jaiioak gera-ta,  
gizonona, ain xuxen, dalako prostata.  
Pixa maiz egin bear, auxe da au lata!  
Astean pulamentuz egiten ez data,  
eta egiten dana ederki kostata.

Len pixa zarra-zarra eta indarrean,  
orain xir-xir, zapatak busti bearrean.  
Putzu aundirik ez da egiten lurrean.  
Itz gutxitan esanda, itxura txarrean...  
Obe dezu ez asi iñoren aurrean.

Komun aurrean, berriz, nolako ganora!  
Nai ta ezin asmatu askotan zulora.  
Lau tanto egiteko ainbeste denbora...  
Utsa egiten dana bageneki nora;  
deskuidatzen bagera, erdia kanpora.

Ibillerak ibilli, an nonbait egunez.  
Gaua da txarra, orain entzungo dezunez.  
Bost aldiz komunera jeiki bai, gutxinez;  
pixa, ordea, iñoiz itxuraz egin ez.  
Aldiko titarea bete, geienez.

Batzuetan indarka ere ezin egin;  
urrena bear baiño lenago aldegin.  
Deskalabro txikirik gertatu ez dedin,  
zabiltzan toki artan komunaz galdegin,  
bustita ibiltzea ez baita atsegin.

Medikuarengana ni nere bototik  
ez nintzake joango, eta ara zergatik:  
Ateratzen naulako nere onetatik,  
zirikatzen astean atzeko aldetik,  
neri beintzat gustoko etzaidan tokitik.

Nere auek ez dira kontu dotoreak;  
berdin samarrak izan daitezke zureak.  
Gerora, berriz, ezin espero obeak,  
baiña ez utzi bromak eta umoreak.  
Bestela, ia-ia egin du gureak!

1998ko azaroak 30

Ezbear denak gogorrek dira, esan bearrik ez dago;  
biziak galtzen badira, berriz, askoz ere okerrago.  
Ala ta guztiz alde dezente dagoelakoan nago:  
Legorrekoak txarrak badira, itsasokoak txarrago.

Geiago dira, bai, legorrean bizia galtzen dutenak,  
naiz ta gorputzak berreskuratu guztiak edo geienak.  
Emen askotan eta betiko desagertu oi direnak...  
Itsaso orrek aserretzean irentsitzen dituenak.

Orren lekuko ar dezakegu *Marero* itsasontzia,  
oraindik egun asko ez dala itsasoak irentsia.  
Zortzi mariñel, gizarajoak, galduaz beren bizia;  
eta bakarra aurkitu dute, or dago diferentzia.

Itsasora irten eguneroko ogia irabaztera,  
asko pentsatu gabe etzirala etxeratuko ostera.  
Irtenaldia ezin ziteken aldrebesago atera:  
zortzirak ito baitziran; iñor etzan itzuli etxera.

Izugarria gertatu da, ta triste daukagu barrena;  
nola ote dago lagunena ta, batipat, etxekoena?  
Iltzea asko ez dala, gero azaldu ez, ai zer pena!  
Bizi guztian iñola ere aztu ezingo dutena.

Aberatsa ta emankorra da itsasoaren sabela,  
zenbat gauz eder ematen ditun oar gaitezen bestela.  
Ta badirudi norbaitzuk zorra ordaindu bear dutela,  
*Marero* ontziak orain berriki ordaindu duan bezela!

Arrantzaleen bizimodua, jaunak, latza da gogotik:  
Arraia atzeman eta ekarri, Jainkoak dakin tokitik.  
Bitarte ortan zenbat arrixku, eta esango det zergatik:  
zuek eta nik mokau goxoak etxean jateagatik.

Nik itsasoa denek bezela bare ikusi nai nuke;  
baiña orduan errespetorik izango al genioke?  
Laiñeza artuta, ajolik gabe, or ibiliko giñake  
bakoitza berak nai dun bezela; zer egingo ez genuke?

Batzutan zakar eta aserre, beste batzutan suabe:  
orrelakoa da itsasoa; errespetatzea obe.  
Naiz sarri negar eginarazi ta eman ainbat naigabe,  
iñola ere ezin gaitezke bizi itsasorik gabe.

Gisa ontako gertakizunak ez dira oso berriak;  
itsaso orrek beti izan ditu jokabide biurriak.  
Onena auxe litzake: Artu bear diran neurriak,  
geiago iñoiz gerta ez ditezen ain ezbear mingarriak.

1999ko otsaillak 8



## Elurraren ondorioak

---

Aurtzaroko oroitzapen aaztu eziñekoen artean, neguan elurra egiten zuen egun aiek dira gustora gogoratzen ditudanak. Izan ere, eguraldiak elur-itxura artzen zuenean, laister esango zuten gurean: “Elurra egin baiño leen, sua egiteko egurra eta ganadu janaria, au da, erremolatxa, arbia, aza, belar ondua eta abar etxeratzeko modua egin bear dugu”. Ura entzuten genuenean, pozik eltzen genion lanari. Etzan agindu bear aundirik izaten.

Orrez gaiñera, aitak oerakoan atea zabaldu ta zero aldera begiratu bat bota ondoren, “Biar goizerako ez duk elurra urruti izango. Egaberak asi dituk bueltaka...”. Eta goizean jaikitzean elurra zuri-zuri ikustea baiño erregali oberik izan ere guretzako!

Alde batetik, ez ginduten eskolara bidaltzen, eta gu pozik. Bestetik, berriz, zerekin jolastu aundirik izaten ez gendulako edo, sekulako gozamina zan guretzat elurra. Eta elurra bakarrik ez, bera zala medio, beste entretenigarrien artean, ekaitzaren igesi etorritako, eta goseak penatutako txori gaixoak arrapatzea izaten zan. Zepo batzuk eta zazpi pusketan egindako “tiragoma” kaxkar bat beste armarik ez genuen izango, eta izugarririk egin ez arren, aitortu bearra dago gaizki egiten genuela. Beste garai bat zan ura, eta alaxe bearko du onezkero.

Leengo kontuak alde batera utzi eta oraiñari loturik, eta nere asmoa ala zanez, orain egun gutxi ainbat larritu gaituen ekaitz edo elurtea da bertso auen gaia. Aspalditxoan etzigun orrelako astindurik eman, izan ere.

Udaberrian legez euria izaten da barra-barra;  
uda partean nagusi, berriz, eguzki bero zakarra.  
Udazkenean egoaizeak berebiziko indarra,  
eta neguan sartu ezker, elurra ta kazkabarra.

Gauzak ez dira juxtu-juxtuan uste bezela izaten,  
bere garaian ezpaitu beti dagokiona egiten.  
Kazkabar, elur eta ekaitza: zuek zer uste zenuten?  
Neguan sartu baiño lenago etorri zerate aurten.

Esaera bat bada: “Elurrak itxi oi ditu atepak”,  
eta sarritan ondorioak izaten dira tristeak.  
Ezpaitu pozik ematen asko era ontan ikusteak:  
Batzuk etxetik irten ezinda, itzul eziñik besteak.

Kolpeko ekaitz ori dala ta zenbat diran kaltetuak!  
Askok bidean gelditu eta bertan gaua pasatuak.  
Beste batzuek mendian larri ibilli ta salbatuak;  
baiña ez denak, badira antxe betirako geldituak.

Jolaserako eskeintzen ditu elurrak milla aukera,  
arriskutsua degu, ordea, ausartegiak bagera.  
Itsu-itsuan, pentsatu gabe, ez beintzat joan aurrera...  
Badakizute: “Elurra eta ura belaunetik bera”.

Mesede ere egiten dula esango det, bukatzeko,  
oraingo ontan premian zeuden urtegiak betetzeko,  
aspaldi naiko egarriturik zegon lurra asetzeko,  
eta xomorro gaiztoak eta arkakosuak galtzeko.

*El Diario Vasco, 1990.12.23*

## Modak mendean artuak

---

Al baldin bada txukun jaztea gustatzen zaigu danori,  
orrek lagundu egiten digu aldrebesak geranori.  
Baiña, adiskide, kontuz modaren atzaparretan erori;  
ni neu juxtutik libratua naiz, eskerrak goiko Jaunari,  
bestela egin bear zidaten farra ta burla ugari.

Modaren mende jarri ezkerro galdu liteke burua;  
zuk etzaiozu kasurik egin, ez zaitez izan txorua.  
Zer eta nori ajola gutxi, saltzea da elburua.  
Erosten duen ark luzitzea ez da, berriz, segurua;  
zer pasa zaidan esan bear det naiz ta eman apurua.

Esan zidaten: “Utzi itzazu konplejuak eta lotsak,  
eta aurtengo udaran jantzi modan dauden praka motzak.  
Bi egunean jarriko zera, naiz iruditu arrotzak”.  
Erantzun nien: Ez eman neri orren agindu zorrotzak  
ez badezute nai asarretu eta erakutsi ortzak.

Ez pentsa nere esanak iñork aintzat artu zituanik,  
bestela ezin egin daiteke neri egin didatenik:  
Prakak erosi eta ez zuten proatu arteko onik.  
Ez det esaten nik etxerako egokiak ez diranik,  
baiña onoko au etxetik kanpo ikusten ez dute lanik.

Prakak jantzita aurrekaldeko ispilluari begira:  
Gaztea nintzan garaiko nere zango politak nun dira?  
Praka luzeak jantzi ezkerro estaltzen dira, sikira...  
Motz auek artu eta, mesedez, leiotik kanpora tira;  
eta oraintxe bertan eraman erositako tokira.

Praka luzerik lenago etzan jazten batek nai zunean:  
Amalau urte kunplitu eta gizon egiten zanean.  
Gaur aurrei jazten zaizkie jaio eta, ia zuzenean.  
Aitondutako askotxo, berriz, praka motzetan kalean...  
Ez izan orren parregarriak, Jainkoaren izenean!

Zango okerrak ez dituenak itsusi eta flakuak;  
ikusi utsak farra eragin arazteko modukuak.  
Nik galdetzen det: Burua sano al dauka orrelakuak?  
Edo bestela dira lotsaren arrastorik gabekuak?  
Baiña, ez dio ajolik; oiek dira gizon modakuak!

Batetik oso lotsatia naiz, errespetoa bestetik;  
orrexegatik ez det nai iñor lotsa arazi nigatik.  
Ni parregarri ez naiz jantziko modan ibiltzeagatik,  
eta askori auxe esango nieke nere aldetik,  
ispilluari begiratzeko etxetik irten aurretik.

Edertasunak galdu genitun, badaukagu naiko pena;  
legezkoa da, eta derrior artu bear datorrena.  
Baiña iñola ez du esan nai galduta dagonik dena;  
gure edadean auxe da batek egin lezaken onena:  
Ondo dagona erakutsi ta gorde gaizki dagoena.

Seguru asko, zuk, adiskide, au da esango dezuna:  
“Auxe da gizon atzerakoia ta idearik ez duna!”.  
Barkatu, baiña oker zabilta; beti izan naiz txukuna;  
eta ez baldin bazera modak mendean artu zaituna,  
or konpon, eta egin ezazu ondoen derizkiozuna.

1999ko uztailak 20

## Xagu xixtrin bat dala medio

---

Zartzera almenak jeitsi ta jeitsi joaten zaizkigu danori,  
eta orixe gertatu nonbait gure lagun taldeari.  
Dударик gabe lasaitasuna komeni zitzaigun guri;  
orrek ordea ekarri zigun buruaustea ugari...  
Baiña azkenean lortu eskerrak ganbarako txokoari.

Ate askotxo jo eta gero ganbara zar bat aurkitu;  
sekula santan ez det ikusi an ainbeste zirrikitu.  
Jabearekin konpondu arte ez gendun gutxi sufritu;  
gizon tratante abillagorik guk ez degu ezagutu.  
Parrez lertzeko kontuak dira denak esango banitu.

Ezer baiño len itxi genitun zulo ta zirrikituak;  
gaiñerakoa txukuntzen, berriz, izugarrizko gastuak.  
Ori batere kontatu gabe pasatako lanorduak.  
–Xagurik beintzat ez da sartuko, emen jai dauka katuak...  
Oiek ziran guk alde z aurretik ateratako kontuak.

Aldi batean egonak giñan xagu-arrastorik gabe;  
beste piztirik etzan ganbaran, gu ango jaun eta jabe.  
Baiña, ara nola egun batean: –Xagu-kakak, no te jode!  
Pizti zikiñak, obe dezute gure bixtatikan gorde,  
bestela zuen azken ordura minutu asko ez daude!

–Guk orain egin bear deguna au dek nere iritziko:  
aurkitu eta zuloak itxi ditzagun lendabiziko.  
Gero pozoia, badaezpada, oparo diat utziko.  
Jaten duana, seguru egon, ez dek luzaro biziko.  
Xagu guztiak garbitu arte nik beintzat ez dit etsiko.

Ala, arazoa bein betirako konpondu zala guk uste;  
bainā lengoan emakumeek: –Au ikusten al dezute?  
Naiz zuek itxi, xaguek berriz zuloak egin dituzte.  
Masa eginda edo obeto ixten ez badituzute,  
xaguek uste gutxienean sustoz il bear gaituzte!”.

Zuloak itxi, gero bazkaldu; siesta bazkal-ostean,  
karraixi ozen bezin larriak entzun genitun artean:  
–Ai, ene ama! Xagua ortxe sartu da ziztu batean!  
Eskoba artuta gizonok firme batean eta bestean:  
–Begiak erne, eta kolpea tira azkar ikustean!.

–Oe-azpian gordeta zegok, bidaliko dit orrera:  
illa ikusi nai diat eta kontuak euk atera.  
–Bai, xagu orrek au izango dik bere azkeneko karrera!  
Eskobarekin zirti ta zarta, kolpe guztiak lurrera;  
eskobari bai kirtena autsi, bainā xagua aurrera.

–Ainbeste gizon bere atzetik eta xaguak aldegin;  
ez ziguk burla txikia egin, orrek ematen zidak min.  
Eskobarekin kolpe galantak, emen ez uan atsegin!  
Itsua ere joko zian da ik kolpe denak utsegin...  
Kulpa norena dan garbi zegok, obe ez bauen itz egin.

–Erruduna ni bakarrik ez nauk, ik ere badek ortatik,  
arretaz egin bear dan lana gaizki egiteagatik.  
Xagua errez asko sartu dek berriro lengo zulotik,  
goizean masa eginda isten aritu aizen artatik.  
Masa batere ez dek gogortu, ik jakingo dek zergatik.

–Eta guri zer ajola zaigu norena dan pekatua?  
Ika-mikarik gabe konpondu bear degu asuntua.  
Gertatu dana ikusi eta bada zertaz kezkatua:  
Iru gizoni xaguak iges, ori dek fundamentua!  
Gizonak kapaz ez bazerate, jarriko degu katua.

–Emakumeak, mesedez orain orrelakorik ez bota.  
Ez al dezute ikusten nola gauden irurok lur jota?  
Egia esan, xagu-kontuan kaxkarra da gure nota.  
Eta zuek egin dezutena, mekauen en la puñeta!  
oiuka aldegin eta karraixi, aulki gaiñera igota?

–Katua jarri nai badezute, komeni da jakitea,  
obe duela azkar xaguak arrapatzen ikastea.  
Bestela luze egingo zaio zer janik gabe astea.  
Kulparik ez dun katuarentzat bai bizimodu tristea!  
Baiña, ez larritu; bat iltzen bada, jarriko degu bestea.

–Emen katurik ez da ilko, ta ez sartu aurrez lurpean,  
jaten ematen baldin bazaio iru bat aldiz astean.  
Xagutarako egon bear du sano ta sasoi betean,  
ta ez bakarrik aste osoan gosez, xaguen menpean.  
Ori gizonen lana da, eta konpondu zuen artean.

–Gizonok katu zaintzen astea, au da falta zitzaiguna!  
Kapritxo ori zuena da, ta etor dedilla nai duna.  
Ondo zaintzen dan katuak lotan pasatu oi du eguna,  
eta orixe da emen iñoiz egin bear ez deguna  
baldin gizonok ere ez badegu erabat galtzen zentzuna.

Ganbara ontan lasaitasuna aurkitu genuenean,  
koadrillan etzan ika-mikarik, adostasuna danean.  
Gauzak okertu ziran xagua azaldu zan egunean;  
ordu ezkeroz zerbait badegu beti edo geienean,  
eta ez dakit nola bukatu bear degun azkenean.

2007ko uztailak 10



## Felix Erdozia apaizari

---

Aspaldi samar jakin genduan emendik bazoazela,  
eta geroztik esan bear da naigabetuta gaudela.  
Baiña balio duten gizonak ibiltzen dira orrela...  
Felix agurtzen kostako zaigu merezi duan bezela.

Laister zu, Felix, biziko zera guregandik apartian;  
baiña etorri gure artera berriz al dezun guztian.  
Gu zintzo samar ibiltzen gera zu emen zeran artian;  
nik ez dakit zer gertatuko dan zu Valentzi'ra joatian.

Gu gera ardi erdi galduak, gure artzaia zu zera;  
eta ardiak zaintzen dituzu artzai onaren antzera.  
Mesedez, sarri etorri zaite nola gauden ikustera,  
bestela erdi galduak laister erabat galduko gera.

Bazoaz, eta akabo orain meza ta otoitz denbora.  
Pena artzen det oitura ori utzi bearra albora.  
Ixil-ixillik esango dizut belarriaren ondora:  
Meza santua entzuten det nik bazkaldu bezain gustora.

Zuk uzten dezun utsune ori ez da beteko nolana  
naiz zure aita eta ni, Joxe, bageran ortarako gai.  
Lortzea zenbat kostako zaigun ez det pentsatu ere nai,  
baiña koadrilla zainduko degu, Felix, joan zaitezke lasai.

2001eko abuztuak 31

Bakardadean, negar malkotan sarri pentsatu oi det nik  
gure arteko gatazka onek ez ote duan azkenik?  
Ez du itxura, eta ez pentsa onera egin duenik:  
Samiña noiznai eta nunaitik, ez dago lasaitasunik:  
nork esan bear zuen gizona ain errez ilko zutenik?

Konponbiderik ez, eta ortxe bizi-bizirik liskarra;  
orrek gauz onik ezin ekarri, beti ondoren kaxkarra.  
Batzuek jasan ezin alako naigabea eta negarra...  
Besteek berriz, agian, preso luzaro egon bearra.  
Beraz danentzat sufrimentua lortzen dan gauza bakarra.

Gure gizarte au izakeraz izanik ain berezia,  
ez degu elkar errespetatzen eta or dago auzia.  
Baiña zergatik ainbat gorroto eta ezin ikusia?  
Oiek baztertzen egin dezagun denok alegin guzia,  
eta iñori ez kendu, arren, sekula santan bizia!

Ainbat ekintza basatik zenbat mintzen dun gure barrena!  
Askotan anai artean eta gerta daiteken txarrena.  
Politikoak, gure Erriak au da eskatzen duena:  
Pakean bizi, eta jakiñik zuen esku dagoena,  
penagarria ez egitea egin daitekeen dena.

Politikoeak “Pakea” itza izketan asi orduko,  
ta bitartean batek bestea mendean nola artuko.  
Bakoitzak, dana izanez, aske bizitzea du gustoko...  
Baiña batzuei etzaie ori iñoiz buruan sartuko,  
eta ortatik asten ez bada ez da pakerik lortuko.

Askok zioten: “Auteskundeak aurreratu daitezela!”,  
ori eginda uste baitzuten irabaziko zutela.

Baiña naiz galdu, irabazleak beurak balira bezela  
or ari dira: “Au onela ta bestea, berriz, orrela”.  
Ez al dakite emen jendea ez dala orren txepela.

“Pakeari, bai” esate utsak ez garamatza iñora;  
pauso batzuek ematen asi, izan bear dan ganora.  
Non eta nola ez dakit baiña bildu alkarren ondora;  
denek badute zer esana ta iñor ez utzi albora.  
Mokoka eta ika-mika ez alperrik galdu denbora.

Politikoa ez baldin bada izango da agintari,  
bi eratara deitu ta kitto, argi ez bait daukat ori.  
Dakidana da botoa nola eskatu zenigun guri;  
guk berriz orain mesedez auxe eskatzen dizugu zuri,  
zintzo jokatu ta erantzuna emateko Erriari.

Asko badakit, ondo gaiñera, ez dira geldi egongo;  
erriak ditun eskubideei ez die uko egingo.  
Beste batzuei dagokionez ez nuke ori esango.  
Aiek al dana kendu bai, baiña ez dute ezer emango...  
Eta orrela nai dana lortzen ez da erreza izango.

2001eko uztailak 24

## Uztapide gogoratuz

---

Nik ezagutu nuen garaian umea nintzan artean;  
badakit nun zan ta esango det: Martuteneko partean,  
auzoko jaiak izaki, eta bertsotan leio batean.  
Lilluratuta utzi ninduan betirako, bat-batean.

Geroztik au da bertsotarako zaletasuna ta griña!  
Bere antzeko izaten badet amaika alegin egiña.  
Baiña bertso bat kantatu nai ta beti ondoren jakiña:  
poto ez bada neurriaz gaizki, edo bukatu eziña!

Bertsolaria izate ori ez da ez doai makala,  
eta Uztapide danok dakigu bertsolari jaio zala.  
Nik galdetzen det: Eta zergatik ez nintzan ni jaio ala?  
Ez al zekiten bertsoak oso gogoizkoak zaizkidala?

Doairik gabe jaio giñanok utsaren urrengo gera;  
nere emaitzei begiratuta nola ez eman tankera?  
Bertsolaritzan oso eskasa nik egindako karrera,  
juntu-juxtuan iritsi bait naiz bertso batzuk idaztera.

Beraz, nik bertso batzuk idatzi eta ez oso txukunak;  
obeak ziran len Uztapide'k kantatu oi zizkigunak.  
Doai geiago etzidan eman Jaungoiko guzaldunak,  
ta ezer gutxi egin dezake abildaderik ez dunak.

Batzuk kantatu eta besteok bertsoak jartzen ditugu;  
gu gera bere jarraitzaille ta bere lanaren testigu.  
Eta ain une gozoak pasa arazi izan dizkigu...  
Uztapide ta bere bertsoak nola aztuko zaizkigu?

Eguneroko lanaren ordeztu orri onen be aldean,  
gaixo zeundela esan ziguten betere ustekabeen.  
Asko goibeldu bagiñan ere ura jakin genunean,  
askoz geiago poztuko gera berriz emen zeranean.

“Ura geldirik dagoenean –esaten ziguten denak–  
ez da ain ongi egongo, edo zorrotzak ditu ordenak.”  
–Obeto dago, zaudete lasai–, esanez kontent geienak,  
aurki irakurri alko ditugu ark idazten dituenak.

Ixillik edo geldirik zeunden gaixotasun batengatik,  
oker dagonik ez det uste, ta martxoaren oita lautik.  
Ez nai orduko baiña apirillak oita zortzi zitunetik,  
berriz len baiño kementsuago zure “Bordatxo” zarretik.

GURE ARTEAN deritzan sail au zabala dala jakiñik,  
zirriborrotu degu geiena utsegin gabe egunik.  
Zuk utzitako utsune ori aundiegia izanik,  
estu ta larri ibilli gera iñola bete eziñik.

Nor dan maixua eta ikasle ez dago esan bearrik,  
ainbat urtean eman diguzu erakusbide ederrik.  
Nori ikasi daukagun arren, gureztat dena alperrik;  
zure ondoan zerbait bagera, utsaren pare bakarrik.

Ala ta guztiz saiatzen gera asmorik onenarekin,  
eta kontentu zure ondoan toki egitearekin.  
Etsi bearra dauka bakoitzak al duna ta danarekin;  
konforme gera, besterik gabe, osagarri izanakin.

*El Diario Vasco, 1987.05.05*

## Iñaki Perurena

---

Zer esango dut Iñaki Perurenari buruz? Esateko geienak esanak izango dira onezkero. Beraz, gauza berri asko ez.

Joan zan abenduan, irureun da amabost kiloko arria, aita-ren egin orduko bizkarreratu zuala? Ori ez dakienik ez dago. Baiña, arritu, iñor arritu al zan? Garai batean, gure jakin-miña, irureun kilo jasotzera noiz iritsiko zan jakitea zala esango nuke. Eta ura lortu zuenetik, beste amabost kilo erantsi arren, ez dugu ia aintzakotzat artzen. Besterik ezean, bertso batzuek eskeintzea bururatu zait. Errege bigarreanean ari naiz idazten lan au; urrengo marka jartzerako argia ikusiko al dute.

Iñaki Perurena, berez Leitza'koa,  
aze mutikoa!  
ogeita amalau urte kunplitutakoa,  
metro larogeita bi zentimetrokoa.  
Bere pixua ere ez nolanaikoa:  
Eun da ogeita amaika bat kilokoa.

Arrigarriak dira dituan almenak,  
indar ta kemenak.  
Artuko nituzke nik beraren laurdenak!  
Oraindaiñoko lanak dira nabarmenak,  
sekula iñork egin dituan onenak.  
Eta ez ditu eman emateko denak.

Or dabil aspaldian marka latzak jarriz;  
oraingoa berriz,  
irureun ta amabost kilotako arriz,  
lurretik bizkarrera dotore ekarriz.  
Baiña gelditua da geiagon egarriz,  
eta marka ontzeko asmotan da berriz.

Iñakirena ez da kasketa makala:  
bere egiñala  
lengoa gainditzea nola edo ala.  
Kilo bat geiago naiz uste gutxi dala,  
konturatu bearra dago bereala  
beste irureun ta amabost kilo dituala.

Bilbo'ko La Casilla'n lengo Gabonetan,  
ogei segundotan,  
ez dakit dana juxtu esan ote detan,  
baiña arria jaso une labur ortan.  
Urrengo neurketa dauka Anoeta'n  
*Euskadiko sei ordu* deritzan orretan.

Ain da aundia eta ain da kementsua,  
edo indartsua!  
Aldi berean oso gizon burutsua.  
Lanari ateratzen dio probetxua;  
iztun abilla baiña ez da berritsua,  
bertsozalea eta euskaldun sutsua.

Arrigarriak ditu beso ta zankoak,  
potolo askoak.  
Bular eta gerriak ere nolakoak!  
Ez dira nereekin konparatzekoak:  
besoak, nere zanko auen modukoak;  
zankoak, berriz, nere gerria aiñakoak!

Asarretuko balitz iñoiz norbaitekin,  
ainbat indarrekin,  
ez litzake izango giro berarekin!  
Baiña, zail da asarretzean Iñaki iñorekin,  
ez bada bere buru eta arriekin.  
Borrokan asi, berriz, soilki beraiekin.

*El Diario Vasco*, 1991.01.12

Aitona:

Iritsi berria naiz aitona izatera,  
azken ofizioa omen degu bera.  
Beraz, ez dago urrun nere bukaera;  
baiña al dudan arte ni beti aurrera.  
Maddi ta biok ondo konpontzen bai gera.

Aita izanagatik aitona izaten  
uste bai, baiña askok ez dakit dakiten.  
Neurriak garaiz artzen ez bada jakiten,  
aurra laister asten da nai duna egiten.  
Ez dakizu nolako eskola daukaten!

Ni, berriz, ortan nago oso trebetua:  
karneta eta guzti, ondo prestatua.  
Gure artekoa da arreman estua,  
eta ni ere naiko ume biurtua.  
Ori izan daiteke gure sekretua.

Ez daukat arrokeriz mintzatu bearrik;  
denak egiak dira, ez diot gezurrik.  
Maddik ez du nerekin egiten negarrik,  
ni nagonean beste guztiak alperrik.  
Aldi batean ez det izango oporrik!

Orixe gertatu zait aitona izanik:  
Iñork ez dula aintzat artuko esanik.  
Zoratzeko moduko billoba daukat nik;  
politagorik ez det esango ez danik,  
baiña ez pentsa errez aurki daitekenik.



Maddi ondo zaintzen det nik, nere ustean;  
eredutzat naukate aitonen artean.  
Iru edo lau aldiz joaten naiz astean.  
Oso konten jartzen da aitona ikustean.  
Zer esango ote du izketan astean?

Maddi:

Mintzatzeko ordua naiz ta ez iritsi,  
aitona, orrek ez du ainbeste garrantzi.  
Pentsatu egiten det, gaiñera ez gutxi:  
zuk zure fantasiak idatzita utzi,  
nik kantatuko ditut biar edo etzi.

Esateko guztiak esan badituzu,  
nere pentsamentuak apunta itzazu.  
Nik ulertu dudanez politzat naukazu;  
zuk berriz ain itxura ona ez daukazu.  
Alare presumitu nairik zabilta zu.

Aitona, esan dezu kontua ugari,  
baiña zeïñek sinistu bear dizu zuri?  
Pasatzen ari zera amaika inbiri  
jendeak begiratzen didalako neri  
eta ez zaintzen nauen aitona zarrari.

Kalera ateratzen nauzun egunean,  
esertzeko tokira zuzen-zuzenean.  
Beti badezu norbait or, aldamenean,  
eta mingaiña dantzan jartzen dezunean  
Maddi'ri kasorik ez ala zaudenean.

Zuretzako, ni beti logureak nago,  
seaska beste gauzik neretzat ez dago.  
“Ortxe lo, geldi edo ixil-ixillik ago!”  
Eta nigarrez asten banaiz geroago,  
txupetea aoan sartu, eta akabo.

Aitona, aurki ez naiz ixillik egongo,  
baiña txarra zeranik nik ez det esango.  
Agian, uste aiña ez dezu jakingo.  
Beraz, ofizioa ikasi lenengo,  
bestela nik ez dizut karnetik emango.

2002ko uztailak 20

Ixilaldi bat dala medio betea daukat barrena,  
eta orrela dagoenean ustutzea da onena.  
Gazte aspaldi izan nintzala esan bear det aurrena,  
eta orduan oso bestela pentsatzen nula urrena.

Nola pentsatu daiteke ala Jainkoaren izenean!  
Ia lotsatu ere egiten naiz gogoratzen naizenean.  
Nork erakutsi askorik ere ez gendun aldamenean;  
naiko berandu, baiña ederki ikasi det azkenean.

Jaungoikoaren urrengo ziran neretzat politikoak;  
beste gizaki berezi batzuk, arrigarritzko tipoak.  
Erri osoa gobernatzeko bakar batzuek naikoak,  
begiak itxi ta beraiengan sinisteko modukoak.

Esaten nuen: “Agintariak bakoitza bere lanetan  
gau eta egun or ari dira fin asko egiñaletan.  
Egiten duten guztia beti Erriaren mesedetan,  
argi ta garbi erakutsiaz maite dutela benetan.

Ez lo ta ez jan, ez atsedetik; ori ez da bizitzea.  
Bein jaioko ta nola daiteke ainbat ardura artzea,  
eta osasun preziatua arrixku ortan jartzea?  
Ez ba arritu nere biotza bein ta berriz urtutzea.

Beraz, gaztetan izaten nuen ez dakit zenbat erruki;  
orduko nere biotza nonbait bigun xamarra izaki.  
Baiña itxita neuzkan begiak, gerora zaizkit iriki,  
eta uste det biotz xamurra gogortu dala ederki.

Lengo ta oraingo pentsamentuak ez dute zer ikusirik;  
adibidez, gaur politikoez naukate txit asperturik.  
Alperkerian bizi nai dute artu gabe ardurarik,  
eta daukaten txarrena auxe: Ez dute maite erririk.

Zertan ibili lanean lertzen? Zertan nekatu burua?  
Norbaitek zerbait esaten badu eztabaida segurua.  
Beti “zu zera errudun” esan, orixe da elburua;  
ta bitartean auskalo nola beuren etxe-ingurua.

Berak egin ez, eta besteri ez utzi ezer egiten;  
ortan azkarrak baiña bestela ez dakit asko dakiten.  
Ta orregatik pentsa illero ze jornal puska daukaten...  
Nik uste baiño errezago da politikoa izaten.

Bixtan dago ta ezin ukatu primeran bizi dirala,  
arazoak nun, andik urruti ibiltzen dira al dala.  
Erantzukizun ta konpromisoa askoz gutxiago ala,  
Galizi'n “Prestige” ontziarekin egina duten bezala.

Agintzen duna sendo ta tinko bere agente-aulkitik,  
agindu nai dun arek ez dezan bota dagoen tokitik.  
Edozer gauza egiteko prest agintzen jartzeagatik.  
Nik galdetzen det: Gaiñontzekoa ajola al zaie tutik?

Amabirekin kontatu ditut lengo ta oraingo penak;  
zer egingo nun ori eskatzen baldin bazidan barrenak?  
Adierazpen auekin ados ez dira egongo denak;  
bakar-bakarrak esan dirala deseingañatu batenak.

2002ko abenduak 6

Nere etxeko terraza dago zuaitz txikiez betea.  
Asko dira ta ez da komeni izen guztiak nastea.  
Baiña ez det nai ezagunenak aipatu gabe uztea:  
Aritza, gaztain, lizarra, pago, zumarra eta artea.

Naiz banan-banan ez jarri emen zuaitz guztien izenak  
zaitzeko orduan ez da alderik, berdin maite ditut denak.  
Gure antzera ilkorrak dira, beraz, bizia dutenak;  
geienak gazte samarrak dira, amabost urte zarrenak.

Etxeko toki atsegiñena kasik terraza izanik,  
ez da izango pare bat ordu pasa gabeko egunik.  
Ez dakizute zuaitz artean zenbat gozatzen dedan nik!  
Izan ere nork esan bear du oian txiki bat ez danik?

Almena banu naiz une batez ipotx-txiki izateko,  
laister nintzake prest gogozkoa dedan zerbait esateko:  
Zuaitz batean soka lotuta dilin-dalan jolasteko,  
edo beraien azpian lasai itzalean egoteko.

Zuaitz txikiak, orixe dira, besterik ez orain arte;  
*Bonsai* izena edo gradutik oraindik oso aparte.  
Orretarako gutxinez bear dira ogeita bost urte,  
*Bonsai* izango badira, beraz, zartu egin bear dute.

Naiz *Zuaitz txiki* naiz *Bonsai* izan, ni beraiekin gustora;  
kimatzen, zaintzen edo begira, errez joaten da denbora.  
Almena dedan arte ez ditut iñoiz utziko albora:  
nere kezka da beraiekin zer gertatuko dan gerora.

Era ontako zalantzak ditut pentsatzen asi orduko:  
Zartu nauk eta, aurki joan bear, ez nauk emen geldituko.  
Beraz, zuaitzen etorkizunaz nola ez naiz kezkatuko?  
Ziur bait nago nik bezin ondo ez dituztela zainduko.

Edozer gauza gerta daiteke nik uzten ditudanean:  
gaitzak zapuztu, itxura txartu, urik eza onenean.  
Eta aitona falta zaiela konturatzen diranean  
bakardadean penaren penaz, agian, il azkenean.

Eskaritxo bat egin nai nuke ori gertatu ez dedin:  
Nere zuaitzak zaitu, mesedez; ez zaidazute utsegin.  
Beuren artean pasa ondoren ainbeste urte atsegin,  
kezka orrekin beti-betiko ezin dezaket aldegin.

Badakit nola uxa daiteken nere kezka ta zalantza,  
azken orduan errukituta norbaitek emanaz itza,  
esanez: Zure zuaitz txikiak izango dute laguntza.  
Ori da soilik une onetan nik daukadan esperantza.

“Mundua mundu dan arte ez da iñoiz faltako gudarik”.  
Aiton-amonik izan ote da ori esan gabekorik?  
Ni beintzat sarri entzuna naiz, ta bazuten, bai, arrazoirik.  
Eta milagro baten bitartez ez bada aldaketarik,  
guk ere berdin esango degu, ortan ez dago dudarik.

Kain eta Abel anaiengandik bearco genduke asi  
esanez: “Anai bi ta pakean ala ere ezin bizi!”.  
Geroztik mundu ontan egin da amaika gauza itsusi,  
eta gaur aiña odol-isurtze sekula ez da ikusi.  
Pake santuan bizitzen ez du oraindik iñork ikusi.

Gorroto latza zeukan Kain’ek dudarik gabe barruan  
bere anaia Abel iltzeko erail zuen moduan.  
Ezegiteko gogorragorik ezin zitekeen orduan,  
baiña eztakit nik orain iñork aintzat artzen ote duan...  
Kain zanaren antzeko asko baitago gaurko munduan.

Bizidun orok bere-bereak ditu txarrerako griñak,  
eta gizonok gera okerrenak, ia zuzendu eziñak.  
Guk geuk egiten ditugulako gaiztakeririk aundiñak;  
maitatu orde ez zapaltzen sarri gure alegiñak,  
eta ez gaitu deus errukitzen lagun urkoaren miñak.

Zergatikan ez gure alegiñak on egitera zuzendu,  
eta iñori kalte egiteko tentaziorik aldendu?  
Zergatikan ez premi gorrian dagoenari lagundu?  
Gure zordunei barkatu eta kaltetuari ordaindu?  
Zorioneko izan gintezke ori egingo bagendu.

Abereena ulergarria zentzugabeak izanik;  
txikia aundiak jaten du, baiña ez badu beste zer janik.  
Beraz, iltzaille moduan iñoiz ez nituzke artuko nik;  
belar gaiztoak ez dauka, berriz, ona ito arteko onik.  
Baratza zaintzen, batipat iñork ez badu egiten lanik.

Derrior bear dira aldaketak eta gaiñera sakonak,  
giro berri bat sortu dezagun, ez du balio dagonak.  
Oso bestela pentsatzen asi bearra dauka gizonak:  
txarkeri denak baztertu eta egin ditzagun gauz onak,  
nai izatera baditugu-ta orretarako almenak.

Ori, jakiña, ezin da lortu egun batetik bestera,  
baiña ejenplo onak emanaz goazen etxetik aстера.  
Eta geronen etxean ori egiteko gai bagera,  
apurka-apurka zabal daiteke gero mundu zabalera,  
eta erabat aldatu gauzak emendik milla urtera.

Orrekin ezer ez bada lortzen ez zaitezte apuratu;  
ari naizela onako auxe egin baitzait bururatu.  
Eta oraintxe esan bear det iñork nai badu onartu:  
Lenengo pakezaleak diran gizakiak aukeratu,  
eta beraien geneak artuz ondorengoak klonatu.

Ez dakit, baiña nere ustetan ori litzake onena,  
eta ez dago zertan galdurik olako aurrerapena.  
Pakezaleak aurki daitezke mundu osoan barrena.  
Neu adibidez, baiña proatu bearra dago aurrena;  
eta balio badet, ematen dizutet nere baimena.

2004ko azaroak 28



Ixilik ezin egon naiz, eta atera noa bertsotan,  
kantari txarra, baiña maitasun asko da nere itzetan.  
Felix, zu baiño jatorragoak gutxi dira mundu ontan;  
milla zorion biotzez, eta olaxe urte askotan.

Larogeita amar urte beteta etzaude gizon makala;  
au da bigarren omenaldia, uste det zerbait badala.  
Irugarrena prestatzen asi bearko da bereala,  
ziur bait gaude eun urtetara aillegatuko zerala.

Aizazu, Felix, artu itzazu nere esanak goguan;  
eun urtetara elduko zera len esan dedan moduan.  
Eta, seguru asko, ara zer gertatuko dan orduan:  
Gaur emen gauden asko ez dala izango zure onduan.

Zu ikusita, egia esan, gaude oso arriturik;  
urteak pasa arren, alai ta beti animoz beterik.  
Naiz ta sekula zuk ez diguzun esaten orrelakorik,  
sekreturen bat izango dezu, ortan ez dago dudarik.

Baiña, nik uste, badakidala zein dan zure sekretua:  
Kontzientzia garbia eta bizitza pakeatua,  
txoko auetan ondo jateko ederra apetitua,  
umore ona eta maitatu lagunak eta katua.

Beste aldetik gazte denboran kirolaria trebea,  
abertzale ta donostiarra, arrokeririk gabea.  
Elizkoia ta zintzoki bete kristau fiñaren legea,  
guk nai badegu, orra zuregan ejenplo ezin obea.

2005eko urtarrillak 7

Ire baratza zaindu asmotan entorrela oi bezela,  
bat-batean ta ustekabean emana ditek epela.  
Eskerrak i eu ere arria bezin gogorra aizela;  
pentsatu ere ez diat nai zer gertatuko zan bestela!

Ajolakabe asko zebillek kotxearekin munduan;  
pertsone izan baiña ibili animalien moduan.  
Zoritxarrean alako batek jo ta puskatu induan.  
Iñozo arek etzekik asko ze lanak jarri dituan!

Gauzak ederki aldatu zaizkik une batetik bestera,  
osatu arren, Patxi, lengoa ez aiz izango ostera.  
Kontsuelo gisan balio badik, auxe niak esatera:  
Paseak pasa, berriz joango aiz ire baratza maitera.

Baikor izaten ez det erreza i agon egoerakin:  
zango bat falta eta besteak naiko arazo berekin.  
Baiña au ere entzun zaik, naiz ta ez egon ados nerekin:  
Zenbait birekin baiño geiago aizela bakarrarekin.

Galdutakoak emango dizkik aztu eziñeko penak,  
baiña bestea saiatuko dek betetzen utsune denak.  
Bi beso sendo ere badituk asko balio dutenak,  
eta ederki bazekiagu zer diran ire almenak.

Okerra bear danean, nonbait, ez dek zuzenik izaten,  
eta gu orain zertan ibili buelta geiago ematen?  
Oitu bearra zaukagu denok, naiz erreza dan esaten  
i euk edorren burua, ta guk agon bezela ikusten.

Ire baratza-inguru artan etzegok lengo konturik;  
aspalditxoan ez dek entzuten txantxangorrien kanturik.  
Birigarro eta zozoak, berriz, libre ta pozez beterik,  
ez dutelako sekula izan orain daukaten pakerik.

Barazki eta zuaitzek, berriz, naiz ez jakin itz egiten,  
tristerik zeudek, ta bazekitek nik zer pentsatuko duten:  
“Emen dabiltzan *señoritoek* ez dakite deus egiten;  
Patxi’k ainbeste jakinda, auek nola ez dute ikasten?”

“Aitzurra, sega, itai, aizkora geroz geiago erdoitzen,  
nun erabili, antxe utzi ta ez diralako jasotzen.  
Zabarrak dira, eta lanean ez dira auek izerditzten!  
Len egindako artatik biltzen, ortantxe dira saiatzen.

“Patxi’k bai lurra gozo-gozo, ta garbi-garbiak bazterrak;  
auek ez gozo eta ez garbi, lanean oso baldarrak.  
Tipula, porru, azelga, letxu, tomate edo piperrak...  
Oraingo martxan berealaxe itoko gaitu belarrak”.

Egia da, ta ezin ukatu ez dakigula lanean,  
baiña saiatu gera etortzen beta izan degunean.  
Zaindu ere bai, al dan ondoen premian zeundetenean.  
Beste mimo ta laztanak Patxi’k berriz etortzen danean.

Amabirekin bukatzen dizkit nik esan bearrekoak.  
Ez dituk gutxi, baiña litekeek ez izatea naikoak.  
Beraz, ondoen i euk jakiñik iri gertatutakoak;  
nik emen planto egiten diat, euk esan gaiñerakoak.

2005eko apirilak 19

Txapelketa berriro gogora ekartzian (bis)  
aurten abuztuaren ogeita zazpian,  
egun berezia da nere iritzian:  
txapela ta opari asko bukatzian.  
Asi, berriz, goizeko amarrak jotzian.

Zortzitako egiñak prestaketa lanak (bis)  
bestela nola artu orrelako famak?  
Ordurako nabarmen zaletuen planak:  
Al dan azkarren bete exerleku danak.  
Nun exeri berandu etortzen diranak?

Zaletuak badira bi eratakoak: (bis)  
Oso goiztarrak eta azken ordukoak.  
Auek, sarri, aurpegi txit gogorrekoak,  
gaiñera ipurdiak ala moduzkoak.  
Azalduko ez balira obe olakoak!

Naiz berandu ibili, ez dira kokiltzen, (bis)  
azkena etorrira, beraiek agintzen:  
–Exeri nai det, ez det besterik eskatzen!  
Beraz, asi ipurdi oiek arrimatzen.  
–Aizu, zurea ez da ala ere kabitzen!

Etzuen etsi, baizik saiatu geiago, (bis)  
leku eske asi zan pixka bat gorago.  
Nonbait gu baiño jende ohea badago,  
antxe ikusi nuen beintzat geroago  
exerita besteak baiño lasaiago.

Amarretan, txistu-ots bereziarekin, (bis)  
pelotari ta epaille, plazara elkarrekin.  
Txaloak, jendearen zoramenarekin;  
oiek etorri dira asmo berarekin:  
Txapela irabazteko esperantzarekin.

Yoldi ta Beroiz'entzat lenengo txapela, (bis)  
oraindik "juvenil"en mailla ortan daudela.  
Esango digute biak naparrak dirala;  
naiz ta aurka ez izan bikote motela,  
txapela uste det errez eraman dutela.

Bigarren partidua asi bitartean, (bis)  
estimatzen da zerbait bada eskuartean,  
utsik, edo bestela ogian tartean,  
bat animatzen baita zeozer jatean.  
Ekarri ez duanak, beretzat kaltean.

Len ere giroa naiz ez egon itsusi, (bis)  
une artan nabarmen obetzen zan asi.  
Bi partidu geiago genitun ikusi,  
eta edonork galdu edo irabazi,  
iñori ajolarik ez zitzaigun kasi.

Baiña esango det nola joan zan bigarrena: (bis)  
Amantegi-Lopez'ek lortu garaipena.  
Irugarrena, berriz, onekin azkena:  
Olazabal ta Iza bikote onena.  
Aurten galdu dutenak garaille urrena.

2006ko abuztuak 27

## Perretxikuzale baten kontuak

---

Iurogei ta amabi urte, ori da nere adiña,  
aje batzuek izanagatik oraindik gizon gordiña.  
Nik esatea ez dago ondo, baiña lan asko egiña.  
Orain gustoko zeregiñetan gozatu nai alegiña,  
bidean baita, eta gertuan, nai eta ezin egiña.

Gustoko lantxo dexente ditut, ez da gauzarik txarrena,  
egin nai degun ura egiteko izan ezkeru almena.  
Beraz, bakoitzak jakin bear du egiten aukeramena.  
Neri norbaitek galdetzen badit zein dudan gustokoen,  
“Mendira joan ta onttoak bildu”, esango diot aurrena.

Ori dala ta, beti adi gu, endemas udazkenean,  
bai poztu ere onttoei buruz berri onak diranean.  
Egun berean ez baldin bada, ziur biaramonean,  
Naparroa’ko mendietara, beti edo geienean.  
Baiña bakarrik ez iñoiz, beti laguna aldamenean.

Laguna nere emaztea da, eta ni seguru nago:  
perretxikutan gure koadrillan obeagorik ez dago.  
Nik zaletasun aundia badet, emazteak aundiago.  
Perretxikuak aurkitu ere beti nik baiño geiago;  
eta jatea gustoko baiña biltzea gustokoago.

Perretxikuak bilduz mendian ez degu gutxi gozaten,  
otar-erdixka batekin ere badakigu konformatzen.  
Penak aztu ta gaitz eta miñak antxe zaizkigu sendatzen;  
eta mendian ez gaitu oraindik ikusi iñork asarretzen  
baiña bai, iñoiz, asarre joan ta adiskide etxeratzen.

Baiña kaxkarrak Naparroa'tik datozkigun albisteak;  
Gu, perretxikuzaleoi itxi nai dizkigute atepak.  
Ez asarretu, arren, gurekin, anai-arreba maiteak.  
Asko goibeltzen nau senideak era ortan ikusteak:  
ainbestekoak al dira egiten dizkizuegun kalteak?

Baldintzak eta trabak ipiñi abusatzen dutenentzat,  
eta atepak zabalik utzi zintzo dabillenarentzat,  
Perretxikuak bear luteke biltzen dituenarentzat,  
zintzo jokatu eta neurritik pasatzen ez bada beintzat.  
Ala, seguru asko onttoak izango dira denontzat.

Emaztea ta biontzat auek ez dira unerik onenak,  
alaitasunak aldegin eta tristealdi nabarmenak.  
Lengoen antzik ez dute izango datozkigun udazkenak,  
eta, agian, orrek izango ditu bere ondorenak.  
Gaitzerdi austen ez badizkigu gere arteko arremenak.

Anai naparrak, itxura danez ez dezute nai joaterik,  
perretxikutan gozatzeko or ez da izango aukerik.  
Gure asarrealdientzako ez genun toki oberik;  
alaz ta guztiz ez det egingo eskerrak eman besterik,  
eta gaiñera nik ez dizuet iñoiz itxiko aterik.

2006ko azaroaren 28an egiñak

Ain egoera penagarrian aurkiturik Erreala,  
esan bear da Real zaleok oso triste gabiltzala.  
Irtengo ez dan zulo beltzean badirudi sartu dala;  
milagroren bat gerta ezean aurki edo bereala,  
pentsatzen asi bigarren maillan laister izango gerala.

Gurea danez guk Erreala daramagu biotzean.  
Irabaztean poztutzen gera; tristetu, berriz, galtzean.  
Baiña aspaldian garaipen gutxi bai kanpoan, bai etxean.  
Sailkapenean, nai eta nai ez egon bear, ba, atzean;  
aurpegi dena gorritzen zaigu non dagon begiratzean.

Jarraitzailleak asko aspertu ta bazkideak gutxitzen;  
baiña egia esan, oraindik ez degu denok etsitzen.  
Emen bakoitza bere erara alegintzen da laguntzen:  
fededun batzuk santu guztiei kandela-argiak piztutzen,  
besteok, berriz, errezueta Jainkoari erregutzen.

Reala beste gauzik buruan kasik ez darabiltenak  
azitzen ari zaizkie beren sufrimentu eta penak.  
Lo ere gaizki egingo dute, nik uste det, ia denak;  
asarretzeko ez dute ezer bear izaten geienak,  
eta, jakiña, ordaintzen dute kulpa gutxien dutenak.

Neroni ere asia nago amets gaiztoak egiten,  
eta kezkatu, ori ez baita señaleari onatzen.  
Naiz ta “salbatu egingo gera” ari zaizkigun esaten,  
nai nuke, baiña gauzak ez ditut nik orren garbi ikusten.  
Eta momentu ontan nik ez det “txakur txiki” bat ematen.



Zerbaitegatik dago or, baiña au ere nai nuke esan:  
Orain artean Realak ez du suerte aundirik izan.  
Zauritu asko ta ondorenak bear izan ditu jasan;  
zalantza sortzen duan epaille bat baiño geiago bazan,  
eta “gol” asko azken orduan berdindu edo gal zezan.

Askotxo dira, agian, denak aitzakiak izateko,  
zerbait geiago ere izan da ain atzean egoteko.  
Jakin naiean eskatzen degu dena garbi esateko,  
baita etxeke jokalariei aukera geio emateko,  
ta urrengoan, mesedez, gauzak txukunago egiteko.

Real zaleok alde-alde gu tankera ortan gabiltza,  
alare etzaio faltako gure arnasa eta laguntza.  
Oso eskasa izanagatik guk degun futbol-jakintza,  
denok dakigu nortzuk dezuten au konpon dezaken giltza.  
Zuzendari ta jokalariaik, zuena da, beraz, itza.

2007ko martxoak 31

## Eta orain zer?

---

Azkenean ere gertatu da gertatzekoa: Ez genuen sinestu nai, eta pena artu degu benetan. Baiña Erreal txuri-urdiña bigarren mailara jaitsi da. Oso gogorra da ori, baiña ortxe gaude, auskalo noiz arte.

Bertso auek 2007ko uztailaren 16an jarri nituen, ain juxtu ere.

Bertso berriak Errealari, ez umore onenean;  
lenago ere jarri nizekion oraindik garaiz zanean.  
Baiña ordurako kezka ugari bazan nere barrenean,  
eta onela esaten nuen: “Laster da bigarrenean”  
Orain zer, nere pronostikoa egi biurtu danean?

Bagenekien aurrez jaisteko arriskua zegoela,  
edo bestela milagroren bat gertatu bear zuela.  
Esperantzarik, ordea, iñoiz ezin galdu zitekela;  
azkenerarte bai egon ere arnas batean bezela...  
Nere moduko iñuxenteei eman ziguten epela!

Kandela, errezu, denak alperrik guk egindako alegiña!  
Ekainillaren amazazpi etzan egun atsegiña.  
Bigarren maillan geroztik gure Erreal Txuri-Urdiña...  
Ez da erreza adierazten orrek eman digun miña!  
Ura zan ura egia izan, eta sinistu eziña!

Esperantzaren argi izpi bat bazan oraindik bostetan,  
argi guztiak itzali, eta illunpean zazpiretan!  
Ez det ikusi iñoiz ainbeste irrati belarrietan...  
Iñork ez daki zenbat sufritu genun bi ordu aietan!  
Orrelakorik etzan gertatu azken berrogei urtetan.

Bigarren maillan aurkitzen gera, ori da egi garratza,  
eta arantza mingarri batek zulatzen digu biotza.  
Bestalde, bada gure buruan ez dakit zenbat zalantza:  
Zuzendari ta jokalariaok, piztu gugan esperantza  
ateratzeko orrenbeste min ematen digun arantza!

Gertatu dana ez da aztuko egun batetik bestera;  
neurteziña gaiñera orrek ekarri digun galera.  
Eta, orain zer? Ori da denok egiten degun galdera.  
Ekin lanari, buruz jokatu, beingoz guztiok batera.  
Lendabiziko maillan ikusi nai zaiteztegu ostera.

Aserre eta triste egoteko arrazoiak baditugu;  
une txar asko pasa degu ta zuek zerate testigu.  
Asarreak ez baiña tristurak oraindik irauten digu;  
ala ere guk beti bezela jarraituko zaituztegu,  
baiña ordaiñetan, jakiña, orain garaipenak nai ditugu.

Eziñezkoa da jarraitzea ain trakets eta itsusi,  
beraz, lenengo ondo prestatu, ikastekoak ikasi.  
Gero, onenak eta gaiñera langilleenak bereizi...  
Real zalerik negarrez berriz ez genuke nai ikusi;  
orain gozatu egin bear da, al dan azkarrena asi.

Emengo berri jakiten nuen lagunen bidez urtero,  
ondo itz egin zidaten, baiña ez nuen ainbat espero.  
Batetik, toki ezin ohea, bazkari bikaiña gero...  
Bertsoak errez kantatzen dira ondo bazkaldu ezkeru.

Lendabiziko esango dizut baserrikoa naizela,  
ta konturatu naiz emen gauzak bear bezela daudela.  
Baratza eta zuaitzak zaitzen dituzu zuk zeu bezela,  
dena ain garbi eta ain txukun ezin eduki bestela.

Joxe Migel, guk, bertsolariok, ez degu galtzen aukerik,  
eta ikusten detan gauz batek nauka oso arriturik:  
emen lan asko egiten dala, ortan ez dago dudarik.  
Baiña ez daukazu zuk emen asko egiten dezun itxurik.

Seguru asko egingo dezu San Ixidro'ren antzera,  
baiña badago alde ederra ura zanetik zurera.  
Ura, idiak lanean utzi eta Jaunaren etxera;  
zu, berriz, denak lanean jarri ta Ur-Kirolak elkartera.

Ala ta guztiz, jatorra eta asko dakina zera zu,  
eta biarko zeru ederra irabazia daukazu.  
Baiña nik esan gabe, zedorrek ondo asko badakizu:  
Biarkoaren zai egon gabe zerua emen daukazu.

2007ko irailak 7



Maddi, gure zoramena.

# **GURE ARTEAN**

---



Onerako naiz txarrerako, nai badegu eta ezpadegu, denboraren joanak berekin ditu aldakuntzak. Ori ez dago ukatzerik, baiña pixkanaka eta astiro egindako aldaketek ez digute egi-ten alako meillarik eta errez onartzen ditugu. Bat-batekoak dira arrixkugarriak, eztabaidagarriak izatez gaiñera.

Euskaltzale eta bide batez bertsozale geranez, azkenaldi ontan bertso idatziak dirala-ta, naikoa kezkatzen gaituzten kontuak entzuten ditugu. Badirudi, zenbait, molde berriak urratzen asia dala. Gogora dezagun aurtengo “Basarri saria” irabazi zuten Andoni Egaña’ren bertsoei buruz Rufino Iraola’k zer zion: “Andoni’ren bertsoak, nire ustez, entzulego/irakurlego selektoarentzat dira, eta ez edozein bertsozale arruntek dastatzeko modukoak”.

Aurreraxeago onela jarraitzen zuen: “Ez ote gaude bertso-laritzaz berdefinitu beharrean edota, nik proposatuko nukeen moduan, bertso-laritzaren barruan modalitate berri bati atea ireki beharrean? Hortxe uzten dut debatea norbaitek argi gehiago egin dezan. Bienbitartean, madariak eta sagarrak batera epaitzen jarraituko dugu”.

Aurten bertan Endaia’ko “Iparraguirre Bertso-Paper Leia-keta” zalata, onela zion, gutxi gorabehera, irratiz egindako elkar-riketan antolatzaile batek, aurreneko saria eraman zuten bertsoetaz: “Ain landuak dira, bein bakarrik irakurrita zail da jabetzen, baiña geiagotan irakurriaz, gero eta geiago kontura daiteke bat bere bertsoen malla zenbaterainokoa dan. Garbi ikusten da, naiko asti artu ez ezik iztegiak ere astindu dituela”.

Gisa ontako sariketetan urte askoan epaitze lanetan dabil-llen itzal aundiko jaun bat ere, orain berriro, onela mintzatu zan: “Bereizketa egitea izango litzake onena. Bi sari mota jarri edo, zerbait pentsatu bearko da”.



Eta zer?, esango du zenbaitek. Ez, ez gaude iñoren aurka. Askatasun eta eskubide osoa dauka, bakoitzak nai duen bide-tik jotzeko eta dituan abildadeak azaltzeko. Baiña, gure iritzia apalez, komeni dan ala ez da, agian, kontuan eduki bearke genukeena. Zer asi bear dugu, esan nai duguna aal dan gar-bien adierazten ala, esaten dugunaz baliaturik jendeari zenbat dakigun erakusten? Jakin zazute, ori bera geiagok ere egin dezaketela, eta egiten ez badute ez dala kapaz ez diralako, irakurleenganako begirune eta errespetoagatik baizik.

Beste arlorik ikutu gabe, bertsozalea gaur ere, geiengoa beintzat, ez da ikasia, jakintza aldetik naiko eskas dabilena, eta euskera bera ere geiegi menderatzen ez duana. Irakurtzeko gai bada, gaitzerdi. Izango dira bakar batzuk, nola ez, ori eta geiagorako kapaz diranak, baiña bertsozale arrunten artean zenbatek artuko du edo ar dezake ainbat pazientzi? Beldur gera, “auk ez dituk neretzat egiten diranak”, esan eta askok ez ote dituan, besterik gabe, bazterrean utziko.

Izkuntzari dagokionez, gauden egoeran egonik, ez al zaitzute iruditzen lujo aunditxo dala ori? Edozein negoziok aurrera egingo badu, bezero edo klienteak bear ditu, eta gure bezeroak irakurleak dira. Aal dan geien lortzea komeni zaigu, mimatu, itz batean esanda, eta ori gure esku dago neurri aundi batean beintzat. Bizkar ematen badigute, alperrik dira gure aalegin guztiak.

Nik neuk esan dezaket, ia beste aukerarik ez genduan garai aietan bertsoak irakurtzetik sortu zitzaidala ikas-miña. Beraiei zor diet, batipat, lan ontarako dudana zaletasuna. Eta tentaldi gogorren batek menderatzen ez banau, artutako bide-tik jarraitzeko asmoak ditut. Kontzientziak ala agintzen baitit.

*El Diario Vasco, 1988.12.07*

## Bertsolaritzari buruzko iritziak (I)

---

Bertsolariak, oroar arturik, azken bolada ontan naiko kritika zorrotzak jasan ditu adituengandik. Badirudi leengo eta gaurko moldeak ere alde batera utzi ta bide berriak urratu nairik dabiltzala. Kasu ontan ez datorkio ain ondo –ez bait dago alako beldurrik–, baiña “eraberritu ala il” dio esaerak; eta beste gauza guztiak bezela, bertsolaritzak ere garaian garaiari egokituz aurrera egin nai badu, derriorrezkoak ditu aldaketak. Egin nai dana lortzea eta egiten danarekin asmatzea, ordea, ez da ain erreza izaten. Bere arrixkuak baditu eta ez dira nolanai egitekoak, nere ustez.

Nere burua ez daukat jakintsutzat eta gutxiagorik ere. Iñon izatekotan, zaletuen artean kokatu bearko nuke sailkatzerakotan. Alabaiña, Laxaro Azkune’ren “Zer da saio bat bertsolarientzat: entrenamendua, exhibizioa, jolasa?” galderari buruzko iritziekin ados samar egonik, zerbait geiago esan nai nuke.

Sekula baiño saio edo jaialdi geiago eskeintzen da gaur egun, batean eta bestean, baiña, ulertzekoa dan bezela, bertsolari asko ia geldirik dagon bitartean, bakar batzuk deia emendik eta deia andik dabilta. Geiegi, agian. Baiña ori beste arazo bat da eta konponbide zailla duana gaiñera.

Ariari jarraituz, bertsolarientzat saio bakoitza, bat ez ezik, iru gauzak batera gerta daitezke edo lor ditzake, au da: jardunaren bidez “entrenamentua”, bere aalmen eta gaitasuna erakutsiz egiten duan “exhibizioa” eta bear dan seriotasunarekin, jakiña, baiña bertsolaria geiegi beartu gabe gai aldetik, lanean gustora jardutean “jolasa” biur daiteke berarentzat.

Bertsozale edo entzuleek, bestalde, jakin badakite ondo asko jaialdiek ez dutela zerikusirik txapelketekin. Ori bai, bakoitzak bere jakin maillan eta gustoaren erabera bertsoak neurtuko dituan arren, batez beste jota, geiengoa beintzat,

itxurazko saioa irtetearekin konformatzen dala esango nuke. Ori lortu aal izateko, ez dago esan bearrik, bertsolarien erantzukizuna da leenengo eta bear-bearrezko baldintza, baiña gajjartzailleak ere badu zerikusirik, eta ez gutxi gaiñera.

Gajjartzaille bezela aritu naizenetan bertsolariei aal dan neurrian laguntzea gustatu izan zait: gai errezak jarri, guztiak ez bada ere bakoitzari dagozkionak eta ondo ulertzeko moduan adieraziz. Oso txarra baita bertsolariak gaiari ondo eltzen ez dionean gertatzen ari danaren errudun sentitzea. Orrelakoetan zenbat eta bertso gutxiago kanta araztea onena. Edozer aitzakia –zutitu ta mikronora urbildu, adibidez– billatu bear litzake beste bati txanda emateko. Alderantziz danean, berriz, au da, gustora eta ondo ari bada, edo ari diranean, denbora geiagoan uztea ixtimatu egiten dute bertsolariak, entzuleek bezelaxe. Orregatik ez da komeni izaten “onenbeste bertso kantatu bear dituzu” esatea, bada ezpada ere.

Bakarka egiteko gaiak diranean batipat, Laxaro’k proposatzen duana egin izan dut, bakoitzari aurrez adierazi, alegia; eta mesedegarria dala ez dago dudarik. Gai librean saioska bat egin araztea ere ez da gaizki etortzen, iñork agindu gabe, beurak nai dutena esan dezaten.

Gajjartzaillearena ez da ez ain lan erreza, eta ez dala bear bezela baloratzen esango nuke. Nolanai ere, bertsolariengandik “gaiak oso egokiak eta politak ziran. Xelebre askoak jartzzen dizkigute zenbait tokitan. Zurekin bertsoan egitea ez da ezer” eta olakoak entzutea pozgarri gertatzen zaigu eta badu bere balioa.

*El Diario Vasco*, 1991.05.10

## Bertsolaritzari buruzko iritziak (II)

---

Aurrekoan nion bezela, gai jartzaillearen eginkizunetako bat, jaialdietan batipat, bertsolariei zailtasunak edo oztupoak jarri ordez aal duan neurrian laguntzea da nere iritziz. Ni orren aldekoa naiz beintzat. Bestela ere naiko buruauste duan zeregiña dala ez dago ukatzerik. Bertsolariak gaia emanda naiz librean, bere burua proatzeko eta dituan doaiak erakusteko aukera faltik ez du izango; eta saiatu ere saiaturiko da bere eginkizuna aal duan ondoen beteaz entzuleak gustora uzteko modua egiten.

Nik neuk, gustatuko litzaidaken arren, egiñalak eginda ere, aoz-ao, tajuzko bertso bat botatzeko gauza ez naizelako edo, izugarri sufritzen dut, adibidez, gaia jarrita okerreko bidetik abiatzen danean, zenbait unetan eziñean somatzean edo bertso kaskarra irteten zaionean. Onenak ere izaten baititu bere gorabeerak. Edozein modutan, doai berezi baten jabe dira neretzat aoz-aoko bertsolariak; eta orrek, agian, ez du meriturik izango, baiña begirune eta errespeto aundia diot nik edonori ere.

Gaiaren beste alderdi bat ikutuz, bestelako bertso saioak egitearen alde dagoenik ere bada. Amuriza'k artutako bidea, esate baterako: gai librean bi bertsolariren arteko saioak alegia, iritzi guztiak dira errespetagarriak eta bizkaitarrarena ere bai, nola ez; baiña gisa ortako saioak, nere iritziz beintzat, etzaizkit ain gogozkoak. Amuriza bera tarteko zala entzutea tokatu zait, eta, egia esan, luze eta aspergarri gertatu zitzaidan. Gaiaz aldatu arren, oizko arrunkei edo topikotara errezegi jotzen zutelarik, duten mailla erakutsi gabe gelditu ziran nere ustez. Meritu geiago izango du bear bada, baiña ez da berdin dozenerdi bana bertso kantatzea eta ordubeteko saioa egitea.

Basarri bertsolariari entzun izan diodana datorkit burura. Aurretik saioa egiñak ziran nonbait, eta berriro jende aurrean astera zijoazela, ala esan omen zion Uztapide zanak: “Orain zer esan bear diagu: Jainkoa ona dala?”. Etzuen ba etorri makala aretxek!

Esan bearra dago, bestalde, gaur egun, naiz bi bakarrik izan, beti edo geienetan gai jartzaillearen agindura kantatzen oituta daudela bertsolariak. Zer duten naiago jakiteko beraiei entzutea litzake onena. Geiago diranean, berriz, gidariaren bearra ezinbestekoa dala derizkiot.

Eta azkenik, bertso idatzien balioa zalantzan jartzen da. Zertarako gaur egun bertso berriak?, galdetzen du zenbaitek. Soilki nola-alako bertsoak idaztea beste abildaderik ez dugunok, ez dut uste bertsolari izenik ere merezi dugunik. Izan ere, ez du zerikusi aundirik, aukeratzen dan gaia aztertu ta bear dan denbora artu eta zuzenketa guztiak egiñez bertsoak osatzeak, bapatean bertsoa kantatzearekin. Badago alde ederra! Orregatik, nik beintzat, ez diot iñoiz meritu geiegirik eman izan bertsoak jartzeari. Gogoia edo afizioa bear da, ori bai, baiña artara jarri ezker, leenez gaiñera, askotxo aurki genitzakela iruditzen zait.

Jakintsuen iritziz, ordea, orain bertso berriek beren eginbidea edo funtzioa galdu egin dute; alferrikako lana bezelatsu juzgatzen dute. Garai batean, agian, euskeraz beste ezer gutxi idazten zalako eta gaurko modurik etzalako, ixtimazioa izaten zuten bertsopaperek. Periz-peri kantatuz saldu egiten zituzten batek baiño geiagok. Gaur ez dago orrelakorik; beste tratamentu bat ematen zaie. Baiña ortik baliorik ez dutela esatera...

Dana dala, edozein literatur mota lantzen duanak, egiten ari dana egiteko bearra sentitu ondoren, lan artan, pretentsioak aparte, alako atsegin edo satisfazio bat aurkituko du beste ezer baiño leen. Bertsogintzan ere, ni beintzat, zerbait burutzen danean, gaiñetik zama kendutakoan bezin lasai eta gus-

tora gelditzen naiz. Eta orrek, besterik gabe, eta norbaitek aintzat artu edo baloratzen dituan ala ez –baietzean nago ni– alde batera utzita, neretzat asko balio du.

Bertsoak, gaiñera, jaso egiten ditut; nork daki egunen batean billobaren batek edo aurki bait ditzake etxeko edozein bazterretan aitonaren bertsoak. Eta, zergatik ez?, irakurriz zaletasuna piztu eta bertsolari izatera iritsi ere bai, agian. Amets egitea dala? Ala izango da, baiña egi biurtuko balitz, balio aundizat joko nituzke nere lanak, arloteak izanik ere.

A, eta literatur-arte bezela ar daitezken bertsoak pozik irakurriko nituzke; eta bota ez, urrea oial artean gorde oi dan bezela jaso baizik.

*El Diario Vasco*, 1991.06.04

Bertsolari Elkarteko zuzendaritza:

Idazkitxo au idazterakoan, nori edo nora zuzendu izan dut zalantza dexente; eta azkenean, egokiena bera izango dala irudituta, Elkartera jotzea erabaki dut. Zergatik?

Bertsolaritzarekin zerikusirik duan edonor oar daiteken bezela, azken bolada ontan, Bertso-paper leiaketen inguruan zera somatzen dudalako:

Bertso-paper leiaketetan, gaurregun, plazarik-plaza eten gabe dabilzan batpateko eta punta-puntako bertsolariek parte artzen dute.

Bertsolari eta bertsojartzaille ez ezik, bertso munduan zerbait geiago diranak, au da: kargudun, ikertzaille, kritiko, epaile eta abar diranak ere leiakide izaten dira.

Badira, baitere, batean eta bestean, gaur epaimaiko eta biar sariketan partaide, deiaren arabera, bi eratara jokutzen dutenak.

Gaur egungo bertso-paper leiaketen oinarriei begiratuta, elduen maillan beintzat, egia da edonork ar dezakeela parte eta ez dago zer esanik, eskubide osoa dute. Baiña, a/puntuari dagokionez, ez derizkiot bidezko, plazarik-plaza eten gabe dabilzan –eta ez musutruk– punta-puntako bertsolariak eta gu, bertsojartzaille soillak, zaku batean sartzea. Bertso-paper leiaketak ez al lirake antolatu bear bertso jartzailleengan pentsatuta? Guk, ze ilusio eta ze gogorekin ari bear dugu lanean, egun, saritxoren bat eskuratzeko ain aukera eta posibilitate gutxi dauzkagula ikusita? Bertsoak idazten asko gozatzen dugu, baiña, neu aurrena naizela, ez dugu ukatzen, oreak eta diruak, batipat, alako poz bat ematen digula. Agidanez, ordea, beste askori ere antzeko zerbait gertatuko zaie.

Bigarren puntuari, b/ri buruz, eskubideak eskubide, ze itxura emango luke, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako leendakariak, Donostiko alkateak, Aldundiko aldun nagusiak edo Euskaltzainburuak, erakunde edo instituzio berak eraturako sariketan parte artuko balu? Edo, zer esan, ikastetxe naiz ikastolako irakasle eta ikasle, mailla bereko azterketara aurkezten ikusiko bagenitu? Irakaslearen zeregiña, azterketak prestatu eta zuzentzea izango da, ezta?

Iruharren eta c/puntuari dagokionez, berriz, ondo ikusiko al luteke, adibidez, pelotazaleek erretiratu gabeko, au da, jokatzan dabillan edozein pelotari dala ere, egun batean partidua jokatzan eta urrengoan epaile edo juez lanetan? Naiko lan.

Onezkero pentsatuko zenuten: “Au, saririk irabazten ez dualako, erreta eta ezin eramanez beteta, baztarrak naastu naiean zebilek”. Ez, ez da orrelakorik eta gutxiagorik ere. Sariak irabaztea zer dan dakidana naiz eta ez nago minduta, alderantziz, eskertsu zuengandik jaso dudanarengatik. Eta leiaketa-arauekin edo oiñarriekin ados ezpanago ere, onartu eta errespetatuz, jarraitu egingo dut bertsoak idazten.

Bestalde, ez dut inoiz zalantzan jarri ez eratzailleen jokabiderik eta ez epaimaikoen erabakirik ere. Badakit saria merezi duanari ematen diotena. Beraz, ez nago inoren aurka, ezta pentsatu ere; “etika” aldetik begiratuta, ordea, gauzak beste era batera bear lutekela iruditzen zait eta orregatik eman dut nere iritzia.

Eta bukatzeko, ezagutzen nauenak badaki nabarmenkeri edo “protagonismo” eta eztabaida eta saltsa sortzaille oieta-koa ez naizena. Orregatik jo dut zuzenean zuengana, nere iritzia ontzat eta aintzat artuko duzuten ez dakidan arren.

*Bertsolari* elkarteko boletiniñean argitara emana  
1994ko azaroa – 21 alea





# **Danetik**



Goiztar oietakoa ez izan, eta esnatu nintzanerako bete-betean jotzen zuen eguzkiak gure gelako ate-leioa. Arnasberitu naiean, erdi baldarka, begi nagituak igurtziaz irten nintzan terrazara, eta eguzki-printza zorrotzei ukalondoa emanaz begiak zabaltzea lortu nuenean, eguraldia ezin atsegiñagoa zala jabetu nintzan. Oiñak ere oi baiño ariñago eta ibiltariago biurtu zitzaizkidan bat-batean, alako egonezin bat sortuaz.

Aurpegiari preskatu legea eman, jantzi eta bizpairu zurrupadatan zerbait berogarria irentsi, eta ainbat aldiz oinkatutako bidea artu nuen: Ametzagaiña mendixkaruntz abiatu nintzan. Erdibidean dagoan Uba'ko Amabirjiñaren elizako atarira iritsi nintzanean, gaur egun ain utzikerizko bakardadean aurkitzen dala ikusirik, gaztaroko oroitzapenez bete zitzaidan burua. Garai batean sarri eta debozio aundiz biltzen bait giñan otoitz egiteko Amaren aurrean. Orain, aspaldiko oiturari jarraituz, Pazko bigarrenez ospatzen da Uba'ko Amaren eguna, eta gaur ere badu jarraitzaillerik, baiña urtean beingora mugatuxeak dirala esan daiteke ango elizkizunak.

Ama agurtu eta mendixka gaudituz nuenean, ipar aldera begiratuta, aurrez aurreko ikuspegiak beste oroitzapen mingarri bat zekarkidan: betirako izkutatu diran ainbat baserri ederrera, alegia. Gure arbasoek burua jasoko balute, egin duan aldakuntza ikusirik, ez lioteke errez antzemango.

Tortoillo eiz-toki berezia izan dan gaiña zearkaturik, Otso-Aldapa izeneko ertzetik, erreka-zulotik zetorzkidan birigarroren abesti paregabeak entzuten egon nintzan unetxo batean. Udaberriari kantatuz, pakea eta alaitasuna zabaldu nai zutela zirudian lau aldetara. A zer nolako ikasbidea gizonontzat!

Burutapenak pillakaturuz, aurrera jarraituz, bereala nintzan Lau-Aizeta tabernaren aurrean. Arritzeko jendetza barruan eta

kanpoan. Joera izugarria dauka, izan ere, inguruko auzoetako jendeak gain artara.

Nik aurrera egin nuen, eta urrengo geldialdia, ezkerretara San Markos mendia duala, Txoritokietaren oiñetan kokaturik dagoan Borda-Xaar baserriaren ondoan egin nuen. An, derri-gorrezko zitzaidan Zapiraindar bertsolariak burura ekartzea. Batez ere, nik ozta-ozta ezagutu nuen Joxe *Borda-Xaar*, gero *Txantxangorri kantaria* izena jarri ziotena. Baserri uraxe izan bait zan bere kabi edo sorlekua. Bizitza garratza jasandako gizona uraxe! Baiña, ala ere, beti kantari!

Azkenean, burutapen guzti aien atzetik askatu naiean, San Markos gaillurra arrapatzea izan zan nere jomuga, baiña ango aize osasuntsuak ere ez zuen lortu bakar bat ere uxatzerik. Sakonak eta oso barrutik zetorzkidanak izan, nonbait.

Ala, etsipenak arturik, joandako bide beretik itzuli nintzan, tokian tokiko oroitzapenak banan-banan berrituz. Nekatuta antxean, baiña pozik etxeratu nintzan, eta goiz artan egin nuena ez zait inoiz damutuko. Oroitzapenak berriz nere oroipen kaxkarretik iges egingo balute, datorren udaberrian berriro berriztatu nai nituzke, abesti berriak entzunez.

*El Diario Vasco*, 1986.03.23

Badakigu kanporaketak, gutxienez, eztabaidagarriak gerta daitezkeela, eta ez dugu iñor mintzeko asmorik. Ez genuke nai beintzat.

Ez dugu orrela pentsatzen, eta ezin esan leengoa dena ona eta oraingoa dena txarra danik. Baiña, aspalditxo entzun eta ikusitako gauzekin aldeztu edo konparatuz osatu nai genuke idazlan au.

Gaia zera da: Lanarekiko ardurarik eza. Gauzak izugarri aldatu dira, eta lana egiteko era ere bai; baiña lana beti lana izango da, eta arduragabekeria gaurko gaitza ez dan arren, indartzen ari ote dan iruditzen zaigu.

Guk ez genituan ezagutu, baiña garai bateko nagusiak gogorregiak izango ziran, bear bada. Adibide bezela –guri esaten zizkigunak oraindik gogoan edukiko ditu– zenbait langilleri ara zer nolako arrazoiak: “Neri aaztu zaidana geiago duk zuek dakizutena baiño”.

Etxegintzan edo obran ari ziranean, oso urduri (nervioso) jartzen omen zan langilleetako bat nagusia aldamenean ikusitakoan. Egun batean lurra oleztatzen (entarimar) ola ezin sarturik ari zala, nagusia inguratu zitzaionean, bere onetatik irten da gizarajoa, eta or ematen dio leertzeraiño maillukada beartzari; baiña ezer gertatu ez balitzaio bezela, beatzak elkarri estutuz, ederki diximulatuz, segi bere artan itzerdi bat esan gabe. Begira zegoana ere ixillik.

Nagusiak aldegin zuenean, beste ixkiñan ari zan lagunarengana joan eta:

- Zerbait esan al du nagusiak?
- Ez, ez du ezer esan.
- Ondo ariko gera orduan!

Oso zorrotza zan gure garaiko arkitekto batek ere onela esaten zuen: “Norbait lan eske etorritakoan, danetik dakiela esaten badizu, emaikiozu pala ta pikatxoia”. Nolanai lana egiteak etzuen balio izaten aren ondoan. Ikasteko eta lana ondo egiten oitzeko ez dira txarrak izaten orrelakoak.

Edozein ofiziotan, leendabizi, erraminta prestatzen ikasi bear zala esaten ziguten guri. Langille ona ala badaezpadakoa zan, artan antzematen zitzaiola. Gu ala oitutakoak gera eta ez daukagu damurik. Adibide bezela, itxura obea egiten zualata, ate-orpoak (bisagrak) lotzeko sartzen ziran iltze-biurri edo aridunen (tirafondoa) ozkadurak alde batera begira uzten genituan, naiz lortzeko askotan ortzak estutu bearra izan.

Alabearrez, oraindik-orain egokitu zaizkidanaren lanerako tankerak eta ardurak odol-gaizto egin arazi didate. Itz ederrak asi aurretik eta asi ere bai badaezpada ere, baiña noiz eta nola bukatu? Au edo ori ez dago ondo. Edo ura falta dala esandakoan, “oraindik bukatzeko dago, bereala egingo dugu”. Ez dizute inoiz ezetzik esango, baiña urrengo egunean bere artan gauzak. Azkenean, aspertu eta begien bixtatik leenbaitleen galtzeko deseatzten. Lanik ez dagoela? Ez dakit merezi duten ere orrelakoek.

Ez dugu suertetik izan, baiña badakigu oraindik langille onak badaudela, bestela ondo jaiokak geundeke.

Gorago genion garai bateko aien jarduera ez dugu onartzten, baiña gaurko zenbaitena ere ez. Kobratu bai, baiña lana itxuraz eginda.

*El Diario Vasco, 1986.05.22*

Ukaeziña da gaurregun Euskera izkuntza ikasi nairik dabiltzanak millaka dirala. Egia da, baitere, iñoiz baiño laguntza ta erreztasun geiago eskeintzen zaizkiola nai duanari. Baiña, ala ta guztiz ere, denbora ez ezik dirutzak eramaten dizkio azkenerako lan ortan asten danari. Pertsona eldua euskalduntzea, euskeraduntzea, izan ere, ez baita bi egunean lortzen dan gauza. Orregatik, alde batetik eziñak eta beste aldetik etsipenak jota geldituak askotxo aurki genitzake.

Askoren iritiz –gu ere ortan gaude– euskera ikasi nai duanak, ez luke xentimorik ordaindu bear. Bakoitzaren erantzukizuna eta almena gogoan izanik, bidezko epe batean, aukera ori eman bear litzaioke. Ez dezala iñork esan aukerarik etzaiola eman. Orrek, ordea, zalantza bat sor arazten digu: nolakoa izango litzake jendearen erantzuna? Oso bestelakoa, agian.

Bai lanerako eta irakaskintzarako zer esanik ez, euskera-  
ren jabe izateak askori lagunduko dio atea zabaltzen. Ori dalata, euskalduntzeari buru-belarri murgildurik daudenak ezin konta aala ditugu.

Askotan, sendiari, lagunarteari eta beste zenbait txolarte atsegiñi uko egiñaz, ikas-gelan ordu luzetan ainbat aditz, itz-jokabide, atzizki, esaldi eta itzulpen ulergaitzen artean zoratu zorian borrokatzea aski ez dala, aurkezten danak azterketak gainditzeko jasan bear diran urduritasunak eta larrialdiak kon-tuan izanik, txalogarria benetan ikasle oien alegiña ta jarrera.

Baiña, egoerak, bearrak eta irabazi edo interesak bultzatu-ta, itz batean esanda, derriorrean, iñongo sentimentu eta maitasunik gabe ikasten duan arek, erabilli ere ez ote du ala moduz egingo? Adibidez, beste edozein tresna edo erremintarekin bezela ez ote zaio gertatuko, beartzen danean bakarrik



erabili eta gainontzean baztertu ta kutxan edo kajoian gorde-  
ta eduki? Gutxitan erabiltzen dan tresnak, bestalde, erdoitze-  
ko arriskua izaten du. Eta tamalgarria litzake orrela jokatzea.  
Ortatik gutxi izatea obe.

Ezagutzen ez dana maitatzea eziñezkotzat jotzen bada,  
euskerarekin beste orrenbeste gerta daiteke: ezin maitatu eza-  
gutu gabe, eta jakin badakigu, ikasten ari dan neurrian, gero  
eta gogozkoagoa dutela askok. Zergatik ote? Ikasiaz maita-  
tzen dutelako ala, maitatuz ikasten dutelako? Zalantza onek  
ez gaitu kezkatzen. Betoz oparo orrelakoak.

*El Diario Vasco*, 1986.06.04

## Gure aurrekoei entzuna

---

Gure aurtzaroko garai aietan –ondo gogoan daukagu oraindik– debozio aundia zion jendeak Lezo'ko Santo Kristori. Urtean bein, gutxienez, eramaten gintuzten ikustaldi edo bixitaltxoa egitera gure gurasoek. Otzaldi dexentea nabari dan arren, ez dugu uste erabat galduko zanik deboziozko oitura ura oraindik. Izango du orain ere jarraitzaillerik, zalantzarik gabe.

Nolanai ere, gaur esan nai dizuegunak Lezo'ko Santo Kristorekin badu zer ikusia, baiña ez debozioarekin. Lezo'n gertatua baita, esaten dutenez.

Santo Kristoren irudiak argia izan zezan olio-argia eduki-tzen omen zuen bere oiñetan. Olioia zaintzea sakristauaren egitekoa zanez, goiz batean, ontzia utsik zegoela konturatu zan. Iñongo juzku txarrik egin gabe, bete omen zuen ontzia, eta kitto! Ondorengo egunetan, ordea, gauza bera gertatzen: olioia falta. Sakristaua, berriz, ordurako kezkatzen asia, eta berekiko: “Emen norbait bazebillek eta arrapatu bear diat, zein baita ere!”.

Gau artan bertan gordeta jarri omen zan aldare atzean; gau guzia pasa eta iñoren arrastorik ez. Bigarreanean berdin, iñor azaldu ez. Ala ere etzuen etsi, eta irugarren gauean gordeta zegoela, an ikusten du ontza kanpantorretik sartzen. Zuzenean olio-ontzira joan, eta baita egin ere bere azioa. Esan bearra dago, ontza olio-zale amorratua dala.

Jakin zuen, beraz, lapurra zein zan, eta sakristaua etzegoan barkatzeko. Pizti arek galerazi zion loa eta egindako kalteak ordaindu bearra zeukan larrutik.

Biaramonean, ontzari bizia kendu bear ziola-ta, eskupeta artu ta elizara. Gordeta jarri omen zan berriro, baiña gau artan, tirabide egokiagoa arrapatzeagatik-edo, sermoi-tokian,

pulpittoan makurtuta jarri omen zan. Goiz aldera bai etorri ere zintzo asko ontza zaar ura. Argi geiegirik etzan egongo bear bada, eta aidera, jeixteko denborarik eman gabe, an tira zion sekulako deskarga. Baiña ontza jo bearrean, zer dek eta, Santo Kristo bera jo bete-betea eta aurpegi dana txikitu.

Egin zuen oker artaz jabetu zanean, arritzekoa ez danez, larri izan bear zuen gizonak. Zer egin eta zer esan etzekiala, azkenean pulpitto bertatik besoak zabalduta:

*Ai, Santo Kristo, Santo Kristo,  
barka ezaidazu!  
Baiña zedorrek ere  
kulpak badituzu!  
Gizona kolera ontan ikusita,  
zergatik aldegin ez dezu?*

*El Diario Vasco, 1987.02.16*

Alkola eta drogaren atzetan erortzen dana gaixotzat jotzen da. Ala izango da, bear bada. Orduan, joera eta oitura txarrak utzi eziñeraiño menderatzen duan edonor ere, gaixorik dagoela esan bearko genuke. Dirua jokatzeke bizioa duana, adibidez.

Drogazaleak, duan edo dezakeen baiño diru geiago bear izaten du. Jokalariak, berriz, dituanak eta ez dituanak jokatzen ditu askotan eta zorra zorraren gaiñean. Ze alde dago bategandik bestearengana?

Gaur egun, goseak eraginda, lapurretara jotzen dutenak oso gutxi dirala esango genuke. Premian daudenak ugari izan arren, ogia eta zerbait geiago ere lortzeko, ez dugu uste iñori kentzera joan bearrrik daukatenik. Bear bezela datorrenari nekez ukatzen zaio sabela betetzeko zerbait. Besterik da jatekoari muzin egiñaz dirua bakarrik nai duan ura. Alakoak susmo txarra sorrarazten digu. Gose-egarria ez dan zerbait asetzeko asmotan ote dabillen pentsatzen bait dugu.

“Goseak ez du txantxarik” esan oi da; are gutxiago droga barau-aldiak sortzen duan irrikak. Orduan, bizia arrixkuan jartzeak ez ditu beldurtzen, lapurretaren bidez, ezin bestekoa zaien droga eskuratzeko. Ortarako, jakiña, dirua bear, eta ez gutxi gaiñera. Askotan azkenean eriotzara eramango dituan ura bear, biziko badira. Egoera errukarria benetan!

Beste garai batzuk ziran, baiña gerra ondorengo urte aietaz sarritan gogoratzen gera. Ez genituan urte asko, baiña ez dauzkagu aaztuta.

Baserrian sortzen ziran eta askotan etziran labore pixarrak entregatzera beartzen gintuztenean, errenta ordaintzeko, jazteko eta abarretarako dirua izango bazan, danen bearrean izaten giñan. Etxean sardinzarra jango bazan ere, dozena bat

arrautz osatzeko zai saltzera eramateko, ordaiñetan laurden bat olio eta azukre pixka bat ekarri aal izateko.

Santo Tomas'etan urteko errenta ordaintzeko, ikulluan txekor koxkor bat bazan, gaitzerdi. Bein baiño geiagotan, gure aitak:

–Lastima! Oraintxe asi itxuratzen eta kendu egin bear! Garai ederrekoa eta jalea duk. Lagundu ezkeru, udaberrirako ederra egingo uke, baiña or joan bearko dik.

Bestalde, arritzekoa etzanez, goseak eraginda, zenbat egazti, arto, patata, sagar eta gaztain lapurretan? Karrerik ezin atera, ta illunduta gero ere sagastiak zaintzen egoten giñan makilla artuta. Zenbait aldiz gatzakiko kartutxo ezkupeta kargatuta ere bai. Gogorra da, eta askok ez dute sinestuko, baiña egia.

Orain ez dago orduko konturik, eta alperrik galtzen dana-rekin amaikak jango luke. Baiña, esan bezela, orduan guztia-  
ren bearrean izaten giñan. Ez dezagula ezagutu berriz alakorik!

Adibide bezela, gertakizun xeble bat kontatu nai genizueke. Gaitzak ia erabat galdu bazituan ere, gaztain asko zan gure baserriko barrutian –gaur danbolinkada bat ez litzake bilduko– eta etxeko tripak bete ez ezik, txanpon batzuk bederen artu egiten ziran. Gurearen mugaz muga, beste baserri batek ere gaztaindi polita zuen. Eta izaten zan nork bildua!

Armoni batzuk gorabeera, eta txakurraren laguntzarekin –galtzak eta geiago urratuta joanak ere bai– emakume eta mutil koskor jendearekikoak egiten genituan nola edo ala. Baiña kuartelak gertuan egonik, soldaduak ziran lanik geien ematen zigutenak. Gizarajo aiek ere naikoa janda etziran egoten, nonbait. Gaztain asko eramanez ez ezik, txikizio izugarria egiten zuten. Bidali naiean asten giñanean, bereak eta aundia-goak, eta geronek egin bear izaten genduan atzera askotan.

Auzoko baserritarrari beste ainbeste gertatzen zitzaion: soldadurik ezin uxatu iñola ere. Baiña arratsalde batean zer

esan ondo pentsatuta etorri zan gaztaindegira. Eta batzuk zuaitz gaiñean eta besteak azpian, dozenerdi bat soldadu gaztaiña bildu eta gaztaiña bildu ari zirala, goiko bidetik: “*Bastante, bastante, pañuelua bete, perjuiziua kalte, avisar al Comandante!*”

Ala, Komandante itza entzun zutenean, gaiñekoak jeisteko bearrik gabe korrika eta batzuk alde batera eta besteak bestera, laister izkutatu omen ziran. Pañuelua bete baiño geiago eraman nai izateagatik, ara zer gertatu zitzaien.

*El Diario Vasco, 1987.04.23*

Gure lurralde au ain menditsua izanik, nunaitik alde batera edo bestera jotzen dugula ere, bi pauso eman orduko mendian gora abia gaitezke.

Geiagorako aalmenik ez dugulako edo, mendeko mendixkak zaizkigu gogoko, batipat. Asko beartu gabe gainditu ditzakegunak, eta bide batez betikoak eta ezagunak izan arren, beraien gaillurretik, begien gozamenerako, begiratualdi bakoitzean beti zerbait berri eskeintzen diguten oietakoak.

Mendixka oien artean, bere oiñetan Astigarraga auzoa duelarik –orain erri biurtzeko burujabetza lortu naian dabilena–, Santio mendia dugu. Eta araxe egin genuen joan-etorri bat oraintsu.

Gerezi leku berezi eta ugaria danez, denboraz giñan lorezko jantzi apaiñez estalitako gereziondoz inguraturik. Ura edertasuna! Ura begien ikusgarria! Eltzen diranean bixitatxo bat egingo geniela esanez utzi genituen atzean.

Loretan asi ziran, baiña sagasti gutxi xamar ote dagoen iruditu zitzaigun. Gaurregun egiten diran sagardo-putzuak egiteko ugariagorik bearo da, eta nunaitik ekarri bear, jakiña. Ala ere, eta ez giñun gutxi poztu, sagar-landare aldatu berria dexente ikusi genuen. Ezeren okerrik ez dala, eta bear bezela zaintzen badituzte, zerbait etekin itxaron daiteke, noski.

Malkarrean gora gindoazela bazan alaitasun eta pake-adierezagari diran txorro-txio eta kilker berritsua ugari. Zozoa beste eginkizunak betetzen ari zan, ixillune bat egiñez: mokoan arrantxoa artu ta kabiruntz, kume aseziñen eskeari erantzun nairik. Ixtant batean bi aldiz ikusi genuen beintzat. Zenbat joan-etorri egiten ote du egunean zear? Ezer falta etzedin, suge gorria, eguzkia artzen arri xapal baten gaiñean. Makillarekin urbildu nintzaionean, ziztu batean ezkutatu zan belar artean.

Urte garai ontarako lurak naiko legortuta daude. Egun aietan, izan ere, ifarra eta ego-aizea borrokan zebiltzan. Eta guk entzun izan dugunez, euria egiteko oso señaile txarra izaten omen da ori. Zerbait izango da, geroztik ez du euririk egin beintzat-eta.

Santio mendiak, besteak beste, badu bere gaillurrean Astigarraga eta inguruetakoko jendeak oso maitea duen baseliza edo ermita polit bat. Eta oiturari eutsiz, zintzo asko joaten dira oraindik ere Santiago egunean eta San Roketan.

Ala beintzat, geldi-geldi, iritsi giñan ermitaraiño eta, jakiña, atea itxita zegoen. Baiña kanpotik ikus zitekeenez, bertze lanak egiten ari dira, zenbait aldakuntza egiñez. Kondairak dioenez, 1923an konpondu zuten leen ere. Orduan, parroki eta erritarren artean, 4933 pezeta bildu zituzten; eta Markesak, beste 3.000 pezeta geiago eman arren, 1.570 pezeta falta izan ziran gastuak ordaintzeko. Ordutik orain arte, bere artan egongo zan eliza, bearbada.

Bestalde, antziña, Santiago-bidean zijoazen erromes edo peregrinoak igarotzen ziran naitaezko puntu eta biltokia zan ermita au. Eta bai Frantziatik eta bai Nafarroatik ere bixitari asko etortzen omen zan.

Orduak pasa zitezkeen ermitari itzulia emanez, ango ikuspegi arrigarriak gozatuz. Baiña orduak aurrera zijoazkigularik, andik Ermaña tabernara jeitsi giñan. Eta zerbait artzera sartu giñanean, sukaldeko lanak egin eziñik zebiltzan. Bazkaldar asko espero zuten nonbait; eta irten giñanerako kotxe eta oiñezko, barra-barra zetorren jendea.

Bueltakoan, egoaldeko beste bide laburrago bat artu genuen, eta berealaxe giñan Astigarragan. Leen ere zerbait esan dugu, eta 1941tik, Altza bezela Donostirekin bat egiñik egon bada ere, berriro loturak askatuta bere aldetik jarraitzeko asmoak dituzte Astigarragarrek, leen bezelaxe. Bere artean ondo konpondu, eta obeto izan ditezela opa diegu, biotzetik.

*El Diario Vasco*, 1987.05.14



Gizon bati au entzun nion bein: “Bizitzaren erdia osasuna nundik nola galduko pasatzen diagu, eta beste erdia, iñola osatu eziñik joaten zaiguk”. Eta ez da dena gezurra.

Besteak beste, osasunarentzat etsairik txarrenetako bat, gezurra badirudi ere, elikadura dugu. Okerrena eskasia, noski, baiña geiegikeriak ere baditu bere lanak. Zenbat jaten dugunari ez genioke ainbat begiratu bear, zer eta nola jaten dugunari baizik. Orrek eziketa bat eskatzen du; aintzat nekez artzen duguna, ain zuzen.

Jan kontuan, gizaldiz gizaldi datorzkigun oiturak ez dira ain errez galtzen. Leen, neurri aundi batean, eziña eta ezjakintasunagatik, eta gaur, kaltegarri zaizkigula jakin arren jarraitu egiten diegu askotan, aurrekoengandik artutako oiturrei. Gozamenaren tentaldian errezegei erortzen gera.

Erorialdi edo depresio uneak, iñongo premirik gabe janez, alkola, kafea eta tabakoaren bidez gainditzen ditugu. Eta azken batean, oiek denak, gorputzaren kalterako, gaitz osagarri eta bear baiño leenago zartuarazteko izan. Gizendu, berriz, zer esanik ez.

Giza-zenbaketak (estadistikak) diotenez, pertsona elduetatik %80k, adiña, pixua eta galgari dagokion baiño geiago jaten dugu. Eta ori asko ez dala, janari koipetsuegiak eta proteinaz urriak. Otorduz kanpo oso ur gutxi. Orregatik sortzen dira aizeak, biozterreak eta urdailleko astuntasunak.

Ala ta guztiz, milla aldiz irakurri eta entzunaren poderioz, eskuartean ditugun datuak diotenez, arrastoan sartzen ari geraneko itxurak dira. Adibidez, orain ogei/ogeita bost urte, irabazten zan %46 gastatzen zan jaten. Gaur, %30. Ogi, ale, oreki, koipeki eta arrautz gutxiago jaten da. Euneko 168 aragi geiago, eta % 170 igali edo fruta geiago.

Aragoi, Kastilla eta Naparroa'n jaten omen da aragirik geiena. Arrairik geien, berriz, Euskalerrria'n, eta gutxiena Extremadura'n eta Kanarieta'n. Jan-edanean dirurik geien gastatzen dutenak galizarrak ditugu. Tabernan eta jatetxean gasturik aundienekoak, euskaldunak eta madrildarrak. Kaloria aldetik, komeni dan neurritik gertuen dabiltzanak, kataluifarrak eta balentziarrak dira.

Nolanai ere, bear alako bi proteina eta grasa ematen omen dizkiogu gorputzari. Lirain eta osasuntsu iraun nai badugu, atsegin zaizkigun mokau askotxori uko egin bearra daukagu, bein edade bat ezkeru, batez ere. Baiña ain tripazaiak izanik, denak ez gera gai ori egiteko. Ez gizentzeko bi era bakarrik daude: jaten dugun baiño energia geiago errez, edo erretzen dugun energia baiño gutxiago janaz.

Azkenik, orra aolku batzuk, gogoan artu nai izan ezkeru: -Gatza gutxitu. -Aberu grasa, koipe, urdai eta gaiñontzekotatik aal dan gutxiena jan. Eta landareetatik sortzen diran koipe oietakoak geiago erabili. Astean 4 edo 5 arrautz baiño geiago ez. -Azukre eta gozoki gutxi xamar. -Barazki egosi naiz gordiñak maizago jan. -Egunean litro ta erdi ur, gutxi gorabeera. -Alkolakiko edariak, zenbat eta gutxiago eta obe; otordu bakoitzean baso bat ardo naikoa da. -Oreka baten barruan, aal dan janari ezberdiñenak aoratu. -Gaiñontzekoak, ariñagoak izango badira ere, eguneko otordurik garrantzitsuena, proteina aldetik beintzat, gosariak bear duela ez aaztu. -Tabakoa utzi edo bestela, gorputzak dituan amar kilo bakoitzeko zigarro bat baiño geiago ez egunean. -Egunero 15/20 minutuko soinketa edo kirol saioa. Besterik ezin bada, bixi-bixi ibiltzea ere oso ona da.

Ez dira ain gauza zaillak arreta pixka bat artu ezkeru. Osasunarengatik orrenbeste egin bear genduke.

*El Diario Vasco*, 1987.10.24

## Beldurra

---

Beldurrik ez duen ankabikorik ez da izango munduan. Iñoiz edo bein larrialdiren bat pasa gabekorik ez beintzat. Ala ere, batzuek besteak baiño beldurtiagoak izango gera, ezbai-rik gabe. Eta beldurra, esan oi dan bezela, ezurretaraño sar-tzen danean izan daitekeen lagunik txarrena da.

Ausartiarenari ere, naiz askotan alako itxurarik azaldu ez, gau illunak, bakardadeak, suak, urak, egazkiñak, pizti gaizto-ak, gaitzak eta abar luze batek atzera egiñaraziko dio. Erio-tzak, berriz, zer esanik ez.

Oiek orrela dirala, beste beldur mota bati buruz idazteko asmoa dugu gaur: Pertsona batek besteari dion beldurrari buruz, alegia. Ez luke ala bear, alkarrenganako errespetoa nai-koa litzake. Eta ez geneukake zertan beldurturik iñoren aurre-an. Beldurra dala medio, errurik gabe ez ote gera errudun sen-titu, edo ez ote gaituzte artu, ixildu, edo zerbait esatera bear-tuta nai ez duguna eta bear ez dana esan dugulako? Asko gera ur oietan paseak.

Denok amaren semeak izan arren, bat au zalako eta bestea ura zalako, ezjakiña eta ikasiaren artean batipat erreparo geie-gi eta konfiantza gutxi, eta gainditu eziñeko esiarekin topo egi-ten genuen. Eta ala ezin zitekeen bear bezelako arremanik izan. Ortan badute zer ikusirik zenbait guraso, pertsona eldu, irakasle, sendagille, apaiz, nagusi, militar, agintari eta abarrek.

Gogora ditzagun bestela, esate baterako, gure eskola garaian erruki gabe astintzen gintuzten irakasle zorrotz aiek. Ezin aaztu aitortzerakoan zenbait apaiz eta erlijiosoren aitor-lea artzeko modua. Eta zer esan despatxu edo leiatillaren bes-taldeko zerbitzuetako langille askoren kopeta illunaz eta jarreraz? Eta sendagilleek gaixoenganako gozotasunik ezaz? Militar eta agintariei buruz zer esanik ez, berriz...

Orduan ere etziran denak gisa ortakoak izango, noski. Baiña asko, bai. Gaur ere ez dira, edo ez gera, erabat atsegiñak. Baiña badago alde dezentea ordutik ona. Oraindik aurki daitezkeen arren, langak txikitzen eta ezkututzen ari dira pixkanaka. Aurpegi alaiagoa jarri, eta jarrera ohea egiten digute gabiltzan toki geienetan.

Bestalde, leen ikasiak gutxi batzuek ziran bezela, gaur, gazteek beintzat, baserri urrutienekoa ere edonoren aurrera joateko eta itz egiteko kapaz dala ez dago esan bearrik. Eta orrek konfiantza ematen du. Ori, berriz, neurri aundi batean beintzat, eziketatik datorrena izan. Irakasle eta ikasleen arteko arremanak estuagoak dira, eta alkarrengandik gertuago daude orain.

Ezerk garrantzirik badu pertsonarentzat, osasunak du; baiña gaixoaldiak ere guretzat egiñak izan. Alakoetan, sendagillearekiko arremanak zerikusi aundia du gaixoarengan, batez ere gaitzaz gaiñera erorialdi edo depresioak jotzen duenean. Orduan, tratatzeko era bera izan liteke sendakiñik onena gaixoarentzat. Eta, egia esan, ortan ere onera goazela nabarmen ikus daiteke, orokorki jota.

Beraz, utz ditzagun beldurrak alde batera, baiña kontuz: ez dezagun errespetorik galdu! Bien artean pauso txiki bat besterik ez baitago.

*El Diario Vasco, 1988.06.07*

Ilunabarrean etxeruntz nentorrelarik, laiño gorrikkak agiri ziran zeru aldean. Ordurako ego-aizea gaillentzen asia zan eta zuaitz ostoak, aizeak ezarrirako doñuari jarraituz, dantzaz zebiltzan. “Arrats gorri, goiz aize” esaera egi biurtzeko itxura guztiak zeuzkan eguraldiak.

Banekian, ondo jakin ere, gau artan lo zakarra egingo nuala, eta biaramonean, bezperan oeraterakoan bezin nekaturik aurkituko nuala nere burua. Esan eta izan. Sosegurik aurkitu eziñik, jira-biraka pasa nituan ordurik geienak. Ala etzegon atsedentzerik. Tarteka egindako lo kuluxketan, ezin kontala amets biurri eta naasiak. Ego-aize zorrotz lotsagabeak leio zirrikitutik sartzerakoan jotzen zuen ziztu gogaikarriak etzuen azkenik. Eta guzti orren ondorio bezela, oeko estalkiak erabat sakabanaturik aurkitu nituan goizean.

Esnatzeko ez nuen izan iñork deitu bearrik, eta egunsentiko argiak erakarri banindu bezela, salto batean jeiki, leioa zabaldu eta mendi aldera begiratu nuenean, bat-batean nekek aaztu eta indarberrituta sentitu nuen nere gorputza. Goizgiro zoragarri ura ikusita, ala nion nereko: “Gaur, irtenalditxo bat egin gabe gelditzea barkaeziña izango uke”.

Prestatzen aal zen denborarik gutxien galdu ta bereala irten nintzan mendiruntz. Ordurako goi samarrera igoa eta atsedean apur bat artu bitartean, arreta biziz ikusi nuen eguzkiaren irteera. Txantxangorria ere iñoiz baiño ozenkiago kantari zuaitz muturrean, eguzkiari ongi-etorri egiñez. Une artan somatzen nuen askatasun eta pake-giro ark bakarrik, besterik gabe, merezi zuen an egotea.

Zuaitzei begira ere ezin zitekeen aspertu bat. Udako osto orlegiak urre antzeko milla kolore zoragarritz apainduak. Zebait, ego-aize zakarraren astinduen ondorioz, erabat soildu

zorian. Noraiño eraman ote dizkie aizeak ostoak, igartu arren sortu ziran zuaitz azpian gelditu naiko zuketela pentsatu gabe? Auskalo.

Burutapenak burutapen, aurrera jarraitu nuen, eta gero eta gero usai aundiagoa zetorkidan. Bereala egin nuen topo bide bazterrean garoa pillatzen ari ziran baserritarrekin. Gurdiari idi pareta lotuta ez baiña “traktore” aaltsu bat zeukaten zai, garai batean ez bezela lanak errezteko. Oiek danak proatutakoa izanik, pozgarria izan zitzaidan.

Zenbat eta gorago, orduan eta indartsuago ego-aizea. Iparretik zetozen pagousoak borroka bizian aizearen oztopoa gainditu eziñik, eta mendi bizkarrean eiztari illara zai, beren txoznetan gordeta. Usoek etzeukaten beste irtenbiderik: oztopoak oztopo, aal zuten gorenetik jo, edo, arrixkuak arrixku, eiztarien tirabidera sartu. Geienek goiari eusten zioten, eta jeixten ziran aleak, bizia galdu ez zezaten, eiztariengana aal zan gutxien urbiltzen egiten zituzten aalegiñak. Ala ta guztiz, bat edo beste lurreratzen ikusteko aukera izan nuen. Ainbeste tiro tiratzen al zuten, izan ere!

Goitik beera abiatu nintzanean, baserri bat begiztatu nuen, eta ondotik igarotzerakoan, an zebillen nagusia bere bei eta ardi gosetiak larre berrira bideratu eziñik.

Auek ez dira ezer. Udazkeneko orrelako goiz bati buruz beste milla gauz esan daitezke, baiña amaitu bearra daukat. Jakin ezazue, ordea, oso goiz atsegiña pasa nuela, penatxo batekin itzuli banintzan ere: Perretxiku on bakar bat ere aurkitu gabe etxeratzea, alegia. Legor dago oso. Bereala euria egiten badu, ez dakigu irtengo diran ala ez. Dakiguna da, denbora aurrera dijoala, eta sasoirik onena pasea izango dala. Aurten ez da igazko konturik.

*El Diario Vasco*, 1988.11.04

San Sebastianak inguruan asi eta Aste Santua pasa bitartean, gutxi gorabehera, ez da giro izaten sagardotegietan. Denboraldi ori bait da, ain zuzen, sagardo proaketarako garaia. Oitura ori, oker ez bagaude, gero sagardoa erosi bear zuten elkarte, jatetxe, taberna eta antzeko tokietako jendearengandik dator batipat. Erosi aurretik aukeratu egiten baitzuten beren gustoko sagardoa. Eta ortarako proatu egin bear leendabizi, eta zenbat eta geiago proatu eta obe. Gero, lengoak esan zuena: “Atzo sagardoa proatzera joan, eta edan egin genikan!”. Ortarako, gaiñera, elkarteetan beintzat, entendituak aukeratzan zituzten len, eta argi ibili bearra zeukaten, bestela...

Gaur ere berdin jarraituko dute, noski; baiña oitura izugarri zabaldu da. Orain mundu guztiarentzat atea zabalik daude, eta urtean zear sagardoa badanik ere ia gogoratzen etzaienak, amorratzen joaten dira batera eta bestera. Zalantzarik gabe bere sasoian botellan sartutako sagardoak, bere onera etortzen danean, beste grazi bat izango du. Gaurregun, ordea, upeletik edateko oitura edo moda indarrean dago, eta jendeari atsegin zaiola ezin ukatu.

Ori dalata, orain ogei edo ogeita amar urtetik ona badago alde ederra sagardotegietan. Besteak beste, emakumeak joaten asi ziranetik datorren aldakuntza nabarmena da. Leen etzan izaten exerlekurik sagardotegietan. Zuenak zuena maia-  
ren jira-biran jarrita zutik jaten zuen, baiña, ori bai, maitik upelerañoko ibillaldia maiz xamar egiñez. Luzaroan zutik egon ezkeru ankak ere oztu egiten baitira.

Esan bezela, gauzak asko aldatu dira; eta oraindik gizon-  
ezko geiago ikusten dan arren, emakumea asko ugaldtu da sagardotegietan. Orrek beartuko zituen, neurri aundi batean, aulkiak eta gaiñontzeko erosotasunak jartzera. Sagardotegi

geienak ortan prestatuta daude beintzat. Baiña, emakumeen aitzakian, gutako askok ere ez dio muzin egiten aulkiari, sagardozaile jatorrak zutik egon bear duela jakiñagatik.

Emakumeen aurka ez daukagu ezer esateko, eta bakarrik bezin gustora joaten gera beraiekin. Baiña badira oraindik emakumeek upeletik sagardoa artzen ez dakitela eta edan baiño geiago alperrik galtzen dutela diotenak. Egia esan bear bada, danetik ikusten da: ezjakin eta arreta gabeko gizonezko asko, eta iñoren inbiririk ez dutela, tantorik lurrera ixuri gabe ederki asko ikasitako emakumeak ere bai. Eta ori sagardo-egileek oso begi onez ikusten dute.

Batez beste jota, gaurko antolaketa eta lana egiteko erari begiratuta, ez dago esan bearrik zergatik, emakumea bezero edo kliente ona dala uste dugu.

Gazte jendea, kintope ingurukoa alegia, gutxi joaten da sagardotegietara, eta arrazoietakoa bat dirua izan liteke, dudarik gabe. Bestea, agian, ain sagardozaileak ez, eta joerarik ez izatea. Eta ez genieke iñola biderik erakutsiko okerragoko lekuetan ibiltzen dirala ez bageneki. Eta aietan edan dezaketten edari eta gaiñontzekoak sagardoak baiño kalte geiago egin dezaieketela jakingo ez bagenu ere ez.

Neurriz kanpo dena da txarra, baiña –propaganda egiteko asmorik gabe– sagardo pixka batek ez dizu kalterik egingo.

*El Diario Vasco*, 1989.02.26



## Ugaltzen ari dan gaitza

---

Erorraldi edo goiberaldia (depresio, alegia) gure artean ugaltzen ari dan gaitza dugu. Urruti gabe, askotan iñora joan gabe aurki genezake aipatutako gaitzak mendean artutako jendea. Estatu maillan bi milloi pertsona baiño geiago omen daude erorraldi edo goiberaldiak jota.

Ez da oiñazez penatzen egon bearreko gaitz oietakoa, baiña erruz sufrituarazten die gaixoari eta ingurukoei. Ezau-garririk nabarmenak: tristura, atsekabe edo pena, barruko sufrimentua, eta abar. Erorraldia eta pilpira edo larria (antsiedatea) elkartzen diranean, berriz, desesperazio egoerara iritsi ez ezik eriotzara ere eramán gaitzake zenbait kasotan.

Milla arrazoirengatik iritsi daiteke pertsona egoera ortara; besteak beste, naigabe edo disgustoak, lana, dirua, maitasuna eta bakardadeak sortzen dituen arazoak eta abar, esate baterako. Bi itzetan esanda, gero eta geiagora beartzen gaituen sosegurik gabeko bizimoduak sortzen dizkigun lotura korapillotsuak eta aseziñak.

Gaitzak mendean artzea errezago da sendatzea baiño. Izan ere, sendagaiez kanpo, nor beraren borondatea eta alegiñak diralarik, aldamenekoen jokaera, laguntza eta pazientzia ezinbestekoak baitira aurrera irten aal izateko. Denborak ez du epe jakiñik, zulotik irtetea da kuestioa, denak ez dute lortzen-eta.

Nolanai ere, “Enrique Rojas” sikiatra ezagunak dionez, “Gizarte-jakintza edo kultura mailla igotzen dijoan arabera, sikiatrarengana joateko beldur ura galdu egin du jendeak. Garai batean, eroen sendagilleak giñan, eta erotzat jotzen zan guregana zetorrena”.

Onela jarraitzen du aurrerago: “Gure gizartea sano ala gaxorik dagoen jakiteko, azterketa sakon bat egitea gustatuko litzaidake. Alde onari begiratuta, or daude zientzia berria, teknologia eta informatikaren aurrerapen arrigarriak. Gogoratu,

demokraziari buruz eman diran pausoak, giza-eskubideak, egoki eta eroso bizitzeak arrapatu duen mailla, ingurugiroarekiko kontzientzia, gizarte-justiziari buruzko kezka, emakumeen eskubideak eta abar. Geiago egin daitekeen arren, ori da txanponaren aurpegia, nolabait esanda.

Baiña ezin dezakegu utzi gizarte eta kulturaren beste aurpegia agerian jarri gabe; txanponaren atzekaldea, alegia. Gaurko gizonaren aurpegi itsusia eta etsikorra, ain zuzen. Materialismoa eta berarekin batera, atsezalekeria eta erabateko zillegitasuna. Kosta aala kosta, gozatuz aal dan ondoen bizitzea. Kontsumismoak, aske sentitzeko era balitz bezela azaldu arren, menpekotasunik aundienera garamatza. Geranak ez du baliorik, dugunak baizik. Zenbat izan, ainbeste balio”.

Aurrerago onela dio, berriz: “Eldugabetasuna nagusitu da gizartearengan. Urteak joanagatik, gaztetxoaren adimen edo zentzua, beste era batera esanda. Nere iritziz, espirituaren baloreei muzin egiñik, erlatibizatu egiten da dena, eta geroan sinesten ez dala bukatzen. Beraldi, zabarkeri eta “pasotismo” garaian aurkitzen gera”.

Eta azkenik, erremedioa nun dagoen edo nola aurki daitekeen esaten du: “Erremedioa, gizona berarengan dago, eta bere baitan eta bere izatean aurkitu bear du. Bera da bere istoriaren protagonista. Bizitzaren aunditasuna eta balioa, bere barruan dauka gizonak. Umanismo sano eta jatorrago batera itzuli bear da. Azken batean, bitan biltzen diran ideal aundiak berpiztu bear dute guregan. Au da: elkartasuna (solidaridadea) eta ondorea (traszendentzia) gizarte agnostiku eta zentzu gabeko ontatik irten aal izateko”.

Adierazpen interesgarriak eta zer pentsatua ematen dutenak, ezbairik gabe. Penagarria da, izan ere, ainbat urte munduan pasata, geure burua ezagutu eta bizitzen ikasi gabe joan bearra! Areago oraindik, askotan, ezagutu eta ikasteko borondaterik ez izatea.

*El Diario Vasco, 1990.03.02*

Geiago ere izango dira, baiña ekintzarik txalogarrietako bat, edozein arlotan ere, ezin ukatu erakusketa dala. Irakas-kintza lana egiten dutenek, adibidez, erakusketa dute bere eginkizun eta ogibide. Zenbaitek ala uste ez badu ere, lan astuna benetan, eta griña berezi edo bokazioa eskatzen duen oietakoa, ez bairik gabe. Sarritan bear bezela eskertzen eta baloratzen ez dana, bestalde.

Baiña, maixu eta irakasleak alde batera utzita, badira langille soillak bere eguneroko lanean, dakitena iñolako eragozpenik gabe erakusle biurtzen diranak, bide batez.

Dana dala, edozein ofizio ikastera dijoan gatzetxo ezezagunak bere seme-alabak balira bezela pazientziz eta gozo-gozo artuta erakusten alegintzen diranak. Txalogarriak, benetan.

Askotan, ordea, ikasteko gogoak eta erakusteko boronda-teak ez dute alkarrekin topo egiten; elkarri bizkarra emango balio bezela azaltzen dira. Esate baterako, ezer gutxi balio dute alegin guztiak erakutsi nai eta ikasteko arretarik jartzen ez duanaren aurrean. Beste orrenbeste gertatzen da ikasteko irrikatzen eta erakutsi naian lagundu lezakenarekin, itz gozo-en orde zurrustada besterik ez badatorkio. Itz batean esanda, ezer galdetu ezin dezaiokeen zenbait zakar ipurdirekin topo egiten badu.

Orrelakoak ere izaten baitira: “Neri ez didate ordaintzen erakusteagatik!”, esaten dutenak alegia. Ikasita jaiotakoak izan nunbait beurak. Alakoen ondoan, ikasteko griña duenak, ajolagabea ez bada beintzat –ez dira ala izaten normalean–, sufritu bearra dauka.

Oraindik orain entzuna naiz –nun ez nuke esango– zenbait ikasle eta lan-saridun edo jubilatatu alkarrekin arremanetan

jarriak edo jartzekotan omen dirala, ikasleek zarren esperientziaz baliatzeko asmoarekin. Eta, egia esan, oso burubide interesgarria iruditu zitzaidan. Izan ere, goi-ikasketa edo karrera dutenek, edozein ofiziotakoak diralarik ere, asko lagundu dezaiekete urteen joanean eskuratuko esperientzia eta sekretuak gazteen zerbitzuen jarriaz. Ortarako, jakiña, leen genion bezela, erakusteko borondatea eta osasunak laguntzea ezinbestekoa izan. Baiña gaurregun, zorionez, ez legoke orretarako erakusleak aurkitu eziñik.

Jakinduriz janzteko oiñarria teoria dan arren, praktikaren osagarririk gabe, teoria utsa ankamotz geldituko da beti. Bien jabe egitetik dator aberastasuna.

Urte mordo bat bada au zala, baiña gogoan daukat zer esan zidan bein gizon batek: “Gizonak ez du trajearekin bakarrik jantzi bear, jakinduriz ere bai”.

Askotan egoten naiz pentsatzen langillerik apalenetik asita gorenekoraiño bitarteko gizon-emakume asko joaten zaizkigula beste mundura bere jakinduriari iñork probetxurik atera gabe. Pena ematen dit ainbat aberastasun galtzen ikusteak. Zenbait kasutan, agian, eta bestetan ziur nago, ikasi nai due nik urbildu etzaiolako, galdezka, ez baitet uste laguntza ukatzeko kapaz izango lirakenik. Alderantziz, arro eta pozik sentituko lirake, zartu arte, baztertu ez ezik, oraindik balio dute-la ikusirik.

Orregatik, gorago aipatu dudan asmoa interesgarria bezin txalogarria iruditzen zait. Eta aurrera eramateko zailtasunik gabea, bestalde.

*El Diario Vasco, 1990.07.29*

Ez da orandik denbora asko entzun nuala txoriek baratz, zelai, igali edo fruta-zuaitzetan eta abarretan kalterik egin ez dezaten, eskupeta, zepo, tranpa, beneno eta beste ainbat gauza erabilli ordeztu, asmakizun berriren bat sortua zuala norbaitek. Izan ere, txori eta leen txartzat geneuzkan pizti asko akabatu ez baiña zaindu eta babestu egin bear dira gaur. Lanean mada-rikatzen aritu ondoren zerbait bilduko duzula uste duzunean, kosetxa egun batetik bestera dena jan eta ondatzen badizute ere, kontuz gero txori bat garbitu! Arrapatzen bazaituzte igarriko diozu!

Gauzak orrela daudelarik, gizonari burua lanean jarri araztea ez da arritzekoa; baita asmatu ere ustez, esan bezela, erre-medioa txoriaz uxatzeko. Nik entzun nuenez, uxatu nai dan txori motaren –ez dakit itz egokiak diran– erio karranka, antsi edo karraxiak ateratzen dituan tresnak –grabazioak, agian–martxan jarri an emenka zaindu nai diran sailletan eta ez omen dira arrimatu ere egiten. Erremedio egokia dirudi, itxuraz, baiña ikusi egin bear emaitzak nolakoak diran eta erren-tagarria gerta daitekeen ala ez. Esaerak dion bezela, “gaitza baiña erremedioa okerragoa” ez al da izango beintzat!

Ukazeziñeko egi gordiña ortxe dago, entzun ez ezik, neronen begiz egunero ikustea tokatzen zaidalako. Besteak beste, txoriaz dirala medio, baserritarrek komeri gorriak jasaten ari dirala, alegia. Adibidez, illarrari jaiotzen danetik asi ta lekan alea eginda gero ere ez diote pakean uzten. Deskuidatzen bazera, alea egin ala jan, zulatu eta itxura gabe laster utziko dizute. Gorritzen asi orduko marrubi eta gereziak jaten zozo eta birigarruak, batipat, gaizto amorratuak dituzu; sail aundiak izan ezean, biltzen ez dezu lan aundirik izango! Azitarako uzten diran aza, arbi eta abarrekin zer esanik ez. Zirrikitu txikienik utzi gabe sarearekin edo estaltzen ez badituzu, erei-

teko garaia etortzen danean azia erosi bearrean izango zera. Eta, oraindik somatu eta entzun ez nuen zerbait esan zidaten aurreko batean: Babarrun lorea ere arruntean jan edo moztutzen ari zirala. Etxea jasotzeko ara zer nolako laguntzailleak!

Gauza auek sinisgaitzak dira, ez ezjakiñarentzat, are geiago kaleko jendearentzat. Izan ere, norik pentsatu bear du ain gogozko eta lilluragarri zaizkigun txoritxo polit oiek orrelako kalteak egin ditzaketetik! Ala ta guztiz, jakitunek diotenez, kalte baiño mesede geiago egiten omen dute txori eta piztiek. Barazki, fruta, labore eta zuaitz mota guztientzat kaltegarri diran xomorro, zorri, eltxo eta abarretatik asko jaten dute nonbait.

Ortarako ikasi dutenek eta ortatik bizi diranek jakingo dutela ez dugu zalantzan jartzen, baiña baserritar askori ori buruan sartzea ez da ain erreza izango. Xomorro ta gaiñerakoak gutxitzen diranik ez bait diote igartzen, uzta ondatzen dietela baizik.

Baserritarrek ziur nago txoriak maite dituztela, nola ez, eta beraien artean bizi diralarik, iñork baiño obeto ezagutzen dituzte beren jatorri, bereizitasun eta joera adierazgarriak. Baiña egiten dizkieten kalteak gogoan arturik ez da arritze-koa, zenbait unetan gorrotatu ez ezik beuren aldetik eta beuren kontura txori eta piztien aurkako neurri zorrotzak artzea. Ori gerta ez dedin, eta danon onerako, etor bitez asmakizun berriak.

*El Diario Vasco*, 1991.09.05

Leengo gauzak eta oiturak oraingoekin alderatzea edo konparatzea etzait asko gustatu izan sekula. Obeak ala txarra-  
goak diran esaten ere ez nintzake ausartuko. Gauzak eta oitu-  
rak, bizimodua bezela, aldatu egiten dira denboraren joanean;  
galdu, berriz, auskalo zenbat. Gerta daiteke, baitere, nola ez,  
batentzat gustokoak diranak bestearentzat ez izatea ain gusto-  
koak.

Esate baterako, neri atsegin zaidan eta galdu samartu dan  
oitura bat zera da: Bai etxeetan eta bai elkarte edo jatetxeetan  
bazkari naiz afari ostean famili edo lagunarteko abestiak.  
Orain kasik ez da abesten, eta arritu egiten gera koadrilla bat  
kantari entzutearekin. Eta zer esan sagardotegietan? Jendez  
gaiñezka nunai eta noiznai, baiña aurrez propio eratutako  
jaialdi edo ospakizunen bat ezean, milagroa da kantu edo ber-  
tsoren batzuk entzutea. Eta, egia esan, nik “ori faltan botatzen  
dut”. Ez, aurreko esaldi orrek ez dio batere grazirik egingo  
orrialde ontan sarritan azaltzen dan nere adiskide bati, eta  
arrazoi faltarik ez duanez, ea beste era batera idazten dudan:  
“Orren falta sentitzen dut”. Abesti eta bertsozik ezaren utsu-  
nea, alegia.

Arrazoietako bat zera izan daiteke, leengo ainbat abesti  
zaar eta ez ain zarrak, gaurko gazteek ia ikasi ere ez dituztela  
egiten; eta bertso zarrekin gertatzen dan antzeko zerbait ger-  
tatzen dala esango nuke, entzun nai diranean, era guztietako  
grabazio eta tresnak dirala-ta, izurgarrizko aukerak daudela.  
Ori dala-ta, buruz ikasteko alako bearrik ez. Leen, berriz,  
batean eta bestean alkarri entzunez ikasten ziran.

Aspalditxoko kontua da, baiña ara zer gertatu zitzaidan  
bein. Urtean bein edo, bazkari bat egiteko oitura dugu senar-  
-emazte talde batek. Ogei lagunetik gora izango giñan guzti-

ra, eta Naparroako erri txiki batean zan, ain zuzen. Koadrillan, oso txukun abesten duten gizonezko eta emakumeak ere izaki, eta bazkalondoan, jakiña, abesteari ekin genion. Beste munduko gauzarik ez, betiko abesti ezagunak baizik. Baiña bere-ala konturatu giñan aldameneko maikoek guk bezin gustura edo gusturago entzun ez ezik jarraitu eta abestu ere egiten zutela gurekin batera.

Kantu-saio luzea egin genuen, baiña jatekoak aspaldi bukatu arren, an jarraitzen zuten, etziran aspertzen. Alako batean, altxatu eta etxerako asmoan abiatu giñanean, igandero orrela biltzeko oitura izango bagenu bezela, onako galdera au egin ziguten aldameneko maiko bazkaldar aiek: “Datorren igandean nun bazkaldu bear dezute?”

*El Diario Vasco*, 1994.04.13



Orduan kaso aundirik egiten ez bagenien ere –ezaguera asko ez artean-eta–, aurtzaroan edo mutil koskorrak giñala, gurasoek amaika aldiz esaten zizkiguten onelakoak: “Laiñezak ez dik gauza onik ekartzen gero...”, “Ibili, ibili txoroena egiten...”, “Abillen bideak arrapatuko au bai i ere...”, eta abar. Eta asmatu egiten zuten geienetan. Izan ere, txikiagoe-kin nai genuena egiñez, agindutakoa egin nai ezik, edo beste zerbaitegatik laiñeza artuta ibili ondoren, askotan negar saioa egin gabe ez bait giñan libratzen. Eta tartean kaskarrekoen bat edo beste ezpazan, gaitzerdi.

Eskolan ere azkarrak ziranak, sailkapen gisara, aurreko maietan kokatzen ziran garaietan, arrokeriak eraginda, burla galanki egiten zieten atzeko maietan zeudenei. Jolas-kontuan zer esanik ez, zerbaitetan nabarmentzen zanak mendekoari bentaja emanda, edo biren aurka jokatzea nai izaten zuen, bere nagusitasuna erakusteko.

Geroago, garaian garaiko kontuak, neska-mutillen arteko arremanak zirala-ta, zer gertatzen zan –orain bezelaxe, noski–, esate baterako billera edo dantza-tokietan? Neska naiz mutil dotorea, dantzari ona eta gaiñera etxe onekoa zanak, naizu-naizu aukeran izaten zuen, eta ez pentsa edozeiñekin dantzan egingo zuenik, ez orixe! Aspaldiko lagun bati entzuna da. Bi mutil gazte berriketan ari dirala, neska gazte bat zetorrela ikusi. Eta orrelakoetan oi dan bezela, parean pasa zanean itzik ez, baiña aldendu zanean ala dio batek: “Ikusi al duk? Ori duk neska, ori!”. Eta besteak: “Bai, polita eta ederra duk; baiña orrek egiten duenak ere usai txarra!”.

Beste gai batera pasatuz, ezagutu gendunon artetik nor ez da gogoratzen Di Estefano, Gento, Amancio eta abarrek osatzen zuten Real Madrid talde artaz? Amar urtean sei aldiz

Europa'ko txapeldun izan zan. Estaduko futbol taldea zala esan oi zan, eta ain zegoen mimatuta, besteak beste, batere bearrik gabe aien alde egiten zuten epailariak ere; baiña kristo guarda aurka epaitu! Jokalari aiek jainko txikiak ziran, eta epailariak baiño geiago agintzen zuten.

Iñolako mesederik ez dakarren soldadutza gorrotagarrian gertatzen danari buruz zer esan, berriz? Maillarik bajuenekoak ere, beren galoiien anparoan, eta askotan galoirik gabekoak okerrenak, zenbat barrabaskeri eta ezegiteko koartelera derrigorrean joandako gazteei? Laiñeza baiño zerbait geiago da ori.

Ezagutu genuenok batez ere, badakigu ondo asko nolakoak ziran diktadura garaiko urte gogor aiek. Berak nai ainbat denboran ez, agian, baiña luzaroan eduki gindun errukirik gabe oinpean eta bereak eta bi egin ere bai. Ala ta guztiz ere, gutxiegi egindako damutan joango zan, ziur aski. Betirako zala usteko zuen, baiña betikoa...

Milla adibide jarri genitzake, baiña ezin geiago luzatu. Bukatzeko, zer gertatu da agintzen dutenekin? Urte batzuetan agintzea lortu dutela, ta arrotu egin dirala, laiñeza artu dutela, eta lotsa erabat galdutakoak ez dira gutxi. Jakiten ditugunak ainbat izanik, ezkutuan daudenak zenbat ote?

Esaera zaar bat bada onela dioena: "Ezer ez dagon tokian eskuak garbi". Bixtan dago zeñen zailla dan gizonarentzat apaltasunari eustea eta diru artean eskuak garbi edukitzea. Mutil koskorretan kaskarrekoak ematen zizkiguten guri laiñeza kentzeko. Zenbait politiko eta agintarik izango al dute merezi duten kaskarrekorik?

*El Diario Vasco, 1994.05.25*



# **IPUIAK**

(*Donostia Hiria* sariketarako idatziak)



Garai batean, beste ainbat eta ainbat bezela, baserriko anai zarrena etxera ezkondu ta beste irtenbiderik gabe, ez zerurako eta ez lurrerako, bizitza guztirako anaiaren mende gelditzen ziran oietako bat zan *Xanxon* izenordaiña zuen gizontxo. Etzan atzeratu oietakoa, baiña buruz oso osatua ere ez. Itz batean esanda, gizarajo xamarra. Beraz, ezkondu gabe gelditzea etzan arritzekoa.

Izenak berak dionez, indartsua zan eta indarrak proatu ta erakutsi naiean ibiltzen zan beti; eta, ori gauza, etxean alperra eta auzoan langille. Iñor laguntza eske joan bearrik etzuen izaten etxeko baratzen, zelaian edo ari zan tokian ari zala, dena utzi ta auzora igesi joateko. Batzuek laian, besteak garijotzen edo segan ari zirala, an joango zitzaien *Xanxon* laguntzera, bere erremintak artuta.

Zurruteroa izan bera, ta etxean etzuen ortarako aukera geiegirik izaten. Anaiak eta koñatak neurria artzen zioten ondo asko. Andik zetorkion besterengana joateko zaletasun ura. Auzokoek, berriz, ori dena jakiñik, ogi koskor batekin eta ardoarekin engaiñatzen zuten, ta... denak kontentu.

Beti izan oi dira, ta auzoko baserri batean baziran bere kideko gazte zirikatzaile batzuek eta berarekin naiko parrak egiten zituzten. Baiña bazkalondo batean, orra zer gertatu zitzairen:

Gazte oien etxekoek egunero ateratzen zituzten beiak larrera ta egun artan, bi anai ziran beiak zaintzera joanak. Beien artean bazan *Txuriya* izeneko bat, inpernuko demoniñoak baiño gaiztoagoa. Arek ere *Xanxon*'ek egiten zuena egiten zuen: bear etzan tokira joan.

Sarritan bezela, egun artan ere aitzaki-maitzaki gazte zirikatzaile aiengana joana zan gure *Xanxon*, ta begiak argi eduki bearrean, irurak jolasean ta berriketan iji eta aja zebiltzala,

alako batean an ikusten du *Xanxon*'ek *Txuriya* beia artasoroan artoa jan da artoa jan ari dala, eta:

–Ikusten al dek, i, *Txuriya* non dabillan?

–Zerian ibilliko dek... Larrian! –zion anai zarrenak zutitzeko gogorik gabe, etzanda zegoala.

–Bai, ta ez oso txarrian, artasoroan ari dek beintzat-eta... –anai gazteak, akuillua eskutan artuta korrika zijoala.

Arrapatu zuenean bizkarreko galantak eman zizkion, baiña egindako okerra nola zuzendu?

Aita oso zuzena eta errespeto aundiko gizona zuten, ta beiak egindako azio ura ixillik pasatzeko modua egin bearra zegoan. *Xanxon*'en intentzioa berriz, ara:

–Ea, emaidak akuillu ori, bizkarreko otzak kenduko zizkioat nik-eta.

–Akuillua utzi iri? Ez orixe. Gure kulpa izan dek; eta zaarak jakiten duanean ikusiko duk nola jarriko dan...

*Xanxon*'en berri bazekian eta etzion akuillurik utzi, une artan beia joka akaatzeko kapaz zan-eta. Orixe besterik etzuten bear orduantze!

–Lasai, mutillak, lasai. Nik bazekiat zer egin da –esan zuen anai zaarrenak artasorora begira jarrita–. Jan eta puskatu dituan arta-landareak ipurditik atera ta soro erditik artuta palta diranak ekarri eta txukun-txukun aldatuko dizkiagu, ta... kaixo, mutillak! Iñork etziok antzemango.

–Ori, ori –*Xanxon*'ek txistua bota eta eskuak garbituz.

–Gaur bezelako beroa baldin bada, biar garai onetarako ederki zimelduko dituk. Aita orren txoroa dala uste al dek ik ez konturatzeko? –zion seme gazteak.

–Konturatzen bada ere etziok ajolik. Eta alakorik balitz, nik jakingo nitek zer erantzun.

Ala, soro-ertzean zegoan erdoitutako atxur haar-haar batekin egin zuten bururatutako aldaketa, ta orduan bai, illunaba-

rrera arte etziran *Txuriya* ta gaiñontzeko beiak ere asko moitu. Ura zan beiak zaitzea!

*Xanxon*, berriz, ez pozik egongo etzalako, baiña bat-bateko seriotasun arek kezkaturik, etxeruntz joan zan.

Andik egun pare batera, belar ontzeko garaia zalarik, komeritako artasoro ura pasata zegoan zelaiko belarra ebakitzera joatea pentsatu zuten, gazte aien etxeokak, eta eguzkia jetsi zanean, aita-semeak an abiatu ziran segak bizkarrean zituztela, esandako tokira. Nai ta naiez, artasoroaren ertzetik pasa bearra zeukaten, eta inguratu ziranean, begiei itzala emateko txapela aurrera luzatuaz, aitak:

–Exkin ortan artoa gorriyak pasatu dik. Bai, oker ez banago, ori gorriyak pasia ziok.

–Gorriyak ez baiña *Txuriyak* bai pasatu du...

–Mutell, ago ixillik, ori gorriyak pasia ziok-eta.

–Ez, aita, ez. *Txuriyak* pasa duala, *Txuriyak*...

–Gaitz berriren bat dek orduan ori. Nik beintzat ez diat ezagutzen... Alde batera, gorrian itxura aundirik ere etzeukak, ez –eskuakin arto-ostoa ikutuaz.

–Bai, ez da zarra; berri txarra da, baiña ori *Txuriyak* pasia dala seguru egon. –Bitartean seme gaztea parrari eutsi eziñik aurrera joan zan aal zuen bezela.

–Ik ala esaten badek, ala izango dek; baiña dana dala, etzaukak planta ederra. Ikusiko diagu zer egiten duan. Nolanai ere, ortik artoa jaten kostako zaiguk...

–Nik ere ala uste –zakurra baiño serioago jarrita.

Andik belar zelaira iritsi ziranerako, gazteak bazeramagian mailla aurrean artuta. Baiña, aita-semeen arteko auzia zertan gelditu zan-edo jakin nairik egin zituan zear-begiratu ederrak aalik eta anai zarrak keiñu egin zion arte.

Asi ta bereala, etxetik ikusi zituan nonbait-eta, an azaldu zan *Xanxon* bere sega artuta. Onek, jakiña, etzekian ezer eta



an aritu zan jo eta ke bururik jaso gabe. Zaatoa eskura emandakoan, solamente, jasotzen zuen ederki.

Orrelakotan, saioa egin ondoren, jateko beti eramaten zuten zerbait eta egun artan ere zerbait goxoa eramana zuten, ta *Xanxon* etzan asarre. Emandakoak laister tragatzen zituan. Ziranak garbitu zituztenean, altxa ta etxe aldera abiatu ziran. Ordurako *Xanxon*'ek izketako gogo ederra bazeukan eta, beste biderik ez eta, ditxosozko artasoro aren ondotik pasa bear berriz ere. Operazioa egindako exkin artara iritsi ziranean, ara zer izan zan *Xanxon*'en ateraldia:

–Ikusten al dek, i, leengoan aldatu genitun artoak nola dauden?

–Zer esan dek? –aitak.

–Lengoan arto-aldatzen aritu giñala emen...

–Zer dalata artoa aldatzen?

–Bai, zuen bei *Txuriyak* jan zituan-eta...

–Arraio-arraioa! Banioken, ba, ni zer ote zan... Esan dit nik *txuriya* izeneko gaitzik ez nuala ezagutzen...

–Gaitza ez baiña ikuilluko bei *Txuriya* bai, ordea, aita, e? Orregatik esan dizut nik *Txuriya*'k pasia dala.

–Bai, esan didak bein baiña geiagotan, eta ez didak nola-naiko ziria sartu, seme. Baiña gogoan izan odolkiak ordaiñetan izaten dirala gero, e?

Ala berriketa gutxirekin, baiña asarre aundirik gabe, aita-semeak etxeratu ziran. *Xanxon* ere, egin zuen ankasartzeaz asko oartu gabe, an joan zan sano-sano etxe aldera, bidean gerrikotik zintzilik zeramakin sega-potoa ipur-masailakin gogor astinduz, klaka, klaka, klaka, nor eta non zan adieraziz, otsa atereaz, eta ara zer-nolako pentsamentuekin: –Iiiiau! Au dek sasoi! Etxean orrela jaten eta edaten eman-go balidate, lana egingo nitek bai nik. Berak bai naikoa, ta ni zera, izorrai!

Illun-bixtarekin batera etxe ondora iritsi zanean, Joxe Manuel anai zarra an ari zan goiko malkarrean, ganadu-janariak egiten, eta onela zion berekiko: –Or ari aiz bakar-bakarrik, baiña... ez nauk, ba, laguntzera joango; egin itzak edorrek denak, ik ez nauk izorratuko-eta.

Esan eta... baita egin ere. Izan ere, orrelako kasketaldiak jotzen zuenean, *Xanxon*'i ezer agintzea alper-alperrik izaten baizan.

Beste zenbait alditan, berriz, iñork agindu gabe ekingo zion lanari, eta egun aietako batean, beti zerbait bear-eta, orra zer gertatu zitzaion:

Eguzki bero-bero ta erre oietakoa zan egun artan, eta eguerdian, malkarreko beeko aldean ebakita zeuzkaten belarrrak jiratzera joan zan gure *Xanxon*, *Txiki* izeneko txakurra berekin zuala. *Txiki*, arratoi-txakurra izanagatik, muskerrak arrapatzen oso azkarra zan. Oso gutxik iges egiten zioten ari. Eta arrapatzen zuenean, ortzakin krisk-krask egin eta an uzten zuen jabearen aurrean.

Muskerra berez berozalea da, ta egun artan nonai azaltzen ziran, eta bizkorrak ala ere! Eta *Xanxon* eskuarearekin belarra jira ta jira ari zan bitartean, *Txiki* an zebillen muskerraren atzetik. Ebakitako belarraren azpira sartzen zitzaion, eta ikusten ez. Bixtara irten zedin, txakurrak, salto txikiak egiñez, besoekin belar gaiña jotzen zuen eta irten orduko berriro ere azpian gordetzen zitzaion. *Xanxon* une artan oso gertuan ego kitu ta ikusi zuen muskerra belar azpian ezkututzen, eta:

–Emen, *Txiki*, emen. Nik lagunduko diat, aundia ta malizi asko duena dek ori-eta.

Eta eskuarearekin belar mordoxka arrotu zuenean, txakurrari iges egin naiean, an igo zitzaion muskertzarra ankatik gora ez dakit noraiño! Ikustekoak ziran orduko *Xanxon*'en salto eta moimentuak. Zer ziran aren oiua!

–Joxe Mañueeel! Joxe Mañueeel! Mutil, etorri adi azkar, etorri adi– Joxe Manuel baratzan ari zan tomateak arbatzen, eta:

–Zer dek, mutell, ainbat builla ta zalaparta ateratzeko?

–Ez al dek aittu azkar etortzeko?

–Ixildu adi beintzat bania-eta...

Tomate makilla eskuan zuala, korrika an joan zitzaien Joxe Manuel zer arraio ote zuen jakitera.

–Zergatik dabilkik orrenbeste ixtillu arraio? Naiago nitek geldi egongo baintz...

–Muskerra igo zaidala anketatik gora, muskerra...

–Muskerra? Emen ez dek muskerrik agiri. Salto eginda joana izango dek.

–Emen zio, emen! –gerri aldera eskua eramanez.

–Nun? Nik ez diat, ba, iñon ikusten... –gorputzaren jira guztian begiraturaz.

–Nola ikusiko dek ba, barruan zio-eta!

–Barruan daukakela? Leenago esan besterik ez uan.

–Gerrian batera eta bestera emen zebilkiat; nonbait zulo-rik ez dik aurkitzen, baiña onek gora joan nai dik, gora!

–Urruti gabeen zuloa izango zian ba or...

–Onek ere nonbait illunpetan ez dik ikusten-eta...

–Gora joan nai badu, atea zabalduko zizkioagu, motel. Gerrikoa askatzen asi adi.

Auzoko agure tripaundi batek emandako gerriko beltz luze bat erabiltzen zuen, eta dozena erdi bat jira-bira eman bear izaten zizkion dena lotzeko, eta, jakiña, askatzeko ere berdin eman bear. Noizpait askatu zuenean, orratik, galtzak lurrera ta muskerra zilborrean gora, petxualdeko bizarrak orraztuz, azkar asko igo zan leporaiño, ta andik lurrera salta zuenean, baita *Txikik* ortzak erantsi ere azkar bizia kentzeko.

Galtzak erori zitzaizkiola esan det, baiña erori bakarrik ez, zikindu ere bai. Ura zan kuixidadea!

Jela-aizerik etzebillelako edo konturatzen etzalako, galtzak lurrean zituala egon zan denbora pixka batean, eta alako batean, aurpegia zimurtuta zearka begiratuz, makurtu eta asi zan galtzak jasotzen, baiña bide erdian utzi bear izan zituan. Etzan komeni goragi jasotzea. Aren orduko etxerako ibillera ikustekoa izango zan.

*Xanxon*'ek lagunartea ta tarberna oso gogozkoak zituan, eta igande arratsalde batean, zituan erropa pixarretako poltsiko denak miatu ondoren, iru pezeta exkax besterik etzuen osatu. Aiek bai, muki-zapian korapillotuta, ondo gordeak zeuzkan ordea. Egia esateko, diru askoren bearrik etzuen izaten; denak ezagutzen zuten eta noiznai ta edozeiñek gonbidatzen zuen.

Guri ala irudituagatik, *Xanxon* ordea, gutxi-iritziz zegoan, eta ara bere burutapenak: –Kasuen diezzz! Gaur ardoa bera ere garesti zagok eta tabernara joateko diru asko bear dik. Onekin ezta eztarria bustitzeko ere!

Eta muki-zapiaren korapilloa askatu ta lotu zebillela, ara zer pentsatu zuen: –Duro bat bederen anairi eskatuko zioat. Leen ere eman izandu zidak, eta... gaur ere bai, akaso...

Anaia, geienez bezela, siestara joana zan, eta zer eranztzun izango zuen etzekiala, itxita zegoan gelako ateari belarria emanaz, ara zer-nolako eskaera egin zion:

–I, aizak, i, Joxe Mañuel: lo ez ba ago, duro bat ekarridak.

Bestea barruan esna zegoan, baiña jaramonik ez. *Xanxon*'ek berriz ere:

–Ez al dek aittu, lotan ez baago beintzat duro bat emateko!

–Lo niok, ba.

–Aaa! Lotan al ago? Ala baldin ba ago, ezer ez. Nik esna egongo intzala uste nian da...

Ezer ez, ala ere, esnatu zai gelditu etzanean; eta zituanakin an joan zan tabernara, ta ziur egon eztarria bakarrik bustita etzala etxeratuko.

Orrelakoak bata bestearen atzetik zituan gure *Xanxon*'ek.

Badakizute gure Euskalerrria txit menditsua dala. Baina ezagutzen al dezute ondo, adiskideok? Nik neronek ere bear nuken bezela ta nai nuken bezain ondo ez dakit beraren berri.

Eta, ezagutzen al dituzue gure baserriak eta bai al dakizute nolakoak diran? Ziur nago auek obeto ezagutuko dituzutela, ez da ala?

Edozein mendi tontorretatik begiratuta, ikus genitzake oiñ-azpiko baten gainean baleude bezela. Txuri-gorritz margotutako pitxi polit batzuek dirudite.

Menditxo oietako batean, egoaldeko magalean arkitzen zan baserri apain baten jaio eta bizi zan Xanti mutikoa. Sei urte zituan, eta baserri geienetako aurrak oi diran bezela, Xanti ere sendo ta musu gorria zan, alaia eta jostalaria, bide batez. Seme bakarra zan, etzuen seniderik jolaserako eta auzoan ere ez bere modukorik; baiña jolaserako etzuen iñoren bearrik.

Xanti, bere guraso ta aiton-amonakin zoriontsu bizi zan baserrian. Baserrira erritik urruti xamar zegoan, ordu erdi bat pasatxoko bidea bai; baiña bideak etzuen beldurtzen gure mutikoa. Erriko eskolara joaten zan, eta ango joan-etorriak aidean egiten zituan.

Bizitzako okerrak eraginda, Xanti'ren osaba bat Bilbo'n bizi zan. Oso gazterik joana zan aruntz lanera, eta ezkongai zegoen artean. Aitaren anaia zan, eta bera zuen osabarik maitena. Baserrira noiz etorriko irrikatzen egoten zan, berarekin jolas egiteko. Bere besoetakoa zuelarik, osabak ere oso begiko zuen illobatxoa, eta esku-utsik etzan etorriko iñoiz.

Xanti'ren seigarren urtebetetzea zala-ta, aurreko egun batean egin zuen azkeneko bixita, eta ez nolanaikoa ere. Oin-pelota bat ekarri zion, baloia alajaiña! Etzan asarre gure

mutikoa! Eskeiñi zionean, bi besoak ipur gaiñera eramanda, eskuetan artzera etzan ausartu. Arri ta zur egiñik gelditu zan.

–Artu, Xanti, zuretzako da-ta –esan zion osabak. Baiña mingaiña kanpoan zuala, burua, anakak eta gorputz dana dantzan zebilkian, baiña eskuak lotuta.

–Artu, artu –dio berriz ere osabak; eta... alako batean, eskuak askatuta, baloiari baiño osabaren aurpegiari geiago begiraturaz, bere esker ona agertu naiean, poliki-poliki eskuetan artzea erabaki zuen, eta barru-barrutik irten eziñik bezela, itz bakar au jaulki zuen:

–Eskerrikasko!

–Polita al da?

–Bai, osaba, oso polita da. –Eta orduan bai, bi eskuekin gogor baloia arturik eta oin-muturretan jarririk, aal zuen guztia luzaturik, musu maitekor bat eman zion osaba maiteari.

–Kanpora joan eta jolastu –esan zion osabak.

–Bai, oraintxe noa...

Sukaldetik irten eta or dijoa, pozaren pozez, bere baloia-ekin atarira. Bezperan euri asko egiña zan, eta putzu-zulo batzuek bazeuden atarian. Eta jolasean asi orduko, an joan zitzaion baloia putzu-zulo aietako batera. Anakak bustitzeko beldur aundirik gabe, laister joan zan beraren billa, eta bai artu ta iturrian mantsoagatik garbitu ere. “Osabak ikusiko banindu zer esango ote lidake?” zion berekiko, sukaldeko leiora begiraturaz, osabak ikusi ote zuen ala ez jakiteko. Baiña leioan etzan iñor agiri.

Osaba, bere guraso ta senideekin kontu-kontari zegoan sukaldean. Aspalditxoan etorri gabe zegoanez, oraingoan berri asko ekarri zuen nonbait. Xanti, bere baloia garbi-garbi egin zuenean, an joan zan berriro sukaldera.

–Azkar aspertu zera –dio amak.

–Ez orixe...

–Nolaz etorri zera, ba, orren azkar?

–Baloia putzu-zulora joan eta dana zikindu egin zait...

–O! Ori ere bai? Estreña ederra eman diozu! –amonaren jarduna.

–Nola garbitu duzu? –aitak.

–Iturrian garbitu dut.

–Ondo garbitu ere –esan zuen osabak–. Urak ez dio kalte-rik egiten. Nai dezun guztia busti dezakezu.

Osabaren azkenengo itzak etzuten gutxi poztu gure muti-koa, eta begiratu xamur bat egin ondoren:

–Orduan berriro joan ninteke jolasera, ez da ala?

–Bai, oraindik bazkaltzeko goiza da, eta joan zindezke; baiña bazkaltzera otsegitean, etorri azkar –amak.

–Bai, ama; zuzenean etorriko naiz.

Etzuen izan bi aldiz esan bearrik mutikoak, eta korrika an irten zan berriro bere baloiarekin.

Bazkaltzeko ordua iritsi zanean ere, etzuen bi aldiz otse-gin bearrik izan. Zintzo asko etorri zan. Leendik gorriak bazi-tuan ere, zer ziran aren orduko musuak! Eta amonak:

–Neka-neka eginda etorri zera...

–Ez, ez naiz asko nekatu.

–Izardi patsetan zaude –amak, kopeta eta lepora eskuak eramana–. Atoz aurpegia pixka bat preskatzera bazkaldu baiño leen. Eta gaurko naikoa duzu, ta baloia jaso egingo dugu.

–Nik jasoko dut nere gelan.

–Nai duzun tokian, baiña ondo jaso.

Ala, bazkaltzen asi ziran, eta bazkal-orduan, oso pozik eta arretaz egon zan osabak esaten zituanak entzuten. Bukatzean ere, antxe gelditu zan besteak bezela, ixil-ixillik egun artan.



Bazkalondoan itz-aspertu bat egin ondoren osabari joateko ordua iritsi zitzaion. Xanti'k bertan gelditzea naiago zuen, zalantzarik gabe; baiña ori eziñezkoa zan. Eta berak ere orrela ikusirik, naigabea ezkututzen egin zituan aalegiñak. Ori bai, irtetzerako bein baiño geiagotan galdetu zion:

–Osaba, noiz etorriko zera berriz?

–Noiz? Eztakit, bada, gabonak ere badatoz-eta. Bitartean etortzen ez banaiz, ziur egon orduan etorriko naizela.

–Gabonak oso urruti daude oraindik; leenago etorri bear duzu. Gaur ez dugu jolas egin elkarrekin, eta azkar etortzen bazera... ikusiko duzu.

–Bai, alaxe da; kontu-kontari joan zaigu denbora. Urren-goan gogoan izango dut zure esana, eta ea ordurako zenbat ikasten duzun.

–Etortzen zeranean, futbol-partidu bat jokatuko dizut baloi onekin –agindu zion bi eskuekin gora jasoaz.

–Egiña dago. Bitartean zaitu ondo, galdu gabe.

–Ez dut galduko, osaba.

Ortan bukatu ziran osaba-illobaren arteko berriketak, eta etxeko denak eta, bereziki, bere illobatxoa agurtu ondoren, Xanti osabak Bilbo'rako bidea artu zuen.

Igaro bear zuen bidea, etxe-atzeko leiotik luzaro ikusi zitekean, eta alik eta bixtatik galdu etzuen bitartean, antxe egon zan Xanti, osabaren noizbeinkako atzera begiratuei besoa jasota erantzunaz.

Bein ezkutatu zanean, tristurak menderatuta, an jetsi zan sukaldera. Iñoiz ez bezela jetsi ere. Sukaldean zeudenak antzeman zioten bere onean etzegoala, ta zuzenean amarengana urbildu zan, babes billa, malkoei ezin eutsirik. Etzegen zer gertatzen zitzaion galdetu bearrik, eta ama batek gutxiago.

–Ez negarrik egin, biotza –eztiki-eztiki artuaz, amak–. Osaba Xanti'k Bilbo'n dauzka etxea eta bizibidea, eta ezin ditzake utzi. Derriorra zan joatea.

–Baiña zergatik ez da gurekin bizitzen? –zion ala ere Xanti’k– Emen egunez lana egin dezake eta gauzez nere gelako beste oean lo egin.

–Oso ondo pentsatu duzu. Oiek denak baleuzkake emen, baiña berak erabaki zuen aruntz joatea eta guk ezin ezer egin. Ikusi duzu ez gaituala aaztutzen eta zenbat maite zaituan...

–Nik ere asko maite dut, eta oso kontentu nago ekarri didan erregaliarekin –esan zuen, naigabea arintzen zijoakion bezela.

Artean esateko asmorik ez bazuen ere, mutikoa alaitu zedin, onako au esan zion:

–Bai al dakizu zer esan didan osaba Xanti’k?

–Zer, zer esan dizu?

–Datorren udan Bilbo’ra eramango zaitula egun batzuk igarotzera. Joango al ziñake?

–Bai orixe, zuk uzten badidazu beintzat...

–Oraindik urruti dago datorren uda, eta itz egingo dugu; baiña aitak baimena ematen badu, nerekikoa egiña dago.

–Bai ona zerala, ama –esan zion lepo-lepotik elduta, musu aundi bat emanaz.

Bien bitartean, sukalde txokoan an ari zan amona artillezko galtzerdiak egiten. Eta une ark ala eskatzen zuelarik, betaurrekoak sudur-muturrean zituala, beraien gaiñetik begiratuaz, zerbait esan nai zuen, eta:

–Kontxo! Ori da suertea, ori. Ni ere pozik joango nintzake, alajaiña! Dauzkaten urteekin oraindik Bilbo’raiño iritsi gabe nago.

–Alkarrekin joan gindezke nai badezu, amona...

–Ez, enetxo. Ni zartu naiz orrela ibiltzeko. Etxean gustorago egoten naiz. Tentatu egin nai zindudan, eta orregatik esan dizut.

Naigabeak erabat aldendu zitzaizkion Xanti txikiari, eta bateko poza ta besteko garaiko ezin egona, sukaldean an zebillen batera ta bestera. Eta bat-batean:

–Aitona nun da?

–Ganbaran ari da artoa zuritzen –erantzun zion amak.

–A, bai? Banoa, ba, laguntzera.

Laster egin zituan beetik gorakoak; baiña ez aitonari laguntzeagatik bakarrik, bere ipui ta xelebrequeriak entzuteagatik baizik. Ortan, izan ere, gutxi bezelakoa baitzan, eta orrelako lanetan ari zanean, bata bestearen atzetik kontatzen zituan, Xanti eta gaiñontzekoen gozamenerako. Aiek algarak egiten zituztena!

Aseran esan bezela, Xanti erriko eskola edo ikastetxera joaten zan egunik galdu gabe. Eguraldi ona ala txarra izan, etzion ajolarik. Berez, berriz, ain argia ta eraman erreza zan, maixu ta gaiñontzeko lagunak ere maitea zuten gogotik.

Udazkena zan, eta arritzekoa etzanez, egoaizea indartsu zebillen, ain indartsu, Xanti arratsaldean ikastetxetik etorri zanean, ala zion:

–Aita, Goiko-Txabalean egazkiñak egoak bezela besoak zabaldua jartzen nintzan, eta aizeak altxatu egiten nindun. Ez dakizu ze ondo ibilli naizen!

–Ondo diozu? Obe genuke arratserako aize zakar ori gel-dituko balu. Ala, sikira, lo egingo genuke; bestela begirik itxi gabe egon bearko dugu gau guztian.

–Lo egin gabe aizearengatik? Nik egingo dut, lasai asko...

–Zuk bai, putzuen sartuta ere lo egingo zenuke-eta –zion amak, Xanti'rentzat ogi-tartekoa prestatzen ari zan bitartean–. Tori, jan. Baiña...nora zoaz dagon giroarekin baloia artuta?

–Goiko-Txabalera noa, ama.

–Zu etzaude burutik sano. Ez dezu ba esan leenxeago, ia aizeak eraman zindula? Deskuidatzen bazera, orbela bezela eramango zaitu –esan zion aitak.

–Aita, ni orbela bezela eraman, daukadan kargarekin?

–Etzoazela, Xanti, giro onekin, biar ere eguna zabalduko du-ta –amak berriro.

–Bai, ama, jolastu egin nai dut.

Eta ogi-artekoa eskuetan eta baloia galtzarpean zuala, an joan zan Goiko-Txabalera. Goiko-Txabala, baserriaren goiko aldeko zabaltokei bati deitzen zioten.

An zebillen gure Xanti baloiarekin jo ta ke. Gora botatzen zuen bakoitzean, artu eta aizeak aurrean eramaten zuen Txabalean zear, eta amiltokira joan zorian arrapatzen zuen askotan. Azkenean, ordea, uste baiño indar geiago eman ziolako-edo, aize-kolpe izugarri batek bete-betea arrapatu zualako, or eramaten dio Txabala igaro eta amiltokiraiño. Eta an, jakiña, etzuen aizearen bultzaizorik bear, eta saltoka-saltoka, beeko errekaraiño joan zitzaion baloia.

Estu ta larri, egin zituan aalegiñak beraren atzetik korrika, baiña alperrik. Aizeak irabazi zion apustua ta ordura arte berea izan zan jostaillua, une artatik aurrera, erreka-uren jostaillu biurtu zan. Xanti'k begi argiak zituan eta ikusi zuen, gutxi gorabehera, baloia nun sartu zan; eta erreka-ertzera iritsi zanean, azkar asko ikusi ere bai ur biurri aiek nola zebilkiten batera eta bestera. Etzan erreka izugarria, baiña une artan bazuen urik asko. Geiegi, mutiko arentzako. Eta begiak zabal-zabalik zituela galdu etzedin bixtatik, erreka-ertzetik jarraitzen zion, urak jolasean bezela zeramakian baloiari. Pixkanaka beera ta beera zijoazen, eta alako batean, arbazta erdi ustel batean trabatuta gelditzen ikusi zuen, baiña errekaen beste aldeko ertzean. “Ara non gelditu dan... Beste aldean banengo, eskuekin artzeko moduan, baiña nola igaro beste aldera? Leenbaitleen komeni zait igarotzea, berriro urak eraman dezake-eta”. Burutapen oiek

zebilzkiala, bat-batean: “Badakit zer egin. An goi-goian bada “zubitxo” bat eta andik igaro eta etorriko naiz. Banoa korrika leenbaitleen etorri nadin, eta zu, baloitxo, egon or geldi, e?”

Baiña delako “zubitxo” ori urruti egon ordea, eta itzuli zanerako, beldurra ere bazuen-eta, urak egin zion bere jokabide maltzurra. “Ikusten? Ez dago emen. Non ote da? Katxis la porra!”

Illuntzen asita zegon eta, denborarik galdu gabe, erreka-ertzak miatzen asi zan zuzenean. “Emen urak biziagoak dira, ta noraiño eraman ote dit?”

Xanti’k ezin zuen etsi, eta billa eta billa zebilela, ondotoxoz beerago aurkitu zuen: “Ara non dagon! Orain dagon tokitik kostako zaio eramaten, orratik!”

Bai, bi arriren artean geldituta zegon, eta ondo katiatuta, ustez. Baiña, lastima! Zegoan aldetik artzeko moduan ez. Uretan sartzen, berriz, etzan ausartzen, eta leorretik egiten zituan alegiñak, baiña alperrik. “Au da komeria! Orain ezin artu berriz! Beste aldera joan bear, eta ia illundu du. Andik joan ezkeru artu besterik ez dago. Baiña edozein joaten da orain berriro “zubitxo” artaraiño. Lekutan dago!” Denborarik galtzea etzitzaion komeni ta baloia galtzea ere ez; eta ala, beste aldera igarotzea erabaki ta zubiruntz irten zuen korrika bizian.

Etzan lo egon bidean. Laster egin zuen joan-etorria, ta mingaiña kanpoan zuala an zan berriz ere, erreka-ertzean. Une baten pentsatzen egon ondoren, lanari ekin zion. Ara nola: “Kontuz kontuz arri auen gaiñetik ankak busti gabe, arri zabal artaraiño joango naiz ta andik baloia artu eta kitto!”

Esan bezela, abiatu zan, eta orra zer gertatu zitzaion: Bigarren arriaren gaiñera anka bota zuenean, arria moittu eta egin zuen balantzan, luze-luze uretara erori. Eskerrak an ur txikia zegoan! Barruraxeago izan balitz, okerreña gerta zitzaiokean. Bereala zutitu bazan ere etzuen nolanaiko estuasuna igaro.

Baloia aaztu zitzaion une artan ederki, ta etzan leorrera nai orduko iritsi. “Ai, ama! Zer egin bear det nik orain?” –zion mutikoak berebaitan larrialdi gogor ura arintzen zijoakion bezela, ta gorputza goitik bera igurtziaz, ur aundienak boteaz. “Etxera joan bearko dut. Erabat illundu du, ta etxean ere zai egongo dira onezkero...”

Ala ere, ezin zuen etsi ta abiatu baiño leen, azken begiratu bat egin nairik, erreka-ertzera azaldu zanean, erreka arri faltsu aiek an zeuden, baiña baloia ez. Erori zanean, nonbait, urari moimentu aundiak egin arazi zizkion eta urak aize-zurrunbilloaren laguntzarekin eramana izango zuen Jainkoak zekien lekuraiño. “Akabo nere baloia, galdu da betiko... Noan etxera!” –negarrari eutsi eziñik zegoen motikoa.

Alaxe, penaren penaz, atzera begiraka, an abiatu zan Xanti gixaixoa. Ango berri ondo zekien; illargi pixka baten laguntza ere bazuen, baiña igaro zituanak igarota gero, bazeukan bide-rik asko.

Oiek guztiak orrela ta, etzekoen kezka ta egoera etzan nolanaikoa. Atarira irten, etxe-atzean begiratu, leiotik begiratu... etzan mutikoaren aztarrenik.

–Ordu auek eta etortzeko oraindik. Non ote dabil, txatxu ura? Etzuen oraintxe illundu! –aitak.

–Ez da gauza onik emen, ondo izan bazan onezkero etorriko zan –zion amak–. Billa asi bearko dugu, Patxi. Zu zoaz Goiko-Txabalera eta ni beeko arizti aldera joango naiz.

Bakoitzak esandako aldera jo zuten, eta geroxeago, berriro etzeko atarira etorri ere bai, baiña biak eskutsik.

–Nik ez dut arrastorik atera, Patxi.

–Ezta nik ere. Goiko-Txabaletik deika aritu natzaio, baiña ez dut erantzunik izan.

–Au da atarramentua! –zion emazteak, senarrari elduta.

–Etzaiteala orrela jarri, Ixabel, Xanti azalduko da-eta.

Aiton-amonak ere sarri irtetzen ziran atarira beren billoba noiz ikusiko. Eta denak ixil-ixillik, bata besteari begira, zer egin etzekitela zeudela:

–Ixooo! Oin-otsak dira. Sagastian bera norbait badator –dio aitak.

–A, bai. Nik ere zerbait entzun dut... –arnasa moztu zorian amak–. Xanti izango da. Xantiiii! Bai, bera da iñondik ere. Xantiiii! –otsegin zuen berriro.

–Zeeerrrr?

–Negarrez dator, gixaixoa! Goazen bidera azkar –esan zuen amak. Eta zuzenean irten ziran sagastiruntz, eta bereala topo egin ere bai berarekin.

–Bizi al zera, semetxo? –bi besoak zabalduta aitak.

–Zer gertatu zaizu? Nere biotzeko laztana! Busti-busti egiña zaude –amak–. Atoz nerekin, atoz. Ondo al zaude?

–Bai, ondo –Xanti etzan itz egiteko ere gauza, ta geroxea-go–: Askok nekatu naiz.

–Aitak eramango zaitu, ba, orduan.

–Bai, atoz, besoan artuta eramango zaitut-eta.

Etxera bitartean galdetu gabe berak esango zituala pentsatuz, etzioten geiago galderarik egin. Eta iritsi ziranean, aiton-amonak ere an zeuden zai atarian.

–Emen al zera? –amonak.

–Osorik al zatoz? –aitonak.

–Bai, ondo nago.

Sukaldeko beroan erropak aldatu ta gozo-gozo jarri zuten. Ordurako etxeko denak konturatu ziran baloia palta zuala, baiña ixillik zeuden ta iñork galdetu gabe bera asi zan:

–Baloia Goiko-Txabaletik erre kara eraman dit aizeak, eta artu eziñik nenbillela, errakara erori naiz.

–A, bai? Izan ere, baloirik gabe etorri zera. Pentsatzen genuen orrelako zerbaít gertatuko zitzaizula.

Gogoratu utsarekin negarra zetorkion begietara. Apalondoa, lasaitu zanean, kontatu zituan bere ibillera guztiak, eta, batez ere, erreka eroria nola izan zan esaten ari zala, guraso ta aiton-amonak begiratu bat egin zioten elkarri, esanaz bezela: Eskapa ederra egin duzu, gixaixo orrek. Baiña errietan egiteko une ona etzan eta etzioten ezertxo ere esan.

Xanti, gaiñontzekoak baiño goizago joaten zan oera egu-nero, eta egun artan ere, alaxe egin zuen. Bien bitartean, gertakizunari zegokion bezela, guraso zaar eta gazteak, iñoiz baiño berriketaldi luzeagoa egin zuten. Arritzekoa etzan, eta pozak sorrarazten zioten itz-jarioak etzuen azkenik, izan ere.

Berandu zan, baiña beti bezela oeratzeko, amak ate-zirrikitutik begiratu bat eman zion mutikoari. Nola ez, egun artan? Eta, zer dek eta, Xanti artean loak artzeko. Sartu zan barrura ama, eta:

–Oraindik esna al zaude?

–Ezin det lorik egin, ama.

–Neka-neka egiña zaude ta lo egitea komeni zaizu –esan zion amak, aurpegia laztanduz. Xanti’k, ordea, an zeukan barruan lo egiten uzten etzion arra, eta zion:

–Ama, zuek etzenduten nai ni joan naizen bezela jolasera joaterik, eta ez nuen joan bear...

–Ez, alaxe da, ez gendun nai joaterik.

–Eta osaba Xanti’k jakiten duanean, zer esan bear du?

–Zer esango du ba? Ezer ez. Izango da beste baloiren bat munduan, gizona.

–Neretzat alakorik ez, ama. Ez dakizu zer pena eman didan.

–Bai, sinisten dizut, baiña orain oiek denak aaztu ta lo egin bear duzu. Berandu da, eta ni ere logureak nago. Ondo lo egin eta biar arte, maitia!



–Berdin zuk ere.

Amak lasaitu bat eman zion eta ortan bukatu zuten beren izketalditxo. Musu bat eman eta irten zan gelatik bere gelara joateko. Ordurako senarra oean zegoan:

–Xanti lo al zegon?

–Bai zera; esna zegon oraindik...

–Esna oraindik?

–Loak ezin arturik dago. Konturatu da gaizki egin duala eta osabak jakiten duanean zer esango duan da bere kezka.

–Ez da arritzekoa, izan ere. Bai al dakizu zer pentsatzen nagoan?

–Zer?

–Biar egunsentian erre kara joatea eta “Zubitxotik” asi ta beeraka-beeraka errotako presaraiño joango naiz. Ara bitartean arkitzen ez badut, ziur presan egongo dala.

–Ori bai. Baiña... araiño joan bear al duzu?

–Bai, joango naiz, ba, eta ea bera jaikitzen diodan.

–Ori egiten baduzu, ez dizu gutxi ixtimatuko zure seme-txoak...

Esan bezelaxe, goizean goiz asko jaiki ta an joan zan errekan zear, eta baita baloia aurkitu ere. Ez zegon, solamente, gertuan. Ia presako ondoan, eta nekez ikus zitekeen zulo batean gaiñera. Makila luze batekin atera bear izan zuen.

Berarekin etxera itzuli zanean, Xanti jeikitze ko ordua zan, baiña artean sukaldera jetsi gabe zan, eta oiñetakoak janzteko erabiltzen zuen aulkian utzi zion aitak, bezperan betirako galdu zat jo zuen bere baloi aaztuezin ura.

Jaiki eta erdi-jantzian, eta erdi-lotan, begiak zabaldu eziñik sukaldera sartzearekin batera, azkar asko ikusi zuen non zegon, eta baita eskuetan zekarzkien erropa eta oiñetakoak

lurrera bota ere azkar, baloia artzeko. Erdi-lotan zetorren, baiña esnatu zan ederki.

–Aibala! Nere baloia data! Bai, bera da. Nork ekarri du? –ezin zuen sinestu.

–Aitak ekarri du –erantzun zion amak, pozez zoraturik zegon mutikoari.

–Aitak? Eta nun da aita?

–Ukuilluan ari da.

Muturrak austeko zorian an joan zan ikuillura gure Xanti.

–Aitaaaa, aitaaa! Ara emen baloia. Ze poza! –beia jeizten ari zan tokira joanda–. Non zegon, aita?

–Presako ondoan ia, erreka zulo ezkutu batean, eta aurkitzen kostatzen zait.

–Ze ona zeran, aita. Atzo egin nuena egin eta ez nuen olakorik merezi.

–Merezi ez bazenu ez nuen orrelako lanik artuko. Beste baterako gogoan artzearekin dena ordainduta dago, semetxo.

–Bai, aita, gogoan izango dut beti, eta ez dut geiago orrelako ezegitekorik egingo. –Eta lepotik elduta musuka jan egin bear zuala zirudian.

Une artan Xanti baiño zoriontsuagorik iñor bai ote? Naiko lan. Jantzi eta gosaldutuenan, an joan zan pozaren pozez, korri eta salto, ikastetxera.

Asko duena bakarrik ez baita beti zoriontsu izaten; duenarekin etsi eta ixtimatuz ere, orra nola izan ditekenez zoriontsu.

Ander eta Bakar'txok, alkar ezagutu zutenetik gutxi bezelako ezkongaialdia igaro zuten. Maitasunez gainezka, itxaropenez beterik, zoriontsu ta ametsik gozoenak egin ondoren ezkondu ziran.

Ezkondu aurretik, beste askoren antzera, etxebizitza ta gainontzekoak zirala-ta, zorpean aurkitzen ziran. Zorrak ordaindu aal izateko bien lanaren etekiña bear-bearrezkoa zutelarik, alaxe egiteko asmoa zuten. Plangintzaren beste baldintzetako bat zera zan: Artu bear ziran neurriak artuaz, urte pare batean gutxienez, ondorengorik ez izatea. Alde batetik, gazteak izanik, ez zitzaien ajolarik; eta bestetik, ezkonberritan oso ondo konpontzen zirala ikusirik, beren usteak beteko ziran ziurtasun osoa zeukaten.

Alabaiña, arantza gabeko larrosarik izaten ez dan bezela, bete-beteko zorionik ere ez izan nonbait. Eta egoera artan urte pare bat pasatxo igaro ondoren, gauzak zearo okertu ziran, eta ara nolatan.

Larunbat batean, beti bezela, afaltzen ari zirala, Bakar-txo'k pozaren pozez eta bere ustez Ander'i atsegin izango zitzaion berria eman zion, aurdun zegoela, alegia. Baiña pozik esan bazion ere, Ander'en erantzuna besterik izan zan:

–Zer diozu? Ez ziñan bada... zoratu edo orrelako zerbait egingo?

–Ez, Ander. Bene-benetan ari natzaizu. Berria da, baiña... ezeren okerrik ez bada, emendik zortzi illabetera, zu aita eta ni ama egingo gaitun norbait jaioko da.

–Ori eziñezkoa da, ta ez dut sinisten; eta orrela bada, ama zu izango zaitu, baiña aita ni nauenik ezin esango du. Ez orixe! Nik badakit ondo asko nere berri, ta ortan ez dut zeri-kusirik, zuk jakingo duzu zer egin duzun.

–Zuk ez dakizunik nik ere ez dakit, eta au gu bion arteko zerbait ez danik nola zalantzan jarri dezakezu? Poz aundi bat ematen ari natzaizulakoan, erabat naigabetuta eta asarre utzi zaitut. Badakit gure uste ta asmoak pikutara joan dirala, baiña dabillena deskuidatzen da, eta zer egingo dugu bada? Ez zaite asarretu orregatik, arren, Ander!

–Asarretu bakarrik ez. Dana utzi ta banoa etxetik, bestela ezegitekoren bat egingo dut-eta. Txorotzat artu nai banauzu, toki onean zabilta nerekin!

Esan eta baita egin ere. Afaria erdi-janean bere artan utzi, oiñetakoak aldatu, txamarra eskuan artu eta kanporuntz abiatu zan. Bakartxo sarrerako atean irtetea galerazi naiean aurrez-aurre jarri zitzaion, eta gelditu zedin bein eta berriro erregutuaz alegiñak egiñagatik, alperrik izan zan. Atea zabaltzeko garaian ukalondoarekin eman zion bultzai-  
zoak ia lurrera bota zuen Bakartxo, eta irten zanean Ander'ek atea itxi zedin eman zion danbatekoa ere ez zan nolanaikoa izan.

Bakartxo gaixoak ordura arte nola edo ala eutsi zion negarrari, baiña andik aurrera, solamente, urtutzeko ainbat egin zuala esan bear. Une artan bere begiz ikusitakoa nola sinistu, izan ere?

Gau osoa ia leiotik kaleruntz begira igaro zuen, non zer ikusiko. Bat-bateko asarrealdi bat besterik ez zala izango, ta berriro etxeratuko zan itxaropena zeukan berekin. Egunsentia iritsi zanean, ordea, etsipenak, logureak eta nekeak menderatu zuenean, oe-gaiñean etzan zan. Arritzekoa ez danez, logureak amorratzen egon arren, kinkarik txikienak salto eginarazten zion, begiak itxi orduko zabalduz eta belarriak erne zituala egon zan aldi batean. Goizeko bederatzia aldera, oean ere ezin egon-eta, jeiki egin zan. Zerbait egin nai eta egin bear, baiña ez zekian zer; eta azkenean, gurasoak beti guraso izan eta... aietxeri otsegitea pentsatu zuen leenengo.

Telefonoko deiari bere amak erantzutea gertatu, eta negarrak utzi zion neurrian, gertatutakoaren berri eman zionean, amak:

–Zatoz gure etxera. Ezin zaitezke bakarrik gelditu.

–Bai, ama, zer gerta ere naiago dut emen bakarrik egon...

–Or, bakarrik? Ezta pentsatu ere. Guregana etorri nai ez baduzu, bereala joango natzaizu.

–Ez, ez etorri mesedez. Diskuidoan etorriko balitz eta emen aurkituko bazindu, agian, ez luke ondo artuko. Zaude etxean oraingo.

–Zuk nai duzun bezela. Bazkalondoan otsegingo dizut, eta beartzen bazera, badakizu non naukazun.

–Agur, ama. Eskerrikasko.

Amarekin itz egin ondoren, alako lasaitu bat artu zuen, igande osoa etengabeko oldozpenetan murgildurik joan bazitzaion ere.

Ander'en gurasoak ere gertu xamar bizi ziran, baiña alde batetik berarekin topo egiteko beldurra eta bestetik zer erantzun izango zuen ez zekielako, ez zan ausartzen otsegiten.

Gaua iritsi zanean, bakardadeak eta naigabeak orduan eta geiago azpiratzen zualarik, egoera larri ura gainditzeko pastilla bat edo beste artu bearrean aurkitu zan; eta auen laguntzarekin eta asteleenean lanera joateko bearbizunaren zama gogoan zuala, lo kuluska batzuk egin aal izan zituan.

Aseran, esan bezela, biak kanpoan lana egiten zuten eta lantoki berean, alabearrez. Lantokian eginkizun ezberdiñak zituztelarik, bata bestearengandik aparte aritzen ziran. Nolanai ere, ate beretik zuten sarrera, eta zetozen lekutik zetozela, topo egin eziñik ez zeukaten, eta Bakartxo'k ikusteko zaletasuna ta kezkek sortzen zion korapilloa askatu eziñik, ate ondoan itxoin zion lanean asteko ordua iritsi arte. Baiña Ander ez zan azaldu.

Eguerdian irtetzerakoan ere, beti bezela, badaezpada ere, zai egon zitzaion eta agiri ez zala ikusi zuenean, Ander'en taldeko lagun bati galde egin zion:

–Aizu, Garbiñe, Ander ikusi al duzu?

–Bai, ikusi dut, baiña... esango dizut zer gertatu zaidan. Gaur inoiz ez bezela, berandu etorri da, ta ez zirudian bere onean zegoenik. Ori dalata, enkargatuarekin eztabaida gogor bat izan ondoren, asarre betean aldegin du. Badakizu gure enkargatua nolakoa dan, baiña ala ere arriturik utzi gaitu, eta auxe da goiz guztian ao batez egiten genuen galdera: Zer gertatu zaio gaur Ander'i?

Bakartxo'k, Garbiñe'k ziona arretaz entzun ondoren:

–Ander bere onean ez zegoela esan duzu... Edana al zegoen?

–Nik esan bear banu, bai.

–Auxe da lana! Ederra egin dugu...

–Zer egin duzue bada?

–Gauza txarrik ez, baiña...

Orduan Bakartxok, ixillean eduki zezala erregutuz, Garbiñe'ri zeazki dana kontatu zion, eta onek, adiskide jator baten gisan, agindua beteko zuen itza emanaz gaiñera laguntza eta bere senarraz jakiten zuenaren berri zintzo emango ziola agindu zion.

Ori jakinda gero etxeratu zanean, zerbait geiago jakin nairik, Ander'en gurasoen etxera otsegitea bururatu zitzaion. An ere amagiarreba izan zan deia jaso zuena, eta Ander'etaz aldegin zionean, ara ez zala azaldu, ta gaiñera bere berririk ez zutela erantzun zion. Orduan, bere amari bezela amagiarrebari ere gertakizunak esan zizkion. Onentzat ere ustekabeko nagabe gogorra izan zan, eta gaiñontzekoak bezelaxe laguntza ta babesa eskeiñi ondoren, arremanak estutzea komeni litzakela adierazi zion. Bakartxo'k, orduan, bere eskerrona azalduaz,

leengoa berriro ere. Aal zuen denborarik gutxienean etxean egon naiago zuala, alegia. Nolanai ere, alkarren berri jakiteko batzuegana ta besteegana sarri egiten zituan ikustaldiak.

Bakartxo ordura arte alaia eta jostalaria izan bazan ere, oso une ta egun garratzak igarotzen ari zala bixtan zegoen. Aurpegian nabaritzen zitzaion ongi asko. Egunez an nonbait, gaua zan gogorra; baiña bakardadeko egoerari eta zetorkionari aurpegia eman bearrak lanean jarraitzea eskatzen zion. Eskerrak ez zuala lanerako kupirarik!

Bestalde, lantokiko Garbiñe ta beste zenbaitengandik jasotzen zituan albisteak leenaz gaiñera ez zioten mesede aundirik egiten. Batek, alako tokitan ikusi zuala; besteak, ez dakit non zegoela, itz egiteko eran ez zutela ikusten eta abar eta abar...

Kezkak bultzaturik, lantokiko zuzendariarekin itz egitera joan zan egun batean. Aren erantzuna, berriz, gogorra ta aldi berean bidezkoa izan zan. Asko ixtimatzen zutela, baiña bera izan zala aldegin zuena, ta denboraz itzultzen ez bazan, betiko atea itxiko zizkiotela.

Bakartxo'k egiten zuen baiño geiago ezin zezakean egin, eta, ala ere, gero ta illunagoa ikusten zuen etorkizuna. Denboraren bidez, ordea, etsitzen ari zan bezela, arrigarrizko oztasun baten jabe egin zan; bearra nagusi, eta... paseak pasa, aurrera zeraman bizimodua. Izan ere, ez bait zuen ain bakarrik ikusten bere burua. Eta, bai al dakizute nork eskeintzen zion laguntza? Gezurra badirudi ere, bere sabelean zeraman aurtxoak, ain zuzen.

Nola lagun zezaiokeen ainbat, ain txikia izanik? Zegoen tokian egiten zituan muimentu txiki aiexek naikoak ziran amaren bakardadea gainditzeko ta naigabeak arintzeko.

Sabelaldia aurrera zijoan bezela, ama ta aurraren arteko arremanak estutzen joan ziran, eta orra zertaraiño: Gau batean, oeratu zanean, egunero bezela negarrari ekin zion. Eta, ala

ari zala, sabelean iñoiz baiño muimentu aundiagoak somatzen zituan. Aal zuen neurrian negarrari eutsiaz, adi-adi zegoala, itz-meatz batzuk entzuten zituala iruditu zitzaion, eta arnas batean, orduan eta erneago jarriaz, auxe entzuten zuen bein eta berriro:

–Ama, zergatik negar egiten duzu?

Une batean itzik gabe gelditu zan, baiña erantzun bearra zeukan eta bai pozik erantzun ere:

–Ez, maitea; ez da negarra. Ori ez da ezer, oso pozik nago-eta...

–Bai, ama; egunero ordu ontan negarrez egoten zera eta orain ere negarrez zeunden.

–Ez, biotza, ez; naigabe txiki bat besterik ez zan.

–Nik ez dakit zergatik, baiña... badakit noiz pozez eta noiz negarrez egoten zeran. Zergatik ori, ama?

–Esango nizuke, baiña ez zenidake ulertuko, oso txikia zera oraindik-eta.

–Bai, ama, esaidazu mesedez

–Ea ulertzen didazun bada. Begira, orain dala denbora gutxi arte, zure aitarekin bizi nintzan, baiña orain, zu izan ezean, bakarrik aurkitzen naiz, Ori da nere naigabearen arrazoia.

–Nun da, bada, aita? Zergatik utzi zaitu bakarrik?

–Neronek ere ez dakit nora joan dan, baiña ara zergatik. Guk ez genuen nai oraindik zu sortzerik, eta zure berri eman nionean ez zintuan ontzat artu, eta orregatik aldegin zuen etxetik.

–Orregatik asarretu al zan? Ori besterik ez badu, pasako zaio...

–Pasako zaiola? Ez dakit noiz pasako zaion...

–Oraintxe bertan, ikusiko banindu. Nolanai ere, aunditzen ari naiz, eta aurki munduratzean nere aurpegia ikusten duane-



an, ikusiko duzu zenbait maiteko nauen. Eta ontara ezker, beste gauza bat ere esan bear dizut, ama. Bai al dakizu mutilla naizela?

–A, bai? Orixe zan, ain zuzen, berak nai zuena, eta antzekoa izango zerala ziur nago. Naiago nuke emen balego, berrari esateko.

–Noiz esango diozu? Itz egiten duzunean esango al diozu?

–Bai orixe, eta azkar gaiñera. Amorratzen nago ori egiteko. Orain berandu da ta lo egin obe dugu. Zuk ez al daukazu logurerik?

–Bai, ia loak artuan nago, ta gaurko aski dugu. Ondo lo egin eta biar arte.

–Berdin zuk ere. Agur eta biar arte.

Gau artan lo ederra egin zuen Bakartxo'k; baiña urrengo egunean ere gauzak berdin jarraitzen zuten, Ander'en arrastorik ez bait zan. Gauean berriro oeratu zanean bezperako une gozoa zeukan gogoan bakarrik, baiña zai-zai egon ondoren, gau artan ez zan txikiaren kinkarik izan, eta ixiltasun arek trixtura, trixturak naigabea, eta azkenean zer? Negarra. Negarrez asi zanean, laister zan kontu-kontari mutiko txikia. Garbi zegoen ez zuala negarrez ikusi nai ama, eta bezperan bezela, itz-aspertu bat egin ondoren ixildu ziran.

Geroztik gauero egiten zuten izketalditxoa, eta Bakartxo aur maitagarri ura noiz jaioko zai zegoen. Andik egun batzuetara, larunbat batean ain zuzen, afaltzen ari zala, sabelean alako min bat sentitzen zuen. Leenengoa zualarik, ez zekien ziur zer izan zitekean; baiña bereala pentsatu zuen aur-miñak izango zirala, eta zuzenean bere gurasoei otsegin zien. Etorri ziranean amak azkar antzeman zion zer zan:

–Aurra da emen atejoka, eta presa duala dirudi. Bear diran gauzak artu ta joan gaitezen aal dan azkarrena.

–Dena prest daukat, ama. Gelako maleta ortan daude gauza guztiak. Artu eta joan besterik ez daukagu.

–Ori da arrazoia! Oso ondo egin duzu aurrez jartzea. Bidean oztu ez zaitezten, jantzi ezazu beroki au eta goazen.

Aitak maleta artu zuen, eta etxe-aurrean zeukan kotxean sartu eta gaxoetxera. Ordubete bat baiño leen sendeagillearen eskuetan jartzeko ere astirik ez zuala, eta iñolako oztoporik gabe, mutiko eder bat jaio zan.

Une artan Bakartxok zorion osoa iristeko gauza bat baka-  
rrik falta zuen: Aurraren aita, Ander, ondoan izatea. Ala ta  
gutziz ere, sentitzen zuen pozak ez zuen azkenik.

Jaioberriak iñolako eritasunik eta eragozpenik ez zuela-  
rik, ama indartu zanean, berriro etxean ziran egun gutxi  
barru.

Leendik pentsatua zeukan, eta Bakartxo'k ez zion izenik  
jarri mutikoari. Denak galdera bera egiten zioten, baiña bere  
ezkutuko naia bete nai zuen.

Etxean ikustaldi asko izaten zuen, eta aien artean, lantoki-  
ko Garbiñe'rena. Onek, berri pozgarri bezain kezkatia eman  
zion ordea: Aurreko egun batez Ander'ekin izketatu zala,  
baiña guziak bearreko egoera batean aurkitu zuala, erabat  
aldatua eta edanari emana ote zegoen iruditu zitzaiola.

Berri ura jakin eta ondorengo egunetan buruari jira-bira  
asko ematen ari zan. Eta naiz Bakartxo berak errurik izan ez,  
Ander etxean zan bitartean ain senar zintzo, zuzena eta mai-  
tatia izanik, ez zuen nai iñolako moduz oker bidetara jo eta  
ondatzerik. Eta ala ari zala, eta leenengo aldiz aurtxoak esan  
zizkion itzak gogoan arturik, orra zer bururatu zitzaion:  
Argazkilari bati otsegin, mutiko txikiari argazki polit batzuk  
atera eta Garbiñe'ren bidez argazkiak Ander'ri erakustea.  
Onek, izan ere, egunetik egunera aitaren antza aundiagoa bait  
zeukan, eta bilduarazteko ezer oberik izan zitekeanik ez  
zitzaion iruditzen.

Bururatu eta... egin. Garbiñe berriro etorri zanerako argazkiak egiñak zeuzkan, eta zer pentsatu zuen adierazi zionean, asmoa ezin ohea zala ta bear zana egiteko laguntza osoa eskeiñi zion. Argazkiak ikustean, margodunak ziralarik, beren egokitasun eta edertasunaz arriturik, onela dio Garbiñe'k:

–Utzi nere eskuetan arazo au. Argazki auek ikusten dituanean, eziñezkoa izango zaio ukatzea, itzak ez dute orrelako indarrrik-eta.

Berari zerizkion eguna eta ordua iritsi ziranean, bere ustez Ander aurkitu zezakeen lekura jo zuen, beste adiskide batekin, bakarrik nabarmenegi gerta ez zedin. Illunabarra joan, gaua etorri, batean begiratu eta bestean begiratu, iñon ez zan agiri, ordea. Orduak aurrera zijoazen, eta bi adiskideak etxera joan bearko zutela elkarri esanaz naikoa larritzen asiak ziran, eta etxeruntz abiatzearekin batera, ara nun ikusten duan Garbiñe'k:

–Antxe dator, Alazne. Txamarra urdindun uraxe da Ander! Ez begiratu, ez begiratu. Nik egingo diot kaso.

Garbiñe patxara aundikoa zan, baiña une artan urduri xamar jarri zan, naiz diximulatzen alegiñak egin. Inguratu zitzaion, eta aurea eman eta eskua luzatuz:

–Gabon, Ander.

–Baita zuri ere, Garbiñe. Zer zabilta zu emen ordu auetan?

–Aspaldiko adiskide onekin topo egin dut, eta ementxe geunden kontu-kontari. Alazne duzu bera.

–Urte askoan. Poztutzen naiz orrela izatearekin. –Eta bostekoa luzatuz– Presarik ez baduzute, zerbait artuko dugu albo-ko taberna ortan.

–Berandu da, baiña guk ez daukagu iñor zai eta... nai duzun bezela.

Ala, tabernan sartu eta eskatutako edarien zai zeudela, Ander'ek Garbiñe'ri, erdi farrez:

–Orain ere zirikatzeke gogoarekin al zaude? Ni ere zuek bezelaxe nago, bada, bakar-bakarrik.

–Ez orixe! Ez zaude bakarrik. Leen bat zeneukan, eta orain bi.

–Zer dalata orain bi?

–Noski, bi diralako: Bakartxo bat eta jaio dan semetxoa, orra bi. Mutiko bat izan bait du.

–Izan baldin badu, ondo dago. –Ixillune baten atzetik: –Apustu egingo nuke orixe esatera bidali zaitula neregana, baiña ni zoriontzera ez dedilla iñor etorri.

–Nik aurra ikusi dut, eta iñor badata, uraxe da zorionak emateko modukoa. Zoragarria benetan!

–Orrela bada, bere aita ere ala izango da, eta... badakizute zer egin bear duzuten: berari esan eta ez neregana etorri berriketa oiekin...

–Ain ziur al zaude ez zerala zu aur orren aita? Gauza bat esango dizut, Ander: Nere aizpari berdin gertatu zitzaion, baiña an ez zan orrelako egoerarik sortu. –Orrela ari zan bitartean, zorrotik argazkiak atera zituan, eta– Ikusi itzatzu argazki auek, mesedez.

–Denak alkar artuta zabilzate, baiña...

Ez zituan gogo onez artu eskuetan argazkiak. Ala ere, arretaz ikusi ta pixka batean ixillik egon ondoren:

–Ez dago gaizki, ez. Neronek ere jaioberria nintzaneko antza zerbait badu nonbait... –eta diru-zorrotik argazki bat atera zuen–. Ez al dute elkarren antzik?

–Bai orixe! –erantzun zioten biak batera–. Berdin-berdiñak zerate –Garbiñe’k.

–Bixkiak dirudite –zion Alazne’k–, margogabea izatea beste alderik ez dute.

–Egun batzuetarako utziko al zenizkidake?

–Betirako jaso ditzakezu. Zuretzat ekarri ditut.

–Milla esker bioi, eta gogoan izango dut mesede au.

–Ez orregatik. Eta orain bagoaz korrika etxera, bestela atepak itxiko dizkigute-eta.

–Ederki egingo duzute. Nik ez daukat orrelako beldurrik, eta emen geldituko naiz oraindik.

Agurtu ondoren, etxeruntz lasterka bizian abiatu ziran bi adiskideak. Itz egiteko asti aundirik ez zuten izan, baiña iritzi berdiñekoak ziran biak. Nai baiño ere obeki irten bait zitzaizkien gauzak.

Bien bitartean, Ander tabernako txoko batean kopatxo bat artuz antxe zegoen bere argazkiei begira aspertu eziñik, eta aspalditxoan zebilzkien pentsamentu aiek bereala asi ziran aldatzen. Ainbat aldatu ziran aldatu ere, Bakartxo'k arrazoi izango zuala pentsatzeraiño iritsi zan une batetik bestera.

Andik aurrera, izan zuen kasketaldia emazteak barkatuko zion ala ez pentsatzeak sortzen zion kezkarik aundiena. Gau artan, eta ondorengoetan ere, naiz zintzoago erretiratu, lo asko egin gabe ibilli zan.

Garbiñe, berriz, urrengo egunean lanetik irten zanean, Bakartxo'rengana joan zan bezperako ibillerak konta zezaizkion, eta bere biziko pozaldirik aundienetako bat eman zion. Luzaroan etsita egon bazan ere, berriro zoriotsu izateko itxaropen bidean jarri bait zuen.

Ander'i, ala berean, barruko arra egunetik egunera azitzen joan zitzaion, eta ez zion bizitzen uzten. Atzera edo aurrera egin bearra zeukan. Eta alako batean, kezkek eta zalantzak alde batera utzirik, etxera itzultzea erabaki zuen.

Ondo pentsatu ondoren, aldegin zuen eguna eta ordu bera aukeratu zituan, larunbata alegia. Ortarako, opari bezela Bakartxo'ri ain atsegin zitzaizkion eta iñon aurkitu zituan lorerik ederrenak zeramaizkion. Sarrerako atera iritsi zanean,

naiz eta giltza berekin zeraman, atea jo zuen; eta Bakartxo'k barrutik:

–Nor da?

–Ni, Ander naiz.

Bakartxo itzik gabe gelditu zan, atea poliki-poliki zabal-tzen zualarik.

–Sartu al naiteke?

–Aldegin zenduan ezkerro ate au beti zabalik egon da zure-tzako, Ander.

–Barka ezaidazu arren, Bakartxo. Nere kasketaldi bat izan da! Lore aukerri dizkizut –eta loreak eskeintzearekin batera, atea itxiaz, besarkada luze batean lotu ziran biak. Ala zeudela, Ander'en jakin-miña:

–Nun dago gure txikia?

–Atoz barrura, oraintxe bertan erakutsiko dizut-eta.

–Oso ederra dala esan zidaten, baiña ez nuen uste ain polita zanik. Zoratzeko moduko aurpegia du. Ze izen jarri diozute?

–Oraindik ez diot jarri izenik. Zu etorri zai nengoen jartzeko.

–Ez da egia izango...

–Bai, bai. Ez du izenik oraindik. Zeuk aukeratzea nai dut.

–Presa baldin badu... une ontan ez zait bada bat bakarrik ere gogoratzen; baiña urrengo kasketaldia arrapatzerako aukeratuko dudala ziur egon.



**Joanixio eta Patxi**





## Merkealdiak

---

Zer dira merkealdiak? Merkeago erosteko aukera ematea, laburki esanda. Zergatik? Urtero, giro eta modaren arabera, gure jazkera, gutxi asko aldatu egiten dugu. Ori dalata, garaia datorrenerako, dendei beren jantzi, oiñetako eta abarren aldaketa egiteko leengoak saltzea komeni zaie. Bestela ez luteke tokirik izango-ta.

Erne dabillenarentzat izaten dira ganga politak, baiña geienetan talla edo neurri bereziak eta egituraz traketsagoak, beraz, itsusiagoak izaten dira salgaiak. Badira propio ortarako merke-zurrian egindako gauzak saltzen dituzten tokiak, denda aundiak batipat.

Dendariak ez dute ala esaten, baiña zenbait erosleren iriziz, erreusa besterik ez dute eskeintzen. Badaezpadako erosketak dira aientzat. Beste askok, ordea, ez dugu galdu nai izaten orrelako aukerarik, eta muturrak puskatu bearrean ibiltzen gera dendaz-denda nun zer arkituko. Premi aundirik gabe erosi ere bai bein baiño geiagotan. Ez al zera zu iñoiz ibili diran eta ez diran eskarapate guztietan geldialdia egiñez, ao zabalka?

Merkealdirik sonatuenetako bat ilbeltza edo urtarrilekoa izaten da. Neguko jeneroa saltzeko garaia joan samartu da. Moda aldatu egiten da urtetik urtera, eta ez dute ezer utzi nai izaten urrengo negurako, aal bada beintzat. Eta arrazoi nagusienak azaldu ondoren, orain dala egun gutxi ikusitako zerbait kontatuko dizutet.

Jantzi-denda batean zerbait aurkitu naian genbiltzala, senar-emazte bi sartu ziran. Oso ezberdiña zan bien jazkera: andrea ezkeneko modan jantzia, baiña gizona ez. Gizonak ezagun zuen gaurkotasunaren aldekoa etzala. Baiña txukun jantzia bera ere. Ark etzeukan iñorako lotsarik. Ori bai, txiki antzekoa eta argala zan benetan.

Emaztea bereala asi zan bat artu eta bestea utzi; baiña laister aurkitu zituan, bere ustez, senarrarentzat moduko jertsea eta prakak.

–Begira, azkeneko modakoak dira eta erdi prezioan daude. Proatu itzazu.

Etzioten oso begiratu ona egiten, baiña an sartu zan aldagelatxora. Geiago ere bazeuden zai, eta luze iritziz emazteak kanpotik:

–Ondo al dauzkazu?

–Ez, auek ez dira neretzat egiten diranak. Ez al dago txikiagorik?

–Ez, oiek dira neurririk txikienekoak. Irten zaitez bere ortan, nik ikus zaitzadan.

Irten zanean, etzeukan leengo antzik gure gizonak. Prakak gerrian eutsi eziñik arrastaka, eta jertsea sobrante alde guztietatik. Aurpegia, berriz, asarre itxurakoa. Emaztea ez, emaztea oso konten, eta ikusi zuenean:

–Aukeran lasaixko dauzkazu, baiña bestela primeran zaude! Baneukan orrela ikusteko gogoa..!

Belauniko jarri eta makurtuz neurria artzeko praka barrenak jasotzen asi zitzaionean:

–Jarri zuzen, eta jaso besoak!

–Besoak jasotzen baditut, prakak eroriko zaizkit. Ez al duzu ikusten gerrikorik gabe nagola?

–Segundo bateko lana izango da, gizona... Arnasa artu ezazu sakon-sakon sabela bete arte eta zaude geldi nik esan arte.

Prakak etzitzazkion erori, baiña bai koloreak ederki gorritu. Galtzak neurrian jarri, gerrikoa ekarri zion, eta jertseari eldu zion:

–Onek ez dauka ia ikutu bearrik. Orain orrela eramaten dira.

Besarte edo mangak ukulondoraiño jasotzen zizkion, baiña, besoak alakoak, eta jaso orduko erori eta beatz muturreraiño irixten zitzaizkion.

–Besoak al dira, ba, oiek? Baiña erremedio errexa dauka: bizkarreko edo *hombreira* batzuk jarriko dizkiot, eta or nun-bait geldituko da.

Suak artzeko zorian zegoen gizona, eta:

–Nai dezuna egizu, baiña banoa aldatzera, aspertu naiz oraintxe-eta. Ni orrela ibiltzea uste al duzu? Pentsatuko dut zer egin etxera joandakoan.

Ez dakit nola bukatuko zuten auzia, baiña dendara sartu zan jazkerarekin askoz itxura ohea zeukan gizon arek. Beste ark esan zuena: “Virgencita, Virgencita: déjame como esta-ba”. Kaso ontan: Andretxoa, andretxoa, utz ezaiozu zegoen bezalaxe.

*El Diario Vasco*, 1989.01.25

Joanixio eta Patxi lagun miñak izan arren, oso ezberdiñak dira. Eguketik gauera aiñako alde badago batetik bestera. Joanixio xano-xano, iñongo malizirik gabe, edozer gauza esan eta egiten duan oietakoa da. Patxi, berriz, maltzur-maltzur, besterenak entzun eta bereak ixillik edukiaz, adarra jotzeko beti prest. Ori bai, iñori aolkuak ematen primerakoa. Baiña ez dira bakarrik, denak esango bagenitu Joanixio'ren gertaeren antzekoak, ez al zaizkigu gertatu bein edo bein gure bizitzaren joanean? Nik ala uste.

Joanixio eta Patxi diran bezelakoak izanik, ez da arritzeakoa, beraz, bien artean eztabaida eta kontu xelebreak izatea. Alkarrekin dabiltzanean, Patxi'k nai bezela manejatzen du Joanixio eta ez dute arazo gogorrik izaten; Joanixio bere alde-tik dabillenean izaten dira komeriak!

Biak ezkonduak dira eta, nola ez, danok bezela noizbeinka Patxi'k ere izango ditu bere gorabeerak, baina Joanixio'k aspalditxoan badarabilki komeri ugari. Besteak beste, bat dala edo bestea dala, emaztearekin eztabaida eta konpondu eziña sarritan izaten du. Ez dakigu noiz arte iraungo duten alkarrekin.

Patxi'k bere burua bezin ondo ezagutzen du Joanixio, eta bereala antzematen dio arazoren bat duanean; esanarazi ere bai diximulo ederrean gorabeera guztiak. Baiña Joanixio berari ere mesede egiten dio orrek. Gertatzen zaizkionak lagunari esanez, lasaitu egiten zaio barruan daraman korapilloa. Ortarako astean edo amabosten bein elkartean egiten duten afalondoa izaten da batipat unerik egokiena. Zirikatzaile faltik ez da izaten alako tokietan, baiña Patxi'k zuzentzen du, batipat, elkar-ritzeta. Geiago baditu, baiña esateko, orain dala aste batzuk Joanixio eta Patxi'ren arteko berriketaldia dijoakizute:

–Zer moduz igaro duzu asteburua, Joanixio? Serio xamar ikusten zaitut. Ez dakit, ez dakit...

–Asteburua? Gaizki, Patxi. Beti bezela uskeri batengatik andrea asarretu zitzaidan eta, badakizu...

–Jakingo ez dut ba! Ez da batere atsegin izaten. Baiña zure emaztea danarekin, asarretu? Utsegite gogorren bat egiña izango zera...

–Ez, nik ez dut ezertan utsegin. Ni naizen bezelakoa naiz. Neri jendearekin kunplitzea gustatzen zait, eta orixe egin nuen. Ea zuri zer iruditzen zaizun. Larunbat arratsaldean andrea eta biok kalean egurasten edo paseatzen genbiltzala, nere gazte denboran ezagututako neska batekin egin genuen topo. Ez da atzo goizeko kontua, baiña alkar ezagutu orratik. Bera ere gizonarekin zebillen, eta gelditu ta esku eman ez aurkezpenak egiterakoan, nere aldetik alako intentziorik gabe, urreratu eta bi musu eman genizkion elkarri. Nere andreari etzion batere onik egin, ezpaina estutu ta egundoko eziñegona sortu zitzaion bat-batean. Egoera artan izketan jarraitzea zerbait, eta presaka genbiltzan itxura egiñez, bereala apartatu giñan bakoitzak bere bidea artuz. Geroztik itzik egin gabe eta muttur luze-luzearekin dabil. Ortarako bai al dago eskubiderik? Ze pekatu egin dut nik kastigu au jasotzeko?

–Pekaturik etzenuen egingo, agian –esan zion Patxi'k–, baiña zure emazteak badu arrazoirik aski asarre egoteko. Bere aurrean nola egin daiteke ori, izan ere? Orrelakoetan eskuan muin ematea naikoa izaten da. Zure tokian zure emazteak ori egin izan balu, ongi irudituko al zitzaizukean?

–Neri bai, ezaguna izan ezker. Nere andrea eta zu atzeratuta bizi zerate. Telebistan eta nunai ez al dituzu ikusten iñoiz elkar ikusi gabekoak, agurtzerakoan elkarri nola musu ematen dioten?

–Ikusiko ez ditut, ba? Baiña gu ez gera orrela oituak. Ori baiño errespeto eta edukazio geiagoren jabe gera oraindik.

Telebista artisten mundua da, eta zu eta ni, ez gera artista izateko jaiok, Joanixio. Nik ere neska asko ezagutzen nituen gaztetan, eta askotan topo egiten dut beraiekin kalean emaztearekin nabillela, baiña bere aurrean etzait sekula bururatu zuk egin zenuena egiterik.

–Jakiña! Oiek izaten dira onenak; emaztearen aurrean santu papera egin eta, bakarrik danean, kaixo, motell! Ikusten ez duten begiek negarrik ez! Ni, sikira, ez naiz gordean ibiltzen. Egin bear dudana bixtan egiten dut.

–Bai, to! Iñoren aurrean orrela dabillanak, jakin nai nuke zer egiten duan iñor bixtan ez danean. Dana dala, emaztearekin adiskidetzeari komeni zaizu. Ea nola sinistu arazten diozun, ondo esanean artuta, emakume ura gaztetako lagun bat besterik ez dala.

*El Diario Vasco*, 1989.04.22

## Emaztea zer moduz?

---

Azkeneko aldiz Joanixio'rekin itz egin zuenean, naiko kezkatu gelditu zuen Patxi. Izan ere, bere lagunik onena emaztearekin ala-ola dabillela jakitea ez baita txantxetako gauza. Ori asko ezuala, berriz, denbora dexente zeraman elkartera azaldu gabe.

Alako batean, eta batere uste etzuala, or jo du Patxi'k kalean bere lagun Joanixio'rekin. Patxi, batez ere, irrikatzen zegoen eta artu zuen lasaitu ederra! Deseatzen zegoen, baitere, emaztearekiko arremanak nolakoak ziran jakiteko. Etzekien adiskidetu ziran ala ez, eta luze eta zabal itz egin zezaten, elkar agurtu ondoren, gertueneko taberna batean zerbait artzera gonbidatu zuen Patxi'k. Exeri orduko, jakin-miñak eraginda, laster asi zitzaion galdezka:

–Ze berri, Joanixio? Ainbat denboran elkar ikusi gabe, oraintxe gaizki pentsatzen asita nengon. Emaztea zer moduz? Batere eztaikit, baiña zure aurpegia ikusita, apustu egingo nuke emaztearekin pakeak egin dituzula. Ez al da ala, Joanixio?

–Zu beti bezela... Patxi ez baiña “Sabelotodo” jarri bear zizuten izena zuri ondo izateko. Jakin nai baduzu, ederki kostata, baiña pakezkoak egin ditugu, bai, oraingo. Urrengoan ikusiko dugu.

–Gero gerokoak, Joanixio. Oraingo asarrea aaztutzea zuen bearrezkoa, eta adiskidetu bazerate, izugarrizko poza da nerezat. Baiña zer gertatu ere, jakitea ona da, eta “ederki kostata” diozunean, edo pakea lortzeko zer egin duzun jakitea gustatuko litzaidake, orratik!

–Iru egunean itzik egin gabe egotea gutxi iruditzen al zaizu?

–Ez, etziran motzak izango. Baiña, gazte denborako lagun ura zein zuen esango zenion, ba?



–Bai, esan bear izan nion azkenean. Goxoa jarri zitzaidan leenez gaiñera!

–Ori ere bai? Ez dakit ezer baiña, zer eta nola esaten dan badago aldean, eta zu ortan...

–Ze ortan eta artan! Nik gauzak garbi esaten ditut: Oso dantzari ona zala eta azkenean naiz beste batekin joan, dantza lotuan gustora ibiltzen nintzala berarekin, gaztetan bezain lirain eta oraindik gordin jarraitzen zuala, ille zuririk eta aurpegian zimurrik etzitzaiola ikusten, modako jazkera zeramala, zarragoa izanagatik, nere andrea baiño gazteagoa zirudilla eta abar esatea orrenbeste pekatu ote da?

–Aitaren eta semearen...! Gogorra zera, Joanixio! Emakume bati, eta batez ere zeure emazteari orrelakoak esatea, izan diteken gauzarik mingarriena dala ez al dakizu oraindik? Baiña entzunak entzunda, suak artu bear, nai ta naiez. Jakin nai nuke zer erantzun zizun...

–Ba..., zera esan zidan. “Zure laguntxo orren bizimodua eramango banu, eta nere buruari ark bezala kaso egingo banio, ni ere beste itxura batekoa egongo nintzake!”

–Ikusten? Zure itz egiteko tankerak min eman zion, eta ixillik etzala geldituko bixtan zegoen; baiña egia esatea nai baduzu, nik uste baiño gogorrago artu zindun. Urrengoa kontuz itz egitea obe duzu. Baiña oraindik ez dituzu denak esan, Joanixio. Nola bukatu zenuten azkenean?

–Ori ere jakin nai al duzu? Esango dizut ba. Burua jira-biraka ia gau osoa esna pasa nuen, eta goizean lanerakoan lore sorta bat erostea pentsatu nuen. Iñork ez ikusteagatik, plastikozko poltsa batekin estali eta kotxearen atzekaldean sartu. Eguerdian kotxean bazkaltzera etxeruntz abiatu nintzanean, bero zan gogotik, eta au nion neure buruari: Nola ote daude nere loreak? Nere gorde bearrarekin, poltsa bere artan gal-tzarpean artuta, oso nerbioso eldu nintzan etxera. Sukaldean andrearen aurrean poltsatik ateratzerakoan pare bat gutxienez

puskatu ere egin zitzaizkidan. Osorik iritsi ziranak, berriz, zimeldu arraio egiñak zeuden. “Goizean oso politak zeuden lore auek, baiña kotxean egon dira eta beroak ondatu ditu. Zuretzat ekarri ditut, emaztea” esanez eskura eman nizkionean. “Ez daude ain gaizki. Uretan sartzen baditut, suspertuko dira oraindik”, erantzun zidan. Eta aspaldiko partez, irripar bat sortu zan bere aurpegian. Andik aurrerako kontuak...

–Ez, Joanixio, ez. Pentsatzen dut une artatik aurrera gauzak zearo aldatuko zirala, eta poztutzen naiz benetan. Baiña, ez, ez, oiek gauza parkitularrak dira oso. Nolanai ere, oraingoan buruz jokatu duzu, Joanixio. Eta ez duzu suerte makala gaiñera!

–Suerte nik? Suerte ez baiña abildadea dago emen, Patxi, abildadea!

–Bai, Joanixio, zure emaztearen tokian beste bat izan balitz, muturrera tirako zizkizun loreak. Dan bezelakoa dalako barkatu dizu egindako okerra.

–Bueno, bueno... Naikoa dugu! Zu fraillea izan bazina...

–Ori bakarrik ez. Konsejutxo bat ematea nai al duzu? Oraingoa ondo irten zaizulako, emendik aurrera asarretzen zeraten bakoitzean lore batzukin engaiñatuko duzulakoan bazaude, ederki deskuidatuta zabilta. Bein bai, egian, baiña...

*El Diario Vasco, 1989.05.30*

Ez dakigu nola arraio konpontzen dan, baiña Joanixio'k geienetan badu zerbait. Arazo bat zuzendu edo bideratu orduko, bestea gaiñean. Patxi'rekin juntatzean izaten du, beintzat, zer kontatua; eta, nola ez, Patxi'k uraxe nai, ain zuzen. Leku bezela, aurreko batean elkarrekin egindako itz-aspertua duzute gaurkoa. Eztu ezer galtzekorik.

Beste kontu batzuen artean, uda ere bazetorrela-ta, eguraldiak laguntzen bazuen ondartzara joaten asteko garaia eldu zala eta abar ari zirala, Joanixio'k:

–Bai, etzazula uste nere andrea aaztuta dagoenik. Leengo astean aritu giñan baiñu-traje eta prakak proatzen. Ze uste duzu!

–Eta? Zure emazteak eztakit, baiña egingo nuke apustu zuk txikiegi daukazula leengo urtekoak. Eztago begiratu besterik. Zilborrak eztu barkatzen, Joanixio...

–Ze zilbor eta ze demontre gero? Ni igaz bezala nago, gutxi gorabeera. Txorakeri ugari, gure etxean ere! Gure señoarak ezta-ki nundik eta nola atera dituan kontuak, baiña, batez beste, bosna kilo omen dauzkagu galdu bearrak. Bada oraintxe gurean pixatu, apuntatu eta kontrolatu bearra! Jatea zer dan aaztutzen ezpazaigu, ala ere, ezer ez. Botikan erositako “Biomanan” edo sobreko autsa urarekin eguerdian eta sobrea afaltzeko! Bitartean, gosea aaztutzeko, ura edan. Zer derizkiotzu, Patxi?

–Ezait gaizki iruditzen. Urte garai ontan jende askok egin du errejimen, eta nik neuk ere egin izan dut. Ori bai, zu oituta zeunden bezela egoteko, naiko errejimen zorrotza iruditzen zait. Baiña aurrerapenari esker, dalako “Biomanan” orrek, naiz tripa asko bete ez, beste edozein janarik aiñako alimantua izan bear du, nik entzun dudanez. Beraz, eztut uste artaraiño goserik pasatu duzunik.

–Ez, e? Zu jarriko zinduket nere tokian. Zu bezelako seño-ritoak eta emakumeak edozer gauzarekin pasatzen dira, baiña ori ezta nik bezela lana gogor egin bear duan gizonarentzat egiten dan alimentu klasea. Martxa ontan laister naiz prakak gerrian eutsi eziñik! Komunean ere eztugu denbora askorik galduko oraingo itxuraz...

–Ori bear da ba, ori! Gerria mea, emendik aurrera. Artzen ari zeran planta ikusita, leenez gaiñera kontuz ibil zaitezke emakumeekin, Joanixio. Lankideak ere zure inbiriz egongo dira...

–Ni bai egoten naiz inbiritan aiei begira, amarrak aldean gosaltzen asten diranean!

–Badakizu zer egin bear duzun: ur trago bat edo beste egin eta aurrera. Gauza bat jakin nai nuke, Joanixio. Zenbat egun daramazkizu errejimena egiñez, eta ze pixu galdu duzu?

–Amar egun, eta bi kiloren kontua, alde-alde. Seguru jakin nai baduzu, zoaz gure etxera eta an edukiko ditu zintzo asko txartelean apuntatuta nik dakidan batek.

–Ez, gizona, ez. Fiatzen naiz zuk esandakoarekin. Badakit sekretari ona daukazula etxean. Gauzak orrela egin bear dira gaiñera, bein asi ezker. Eta zure emazteak? Zuk baiño gutxiago etzuen ba galduko?

–Arek? Nere erdirik ere ez. Nere aurrean nik bezela artzen du “Biomanan” edo traste ori, baiña jakin nai nuke zer egiten duan ni kanpoan naizenean...

–Ori pentsatzea ere! Bere burua engaiñatzen dabillega uste al duzu? Denak ez gera berdiñak, Joanixio. Batzuk denbora geia-go bear izaten dute besteak baiño. Zuk ortan ere suertea duzu...

–Suertea? Nik gauza bat esango dizut: beste kilo pare bat galtzen ditudanean, or konponduko da nai duan bezela.

–Ori da arrazoia: zuk zeurea egindakoan, besteak or konpon! Kapaz zera zu emaztea bakarrik utzita aoa betean jaten

asteko. Ez al zera konturatzen orduan doble sufrituko lukeala, gaixoak...

–Aizu, Patxi, ez gera bi urteko aurrak zer egin bear dugun esateko. Eta nik aginduta eztabil orrela, bere gogoz baizik. Beraz...

–Tira, tira, Joanixio, aski dugu. Biotza gogortu eta jenioa txartu egin zaizu. Obe duzu, bai, jaten astea, bestela zurekin eztu iñork karrerik aterako-eta.

*El Diario Vasco*, 1989.06.04

## Oporretako kontuak

---

Uda-garaian jaiak eta oporketak dirala medio, batzuk alde batera eta besteak bestera, geienok sakabanaturik ibiltzen gera. Baiña berriro etxeratu ta leengo martxan asitakoan, lagunak ikusi zai egoten gera egun berezi oietako gorabeerak elkarri kontatzeko. Patxi eta Joanixio'k ere, nola ez, badute zer esanik.

Patxi'k, ibiltaria danez, geienez bezela kanpoan pasa ditu bere opor egunak. Joanixio, berriz, etxe inguruan gustorago ibiltzen da, bere oe gozoan lo egiñez. Orrela bada, elkartu ziranean, besarkatu ondoren, Patxi'k:

–Ze berri, Joanixio? Ori da kolorea, ori! Nun ibili zera orrela beztutzeko?

–Nun? Emen eguzkia ez dala irteten uste al duzu? Ni bezela egunero ondartzara joan baziña... Nere andrea ezagutzen duzu... Ondartzatik irten gabe egongo litzake eta an ezpada ez dago onik.

–Eguzkia artzea ona da, Joanixio, eta aurtengo uda bezelakoak ez dira beti izaten. Beraz, oso ondo iruditzen zait aprobetxatzea. Zuri ere bentaja egingo zizun eguzkiak; eztago begiratu besterik. Pozik egon bear zenuke, baiña bein bear eta, etzaitut ala ikusten. Orain ere badugu zerbait.

–Baita izango ere. Emakumeak orain ondartzan ere ez dizute pakean uzten, gizona. Beti badute zerbait egin bearra. Zenbat pazientzi bear dan!

–Ondartzan pakean utzi ez? Lanean aritu al zera an ere?

–Lanean baiño okerrago. Eguzkiarentzat krema oietakoak dozena erdi bat ezpadira ere eztute eramaten: au aurpegian emateko, ori zangoetan, ura bizkarrean eta bestea eztakit nun..

–... eta, jakiña, bizkarrean emateko zure laguntza bear.

–Orixe! Eta ez bein bakarrik. Iru edo lau aldiz igoal, askotan.

–Ori normala da, Joanixio. Beroak ere alakoak ziran-eta, eguzkiak erre ez dezan, zaintzea komeni da gorputzeko azala. Ori besterik ezpada... Zuri ere norbaitek emango zizun, ba?

–Ez, nik eztut orrelako txorakerietan dirurik botatzen. Eguzkiak erre, berriz, sekula ez.

–Sinesten dizut. Zure bizarrez betetako larru azala, suak ere eztakit erreko ote luken. Estalki oberik artzak ere... Baiña, emakumeak, batez ere, badakizu azala fiñagoa izaten dutela. Ori badakizu zuk ondo asko, Joanixio. Zerako artan... Gustatzen ez, ba, zuri!

–Zuri ez. Zuri nazka ematen dizute orrelako gauzak. Nere aitzakiarekin, azkenerako, beti kontu berdiña. Nik egia esango dizut, gero eta geiago gustatzen zaizkit emakumeak, baiña begiratzea ere galerazi egiten didate.

–Begiratzea galerazi? Begiak zertarako dira, ba?

–Esango dizut zer egiten didan gure señorak. Ondartzan, gauden tokian gaudela, neska gazteren bat bularrak bixtan dituala aldamenean jartzea naikoa izaten du “emen toki gutxi dago, ondarra zikiña dago, emen geiegi berotzen du eguzkiak” esanez asteko. Eta jakiña, azkenean berearekin irten arteko onik ez.

–Tokia aurkitzen geroz eta okerrago ibilliko zeratela uste dut orduan... Begiratu, begiratu danok egiten dugu gutxi asko, baiña begiratzetik begiratzera badago aldea. Ezta berdin, adibidez, periodikoa edo zerbait irakurriz, diximuloan begiratzea, eta ez zuk bezela begiekin neska jan bearrean aoa zabalduta, nabarmen-nabarmen begiratzea. Ortan kontu pixka bat ez baduzu izaten, etzera ondo ibiliko, Joanixio. Esate baterako, zer pintatzen du zure emazteak ondoan, zuk begiak beste noranaira etengabe luzatzen badituzu?

–Bukatu al duzu sermoia? Apaiza baziña, giro izango litzake zurekin! Zuk zureekin egizu nai duzuna, Patxi, baiña nere begiekin nik agintzen dut. Orixen besterik ez genuke falta, begiei trabak jartzen astea, eta ikustea komeni ez tanean estaltzea!

–Ez, gizona, ez. Begiak ortarako dira, ikusteko. Sobra etorriko dira trabak eta eziñak. Nolanai ere, lagun bezela, kontsejuxo bat emango dizut gogoan artu nai baduzu: emakumei begiratu nai badiezu, aal dala, zure emaztearen edadekoei begiratu batipat. Ala askoz arazo gutxiago izango duzu.

*El Diario Vasco, 1989.09.10*



Denbora dezente zeramaten Patxi etra Joanixiok oizko eztabaida edo berriketaldi xeblere oietakorik egin gabe. Eta ori etzan normala ta gutxiagorik ere. Oso pentsakera ezberdiñekoak ziranez askotan sortzen bait ziran euren artean amor eman eziñezko alde edo diferentziak. Patxi osasun arazoak kezkatu eduki bitartean, Joanixio tentatzeko umorerik eza-rengatik ote? Litekena da.

Baiña Patxi sendatu eta elkartera joaten asia dalarik, aurreko batean lagunartean zegoela, an azaldu zan Joanixio ere, beetik goraiño markesa baiña dotoreago jantzita. Eta, azaldu bazan azaldu, azkar asko ekin zion Patxik nundik zer aterako:

–Orixe gizon dotorea etorri zerana gaur, Joanixio. Edozein jartzen da zure ondoan! Garbi ikusten da or zure emazteak jazteko gusto berezia duala.

–Emaztearen gustoa ez baiña emen *pertxa* bear da ona, *pertxa*! Zureak ere badu gustoa, baiña zurekin ezta asko luzituko, milagroren bat egiten ezpadu beintzat...

–Tira, tira, Joanixio. Etzaitetz geiegi arrotu. Badakit nere aldean egokia zerana, baiña ni ere ez nintzake gaizki egongo erropo oiekin. Jakin al diteke nun erosi dituzun?

–Ori galdetzea ere... Ez al dakizu merkealdi garaian gaudela? Dendaz denda nik ainbat ordu ta kilometro pasa izan bazenitu, aurkituko zenukeen zuk ere zerbait.

–Merkealditan oiek? Ni ere ibilli naiz, baiña ezer itxurazkorik ezta, ba, aurkitu...

–Zu merkealditan? Zuk eztaukazu orrela ibilli bearrik. Gogoak ematean joan eta nai duzuna erosi dezakezu, guk bezela prezioari begiratu gabe. Jakiña, ortarako dirua bear, zuk duzun bezela.

–Nik dirua? Artuko bai. Asko banu ez nizuke kontsejurik eskatuko. Alde ederra dago oizko prezioan erosi edo erdia ordaindu. Ondo txorua bear du.

–Uste bai erdia gastatzen dala, Patxi. Merkealdi edo puñeta oiek jendea engaiñatzeko bestetarako ez dira izaten. Normalean baiño iru alako ta geiago gastatzen da orrelakoan.

–Nolaz iru alako, Joanixio? Erdia edo, geienez, irutik bi ordainduta?

–Gauza baten billa joan eta iru edo lau erosten diralako. Eta badakizu zertarako? Armario zokoan sartuta edukitzeko, eta askotan probetxurik atera gabe arrika tiratzeko. Aurtengoa pasa da, baiña asko arrapatuko naute ni urrengo urtean. Eskaparaterik eskaparate ni ikusi berriz? Eztaaa...

–Igaz ere orixe bera zenion, baiña iristean, zerorri okerre-na. Ixil-ixillik egon bear zenuke. Eta erroa aukera izatea ez da gaizki etortzen; zu zeran presumituarekin gaiñera... Eskarapateak ikustea ere ezinbestekoa da, moda kontuan egunean eguneko berri jakin nai bada. Eta ortan emakumeak, badakizu... Nik alde ortatik eztet iñolako arazorik. Donostira joaten geran bakoitzean ezta izaten zein aldetara jo galdetu bearrik. Badakit nere emazteak zein kale eta zein dendatako eskarapateak ikusi nai izaten dituan. Ori egindakoa, berriz, edozein tokitara joateko konforme.

–Ori egindakoa, zera, pauso bat eman eta bestea noiz emango, lanean baiño geiago nekatu eta etxera joan bear Patxi’k, ixil-ixillik. Eta ori asko eztala, biaramonean norbaitek “atzo zer moduz?” galdetzean, “oso ondo, oso ondo” erantzun bear gaiñera. Larunbata edo igande arratsaldean orrela ibiltzea ondo pasatzea bada...

–Neretzat bai, Joanixio. Aldemenean daramadan emaztea, zer esanik ez, gustora ikusteak baiño poz geiago eztit ezerk ematen, jakin nai baduzu.

–Enbustekeria ugari egiten duzu zuk. Denen berri baleki... Zu bezelako “pelotak” egiten digute on guri!

–Zuk nai duzuna esango duzu, baiña zeuk ere obe zenuke nik bezela jokatuko bazenu. Beldur naiz, ordea, ez ote duzun ikasiko.

*El Diario Vasco*, 1990.02.15

Denbora asko, geiegi zeraman Joanixiok elkartera azaldu gabe. Ori zalata, naiko kezkatzen asiak zeuden lagunak. Patxi, bere lagunik aundiena, zer esanik ez. Leen ostiralik utsegin gabe etortzen bait zan afaltzera. “Zer gertatzen ote zaio gure Joanixiori? Etzan, ba, norbaitekin asarretuko...”, eta orrelakoak entzuten ziran, batez ere ostiraletako afaritakoan bere utsunea somatzean.

Ala ari zirala, or azaltzen da ustekabeen, afaltzen asi ziran orduko. Baiña ez oi bezain alai, kopetillun eta serio baizik. Ala ere, sekulako ongi-etorri gozoa egin zioten naiz eta –tarteetan suemailleak beti izaten dira– norbaitek esan:

–Emazteak ez al dizu uzten afaltzera etortzen ala?

Diximulatzten saiatu arren, ori entzuteak etzion batere onik egin Joanixio’ri. Patxi’k ere begiratu zorrotza bota zion era ortan mintzatu zanari, baiña, tira. Mai-ertzean exeri zan eta bai afaldu ere besteak bezelaxe. Ori bai, besteetan ainbat berriketa gabe. Azkenerako, ordea, zerbait animatuago zegoela ikus zitekeen. Patxi’k, bestalde, etzion ia begirik kendu etorri zanetik; baiña tirabidean etzeukanez, itzik egiteko modurik ez zuten izan. Afalondoan, solamente, etxera bidean egokiera etorri zitzaionean, bere kontura artu zuen eta maixutasun osoarekin poliki-poliki atera arazi zizkion ateratzekoak.

–Neu aurrena naizela, ikusi duzu zenbat poztu dan jendea gaur zu elkartean ikustearekin. Marmarka ari giñan zer gertatzen ote zitzaizun kezkataturik...

–Ez dago esan bearrik. Ortan atso zaarrak baiño okerragoak zerate-eta.

–Ez, Joanixio, ez. Zer izan duzun jakin nai genuen. Beste-rik ez. Lagunak zutaz orrela arduratzen dirala jakiñik, gaizki

artu ez baiña eskertsu eta pozik egon bear zenuke. Nai ezpa-  
dezu, ez esan, baiña...

–Jakín nai baduzu, galde akiozu gure señorari. Aren ondo-  
an jarríko zinduzketet ník zuetako asko...

–Amaikak artuko luke alako bat ondoan, alajaiña! Bromak  
alde batera utzita, zuen berri nork zuk baiño obeto? Ea, Joa-  
nixio, konta akidazu zergatik etzeran aspaldí ontan etorri, edo  
zer gertatzen zaizuten.

–Nola ez ník zuri esan, eta zuk gero mundu guztiari kon-  
tatu... Ori nai al duzu? Ez dute parra gutxi egingo!

–Ori esatea baiño geiago egiten duzu! Ez al nauzu ezagu-  
tzen? Leen ere bein baiño geiagotan gorde izan ditut ník zure  
sekretoak. Ez al zera gogoratzen?

–Kristok guarda, ba, iñori esan, e? Andrearekin ditut ara-  
zoak. Orain dala illabete pare bat elkartera joateko prestatzen  
asi nintzanean, zera esan zidan: “Zu elkartera joaten bazera, ní  
ere lagunekin irtengo naiz afaltzera, edo pentsatzen duguna  
egitera!”. Zer iruditzen zaizu, Patxi?

–Joñoooo! Ori esan bazizun, ez naiz arritzen kortatuta gel-  
ditzea, eta zure jarrerarekin. Ez orixe, baiña bestalde, kontu-  
ratu bear zenuke zure emazteak bezela kanpoan lana egiten  
duanak senarraren eskubide ber-berak dituala edozertarako.  
Baditu bere arrazoiak.

–Orixe besterik etzitzaidan falta, zu ere bere alde ateraz-  
tea! Nere lanarekin konparatzen al duzu berea? Ník amar  
ordu sartzen ditut egunero, eta berak, sei.

–Zuk kanpokoak bakarrik kontatzen dituzu, eta etxean  
zenbat sartzen ditu?

–Etxean eztakit zer egiten duan ní kanpoan naizenean.

–Zera egingo du! Ezer egingo ezpalu azalduko ziñake zu  
azaltzen zeran bezela. Orrela ez goaz iñora, Joanixio. Zu eta  
beste askoren matxista pentsakera oiek alde batera utzi bearra

daukagu. Aspaldi ari naiz esaten gure elkarteari ere emakumeentzat sarrera libre bear lukeala. Baiña aipatzen dudan bakoitzean otsoa bezela jartzen zaizkit geienak.

–Jarriko eztira ba? Nik ere oraintxetik esaten dizut: ni barruan naizen artean ezta emakumerik sartuko gure elkartean.

–Ondo dago. Jarrai, jarrai orrela. Nik, dakizun bezela, ez dut iñongo arazorik, baiña gauzak aldatuko balira, zu eta zu bezelako beste asko ez lirake ibilliko dabiltzan bezela. Gaur emazteak baimena emanda etorriko zianan, ba?

–Baimena? Nik ez dut iñoren baimenik bear ona etortzeko. Gogoak eman dit, eta etorri egin naiz, jakin nai baduzu ere.

–Emazteak beste orrenbeste egin badu, ez arritu, beraz. Nolanai ere, ezta ona izaten orrela, bakoitza bere aldetik astea. Egizu kontu zu joaten zeranean emaztea eztagoela etxean.

–Nik pentsatuko dut zer egin.

–Gogoan izan, Joanixio, txarrean eztala ezer lortzen.

*El Diario Vasco, 1990.09.05*

Luzaroan azaldu gabe egon ondoren Joanixio azkenengo aldiz elkartera urbildu zanean, naiko urduri eta egoera kaxkarean aurkitu zuen bere lagun Patxi'k. Afalondoan egin zizkion aitormenak kezkatzeko modukoak ziran, izan ere: “Zu elkartera joaten bazera, ni, nere lagunekin irtengo naiz” –esan baitzion emazteak Joanixio'ri. Ala ta guztiz, berea egin zuen Joanixio'k, au da: elkartera joan lagunekin afaltzera,

Emazteak zer egin ote zuen bien bitartean? Irten ote zan bere lagunekin? Irtetea erabaki zuela kontuan arturik, Joanixio etxeratzerako etorria, ala artean kanpoan ote zan? Zana zala, nola konpondu ote ziran elkarrekin? Auek eta beste milla galdera egiten zizkion Patxi'k bere buruari. Etzan, ez, txanxetako arazoa.

Kezkak eraginda, beraz, etzan arritzekoa urrena elkartu ziranean Patxi'k zerbait jakin nai izatea. Eta, ia agurtzeko denborarik gabe:

–Ze berri, Joanixio? Zer gertatu zan leengoan? Irten al zan zure emaztea?

–Irten bakarrik ez, ni baiño beranduago etxeratu zan gero...

–Ez naiz batere arritzen. Izan ere, elkartetik ez bait dugu inoiz erretiro txarrik egiten guk. Baiña zure emaztea bein irtengo eta, ain goiz etortzea espero al zenuen? Egingo nuke apustu kargu artu zeniola.

–Bai, noski! Irtetea asko eztala, oiek al dira orduak eta ibillerak emakume ezkondu batentzat?

–Oiek leengo kontuak dira, Joanixio. Bein baiño geiagotan esan izan dizut gure eskubide ber-berak dituztela emakumeek. Guregatik ere beste ainbeste esan dezakete. Banuen

beldurra ta gozo asko artu izango zenuen emaztea bein bear-  
da, zakar ipurdi orrek!

–Nik? Ez nion itzik ere esan, zera zu... Berari tokatzen  
zitaion itz egitea eta nundik nora ibili zan esatea.

–Eztakit ze aurpegi jarriko zenion, baiña itz egiteko bel-  
durra sartzeko modukoa, seguru asko. Eta gauzak itz egiñez  
konpontzen dira, Joanixio. Irtetea erabaki bazuen, asarre  
baiño geiago, gauzak beste era batera izan bear dutela kontu-  
ratu zaitezzen izan zan, nere ustez. Eta zuk ala pentsatu ez  
arren, etzan bere gustoz irtengo, eta lepoa jokatu nuke, joan  
zan tokira joan zala, gaizki pasa zuala. Ez al zaizu iruditzen?

–Ze iruditu eta ze arraio! Zuk zure gauzak konpondu  
aurrena, nik neureak egingo ditut-eta. Betiko erretolikarekin  
ez etorri neregana. Eta gauzak beste era batera bear dutela?  
Zer esan nai duzu orrekin?

–Lasai, Joanixio, lasai! Nik eztut sartu nai zure gauzetan.  
Badakit ortarako gauza zerala, nai baduzu. Zuen arteko kon-  
ponketa da nik nai dudana. Orain orregatik asarretu bear  
baduzu...

–Beste bat izan balitz, bai, onezkero bidali zindudan zaku-  
rraren ipurdira! Naizen bezelakoa naizelako libratzen zera.

–Orrela da. Ipurterre xamarra zeran arren, mutil txarra  
etzerala esan bearra dago. Gauzak aldatu bear dutela diodane-  
an, zera esan nai dut: Alegia, zuen arteko arremanak obetu  
ditezzen, eta ezkontzak bere-berea duan loturaren barruan  
ezinbestekoa dan askatasuna izan dezazuten biok, obligazio  
batzuk artea komeni zaizula zeure gain. Esate baterako, tar-  
teka emaztearekin bazkaltzera edo afaltzera joan, zinera era-  
man, etxeko lanak eta erosketak egiten lagundu, noizbeinka  
oparitxo bat egin, eta, zergatik ez, oean gustora dagoenean  
gosari txikia eraman eta abar? Eztakizu zenbat ixtimatzen  
duten! Ni aspaldi konturatu nintzan ortaz, eta, egia esan oso  
resultadu ona ematen dit. Eztaukat lotsarik esateko.



–Ez lotsarik eta ez nortasunik; zureak egin du, Patxi! Ori da gizonaren atarramentua! Ikustekoa egongo zera mantala jantzita! A zer nolako parrak egingo nituzken...

–Egizu, egizu parra lasai, aspaldian ez duzu egin-eta.

–Bai, parragurea ematen didazu, baiña negar egin bear nuke laguna egoera ortan ikusita. Esan dituzun gauzetatik, afaltzera joatea, bai, ondo iruditzen zait, baiña beste txorakeri oiek? Orixe besterik etzitzaidan falta!

–Orrela itz egiten zuten beste askok ere, baiña beren jokera aldatu zutenetik primeran dabilta. Besteak baiño geiago zeralakoan, arroputz itxura egiten duzu, Joanixio, baiña urren-goan esango didazu.

*El Diario Vasco*, 1990.10.23

Patxi, bere lagun Joanixio'ri aolkuak edo kontsejuak ematen saiatzen zan, askotan alperrikakoak zirala pentsatu arren. Baiña azkena eman zizkionetatik bat bederen aintzat artu zuala ikusita, pozik zegoen. Tarteka emaztearekin afaltzera joatea, alegia. Etzan gutxi Joanixio'k egiteko, eta pixkana-pixkana juizioan sartzen asia ote zan iruditzen zitzaion. Baiña, toki ederrean zebillen!

Ostiral geienetan egin oi zuten afarian, gaiñera, iñoiz baiño adiskidetasun ohea azaldu zuen Joanixio'k. Sekula baiño iztunago eta, arritzekoa bazan ere, iñolako eztabaidarik gabe igaro zuten txolartea. Etxerakoan, ordea, Patxi'k ori egin arteko onik etzuen izaten-eta, adarra jotzen asi zitzaion:

–Esan didate, bai, emaztearekin *manomano* afaltzen ikusi zaituztela. Eta ori bakarrik ez, solterotan bezela, laztan txikiak egiten ere bai. Gauza oiek zenbat pozten nauten bazeneki!

–Ze poztu eta ze arraio! Orixe bakarrik bear genuen, bijilatzen astea!

–Ez, Joanixio, ez dabil iñor zu bijilatzen; begiak ortarako dira, eta askotan, nai eztala ere, ikusi egiten dira gauzak. Lapurretan arrapatzea baiño ohea da bai ori! Gaiñontzekoak ere zer uste duzu, arrizkoak gerala ala?

–Lelo galantak zu eta zu bezelakoak! Kanpoan enbusteri eta itxura asko eta etxean jakin nai nuke...

–Jendearen aurrean orrela dabillanak etxean ere zerbait egingo du, Joanixio. Baiña, arrazoi pixka bat baduzu, bakoi-tzak aal duana egiten du, eskubide osoarekin, eta eztauka iñork zertan metiturik. Ixillik ez egoteagatik zerbait esan bear izaten dugu, eta askotan orrela aritzen gera berriketan. Ala ta guztiz, ez nuen uste ain gaizki artuko zenuenik. Jakin izan banu, ez nizun ezer esango.

–Ez asi orain losintxa eta zikiña dariozula mesedez, Patxi. Zu ixillik egon? Ipurdiko zulotik ere itz egingo zenuke-eta...

–Zergatik zera ain mingain zikiña? Nik asko itz egingo dut, baiña beti txukun eta garbi, ez zuk bezela. Beti erakusten, baiña onezkero ez duzu ikasiko. Orretxek ematen dit min.

–Orrek ez, nik arrazoi dudala jakiteak ematen dizu zuri min.

–Zaude ixillik, Joanixio, badakizu ondo asko nere gizalegea zurea ez bezelakoa dala-ta. Eztakit zer duzun gaur, baiña gaizto-gaizto egiña zaude. Zurekin karrera atera bear duanek... Ni banoa etxera, biar ere erosketak dirala ta eztirala, gure etxean zeregiña izango da-eta.

–Erosketak zuk? Etzaidazu parrerik egin arazi! Bear ezta-netik sobra eta bearrena falta, amaika aldiz izango da orduan zuk egiten duzun konpran. Jakin nai nuke.

–Orren leloa naizela uste al duzu ala? Jakin nai baduzu, gaiñera, emazteari laguntzera joaten naiz. Bion artean egiten ditugu erosketak. Edota, zuk ez al diozu laguntzen “super-merkatura” dijoanean?

–Bein bakarrik joan naiz nere denboran, eta “cruz y raya”, esan nuen. Erotzeko zorian irten nintzan barru artatik, eta geroztik ez naiz sartu geiago. Erosteke ainbat buelta, arraioa!

–Sartzerako ere asko falta ote zenuen zuk erotzeko? Or ibiltzen gera, ba, gu ixil askorik. Baita gizonak bakar-bakarrik ere ikusten ditut nik, txintxo asko, konpra ederrak egiten. Zu besterik ez bezelakoa, nonbait.

–Zuk nai duzuna izango naiz ni, baiña tontoa ez. Kontakatillu parregarri batzuk zerate zuek. Bai al dakizu zer egiten duan nik?

–Eztakit, eta jakiteko gogo aundirik ere ez, baiña...

–Ba, andrea “super-merkatura” eramán, eta berak konpra egin bitartean, giro txarra bada, kotxean periodikoa irakurri,

lasai asko. Bestela, berriz, txakolin bat edo beste artuz buelta-txo bat eman. Zer, gaizki iruditzen al zaizu ori ere?

–Gaizki baiño okerrago. Nik eztet ori egiteko barrurik. Emazte gaixoa karga-karga eginda eziñean dabillega ikusita ez errukitzeko, eztaukazu nolanaiko gibela, adiskidea! Jateko garaian etzera, ba, atzera geldituko zu! Gaur alperrik da zuri ezer esatea, eta beste batean jarraituko dugu.

*El Diario Vasco, 1991.12.17*

Joanixio eta Patxi elkartzen ziranean, eta ori sarritan egiten zuten, ia ostiralero esan diteke, gauza askotaz itz egiten zuten; baiña, nola ez, eguneko gaiak ere ikutzen zituzten.

Uda gaiñean dala jakiñik, eta nola bati ala besteari eguzkia artzea atsegin izanik, gaurko berriketaldia gai orri lotuta izatea ez da arritzekoa.

Elkartean afaldu ta gero, naikoa itz egin ezpalute bezela, etxera bidean Patxi'k bere zirikalditxo egin arteko onik ez, eta:

–Biaratik aurrera errejimena egiten asi bear dut, Joanixio. Lau/bost kilo dauzkat sobrean, eta ondartzara joaten asi baiño leen ea botatzen ditudan oietzek.

–Errejimena zuk? Gaur ere etzenuen aukera txarra egiteko, baiña ederki garbitu dituzu emandakoak. Etxean errejimen asko eta kanpoan...

–Biaratik aurrera, esan dizut, Joanixio. Astean bein neurritik pixka bat pasatuagatik ezta ezer gertatzen. Nik esandakoa bete egiten dut, eta ikusiko duzu nola jarriko naizen emendik amabost bat egunera. Zuk ere badaukazu zerbaiten premia. Eztakit zilbor orrekin nola etzeran lotsatzen iñoren aurrean azaltzen. Amar/amabost bat kilo gutxiagorekin, igoalekoxea egongo ziñake...

–Nik eztaukat iñongo lotsarik nagon bezela jendearen aurrera azaltzeko. Zilborra zilbor, zure zango ta beso iarrak ikusi edo nereak ikusi badago alde ederra. Zuk lotsatu bear zenuke, eta ez nik. Zutaz gustatuta beintzat eztago iñor arri-matuko zaizun beldur aundirik, ez.

–Bein bear eta asi zera orain ere txorakeriak esaten, Joanixio. Ni ez naiz joaten ondartzara zu bezela neure burua erakustera; etxekoarekin aski dut nik. Zu berriz, eztakit, eztakit... Gaizki pentsatzen asita nago oraintxe.

–Zureak dira txorakeriak, eta nai duzuna pentsa ezazu; baiña duanak eta dezakenak erakusten du. Zuk, naita ere, ezin. Aundiagoak ere esango nituzke, baiña ixiltzera noa. Eta... biartik aurrera egitera zoazen errejimen ori nolakoa dan esango al zenidake?

–Jarraitu, jarraitu nai baduzu, ez nauzu beldurtuko-eta. Baiña arrazoirik ez duzunean, betikoa: ixildu. Ni naizen bezelakoa naizelako, eta zuri esan edo auzoko astoari esan berdin dala jakin arren, ara nolakoa dan nere errejimena. Leendabizi, farmazira joan, ango baskulan pixatu, eta bertan ematen dizuten txartelean apuntatu bear duzu zure pixua. Gero, an saltzen dituzten “Biomanan” izeneko sobre batzuk erosi eta barruan dakarren autsa, ura edo esnearekin naastuta artu. Nai bada eguerdian bakarrik, eta nai izan ezkerro, gauean ere bai. Au da: dieta erdia edo osoa, bakoitzak nai duana. Eguerdian bakarrik artu nai bada, gauean normal afaldu diteke. Ori bai, argaltzeko denbora geiago bearke du. Gusto askotakoak daude: txokolate, marrubi, moka eta abar gustukoak, adibidez. Nik igaz egin nuen proba leenengo aldiz, eta amabost egunean gose arrastorik gabe, bost kilo galdu nituan. Zuk nere aldean asko daukazu galdu bearra, eta dieta osoa egin bearke zenuke, baiña egunean lau sobre artu ditzakezu iñolako beldurrik gabe. Zer iruditzen zaizu, Joanixio?

–Zer iruditzen zaidan? Nik ez ezik astoak ere parra egingo lukela zure kontu txoro oiekin. Ni engaiñatu naian ari bazera, toki ederrean zabilta. Beste mundura bidali nai al nauzu, ala? Artzazu zeuk, nai baduzu, dalako “Tiomanan” edo potinje ori, zikinkeri oiek ez dira lana egin bear duan gizonarentzako-eta. Zu bezelako señoritoak ibiltzen dira orrela, zea.

–Esaten nuen nik, zuri esatea alperrik zala. Egizu nai duzuna, obe bearrez esan eta gaizki artzen duzu-ta. Nere konsejuaren zai bazaude, bazaude pixka baterako.

*El Diario Vasco, 1992.06.17*

Oraindik egin gabeko bakarren batzuk izango dira, baiña geienentzat oporketa garaia joan zan. Bakoitzak bere erara eta aal izan duan ondoen atsedeen egunak igarota, ekin dio berriro eguneroko zeregiñari. Pasa ditugun une atsegiñak, izan ditugun esperientzi berriak, onak eta ez ain onak –danetik izaten baita– aaztutzeko garaia joango da. Gauza onak batipat noizpeinka gogoratzea ezta gaizki etortzen gero ere. Bizipoz apur bat ematen digula esango nuke orrek, eta orrela etzaizkigu ain luze iritziko datorren urteko jaiak.

Joanixio eta Patxi'k ere paseak dituzte aurtengoak. Eta ekin diote oizko bizimoduari. Bakoitza bere aldetik ibiliak diranez, eta lagunaren artean oizkoa dan bezela, alkar ikusi dutenean, nola ez ba?, bata besteari nun eta nola ibili diran galdezka asi dira. Patxi, gaiñera, ortan mutilla izan; bi aldiz pentsatu gabe galdezka asten dan oietakoa da, dakizunez.

–Kaixo, Joanixio. Zer moduz oporraldia? Etzaitzuet inon ikusi. Nun ibili zerate?

–Diranak eta eztiranak jakin bearke dituzu oraintxe! Primeran ibili naiz, sekula baiño obeto.

–Poztutzen naiz; baiña... “ibili naiz”, esan duzu. Etziñan ba bakarrik jaongo, Joanixio?

–Eta zer? Bakarrik ibiltzen ez dakidala uste al duzu? Laguna nai dudanean, berriz, nunai aurkitzen ditut nik lagunak. Besteri ainbeste galdera egin gabe, zergatik eztituzu kontatzen zureak?

–Bai, gizona, bai. Nik eztaukat sekreturik, eta egindakoa kontatzeko lotsarik ere ez. Lasai bezin txikia dan Naparruko erri txiki batean pasa dugu ia illabete osoa emazteak eta biok. Osasuntsu ibiltzeko eta maitasuna indartzeko eztago ori beze-

lakorik; baiña, emaztearekin joanda, ez etxean bakarrik utzita. Amabirjiña Pilarekua! Ori ere zuk egin bear!

–Nik esanda etzan gelditu etxean. Nai izan balu aukera ederra zuen joateko.

–Zergatik etzan ba joan?

–Nik esandako tokira joan nai etzualako.

–Orregatik? Normala da bakoitzak bere gustoak izatea, gizona; eta ori itz eginda konpontzen da, ez orrela. Zu bezelako kaskagogorren kontuak dira oiek. Alkarrekin joateko bien gustoko tokirik ezpalego bezela... Zuk egin duzuna egin bear luke orain zure emazteak: bakarrik joan, berak nai duan tokira.

–Eta zer uste duzu egin nai zuala?

–“Egin nai zuala”? Ez al diozu utzi, ala?

–Ederki eman ere! Ni lanean eta bera oporketan? Ezta pentsatu ere. Leen zan garaia. Urrengorako ikasiko du nik esandakoa egiten...

–Zuk esandakoa? “Mandamas” arraioa! Orixe mereziko zuen zure emazteak! Egun on batzuk pasatzeko ilusioarekin urtean zear lanean aritu eta, a ze nolako saria eman diozun! Leendik ere banekien matxista utsa ziñala, eta agintzea gustatzen zitzaizula, baiña ez nuen uste ain “moroa” ziñanik. “Txilaba” janzteak bakarrik falta zaizu. Emen orrelakorik izaten zanik ere...

–Bai mingain luzea zerala, Patxi. Nik eztut zure kontseju bearrik, eta, mesedez, ez sartu nere asuntuetan, nere etxea gobernatzeko neroni naikoa naiz-eta. Gizona gizon danak bere tokian jarri bear du, eta agintea jarri. Zu bezelakoak soiñean galtzak eramatea ezta basta. Gizonak ez, baiña “gixonak” zerate zuek. Itxura bai, baiña bear danik ez!

–Aizu, aiku: Aurreragi joan zera! Zurekin beti asarretu bearra dago azkenerako. Orixe bakarrik falta zitzaidan, zuk



nere gizatasuna dudan jartzea! Zu zeranarekin konforme bazaude, ni ere bai. Eta ikusiko dugu nor izaten dan irabaztun azkenean. Gaurkoz naiko astakeri entzun dut bai, eta banoa, Joanixio, zurekin eztago karrerarik-eta.

*El Diario Vasco*, 1992.09.16

## Ederra martxa!

---

Azkenaldi ontan Joanixio eta bere emaztearen arteko arremanak etziran ain onak. Bat ezpada bestea, geienean bazuten zerbait, eta Patxi'k, Joanixio'ren lagunak, sufritu egiten zuen ori jakinda. Iñork baiño obeto zekien beraien berri.

Elkartera ere etzan aspalditxoan azaldu, eta gaiñontzeko lagunek Patxi'ri berataz galdetu arren, onek etzuen argibide asko ematen. Ezjakiñarena egiten zuen.

Aurreko ostiral batean, ordea, Patxi'k, beti bezela elkartera afaltzera zijoala, or egiten du topo kalean bere lagun Joanixio'rekin. Elkarteko lagunetaz aaztu al zan, zer zebillen, nora zijoan eta abar galdetu zionean, Joanixio'k:

–Ni etxera noa afaltzera, jakin nai badezu, ez zu bezela.

–Astean beingo kontua da, gizona. Auxe beste biziorik ez tut, eta gaizki iruditzen al zaizu?

–Ez, ez. Zuk egiten duzuna dana ondo dago.

–Eztut eztabaidarik nai, Joanixio. Lagunartera noa eta umore onean joan nai dut. Beraz, utzi dezagun alde batera gai ori. Afaldu ta gero zer egin bear duzu?

–Gero, zera... Ez al dakizu pelota partidua ematen dutela telebixtan? Zu, gero, euskalduna, abertzalea eta eztakit zer izango zeran... Kontua ugari, kontua!

–Aizu, Joanixio, gauza batek ez tu bestearekin zer ikusirik. Ni bezin pelotazaleak gutxi izango dira, baiña ordu ortan jakin bear zenuke emakumeen gustoko gauzak ere izaten dirala telebixtan; eta guk aiña eskubide dutela ikusteko. Egingo nuke apustu, ordea, zuk zeurea egin eta besteengatik bost ajola izango zaizula!

–Bai, ordu ortan pelikula eta kontu txoraa ugari izaten da. Baiña, bestela ere sobran ikusten dute ortatik. Orrek egiten diote ba on!

–Bejondaizula, Joanixio. Zeu etxerako! Zure gustokoa eztan gutzia txorakeria da. Ain berekoirik izaten zanik ere... Eta pelota bakarrik balitz, utsa! Futbola ere jatea bezin gustokoa duzula badakit, eta, jakiña, nola utzi ikusi gabe? Etzera kejatuko, ezta? Futbola batean eta futbola bestean, nazkatu egingo gaituzte aurki.

–Nazkatu zu egingo zera. Baiña gure etxean nai duanak nai duana ikusten du. Ortarako dauzkagu bi telebixio.

–Ederra martxa! Bi lagun etxean, eta bi telebixio. Arremanak sendotzeko eta elkarriketa gozoak izateko primerako xixtima! Ez naiz arritzen gero...

–... gero, zer? Guk bear danean itz egiten dugu, eta orrela batek au eta besteak ori nai duala, eztugu eztabaidarik sortzen. Asko itz egiten dutenak ere ikusten ditut nik konpondu eziñik nola ibiltzen diran.

–Zurekin konpontzeko pazientzia bear da gero! Berandu iritsiko naiz bestela, eta banoa afaltzera!

*El Diario Vasco*, 1993.02.04

Adiskide onak izateko ez da bearrezkoa berdin pentsatzea; iñon diran adiskiderik onenak izan daitezke pentsakera berdiñekoak ez izan arren. Orixe gertatzen zitzaaien Patxi eta Joanixio'ri: adiskide miñak izan, baiña, zenbait gaitan beintzat, baten pentsakeratik bestearengana egunetik gauera aiñako aldea zegoen. Uskeri bat naikoa zuten askotan eztabaida sortu eta elkarri sekulakoak esateko. Berotu arren, ordea, etziran iñoiz aserretzen.

Tartean su-emailleak ere izaten dira, eta aurreko batean ara zergatik eraso zioten elkarri: Patxi, emazteari esku emanda kalean pasiatzen ikusi zuela esan zion norbaitek Joanixio'ri, eta, jakiña, nola galduko zuen, ba, Joanixio'k aukera ura? Bakarrik baiño naiago izaten zuen gaiñera iñoren aurrean tentatzea. Bere ustetan, Patxi izaten baitzan beti parregarri gelditzen zana. Ez nai orduko, baiña or egin dute topo elkartean, eta ikusi bezin pronto:

–Zer, Patxi, bigarren maitemindualdia, ala?

–Eztakit zergatik diozun ori, baiña ni, jakin nai baduzu, bein maitemindu nintzan, eta orduan, betirako. Ez naiz aizea bezela aldatzen diran oietakoa.

–Aldatu ez, baiña zerbait izango da, Patxi. Edade ortan, kalean andreari esku emanda zabiltzala ikusita, zer pentsatu bear du batek? Ikusiko bazintut, nik ere egingo nuke, eta badi-ra zure kontura naiko parra egindakoak...

–Zu eta zu bezelako astakirtenak pentsa lezakenagatik ajola gutxi neri ordea, eta orrek parregurea ematen badizute, eztaukazute zeri parra egin aundirik. Neretzat askoz parregarriagoa da, zu ikusi izan zaitudan bezela, emaztearekin kalera irten eta bata bestearen artean autobusa pasatzeko aiñako tar-tea dutela ibiltzea. Ori al da itxura senar-emazte batentzat? Abereak ere txukunago ibiltzen dira...

Argazkilari bat ere –zure antzekoa izan nonbait– arriturik gelditu zan argazkia ateratzeko emaztea eta biok alkarri esku emanda prestatu giñanean. Itxurak egiten ari giñala uste zuen eta, ala esan zigun iñozo arek: –“Zenbat denbora da orrela eskutik artuta ibilli etziñatela?”. Ondo pentsatzen jarrita, ez ginduen ezagutzen, eta arena barkagarria da, baiña zurea, Joanixio, eztet ulertzen...

–Ikusten, Patxi? Ezagutzen ez, baiña ark ere laister eman zion tankera nolakoa zeran. Kalean, jendearen aurrean itxura asko, eta etxean jakin nai nuke...

–Orixe jakin nai zenuke zuk, nik etxean zer egiten deten, baiña jakin-min orrekin geldituko zera. Bakar-bakarrik auxe esango dizut: kanpoan ni bezela portatzen danarengandik etxean ere zerbait espero litekeela; baiña zu bezelakoarekin, ez kalean eta ez etxean, ez dago pakerik. Eta ixiltzera noa, bestela aundiagoak esango dizkizut-eta.

*El Diario Vasco*, 1994.10.28

Ain ezberdiñak izanik, arritzekoa dan arren, Joanixio eta Patxi'k badute gustoko duten afizio bat: eizean egitea, alegia. Biak dira eiztariak, baiña, nola ez ba?, laister ikusiko dugun bezela, ez dira iritzi berekoak, eta ez datoz bat eizeari dagozkion gorabeeratan. Esan, baitere, Patxi eizean etxe inguruan ibiltzen zan artean, Joanixio, uso-garaian batipat, kanpora joaten zala eta egunak pasatzen zituela mendi edo puntu bereziren batean.

Uso-garaia bukatutzat eman ondoren, oi bezela, Joanixio'k ekarrita, uso-jana egiña dugu elkartean aurreko batean. Usoak ekartzen ez ezik, maniatzen ere artista da Joanixio, eta primerako afaria prestatu zigun. Tripa betetakoan, berriz, beti ere errezago izan, eta naiz zurikeriz betetakoak izan, ango txalo eta zorionak etzuten azkenik. Joanixio, berriz, orrelakotan puztu egiten da, alkandora txiki gelditzeroño, eta ez da giro izaten berarekin! Baiña ondo ezagutzen dute, eta dena barkatzen diote.

Patxi ere etzan asarre, etzegen aurpegira begiratu besterik; baiña lagunarteko afari ark etzuen grazirik Joanixio zirikatu ezean, eta bere oizko era berezian, asieran leun-leun, an eraso zion, esanez:

–Uso asko jana naiz nere denboran, Joanixio, baiña ain goxorik sekula ez. Ez nuen uste sukaldaritzan ain trebea ziñanik. Oso gustora jan ditut, egia esan. Baiña orain kontzientziko karga bezela sentitzen dut nere barruan. Ondo pentsatzen jarrita, izan ere, ze kulpa zeukaten jan ditugun uso oiek orrela iltzeko? Jaiotzea besterik ez. Eta zergatik ez utzi, orduan, neguari iges egin nairik ifarretik egoaldera joaten? Ori dala-ta, ni neu ere eiztaria naiz oso ondo dakizunez, eta aurten usotan ibilli arren, zera erabaki dut: eskupeta saldu eta

usoei eta gaiñontzekoei pake-pakean bizitzen uztea. Bestalde, orain berriro, mendian genbiltzala usotako txozna edo puesto batzuekin topo egin genduan, eta aien inguruko kartutxo-azal, edari-botilla eta era guztietako zikinkeriak ikusita, izugarriak esan zituzten eiztariengatik. Arrazoi osoa zuten, eta lotsa-lotsa eginda gelditu nintzan, ze erantzun ez nekiela. Zuk ondo dakizun bezela nabillen tokian txukun ibiltzea gusatzzen zait, baiña ni ere eiztaria naizenez, min eman zidan; eta ez dut geiago orrelakorik entzun nai. Ze iruditzen zaizu, Joanixio?

–Zer? Zurekin ez dago iñora joaterik, gizona. Ez dakit nortzuk diran zure lagun oiek, baiña ni an izan banintz, ez nintzan ixillik geldituko zu bezela, entzun bearke zituzten entzutekoak. Besteek kargu artzea da errezena, eta jakin nai nuke zer egiten duten beurek mendira joaten diranean...

–Aiek eta nik mendian ordu asko pasatzen dugu, eta otorduak egin ere bai, baiña iñork ezingo du esan zabor izpi bat ere utzi dugunik. Eta zuek ere orixe egin bearke zenukete gizalege edo edukazio apur bat bazenute...

–Mesedez, ez asi gaizki esaka, Patxi. Gu ez gera mendia garbitzera joaten, ortarako ordaintzen dugu. Gu eizera joaten gera. Bestela ere izaten dugu naiko lan usoak nundik nora datozen eta botatakoak biltzen. Zer uste duzu, zu bezela, eizera irten eta utsik, lumarik gabe etxeratzen gerala ala? Besteak beste, usoak, berrogeita amarretik gora ditut botreak aurtzen ere. Eta zuk?

–Ez dakit zenbatek sinistuko dizun, badakizu eiztariok ze fama dugun; baiña nik bai, nik sinisten dizut. Egia esateko ez daukat lotsarik batere, eta, nik, bi uso bota ditut. Jainkoak dakien eta zeru-estali pasatzen dan tokian berrogeita amar botatzea ez da ezer, emen, etxetik gertu botatzeak du meritua.

–Bi uso besterik ez? Parregurea ematen didazu; ixil-ixillik egon izan baziña, sikira... Eskupeta saltzera zoazela... gaur

bertan salduta obe biar baiño, zuk ekarritako eizearekin ez dugu betekada aundirik egiten lanik izango-eta. Kontzientzia lasai eduki nai baduzu, berriz, geiago ez jan eta kitto! Baiña, badaezpada ere, janda gero esan duzu ori.

–Bai, zure gonbitea ixtimatzeagatik etorri naiz, jakin nai baduzu ere. Baiña gaurtik aurrera bukatu dira neretzat eiz-egitea eta usoak jatea. Zuk egizu nai duzuna.

*El Diario Vasco*, 1994.12.01



Beste milla akats edo aitzaki leporatu lezaizkioke Joanixio'ri, baiña edozertarako ordua jartzen bazaio, an izango da oker aundirik gabe. Ortan zintzo amorratua da. Ain zintzoa eta zorrotza, norbait diskuidatzen bada, ez da giro izaten.

Aurreko ostiralean, ordea, elkartean afaria prest, eta beste guztiak zai afaltzen asteko, eta Joanixio'ren arrastorik ez. Zortzi t'erdiak da oiko ordua, eta bederatziak jo eta artean ere falta. Elkarteko oituretako bat, bestalde, itza emandako danak bildu arte afaltzen ez astea danez, arriturik geunden denok. "Nor eta Joanixio berandu? Zerbait gogorra gertatu izango zaio", eta abar genion batek besteari, minutuak aurre-ra joan aala. Jendea gero eta urduriago jartzen ari zala ikusirik, Patxi'k, bere lagun miñak, Joanixio'ren etxera deitu zuen, eta etxetik aspaldi irten zala esan zionean emazteak, gauza onik etzala izango pentsatuz, juzku txarreko marmarri ekin genion denok.

Alako batean orratik, bederatziak eta ogei aldera edo, or azaltzen da gure Joanixio suak eta garrak artuta, goikoak eta bekoak erre bearrean. Ona zegoen amar xentimoren karamelokin gozatzeko! Ala ere, pixkat lasaitu zanean, barkamena eskatu zuen beintzat, eta bestetarako denborarik gabe afaltzen asi giñan.

Patxi'k ordea, dan bezelakoa dalako, etzeukan zer gertatu zitzaion jakin arteko onik, eta ixillume bat eder asko aprobe-txatuz:

–Ez dakit dakizun, Joanixio, baiña kinka larrian eduki gaituzu. Ainbeste eskubide ere badugula uste dut, eta ordu kon-tuan zu zeranarekin, ain berandu etortzeko zer gertatu zaizun jakin nai dugu.

–Zer gertatu zaidan? Leen ere esan izan dut bein baiño geiagotan, eta emakumeek ez luteke bolanterik artu ere egin bear. Inguruan bat tokatzea naikoa da arrixku bizia sortzeko.

–Arritzekoa da orain ere zu emakumeen aurka astea. Gu ere or ibiltzen gera, ba, beraien tartean, baiña iñolako arazorik gabe. Erne ibili bear da, Joanixio, erne!

–Jakiña, zeu ere aien antzera ibiltzen zera, eta zuek iñolako arazorik ez. Baiña gu bezelakoak nozitu bear izaten du galanki. Ara zer egin didan onuntz nentorrela nere aurretik zetorren tuntunak. Konturatu naiz intermitenteak alde batera kiñu eta kotxea bestera zebilela; eta azkenean, semaforo parera iritsi danean, argi gorria piztearekin batera, sekulako frenazoa emanda, bapatean etzait ba gelditu...

–Zuk, berriz, beti bezela gain-gaiñean, eta “danba!” atzetik jo? Antxe banintz bezela ikusten zaitut. Gain-gaiñean ez ezik, bozina joka eta besoak jasoaz etorriko ziñan, eta egingo nuke apustu urduri jarri duzula. Badakit, baitere, gaiñetik, sekulakoa armatuko zeniola, baiña arrazoirik gabe. Emakumeak egin bear dana egin du, gida-arauak agintzen duana.

–Ze gida-arau eta ze puñeta gero! Frenatu aurretik atzera begiratu eta jarraitu egin bear zuen, ala etzan ezer gertatuko. Baiña ikusi ere egiten al dute ba emakume arraio oiek! Gaiñetik, zer data, bere kotxeak ezer gutxi, eta nerea ibiltzeko gauza ez dala gelditu... Ez dakit noraiño, baiña bereak entzunda joan da solamente.

–Ez dago esan bearrik, zure mingaiña nolakoa dan bada-kigu-eta. Arrazoi izan bazenu, utsa. Orrela gaizki esaka ari gabe, obe zenuke emakumeei errespeto pixkat bazenie. Baiña onezkero alperrik da zurekin. Kotxea kotxe, zu, ala ere, sano etorri zera, eta apetiturik ere ez duzu galdu beintzat, eta jarrai dezagun afaltzen, ea urrengorako eskarmentatzen zeran.

*El Diario Vasco, 1995.02.05*

Arrigarria bada ere, denbora dexente zeramaten Patxi'k eta Joanixio'k elkarren arteko eztabaida gogorrik gabe. Neri beintzat etzitzaidan tokatu aspalditxoan, ostiral geienetan elkartzen geran arren. Azkenengo ostiralean, solamente, mingaiña ederki dantzatuak dira nola bat ala bestea. Eta geienetan bezela, eta ori da gogorra, ez anka eta ez bururik ez duen itxuririk gabeko gai oietakoa artuta bein eta berriro.

Sinesteak lanak ditu, baiña Patxi'k eta Joanixio'k zaleztasun edo afizio berditsuak badituzte bat baiño geiago, eta oietako bat perretxikuak biltzea da. Oso gustokoa dute biek ere, eta urte garai ontan mendira jotzen dute aal duten guztian.

Aurten ordea, orain arte beintzat, apenas perretxiku bete-kada aundirik egiteko aukerarik izan duten. Legortea dala medio edo, ez da perretxiku urte ona, eta zaletuak ez daude oso kontentu. Patxi eta Joanixio zer esanik ez.

Patxi, beti ere, errezago konformatzen da; baiña Joanixio'ren asarrea ez da nolanaikoa. Afalondoan, biek gaitzat perretxikuak artu zutenean, bere amorruari eutsi eziñik, Joanixio'k:

–Aurten perretxiku gutxi, eta aiek nazkagarri oiek jaten dituzte. Jo eta denak garbitu arte ez naiz geldituko, nazkante zikin oiek!

Patxi'ri etzion batere grazirik egin Joanixio'ren ateraldiak, eta:

–Orixe falta zenuen, Joanixio, bareak akatzen astea... Ez al zera konturatzen aien bizilekua mendia dala, eta bizi izateko an beste janaririk ez daukatela? Bestela, zer jana naikoa edukita, gu joaten gera aien terrenora janaria kentzera. Eta nik, bareak jaten asitakoak bai, baiña, onena dala ere, une

artan barea jaten ari dan perretxikurik ez dut sekula bilduko. Ura berak aurkitua da, eta barea da nai duan aiña jateko. Zuk parra egingo duzu, agian, baiña ori orrela da.

–Parra ez baiña negar egiteko gogoia ematen dit zu bezelakoak. Bareari utzi perretxikua jaten? Azi eta ugalduko dira berriz ere... Ori egiteko, etzaude zu burutik sano, Patxi. Tajuzko perretxikurik nai bada, bare zikin oiekin nik egiten dudana egin bear da: makillaren punta eztena bezela zorroztu eta, zazta!

–Banekien biotz-gogorra ziñana, baiña ez nuen uste ain basatia ziñanik, Joanixio. Ze kulpa dute bareek? Zu zeran bezelaxe, diran bezelakoak dira aiek ere, eta zerbaitegatik egin zituen gure Jainkoak. Neri beintzat kalte aiña mesede egin izan didate, eta ez dut barrenik zuk egiten duzuna egiteko.

–Bareak mesede? Zuk bai egingo zenuke mesede ederra ixilduko baziña, orrelako txorakeriak esan gabe. Zer mesede egin dezake bareak?

–Begira, Joanixio: au ez diot beste iñori esan oraindik, eta zu zeralako esaten dizut. Barea perretxiku usaian ibiltzen da beti, eta perretxikua nun, barea ara. Eta dijoan norabideari jarraituz, perretxiku eder asko aurkitua naiz. Au ere zuretzat txorakeria izango da, baiña proba egizu eta esango didazu.

–Orrela ibiliko zera bai zu, perretxikutara joan eta bareak nora dijoazen begira. Eta ez naiz arritzen ekartzen dituzun zestokadak ekartzea...

–Zestokadak? Zuk baiño geiago bai aurten ere!

*El Diario Vasco, 1995.11.15*



# **Irri-mirrika**



Ona da irriparrea

Aitzakitza zerbait bear, eta zalantza prankoren ondoren langille bat zuzendariaren ofizinara joan eta dio:

–Zea, sendiko baten illetara joateko jai artu nai nuke, ba, biar...

–Oso gertuko al duzu senide ori?

–Bai, izeba.

–A, bai! Izan ere, zuk baduzu urteero iltzen dan izeba oietako bat.

Txakurra ortzetan platertxo batekin aldamenean zuela, an omen zegoen eskalea kale-ertzean, lurrean exerita. Alako batean emakume bat inguratu eta or ekiten dio, asarre bizian:

–Ain gaztea izanik, lotsatu egin bear zenuke kalean eskean ibiltzeaz, gizona!

–Barkatu, etxeakoandrea, baiña nik ez dut ezer eskatzen. Txakurra da eskatzen duena...

–Eta zuk zer egiten duzu orduan?

–Nik administraritza-lana egiten diot...

Afaltzeko asmoz jatetxean sartu zan batek gelazaiñari dei egin, eta galdetzen dio:

–Kaixo, gabon. Ondo afaltzeko aolku on bat emango al zenidake?

–Emango eztizut ba? Zoaz or aurreko jatetxe ortara.

*El Diario Vasco*, 1986.02.16



Erri txiki batean bi lagun pasiatzen zebiltzala apaizarekin topo egin zuten. Bi lagunetako bat komunista zan. Apaiza gaixo baten etxera zijoan elizakoekin.

Komunistak, ura ikusi zuenean, txapela erantzi eta apaiza pasa zan arte ez zuen jantzi berriro. Zer egin zuen ikusita, lagunak:

–Arraio-arraioa! Jainkoarekin asarre zeundela uste nuen nik...

–Beno, egia esatea nai badezu, kaso besterik ez diot egiten. Agurtu bakarrik. Itz egin, ez diot itz egiten oraindik, e?

Baserritar elbarri bat, besterik ezin egin-eta, etxe aurrean egoten zan eguzkia zanean. Eta ateraldia beti prest edukitzen zuen auzoko gizon oietako bat bere aldamentetik pasatzean zerbait esan bear eta:

–Eguzkia artzen, Joxe Manuel?

–Bai, eta goxo-goxoa dago...

–Jan ezazu, ba, goxoa baldin badago.

Aitona zaarrak ibai inguruan ibiltzeko oitura zuen, denborapasa. Ala zebillela, bat-batean, sekulako oiua entzun zituen:

–Etorri! Lagundu, mesedez, lagundu!

Ibai-ertzerara inguratu eta ito zorian larri zebillen gazteari galdezka asi zitzaion aitona:

–Zer duzu, gazte?

–Ez dakidala igeri egiten!

Ezer gertatuko ezpalitz bezela, buelta eman eta aurrera jarraitu zuen aitonak, esanez:

–Gaurko gazteak nik ez dakit zer nai duten. Neuk ere ez dakit igerian, baiña orregatik ez dut orrelako zaratarik ateratzen. Ez orixe!

Ostatuko jan-gelara bazkaltzeko asmotan sartu zan bati kamareroak:

–Zer nai zenuke?

–Leendabizi zopa, eta gero, aspaldiko partez, elefante-xerra eder bat jango nuke gustura.

Serbitzaria kontaratu zan adarra jo nai ziola, eta ixil-ixillik sukalderako bidea artu zuen bereala. Andik pixka batera etorri, eta ala esan zion bazkaldarrari:

–Barkatu, baiña sukaldariak esan dit xerra batengatik ez dijoala ura elefantea atera.

*El Diario Vasco*, 1989.04.26

Aberastu berri ziran bi emakume bilbotarren artean:

–Barkatu ezaidan ain berandu etortzea. Bitxi edo joia batzuk txanpainaekin garbitzen aritu naun, eta berandutu egin zaidan konturatzera...

–Tuntuna alakoa! Nik eztiñak denborarik galtzen orrelako uskerietan, neska. Nik, bein erabillitakoan zakarretara botatzen dizkiñak garbitzen denborapasa ibili gabe!

Ezkondu ezkerok ikusi etzuen lagun batekin topo egin, eta:

–Zer moduz bizi aiz, mutill! Oso txukun eta dotore ikusten aut. Orixe duk alkandora, eta ori duk trajea plantxatzea. Eztiat ezagutzen, baiña eztaukak nolanaiko emaztea, itxura danez!

–Zer esaten ari aiz. Neronen erropak garbitu eta plantxatzea izan uan leendabizi erakutsi zidana! Zer uste duk, ba?

Asteburua kanpoan pasatzera joan, eta kotxez kilometro pillala galanta egin ondoren, bide-bazterrean gelditu eta bi eskuekin buruari elduaz, senarrak:

–Jesukristoren abarka santuak! Ederra egin dut. Berogailua piztuta utzi ez dut, ba, etxean!

–Eta zer? Eztaukazu zertan kezkaturik.

–Kezkatuko ez naiz, ba! Eta etxeak su artzen badu, zer?

–Ez kezkatu, eztago batere arriskurik. Ni txarragoa egin dut: baiñuko iturriak irekita utzi ditut...

*El Diario Vasco*, 1986.05.08

Maniobra gogorak egin zituzten soldaduek, eta leertzeko zorian bukatu. Zutik egoteko ere etziran gauza. Atsedenditxo bat eman zietenean, sarjentoak:

–Nekatuta zaudetenok, eman pauso bat aurrera!

Soldadu txiki itxura gaiztoko batek ezik, denek eman zuten aurrera pausoa. Orduan, sarjentoak:

–Zu zera gizona, zu! Zu zera benetako soldadua! Ez nuen uste oraindik jarraitzeko gauza izango ziniñanik!

–Nik jarraitu? Pauso bat geiago emateko ere ez naiz gauza-eta?

Baserrira morroi joan zan gazteak, nagusiari:

–Emen ze ordutan jaiki bear izaten da goizean?

–Etxe ontako despertadorea astoaren arrantza izaten da. Bien bitartean egin lo lasai.

Leendabiziko egunean oso berandu egin zuen arrantza astoak, eta etzan asarre morroia. Urrengo goizean, ordea, ordu t'erdi goizago asi zan arrantzaka, eta morroiari etzion batere grazirik egin.

Irugarren egunean, goizeko lauretan or asten da arrantzaka asto madarikatua. Morroia jaiki eta, suak artuta, an dijoa ukuillura. Ateko atalaia artu eta, dinbi-danba!, astoa egurtzen asi zan. Ango zaratarekin nagusia esnatu eta ukuillura bera ere, an zer gertatzen zan jakin nairik. Morroia astoa jotzen ikusi zuenean:

–Zer ari zera?

–Zer ari naizen? Despertadorea konpontzen ari naiz!

*El Diario Vasco*, 1989.06.27

Bi eskale eliz-atarian nork zer emango zeudela, elkar begi onez ikusi eziñean bezala ala dio batek besteari:

–Aizu, eztakit baiña zuri dirua asko gustatzen zaizula irudizen zait...

–Bai, arrazoi duzu. Baiña emakumeak ere gustatzen zaizkit, e?

–A, bai? Ze emakume klase?

–Dirua ematen duten emakumeak.

Eroetxean zeuden ero guztiak, bat izan ezik, lanean ari ziran serio. Zuzendaria kontaratu zanean, geldi zegoenarengana joan eta:

–Zuk zergatik ez duzu lanik egiten?

–Nik lanik zergatik ez dudan egiten? Eroa naizelako, noski.

–Ori badakit, baiña eroek ere lana egin bear dute emen. Ez al duzu ikusten besteak nola ari diran?

–Bai, baiña ni ez nago ain eroa, ordea.

Bi emakume bere aurren doai bereziak goraldtu eta goraldtu ari zirala, onela zion batek:

–Gure mutikoak lau urte ditu oraindik, eta dagoeneko irakurtzen badaki. Eta ori asko ez dala, bioliña ere ederki jotzen du.

–Gureak, berriz, illabete besterik ez dauka, eta badaki bizimodua oso garesti dagoela, gero eta zerga aundiagoak ordaindu bear dirala, eta badaki, baitere, nere senarra lanik gabe dagoela...

–Eta zuk nola dakizu ori dena dakiela?

–Gau eta egun negarrez ixiltzen ez dalako.

Gaxoetxean gaixozain edo enfermerak, sendagillari:

–Zer moduz irten da gaixoa ebakuntzatik?

Eta sendagilleak:

–Ze ebakuntza? Ez al zitzaion ba autopsia egin bear?

Senar-emazteak meza entzun eta elizatik irten ziranean, emazteak senarrari:

–Ikusi al duzu gure aurreko bankuko andreak zeraman trajea zeinien ederra zan?

–Ez, ez diot begiratu ere egin.

–Eta eskubi aldeko emakume aren poltsa?

–Ez, ez diot ikusi.

–Eta zure ezkerretik zegoenaren soñeko urdiña? Jaialdi-  
ren batera zijoala zirudien.

–Ez, ez naiz konturatu.

–Etzerala konturatu? Nik ez dakit zertara joaten zeran zu elizara, gizona!

*El Diario Vasco*, 1992.10.16

Senarra lanik gabe gelditu zitzaion, eta emazteak, oso nairik gabetuta, egia jakin nairik ala galdetu zion:

–Zergatik bota zaituzte lantokitik, senar maitea?

–Nagusiaren arazoa da. Badakizu, bera beti exerita egoten da kolperik jo gabe...

–Eta orrek zer ikusi dauka zurekin?

–Edukiko ez du ba? Asko. Nere lagunek nagusia neu nintzala uste baitzuten azkenean.

Ezkonberri batzuk oizko eztaibada eginda etxeratu ziranean, senarrak emazteari:

–Zorionsua naiz, emazte; baiña pena bat daukat: zuk merezi bezin gizon lirain eta ederra ez naizela.

–Ez dio ajolarik, laztana; egunero lanean amalau ordu pasako dituzu-eta.

Uriburuan antolatu zan erakusketan lan batzuk aurkeztu zituen margolari batek. Erakusketa ikustera joan zan lagunak, animatzeko-edo, auxe esan zion:

–Jendetza izugarria zebillen margolanak ikusten, baiña nik ikusi ditudan koadro bakarrak zeureak ziran.

–Pozten naiz, lagun. Ez nuen uste alako arrakasta izango zutenik...

–Baiña, kontuz, e? Etzazula uste zureak gustatu zaizkidalako izan danik. Besteak ikustera arrimatu ere ezin zitekeelako baizik.

Enplegu-idazkaritzara lan eske joan zan gizon bat. Leiatillaren barrukaldetik zegoenak zer lanetan aritua zan, edo zer egiten zekien galdetu zionean:

–Begira, jauna. Nik itz gurutzatu leiaketa bat irabazi nuen oraintsu.

–Ezta gutxi, baiña zure lanari buruz galdetu dizut.

–Badakit; nik ordea itz gurutzatuak lanorduetan egiten nituen.

Lurgintza eskolan, ikasleak esandakoaz jabetu ziran ala ez jakin naita, irakasleak ikasleetako bati:

–Eta, esaidazu: Zein da sagarrak biltzeko garairik onena?

–Sagastian iñor ez dagoenean.

*El Diario Vasco, 1993.02.06*



Goizaldera ametsetan ari zala, senarrak:

–Kristina, Kristina, laztana!

Aldamenean zeukan emaztea esnatu zan nonbait, eta astindu bat emanez, kargu artzen asi zitzaion, esanez:

–Zein da Kristina ori?

Esnatu, eta bere egoeraz konturatu zanean:

–Etzazu gaizki pentsatu, emazte maite, Kristina ori igandean zaldi lasterketan bere alde jokatuko dedan beor baten izena da-eta.

–Orrela bada, ez det ezer esan, barkatu.

Urrengo egunean, gauean, etxeratu zanean, senarrak emazteari:

–Berririk bai al da neretzat?

–Bai, zutaz galdetuz zure beorrak deitu du telefonoz.

Oe berri bat nai zuelata, altzari dendara joan zan. Saltzailleak zer nai zuen galdetu zionean:

–Oe sendo bat nai nuke.

–Zuk nai dezuna, baiña oe sendoa nai izateko etzera, ba, ain pixu aundikoa ere...

–Ez, alaxe da; baiña lo astunekoa naiz oso.

Bapatean eta iñolako abixurik gabe, aspaldiko lagun baten txera joan zan. Lagun au diruz arlote xamar zebillen, eta, besterik ezean, azeituna batzuk atera zizkion maira. Ura ikusi zuenean, bixitariak:

–Aizu, gure errian azeitunak bazkaria amaitutakoan ateratzen dituzte maira.

–Bai etxe onetan ere, adiskidea!

Mediku sikiatra oietako batengana joan zan bein gizon bat. Eta gertatzen zitzaionaren berri medikuari eman ondoren:

–Orduan, diozunez, askotan nundik itz egiten dizuten ere ez dezu jakiten, ezta?

–Ez, ez dakit, jauna.

–Eta, noiz gertatzen zaizu ori?

–Telefonoz dei egiten didatenean, batez ere.

Lagunaren jarrera etzuen ulertzen iñola ere. Oi ez bezelako tankeran ikusten zuen, eta bein batean, jakin-miñez, zera galdetu zion:

–Zergatik zabilta orain ain zarpail jantzita?

–Esango dizut, ba. Orrela janzten naizen bitartean etxetik nerekin ez dala irtengo esan didalako emazteak.

*El Diario Vasco*, 1993.04.03



## Aurkibidea

---

|  |    |
|--|----|
| Sarrera . . . . .                            | 9  |
| Gaia emanda jarriak                          |    |
| Euskal Telebista . . . . .                   | 28 |
| Challenger'en egindako bertsoak . . . . .    | 30 |
| Aurtengo Iñauterietan zer egin? . . . . .    | 32 |
| Ondarru'ko arrantzaleak . . . . .            | 34 |
| Alkol-proba egin nai zidaten . . . . .       | 35 |
| Galdutako guardasola . . . . .               | 37 |
| Euskal Erria 84 . . . . .                    | 38 |
| Loiola Irratia len, orain eta gero . . . . . | 41 |
| Omenaldiak                                   |    |
| Asanza maisuari . . . . .                    | 45 |
| Andereño Maria'ri omenaldi egunean . . . . . | 46 |
| Arantzazuko Ama ikastola . . . . .           | 47 |
| Manuel Hospital'i omenaldi egunean . . . . . | 49 |
| Loiolatarren omenez . . . . .                | 50 |
| “Loiolatarra” elkarte berria . . . . .       | 51 |
| Felix Erdozia'ri . . . . .                   | 52 |
| Ildako lagunei jarriak                       |    |
| Basilioen omenez . . . . .                   | 55 |
| Xabier Sagarzazu . . . . .                   | 56 |
| Eriotza mingarriak . . . . .                 | 58 |
| Tomas Artano zanari . . . . .                | 60 |
| Andoniri . . . . .                           | 61 |
| Roke adiskideari . . . . .                   | 62 |
| Ramon Diaz'en oroimenez . . . . .            | 63 |
| Luis adiskideari . . . . .                   | 64 |
| Agustin Miner . . . . .                      | 65 |

## Pelotariak

|                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| Atano III . . . . .                 | 69 |
| Josemari Palacios “Ogeta” . . . . . | 70 |
| Goizuetako gaztea . . . . .         | 71 |
| Martinez de Irujo . . . . .         | 73 |
| Peñagarikano . . . . .              | 75 |

## Danetik

|  |     |
|--|-----|
| Iraupenik gabeko maitasuna . . . . .                   | 79  |
| Nai ta ezin . . . . .                                  | 81  |
| Pake-giroa nai . . . . .                               | 82  |
| Erriko taberna . . . . .                               | 84  |
| Eguzkia . . . . .                                      | 86  |
| Manuel Lekuona: Bertsolaritza eta euskera . . . . .    | 88  |
| Uraldi beldurgarriak . . . . .                         | 90  |
| Eguzkiaren irteera . . . . .                           | 92  |
| Kamiñoetako eriotzak . . . . .                         | 95  |
| Itsas-ertzean egunpasa . . . . .                       | 97  |
| “Txispitas” katua . . . . .                            | 100 |
| Loiola’ko San Inazio’ren gaztaroa eta garaia . . . . . | 103 |
| Maite dudalako . . . . .                               | 112 |
| Badaezpadako sekretarioa . . . . .                     | 114 |
| Obe ixil-ixillik egongo bagiña . . . . .               | 117 |
| Gizonaren mixeri eta sufrimentuak . . . . .            | 120 |
| <i>Marero</i> itsasontzia . . . . .                    | 122 |
| Elurraren ondorioak . . . . .                          | 124 |
| Modak mendean artuak . . . . .                         | 126 |
| Xagu xixtrin bat dala medio . . . . .                  | 128 |
| Felix Erdozia apaiza . . . . .                         | 132 |
| Erreguka natorkizu . . . . .                           | 133 |
| Uztapide gogoratuz . . . . .                           | 135 |
| Ongi etorri, Basarri . . . . .                         | 136 |
| Iñaki Perurena . . . . .                               | 137 |
| Aitona eta billoba Maddi . . . . .                     | 139 |
| Au desengaiñua! . . . . .                              | 142 |
| Aitonaren kezak . . . . .                              | 144 |

|   |     |
|---|-----|
| Giro berri bat sortu dezagun . . . . .                | 146 |
| Felix Erdozia'ri . . . . .                            | 148 |
| Anai Patxi'ren ezbearra . . . . .                     | 149 |
| Antiguako txapelketaren amaiera egunean . . . . .     | 151 |
| Perretxikuzale baten kontuak . . . . .                | 153 |
| Real zaleon kezka . . . . .                           | 155 |
| Eta orain zer? . . . . .                              | 157 |
| Joxe Migel Larrañaga'ren etxean . . . . .             | 159 |
| Gure artean   |     |
| Bertsogintza berriari buruz . . . . .                 | 163 |
| Bertsolaritzari buruzko iritziak (I) . . . . .        | 165 |
| Bertsolaritzari buruzko iritziak (II) . . . . .       | 167 |
| Bertsopaper leiaketen inguruan . . . . .              | 170 |
| Danetik   |     |
| Udaberriari kantari . . . . .                         | 175 |
| Lana eta ardura . . . . .                             | 177 |
| Derriorrezko euskalduntzea . . . . .                  | 179 |
| Gure aurrekoei entzuna . . . . .                      | 181 |
| Etzan oraingo konturik . . . . .                      | 183 |
| Astigarraga'tik Santio mendira . . . . .              | 186 |
| Jakingarriak . . . . .                                | 188 |
| Beldurra . . . . .                                    | 190 |
| Udazkena eta ego-aizea . . . . .                      | 192 |
| Sagardotegiak . . . . .                               | 194 |
| Ugaltzen ari dan gaitza . . . . .                     | 196 |
| Jakinduria, galdu eziñeko aberastasuna . . . . .      | 198 |
| Zerbait asmatu bear . . . . .                         | 200 |
| Galdu samartu dan oitura . . . . .                    | 202 |
| Lañeza . . . . .                                      | 204 |
| Ipuiak ( <i>Donostia Hiria</i> sariketarako idatziak) |     |
| Xanxon . . . . .                                      | 209 |
| Zubitxoa . . . . .                                    | 217 |
| Aitaren kasketaldia . . . . .                         | 230 |

|                                   |     |
|-----------------------------------|-----|
| Joanixio eta Patxi                |     |
| Merkealdiak . . . . .             | 245 |
| Emaztearekin eztabaida . . . . .  | 248 |
| Emaztea zer moduz? . . . . .      | 251 |
| Ondartzara joateko asmoz. . . . . | 254 |
| Oporretako kontuak . . . . .      | 257 |
| Merkealdiak berriro . . . . .     | 260 |
| Lagunen kezkak . . . . .          | 263 |
| Emaztearen eskubideak. . . . .    | 266 |
| Aolku batzuek. . . . .            | 269 |
| Lau-bost kilo sobrean . . . . .   | 272 |
| Opor garaia . . . . .             | 274 |
| Ederra martxa! . . . . .          | 277 |
| Su-emailleak tartean . . . . .    | 279 |
| Uso-garaiaren ondoren . . . . .   | 281 |
| Joanixio asarre bizian . . . . .  | 284 |
| Perretxiku-urte txarra . . . . .  | 286 |
| Irri-mirrika . . . . .            | 289 |





